

Joxemari Iriondo

Xanpun bertsularia





Manuel Sein Usandizaga *Xanpun* bertsularia 1928ko abenduaren 21ean jaio zen, Senpereko Olagarai baserrian; eta 2002ko urtarrilaren 17an hil zen, Donibane Lohizunen, sasoi beteko gizona. Lau urtez Ahetzen bizi izan ostean Urruñara joan zen Sein familia, amaren jaiotxe Xanpun baserrira, eta handik hartu zuen bere izenordea. Hamabi urtera arte ibili zen eskolan, baina ez zuen egunero joaterik izan, anaia zaharrenak gerlan baitziren –munduko bigarren gerlanean– eta haien baserrian lan askotxo zenez, gurasoei lagundu behar izaten ziren etxeko lanetan.

Urruñan ezagutu zuen iparraldeko ditzolaririk bizkorrenetakoa, Bixente Ezkierdo, eta txikitatik harekin ibiltzen zen. Hantxe ohartu zen berak ere bazuela erraztasuna ditzoka aritzeko. Bertsutan ere gazterik hasi zen, garai hartan Urruñan bizi zen Juan Joxe Eizmendi *Errexilekin*, Mattin Ahetzekoarekin eta abar. Hala ere, 17 urterekin Ezpeletan egin zen norgehiagoka, eta 18 urte zituela Saran egin zena gogoratzen zituen bereziki, sari ederra eman zioten-eta azkenengo hartan: 21 kiloko xerri pullita, hain xuxen. Ez zen hasarre!

Xalbador, Mattin, Zubikoa, Errexil, Ezponda eta abarrekin kantatu zuen; baita Basarri, Uztapide, Joxe Lizaso, Lasarte, Azpillaga eta abarrekin ere hamaika aldiz.

Donibane Lohizuneko *Begiraleak* taldean kantari nahiz antzerkia egiten asko saiatu zen, Monzon zenaren *Behorren ostikoa* eta *Zurgin zaharra*; edota Piarres Larzabalen *Matalas* eta abar egin zituelariok.

Joxemari Iriondo

Xanpun bertsularia

Auspoa Liburutegia

302

Xanpun bertularia / [biltzailea], Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ;
Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura
Zuzendaritza Nagusia, 2006.
406 or. : ir., argk.; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 302)
Aurkibidea
L.G. SS 1429-2006. - ISBN 84-7907-537-6

I. Iriondo, Joxemari, comp. II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed.
III. Título. IV. Serie.
821.361 - 1"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-537-6

Legezko Gordailua: S.S. 1429/06

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Joxemari Iriondo

Xanpun bertsularia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2006

Aitzin solasa

Manuel Sein Usandizaga, *Xanpun* bertsularia Senpereko Olagaraia baserrian jaio zen, 1928ko abenduaren 21ean. Gero, berriz, Ahetzen lau urtez bizi izan ondoren, Urruñara joan zen Sein familia osoa, amaren jaiotetxea zen Xanpun baserrira. Sei urte zituen Manuelek garai hartan. Baserri hartatik hartu zuen bere izengoitia bertsulariak, bistan denez. Eta izengoiti horrekin ezagutu dugu betidanik, nola bertsutan hala lagun artean eta familian ere.

Hamabi urtera arte ibili zen Manuel herriko eskolan; baina ez zuen izan egunero eskolara joaterik, anaia zaharrenak gerlan baitziren –munduko bigarren gerlategian– eta haien baserrian lan askotxo zenez, gurasoei lagundu behar izaten ziren sarritan etxeko lanetan, gogoan zuenez:

Eskola ere Urruñan izan nuen, nahiz eta hastapenetan Ahetzen ikasten hasi –Mattinen herrian, hain zuzen–. Etxean hogeita bi edo hiru animalia bagenituen, gero aita erreumak jota hil zen, anaiak gerlan ziren... Hamabi urte nituen eta eskolara noizean behin bakarrik joaten. Lehenbizi frantsesa ikasi behar, ez bait genekien euskara baizik. Leku batzutan euskara debekatua zen arren, gure eskolan ez. Etsamin eta sari batzu ere ematen zituzten bultzatzeko”.

Bertsutan hasi zelarik, honelaxe eman zituen bere lehenengo urratsak:

Urruñan bizi zen Euskal Herriko ditxolaririk bizkorrena, Bixente Ezkierdo, eta gu txikitatik harekin ibiltzen ginen, eta haren ahapaldiak entzuten genituen. Gaur ere gogoratzen ditut oraindik haren istorio batzuk. Han sumatu nuen nik ere banuela erraztasun bat ditxoak emateko, eta anaia zaharrenak zerbait erran eta beti hari ditxoak atera ibiltzen nintzan.

Bertsutan, berriz, halabeharrez, hamabi-hamahiru urte nituelarik hasi nintzen, erdipurdika, badakizu. Lagun artean aritzen nintzen. Olhetako plazan kantatu nuen lehenengo aldiz, garai hartan Urruñan bizi zen Juan Joxe Eizmendi Errexilekin, Mattin Ahetzekoarekin eta abar, hango jaiak ziren-eta (zimiko ederra harrapatu ginuen egun hartan!). Gero, berriz, beste saio batzuk ere egin genituen, lagunarteetan eta hola. Bainan, berexi, 17 urterekin Ezpeletan jokatu zen lehenengo norgehiagokaz asko oroitzen naiz, hartan parte hartu nuen. Hurrengo norgehiagoka, Luhuson izan ginuen, bainan han egindako bertsu saioa ez zen nik nahi bezalakoa izan, naski. Ez nintzen ongi aritu, sesitua eta kurraia gabe baizik. Ez dakit zer nuen barnean egun hartan. Handik guttira, 18 urte nituela, Hermandorena jaunak antolatuta 1948ko apirilean Saran egin zen bertsularien xapelgoan sari eder bat eman zerautaten: 21 kiloko xerri eder pullita, hain xuxen, eta ez nintzen hasarre! Xalbador jalgi zen lehen zaharretan, eta Mexikotik igorri zilarrezko txapela eman zioten. Zubikoa zen bigarren, eta aratxea (xekorra) eman zioten hari; eta gazteen prima nik jaso nuen, xerri pullit hura. Guztiz loriatua itzuli nintzen etxerat egun hartan. Gogoan dut oraino eskerrak emanez bota nuen berttua ere:

Bozkarioak ekarria daut begietarat nigarra,
xerri ttipi hau izanki-eta nik irabazi beharra.
Zubikoari aratxeño bat, Xalbadorrentzat zilarra...
Denak baino nahiago dut nik xerri txo hunen xingarra¹.

Gipuzkoan eta Nafarroan bertsulari asko zen, baina hemen ez. Handik aurrera saio eta jaialdi askotan ibili nintzen kantari, harat hunat, nere eguneroko zereginen arabera.

¹ *Herria*, 1976ko martxoaren 20an

Xalbador, Mattin, Zubikoa, Errexil, Ezponda eta abarrekin kantatu nuen hameka aldiz. Baita hegoaldeko bertsulari eza-gunenekin ere, hala nola, Basarrirekin, Uztapiderekin, Joxe Lizasorekin, Lasarterekin eta abar, Donibane Garazin, Kanbon, Baigorri eta abar. Hasieran agurra egiten genuen, eta gero gai bati buruz gainerakoa, azkenengo agurra heldu artio.

“Xanpunek beste ofizio bat izan balu, gehiago egingo zuen bertsulartzan”, esan omen zuen Uztapidek behin batean. Eta halaxe zen, seguruenik. Xalbador bera ere laborantza lanarekin-eta oso kezkatuta ibiltzen zen gehienetan. Eta eguneroko lanarekin eta zereginekin borrokan eta kezketan dabilen bertsulariak ez du bererik ematen ahal, lasaitasun gutti izaten baitu plazarako.

Jatorrizko bertsularia

Jatorriz, etxetik zetorkion bertsutarako zaletasuna Xanpuni. “Bai, gure amatxi zena ere, amaren ama, izigarri ditxolari ona zen. Eta aitaren anaia bat ere, osaba Paul, bertsutan ari- tzen zen inoiz, lagunartean bakarrik bazen ere. Beldur izaten zen jendearen aurrean ahalge eta ahul azaltzeko, bertsua amaitu ezinez gelditzeko beldurrez-edo.

Lagunarteko jardunari dagokionez, 16 urte zituela *Dios te Salve* eskean ibili zen lehenengo aldiz, bere lagunekin, Urtezahar egun batez. Baina atez-ate kantari zebiltzela, herriko bolanjerak gaizki hartu bide zituen, portalea errotik atera zuten-eta. Hala, jendarmeei parte eman zien norbaitek, eta haien aurretik pasatu behar izan zuen talde osoak. Jendarme haietako batek esan omen zion, hasarre: “Vous manquez de respect pour une gerdarmerie!”, eta kapelua buruan atxiki zuelakotz sekulako masalekoa eman zion. Hala ere, ixtorio horiek bere beldurra uxatzen lagundu zioten Manueli, eta bertsu saioetan aurpegia emateko ausardia lortzen.

Bainan bertsua ez da beti berdina Xanpunen ustez, era guztietako ahaleginak egin arren:

Entseatu naiz beti bertsulari alegera izaten. Ez naiz jakintsu bat, erran dena, ene lan eta okupazionearekin borrokan ari izan beharrez ez baitut astirik izan lantzeko. Bertzalde, “etxeko penak etxean utzi, aski zabalak baitituk, eta kanpoan alegera izan” –erran omen zuen frantses kantonier famatu batek. Eta ni ere horretan saiatu naiz. Ostatueta-eta ez dut nehoen beldurrik. Bertsularitza da egarri bat bezala. Lagunek erraiten daute-larik –emak, Xanpun!–, orduan lotzen naiz bertsutan gostura.

Kontuz bertsulariekin, umea!

Gazterik, 23 urte zituela, Anttoni Basurko ezagutu zuen bien lagun batzuen ezteietan, eta laster hasi ziren elgarrekin hitz egiten eta tratuan. Alabaina, Anttoniren ama ez bide zen batere seguru bertsulari hura bere alabarentzat egokia zitaiketen, eta –*Kontuz gero bertsulariekin, ume, edan egiten dute-eta!* –esan omen zion. Hala ere, 1952ko urrian ezkondu ziren, Donibane Lohizuneko elizan, eta Anttoniren ait’amekin ondo baino hobeki konpondu izan zen beti Manuel.

Lau haur izan zituzten, bi neska eta bi mutil. Haietatik bi bankoan ari zirelarik, “Bitxia ez bada bertzenaz! Erraiten diotet frangotan: zuek bankotan sosa zernahi aztaparretan ibiltzen duzue, eta aita sosa ezin irabaz ari!” esaten zien semei.

Langile handia

Bertsulariek alfer fama izan ohi zuten askotan, bai; bainan ez zen geldi eta atzera begira egotekoa Xanpun handia. Beti zerbaiti heltzeko prest zegoen hura. Familiako gizona izaki, hargin ofizioan hasi zen lehenik. Berak esana da honakoa: *Denbora batez, bi laneko segida banituen: udan arrantzale, eta neguan hargin.*

1963an beste bide bati lotu zitzaion buru-belarri: Hendaiatik hurbil, Haizebeako itsas-hegian Sobacok eraiki zuen arraindegi baten kudeaketan, hain justu. Arrainak baino gehiago oskoldunak, xangurro eta beste hazten zituzten han. 17 urtez jarraitu zuen lantegi horretan. Eta gero berriz ere gisa bereko lana hartu zuen Zokoan, baina bere kontura.

Bitartean, bihotzez maite zuen bertsularitzan jarraitu zuen, herriz herri, Xalbador eta Mattinekin lehenengo, eta haien oinordekotza eginez gero.

Erruz maite zuen ere euskal kantua; ahots bikaina eta belarri ona zituen, eta edozein kantaldi edo bertsu saiotan parte hartzen zuen herrian. Donibane Lohizuneko *Begiraleak* taldeak deitu zuen euskal-antzerki batean saioak emateko. Eta gogoan zuen aldi huraxe ere:

Bai horixe! Urruña berean gutti asko ari izana nintzen antzerkilari, ez nintzan, beraz, arrunt mundu arrotz batean sartu. Gogoan ditut segurki orduan eman genituen antzerki-saioak. Hala nola Monzon zenaren batzu: *Behorraren ostikoa* eta *Zurgin zaharra*; eta bereziki *Matalas*, hau Piarres Larzabalena. Baionan ere eman ginuen, eta orroit naiz aita Larzabal ikusirik loriatua, guri kunplimenduka, nigarra begian zuela...

Gizon atsegina, guztiz jendekina, bihotz handikoa eta artista hutsa izan zen. Bihotz onekoa eta umore handiko pertsona ere bai, bere alargunak askotan aitortzen duenez. Ez omen zen huraxe baino gizon atsegin eta gozoagorik etxean eta lagun artean.

Garai hartan ez zen aski ordea artista eta plazagizon izatea. Hortik ez zegoen etorririk eta zerbait gehiago egin behar zen familiara eguneroko ogia ekarriko bazen, euskal bertsularitza, antzerkigintza eta kantaritza ofizio antzuak baitziren orduan ere. Arestian esan bezala, urte luzeetan arrantzan ibili zen, uda partean; eta itsasorako girorik ez zenean, Urruña

inguruko harrobi batean, hargintzan. Neguan hargin, eta udaldia heltzean itsasora. Ezagutzen zituen Euskal Herriko eta Dakar aldeko itsasoak. Hala ere, ”*Hargintzan beti jarraitu izan dut piska bat. Ofizioa poliki erakutsi zidana Ziburuko Elizalde jauna izan zen, oso langile fina, eta langintza hori ez nuen nehoiz ahaztu, eta beti jarraitu nuen udan biberoan lana egiten nuelarik ere*”, kontatu zigun.

Donibane Lohizune maite

Senperen jaio eta Ahetzen eta Urruñan hazi harren, bere azkenengo kabia maitea Donibane Lohizune izan zuen, eta bihotzez maite ere, bere bertsuetan ikusiko dugunez. Herri honi loturik bizi izan zen 1952an ezkondu zenez gero. Biziki gogokoa zuen herri hauxe, askotan aitortu zuenez²:

Baina kantuak bezenbat goxatu nau beti soinuak, Urruñan klikan ere ibili nintzelarik pixka bat. Horra nola bi arrazoinez etorri nintzen Donibane Lohizunerat, 1952 ezkondu ginenean. Batetik, ene bihotzaren xori pollit Anttoni hemengo delakoz, eta bertzetik, herri maite eta alegera delakotz. Hor dira *Agur Deneri*, *Estudiantina*, *Arrantzaleak*, *Hegoak*, ene emazte Anttonik kantatzen zuen *Begiraleak* taldea eta abar. Eta nolaz utzi bazterrerat herriko *l'Harmonie* soinu talde xoragarria, Donibaneri horrenbertze goxa pasarazi diozkana? Ehun urteko soinu-talde gaztea, gora zu:

Gazte gaztea kantu lanean alegeraki naiz hasi;
soinua eta kantua biak hari beraz zaizkit josi.
Bozkalantzirik gabe ditaken norbeit bizi nork sinetsi?
Nahigabea ez ote doa zu entzun eta ihesi?

² 10 Octobre 1981. Centenaire de l'Harmonie Municipale – Ville de Saint-Jean de Luz.

Xanpunen alarguna mintzo³

Pasai Donibanetik iparraldera aspaldi etorri ginen bizitzera familia osoa. Gure aita zena makinista zen, arrasteroa; eta hemen *Ongi Etorri* barkuan lana eman ziotelarik, honantz etorri ginen, eta hementxe bizitu gera orduz gero, Donibane Lohizunen. 1936ko gerla zelata, hamaika iheslari eta lagun izan genuen etxeko ganbaran, gaizoak nonbaitean aterbe behar zuten-eta. Gure ama zenak zenbat lan egin behar izaten zuen! Inork izatekotan, harek bai merezi duela zeru ederra.

Xanpun nire senar zenari dagokionez, berriz, elgar ezagutu ezkontza batean, lagun batzuen ezteietan ezagutu genuen, Mayi eta Martzialen ezkontzan –badituzu Xanpunek heiei eginiko bertsuak hor paper horietan–. Ni emaztegaiak gonbidatuta joan nintzen besta hartara; eta Xanpun, berriz, senargaiak gonbidatuta. Eta handik izan genuen gure elgar ezagutzea, gauzak nola izaten diren.

Gogoan dut oraino oso ondo pasatu genuela ospakizun hartan, zinez. Jende ezagun asko zen besta hartan: Telesforo Monzon, Philippe Oyhanburu dantzari handia, Xalbador eta Mattin bertsulariak –ze barreak egin genituen egun hartan heiekin!–, eta abar. Xanpun eta ni, baktotxa bere aldetik, bakarka joanak ginen, esan dizudan bezala. Bainan elgarren ondoan jarri gintuzten bazkaltzeko. Arras mutil ederra zen Manuel, alaia, umoretsua. Eta dantzan-eta ibili ginen.

Handik bi-hiru egunera, Ibardinera egin zen eskursione batera joatekotan gelditu ginen, bertze lagun askorekin, jakina. Baina berehalaxe ikusi nuen nik zerbait nahi zuela mutiko hark. Hartan gelditu zen ordea dena, ordukotz behintzat.

Gero, urteburuan, Urteberri on opatzera etorri zitzaigun etxera, hemen iparraldean ohitura zenez. Eta gure aita zenak laster esan zautan:

³ 2005eko urriaren 5ean izandako solasaldia

–Umm, horrek zerbeit nahi din, ume!

Barre egin nion nik, bainan neu ere ohartua nintzen hortaz. Badakizu? Xanpunek ez zekien bere sentimendu onak gordetzen. Ispilua bezain argia zen hura, batere maliziarik gabekoa. Ur gardena bezala.

Hala behintzat, egunak joan ziren. Baina berehala eskatu zidan zergatik ez ginen elgarrekin ateratzen egun batzutan, elgar hobeki ezagutzeko, besterik ez bazen ere. Nik 23 urte nituen orduan, eta hark bat guttiago, 22 urte. Hura zen mutila! Galai bat zen, eta izan da beti Xanpun!

Dena den, nire gurasoei esan nien, ba, Xanpunekin irte-ten hastekotan nintzela. Gure aita biziki poztu zen; baina gure amak, seriooki esan zidan:

–Kontuz gero, ume, bertsulariekin, hoiiek edan egiten dinatete!

Eta kezkatu ninduen gogotik. Zer pentsatua eman zidan. Hala ere, nik ikusten nuen Xanpun –beti Xanpun deitu izan genion, baita etxean ere– gizon alaia eta umorekoa zela, baina hark ez zuela edaten. Eta zerbait edaten zuelarik ere, ez zela mozkortzen. Nik ez nuen sekula ikusi behintzat edanda. Ez zen, bada, gure amak esaten zuen bertsulari mozkor horietakoa. Eta halaxe hasi ginen elgarrekin irteten.

Halaxe joan ziren urte pare bat; eta gero, 1952an ezkondu ginen, Donibane Lohizuneko eliza ederrean. Egun xoragarria izan zen huraxe ere guretzat. Familiartekoak, gure lagunak, Mayi eta Martzialen ezteietan izan ziren Monzon, Oyhanburu, Xalbador, Mattin, Onaindiatarak eta beste lagun asko gonbidatu genuen. Gogoan dut oraino, egun hartan sekulakoak egin zituztela Mattin eta Xalbadorrek, bertsutan, ditxotan, txiste kontatzen... Ez ziren ixildu egun guzian. Denok dakigu Mattin alaia zela, baina Xalbador zenuen hor-

tik honakoa, beti seriosa ematen bazuen ere! Izigarrizko umorea zuen Ferranddok. Bertzeak bertze, gau hartan, hor hasi zen hondartzara joan eta bustialdi bat hartu behar zuela eta saltoka gure Xalbador. Zer barreak egin genituen! Gero, badakizu, Mattin eta Xalbadorrekin elgarretaratzen zenean, Xanpun ere haien pareko jartzen zen, oso adixkideak baitziren. Egitekoak egin zituzten behintzat egun hartan.

Etxean ere oso gizon gozoa eta atsegina zen Xanpun. Gure aita zena itsutua zen ordurako, eta batera eta bestera berak erabiltzen zuen beti. Oso elizkoia zenez, igandetan Karmelo Onaindia jaunak ematen zuen meza nagusira berak eramaten zuen, etxean zenean behintzat. Oso elgar maiteak ziren gure aita eta Xanpun. Eta bertsutara-edo joaten zelarik, nik zaintzen nuen aita gaizoa. Biok norabaitera ateratzen baginen, berriz, Karmelo Onaindiaren arreba etortzen zen aita zaintzera. Badakizu, harreman handia izan dugu guk beti Onaindiatarrekin: Karmelorekin, Albertorekin, Ximonekin, arrebarekin eta abar. Gure aita zenak bazuen barku ttipi bat, *Kepatxu* izenekoa, itsutu baino lehen, eta orduan auto gutti zelarik, hantxe ibiltzen ziren denak, bateko eta bertzeko.

Etxean ere gizon atsegina zela, esan dizut. Bai, eta bertsutara joan, eta eguna kanpoan pasata etxera etortzen zenean, hango pasadizo guziak kondatuko zizkizun, kontu kontari. Pozik joaten zen, eta gustura etxera etorri. Gure aita zena ere huraxe itzuli zai egoten zen beti, hark kondatzen zizkionak entzuteko irrika biziz. Sekula ez nuen hasarretuta ikusi etxean. Aita ongi zaintzen zuen, eta gu ere bai.

Bi neska eta bi mutil izan genituen guk, eta bidean galdu genuen beste bat. Eta Xanpunek ikusten bazuen haurrei inoiz gogortxo egiten niela, ni lasaituarazten saiatzen zen, esanez:

–Tira, tira, ama: Lasaitu zaite, eta hartu umeak gozo gozo, gaizoak!

Alaba bat badugu hila azkenengo urte hauetan, haur ttipiak aita alargunarekin utzita. Gogorra izan da hori guretzat, eta ez zenduke sinestuko Xanpunek zenbat sofritzen zuen hortaz hitz egiten hasten ginelarik! Bere alaba maitea, eta alargun eta biloba gaizoak burutik ezin izaten zituen kendu. Gogorra da, izan ere, oso gogorra!

Donibane Lohizunen, Urruñan eta hemen inguruko herrietako ekintzetan buru-bihotz sartuta ibiltzen zen beti Xanpun. Zela teatroa, zela kantua, zela herriko gorabehera zonbeit, laguntasunik behar bazen, han zenuen Xanpun beti, laguntzeko prest. Ni Donibane Lohizuneko *Begiraleak* talde ezaguneari sartua nintzen, eta bera ere hantxe ibiltzen zen eskatzen zioten dena egiten, laguntzen. Gizon zerbitzala zen oso, eta artista handia. Monzon jaunak askotan deitzen zion antzerkia egiteko-eta. Baita Zokoako apez Piarres Larzabal jaun erretoarak ere. Badakizu *Matalas* berak egin zuela ederki asko. Parisen ere izan zen bizpahiru bider antzerkia egiten. Eta Donibane Lohizunen urteoroz egiten zuten batto. Eta edozer eskatzen ziotelarik ere, “a, bai, bai!” erantzungo zuen hark.

Sukaldari jantzita ikusiko duzu hemen argazkiren baten, baina ez zen sukaldeko gizona, eta berak ere aitortzen zuen hori. Laguntzea gustatzen zitzaion, baina ez sukaldean eltze artean sartzea. Ez zuen asmatzen gainera. Beste gauza batzutan laguntzen gintuen, baina hortan ez.

Hark nahiko zukeen, seguruenik; baina ez dugu izan familian bertsularirik, aitaren oinordeko izateko. Baina bai dantzari iaioak. Gure seme zaharrenak egin izan ditu hemen Aureskua eta Kaxarranka, herriko jaietan. Eta orai, gure bilobak egiten ditu, argazkietan ikusiko duzunez. Ez dakit zergatik, baina Xanpun bera ez zinen dantzazalea; eta dantzariak ikustera ere guttitan joan nahi izaten zuen. Baina behin bere seme bat dantzan ikusi zuelarik, ordea, –Nondik

atera da hori holako dantzaria?– erraiten zuen, guztiz txundituta. Eta behin bere semea dantzan ikusiz gero, gustura joaiten zen heiek ikusi eta txalotzera. Harentzat ez zen etxeoak bezalakorik nihun. Horrelaxe maite gintuen, benetan.

Ikusi duzunez, bere izena deraman kalean bizi gera orai: *Manuel Sein XANPUN bertsulari kalea* izena deraman kaltetan. Alliot andere ministroa etorri zen Parisetik kalari izen hori ematera. Eta hementxe bizi naiz, seme-alaba eta biloben pozean, eta Xanpunez izigarri gogoratuz.

**Xanpunen
bertsupaperak**

Xanpunek idatzitako bertsuak

Ahoz ahoko bertsularia zen Xanpun, bereziki, bat-bateko bertsularia, alegia. Horrexegatik, haren ahoz ahoko batzuk bil-tzen ahalegindu gera eskuartean duzun bilduma hau osatzeko.

Hala ere, bertsu asko idatzi zuen, ez dago haren alargun Anttoni Basurkok eskura eman dizkigun hauek denak ikusi eta irakurri besterik. Egun eta urterik jarri gabe utzi zituen asko, bere ahaide, lagun edo herriko ospakizunetarako idatzi-ta asko eta asko.

Bertsupaper horietatik lehenengoa, 1946an argitara ema-niko hauxe duzu:

Urte berriz Urruñan

Omone on batean lotzen naiz bertsutan
gis'hartako suieta izanik eskutan.
Zendrotik mintzatu nahi nuke aldi huntan;
kontu eman azue ea zertan dutan.

Urte berri bezperaz, badu zonbeit aste,
kantuz ibili gira hiru lagun gazte.
Etxetan zerbitzatu ongi'in gaituzte;
gaizkik in ginuela ez ginuen uste.

Gaua ezin hobeki zitzaukun pasatu,
kantuz eta kurrituz otza're kasatu.
Bolanier batek haatik gaitu akusatu:
haren portaliak guk'tugula puskatu.

Gu ginela harturik jaun harek idaia,
jandarmetat inazi horrentzat piaia,
guri egun erdia galazteko doia.
Dirua hor xahutu zerbait bat in nahia.

Han aillatu ordu zen hasi komedia,
zorrozki heldu baitzen jandarmen galdia.
Delako urteberri gau hartaz balia,
bolanjer bati dugun hautsi portalia.

Errepostu eman dut harridur batian,
gaizkik ez dugu egin guk kantuz gatian;
gainerat ez kantatu jaun haren atian,
bertze frango igual utzi bitartian.

Present harturik baitut han nik bi zartako,
neronek ez baitakit gauz hori zertako.
Ez naiz presenta izan erran gis'hartako.
Gauz gutxi aski dute joa emateko.

Geroztik egin dugu hetak'itzulia;
aiten konpainian oraiko aldia.
Burus buru mintzatu portalen jabia,
ez dezala akusa faltarik gabia.

Bakea ez bait zen han arras aise bildu;
aitek afera zuten ezkutan ixildu:
portalien gastua gure gain agindu.
Deus etzen izain hori guk hautsi bagindu.

Hautsia naiz ikusi jaun harek prestina;
ongi pentsatu zuen gureztat sistima.
Doblia emanazi gustuen estima,
bertzentzat pagatzia zitzaukun lastima.

Abilki jokatu da aski zelakuan
gure sosak nahizik ibili golkuan;
gero ariko zela heiekin jokuan.
Ederki tronpatua baita oraikuan.

Pagatzen ditugula dut erranen haatik:
nunahi aituren dute gauza hau goratik.
Afer hortan eztugu dremen denen faltik,
pagatzen ditugula burasoengatik.

Behartzen zaiote ba giren gaztekuak;
burasuek dituzten gu gainek'eskua.
Jakin behar zuen bertzela ez ginela astuak,
eta haustelieri pagazten gastuak.

Guttirentzat gizona ernerik dabila;
edo segurak zauzkan bizpahiru mila.
Berriak egiteko ustez zen abila;
hautsi arrimatuez kontenta dadila.

Afer hau gertatu da Urruñia herrian
berrogoi seietik ta zazpiko gabian.
Espres emanak ditut holaxet kopian,
yendek kanta detzaten nahi duten tokian.

Champion

Bertsu hauek inprimategi batean argitara emandako Xan-
punen paperetan agertu ziren; eta ertz batean honela irakur
daiteke, eskuz idatzita: “1946”.

URRUÑAN LIZARRAGAN

LIZARRAGA DEN ETNE MAITEAN EGON BATZUK DIOTE
MUTRIK AZKAR DAT SORTU OMEN ZEN DUELA LAU OGAI URTE
BORTZ JAURRIDIKO SEDI EDIRAK ETNEA ZULEA HITE
BIOKODIKIN BAN ERKATSE ELKAN ZONBAT ZULEA MAITE

BATELOAK JEAN DAURA UTEAN DEJURIA ALDE DU BIKOS
BETE AGERTU UTEAN ZAKURRA BAN GURIZENTZ AKSI GAI
BIZI QUTAN ERAKUTSI DU HANBAT INOAN ETA KURAI
ANIMAEK AITEN DEZELA HORRI IBILTZEN ERE BAI

GAITE QEZIK BEZALA ERE UTEAN DITU ETZABADAK
HINU URTE ON KENDU DIOZKA BEHAR GABEKO ARMADAK
GERO BORTZ OBEI JASANAK ERE ALEMAREN STABOAK
ETA EGUNGA LANIKIN DU DEBALDE URTE AHAIK

GEROZIK DUA URTE MUTROK OIBARTO GABEAN JOAN
BARRON HAKI AZTO PASK BEZALA ANCI JALIEATEU GOROAN
PENTASUZ ERE ERE GERTALIKO ZAKURU HIRIDUN GERGAN
BATEK LERU XUHURRA BATEU GAU ATUQAN MURTE KORRIAN

GERO ANGENI POLUR BAI ZAKURU ETORRIA INKURUNA
HARAMBURTAN ANTOINEIA ZEN ZURE MAITE EDER URA
BIK ERKONDEZ HELDU ZIREZTE BURASO ONEN GRADURA
HINU SEME ETA BIRU ALABA EDER EKARITZ MURDURA

NOIU BEHAR URIS ETA URDUAN ETORRI ZAKURU MALINA
KURIPU BATEK KENDU BAITAKU ANCI GOKAERTZ SIDA
GEROZIK BURE UTEAN DABIL GURE ITZETAN ANCIURA
ZOR BORTZUA DEN ANCI ON BATEAN XHANSIEN ANCIURUNA

ZURE JAGUNA ERORTZEN BADA ZORILARIK GUDURA
LEPOAN HARTUZ SUGITU ZAKURU ZURE BIDAN ALIBERRA
GINDU BAZI HARTAN ZUK EGIN DIZU KANTUAREN URATS BERA
DAREKUN KARGA ANCIURU MAITIK JAGUNTZERAT HELDU QERA

ANAK DEZALA ORAI ZERHUK ZOMIOTSIKI QONITA
EGUNGA BESAN IRE MAITE HINU ZERRA JOSIA BAITA
SEME ALABEK ERE HOBET GORETSI DEJAGUN BAITA
LAU AKTU OGAI URTE BETERIK OIBANO GAITE DER ALIA

XANPUN

Aspaldiko ametsa

Jaun erretora, kartsuki duzu etxe hau benedikatu;
Jaungoikoaren eskuetan gaur hunen geroa finkatu.
Etxe huntarik atera bedi soinu eder eta kantu,
denak batean ditezen gero bozkario bilakatu.

Orain nai nuke hemen salatu begiz ikusten dudana,
bakotxak bere borondatea nola daukaten emana,
buruen buru ezin hobeki zoin ederki eremana.
Anaitasunak ekar dezaken indar berexien lana...

Hemen badago huts bat handia, nehork ezin baitu bete.
Nortaz mintzatu nai nuken orai gogorat jin baitzaiote.
Denek maite ta estimatua duzuen beti *Totte*,
zerutik ere bere ahala ekarria baitiote.

Zer egun goxo paregabea, gaur dena argi ta printza;
duela zonbeit denbora hori ezin baizitaken pentsa.
Berezia da, ez da dudarik, hau buruzagi batentza.
Charriez jaunak konplitzen baitu aspaldi zuen amentsa.

Xanpunen eskuidatzia.

Zorionak, Leontine?⁴

Herri-ageri batzuek egun guretzat salatu dute
izar pollit bat agertu zela duela lau hogoi urte.
Sougarret'tarren zeru ederra argitu zuen ta bete,
eta distira bera duela orai erakutsi daukute.

Azkainen sortu, Sougarret dauka sorterriko agirian;
Leontine aldiz eman zioten hango bataio-harrian.
Altxatuz gero orduko fede azkarra eta garbian,
hura zabalduz bizi da egun Donibaneko herrian.

Ezkontzaz aldiz izena dauka bizi den arte Agirre:
lagun maitea zerurat ganik bihotzez beti bat dire.
Hiru haur eder hortxe daduzka mundu handi huntan ere;
hirurak dira amatt'onaren bozkarioaren lore.

Gure bihotzak egun zer duan hitz huntaz dezala jakin,
guk denek zonbat maitatu eta maite zaitugun, Leontine.
Hartu dezagun haur eta lagun guziekin gaur atsegin,
gure artetik oraino luzaz ez dezala ihes egin.

⁴ Eskuidatzi hau euskaraz eta frantseses egina dago

Zonbait bertsu

Frantses eta alemanak

Berrogoi eta hamabortz urte laster egin behar ditu,
alemandarrek nola Frantzia osoa zuten bahitu.
Atzo etsaiak ziren, ta egun anaiki errezibitu.
Nork ez ote du bihotz barnean zerbeit zimiku senditu?
Ordutik zeuden zauri-saminak sendatzen ahal bagintu...

Aita Henri

Zure sorterri Donibanetik zorionak, aita Henri!
Mende erdi bat apez zirela, zinez baita zoragarri.
Gaur Beloketik otoitz hau dugu denek zeruko Amari:
zure fedea detzan ekarri zonbeit apez gazte berri.

Mende erdia

Berak egina mende erdia ta erretorak laurdena;
artzain horien inguruan da iragan besta hau dena.
Zoin goxoa zen eliza hartan pasa ginuen orena!
Iduri zuen berriz ematen ziotela han ordena.

Mezaemaile ukan ginuen gure jaun apezpikua,
jubilatuek ta zonbeit apaiz lagunez inguratua.
Berak egina euskarazko ta erdarazko predikua,
gure mintzaira ez jakin arren aski solas garbikua.

Aita Martin zena⁵

Anaia zinen, anaia zira, beti anaia izanen.
Azken agurra eskaini nahizik bilduak gaituzu hemen.
Apeztasuna ta anaitasuna zintuen ororen lehen;
gaur ikusazu bere saria zeruan zoin ederra den.

Jesus onari gorputz-arima eskaini dion gizona.
Ahal guziaz zabaldu duzu beti beraren hitz ona;
halaber Ama Belokekoa, ama ordaindu diona.
Gaur ukan azu bere ondoan betikotz den zoriona.

Mundu huntako epea zautzu, Aita Martin, orai bete;
lurrean eskas zintuenekin gaur zeruan goxa zaite.
Berdin oroitu hemen gaudenez, guk zonbat zaitugun maite.
Ez adiorik, gaur, Aita Mattin; bai zeruan ikusi arte.

Eba

Munduak ukan duen lehenbiziko ama,
Jaunak deitu zuen zu bezala: Eba.
Munduari eman ez lehen argi-alba
guretzat zira eta izanen ere ba.

Munduan jarri duzu hanbat gauza xutik:
zonbat grazia ukan zure eskutik!
Orai urruntzen zera gu gauden mundutik.
Atera gaitzatzu gauden ilunbetik.

⁵ Xanpunen lehengusu zenaren ehorzketakoan

Beloken ginden

(Airea, nahi bada: Ttipi ttipitik)

Beloken ginden mende bestaren azkenego egunean,
ai, zoin goxo zen, beti bezala, mendixka haren gainean!
Han ikusirik fraide guziak otoitzean ta lanean,
bozkarioa nasai zabilan kanpoan eta barnean.

Meza handia arratsaldean hasi zen lau orenetan,
meza bateri guk zor diogun osperik gorenetan.
Jainkoa maite adoratua, zerukoak ohoretan,
guti ikusten dugun bezala hari gaurko denboretan.

Jendea bazen nunaitik jina eguna ohoratzeko;
eliza ere ttipiegia denak barnean hartzeko.
Elgarri pusa eta tiraka ibili ginden sartzeko.
Zer seinalea, ez daukagula gure fedea galtzeko!

Meza emaile zen Etxegaray, gure artxapezpikua,
etxe huntako fraide abade fraideez inguratua.
Berberak dauku sarkorki egin eskuaraz predikua;
nor ez ote zen han berebaitan etsenpluak hunkitua?

Nola aintera itzultzen zaukun utzi duen ohantzera,
Marseille hiritik etorria zen bestaren ohoratzera.
Urrun izanagatik ez baitu mintzaira utzi galtzera,
zure ondorat etor gintazke etsenpluaren hartzera.

Guziak ziren eskuaraz, bai, kantu eta otoitzetan;
zer kartsutasun hunkigarria zagon elizkizun hartan!
Zoin zen ederra fraideak kantuz bizpahiru lau bozetan!
Zer goxotasun paregabea zabaldu zen bihotzetan!

Zeremonia bururatzean, hango aita Abadea
ginden deneri mintzatu zauku; zer talenduren jabea!
Aingeru boz bat goxo goxoa, bainan hitzetan trebea,
ez da galduko holako artzain batek duen artaldea.

Gero begira meza ondoan eliza inguruari,
Belok zonbat den estimatua garbiki baitzen ageri.
Jende guziak elgarrekilan, familia bat iduri;
ez da nahi den bezenbat aldiz ikusten gauz eder hori.

Iduri behar ginduela han gero ukan zerbait sari,
atera zuten, denen eskuko, zernahi jan eta edari.
Fraideak berak emanak ziren gu guzien zerbitzari,
zinez umilki jarriak daude Jesus onareñ hitzari.

Meza denboran bi bertsu hauek kantatu zituen Xanpunek:

Erran dezaket lekua dela bakearen iturria,
nola achantzi beti Beloken dugun ongi-etorria?
Zeruko atean ukaiten bada hangoaren iduria,
ez bide zauku dolutu behar lur huntako itzulia.

Pasaturik han oren batzuek zinez paregabekuak,
Jainkoari nai ditut eskaini biziko gainerakuak.
Haren bitartez detzala ere gur' Ama Belokekuak
munduan zabal eta azkartu holako bake lekuak.

Eskualdunen eguna ospatu zen Beloken, 1975eko irailaren 7an,
bertako fraideek antolatuta. Xanpunen bertsu hauek ederki adieraz-
ten digute zer izan zen hango besta.

Otoizlari, (1976, 80-81zk) 20-22

Quelques musulmans du pays m'ont appris aujourd'hui
qu'une jeune étoile était apparue il y a deux ans
sur le beau ciel de Soudan et l'étoile s'est levée
et qu'elle a le même rayonnement jusqu'à
ce jour.

À elle, à l'éclair, l'éclair est son nom dans
les archives de sa ville natale
l'écriture, l'avait en baptême sur la
page de son Baptême
Elle est ensuite dans la fin d'abord faite et puis
et la propagande
Elle hit aujourd'hui dans la ville de
St Jean de Dieu

✓ Ses son mariage, elle a nom, tant
que'elle s'en va, l'éclair
Son compagnon aimé, qui est allé au ciel
Sur le beau ciel, ils ont un
Fille, qui a trois enfants en ce monde
En trois jours leur mère, ont les fleurs du bon

✓ Elle dit aujourd'hui notre cœur.
Sur ce mot que'elle sache
Nous trois combien avons aimé et aimons l'enfance
Et nous trois, enfants et amis ensemble
Aujourd'hui pleurer et que
Et parmi nous et de long temps
Qu'elle ne nous fait pas de long temps
Xanpun

Gazteeri buruz

Gazte maitea, barkatu bainan hori zuri buruz doa;
ez, otoi, izan, ziren bezala, ilunbe gaixtoak joa.
Guk ere lehen hau ikusirik zen oso gauz arraroa,
bainan atxiki beti behar den bihotz argi ta beroa,
iluna izanagatik, beti geroa gerokotz doa.

Jakin behar duk, hola argi gaur zertako nator higana,
lehenago nik denbor'iluna aski diat iragana.
Orai ikusi bazter guzitan laneko ere duk tresna;
gazte maiteak, jakin azue tresna hoik noiz goberna,
eta hoieri eginarazi zuek hasi behar lana.

Gazte maiteak, halare, otoi, ez hor sobera asalda,
biharamuna jinen zaukula hori pentsatzen ahal da.
Beraz, dezagun gaurkoa hartuz beti biharkoa galda,
eta bizian gure geroaz ez dezagun ere duda.
Ilun beltzenak ere bazaukak beti bere goiz alba.

Xanpunen paperetan aurkitu orri batetik, makinaz idatzia.

Au Chipiron

Ahotik ezin utziak ziren jan ditugun xipiruak,
Donibaneko Kontxa maitean arrantzaleek bilduak.
Lahournere jaunak urrezko eskuz gintuzkien moldatuak,
beren tinta on eta beltxean baitzituen goxatuak.
Merezitua du duen fama *Au Chipiron* ostatuak.

Etzekoandre ta zerbitzari ohoratu nahi nituzke;
berekin duten grazia ona nunai baden ez dut uste.
Diren klienteak, izan ditela adineko edo gazte,
errezibitu bezin goxoki zerbitzatzten baidituzte:
Horra zergatik *Chipiron*-erat biltzen giren horrenbeste.

Xanpunen eskuidatzietatik.

Corinne eta Patxiku

Goresmenak, Patxiku eta Corinne.
Bizian behar dena beti gogoz egin.
Desira dautzuet ainitz atsegin,
atzo nola, egun, bihar berdin,
zuen bizia zoriontsu izan dadin.

Patxiku, segi beti bide berean,
izan kanpoan edo etxean.
Beti omore onean izan kantuz, pilotan
edo lanean; bizia balia ahal denean,
galdu baidaiteske ustekabeen.

Xanpunen eskuidatzietatik.

Udaberria

Udaberri, udaberri:
ager hadi, ager hadi.
Beti eder bezen argi
etor hadi, udaberri.

Negua da hor ahanzten,
bizia da berriz hasten;
iduzkia da ikusten
berotasun ona uzten.

Arbola du hostoz janzten,
eta ondo loreztatzen;
ta xoria kantuz hasten,
oihana du mintzarazten.

Udaberriko orenak
goxo eta sano denak.
Berdin triste ta hits denak
ahantziko ditu penak.

Udaberri, udaberri;
ager bedi, etor bedi.
Beti eder eta argi,
udaberri etor bedi.

Gora, gora udaberri!
Egin kantu eta irri,
denak alegera jarri
agur eginez elgarri.

Bazterra du loreztatzen,
erlea du hortik hazten;
goxotasunez betetzen,
parabisu bilakatzen.

Udaberri, udaberri:
ager hadi, ager hadi.
Beti eder bezen argi,
etor hadi, udaberri.

Udaberri, udaberri...

Xanpunen eskuidatzietatik.

Zorionak, Juanita

Gazte gazterik emain izana zira, andere Juanita,
mende erdi batez zuk egin lana hunkigarriena baita.
Nork ez dezake andere hori egun gorets eta maita?
Zer edergailu paregabea Garazik zaukan gordeta!

Hiru mila ta bortz bat ehun haur lagundurik munduratzan,
zer familia xoragarriak zaituen gaur inguratzen!
Zonbait gora ta bera jasanik, nehork ez du hau dudatzen:
egina duzun lan eder hori ez da errexa mugatzen.

Gau eta egun oinez ibiliz zelai eta mendietan,
urratsa ez zen aise egiten orduan ziren bidetan.
Argia ere ba ote zuten etxe maite horietan?
Emain batentzat zer buruhauste beldurkorrak denbor'hetan.

Haur maite eta ama on baten bizia maiz eskuetan,
ibili behar galde egina beldurrezko lekuetan.
Han ez zen behar egin nola nai urrats txarrik debaldetan,
handia baitzen amagai baten konfiantza zure baitan.

Nori ez zaio gaur gogoratzen gerla aleman denbora?
Jendeak hilez, denak erhautsiz erretzen zuten bolbora.
Zuk, aldiz, beti bizia lehen salbatu eta ohora!
Pasa dituzun irrisku beltzak egun etorritz gogora.

Lan eder bezin baliosa zen zuk egin duzun guzia:
ainitz gostarik atera duzu araberako bizia.
Duenak eman eta ez duen hari debalde utzia.
Hor ikusten da bihotz on baten edertasun berezia!

Ez nuke nahi senar maitea bere lekutik baztertu,
dudarik gabe ama laguntzen parte on bat luke hartu.
Ez ote dio bere lanaren bertute hori azkartu,
lanaren zama beldugarriak ama ez zezan lehertu?

Nori ez zaio gogoratuko gerla aleman denbora?
Jendeak hilez denak herrautsiz sutan zaukaten bolbora.
Zuk aldi guziz haurren bizia salbatu eta ohora;
egin zituzten basakeriak heldu zauzkigu gogora.

Nola fedea ez zen orduan ahulezi berak joa,
haur bat sortua zen bezin laster zuen bere bataioa.
Orduan ere len urratsetan zinen, erran gabe doa,
segurtatzeko haur maiteari gorputz-arimen geroa.

Bi haur maite ta zoragarriak dituzunak munduratu:
bat etxearen segida eta bertzea aldiz mediku.
Amaren dohain hartarik ere hortik erakusten dauku,
biek gaur egun hartu bezate amak utzi hanbat leku.

Xanpunen eskuizkribuetan bi saio ezberdin agertzen dira.
Biak bateratu ditugu hemen.

Aitor dezagun eta abar

Aitor dezagun dudatu gabe gure hutsen ezagutza,
galtzerat uzten ari dugula gaur arbasoen hizkuntza.
Oso eria dago arima galdua duen gorputza;
ezin barka den huts lazgarria genduke hori guretza,
A.E.Kk eman bidea hartuz ekar dezogun laguntza.

Zorion guti

Biziak dauka lur triste huntan zorion guti, asko gaitz;
ustekabeko kolpe bortitzak ekartzen ere ditu maiz.
Begiak lauso, bihotza zauri, zu galdurik zaude, Arkaitz!
Lagunen azken agur beroa eskaintzerat etorri naiz.

Kontu ta berrixka

Agerkari ttipi bat naiz orai xirrixta,
gero luzaz argitu nahi duen ximista.
Lehenik goستن dut amatxoren besta,
kondatuz gero zonbeit kontu ta berrixka,
denen eskuko jarri dugun dohain pixka.

Hauteskundeak

Hauteskundetari ikusten dugu: Frantzia pusketan dago.
Azaildura kauk ez ote dauzka guk uste baino barnago?
Ipar Euskadik ere egina dio bertatik: hordago,
Aberriaren alde eginez beti urrats bat gehiago.

Elkartzearen indarra

Gure mintzairai zor diogu hau ezar zor zaion heinean;
orai artean kanpotiarrek ibilki dute menean.
Hau salbatzeko haslari gira ta lotu gaiten lanean;
ezar dezagun hori nagusi kanpoan eta barnean.

Ainitz badira traban daudenak, hori nahi dutenak hautsi;
hoieri behar zaiote orai bertze zerbait erakutsi.
Mugarik ere ez dugula, ta hori ez gogotik utzi.
Denek baturik zer indar dugun hor har dezaten zuhurtzi.

Xalbadorri omena

Alde batetik eurixka hotza, seinale negua da hor;
bainan halare Urepelekoz gaur ez da beldurtu nehor,
zeren-ta hemen guk baitaukagu berotasun eta leihor.
Gauden gaur denak, anai-arrebak, beti horrelaxe gogor!
Arratsalde on deneri eta eskerrak zuri, Xalbador.

Xanpunen eskuidatzietan aurkitua.
Urepeleko omen-egunaren ostean idatzita, nonbait.

Teodoro Hernandorenari

(Doinua: Mutil koskor bat)

Haste hastetik agur bero bat zuri, jaun Hernandorena!
Bertsutan egun nahiko nuke goratu zure omena.
Bai, zorigaitzez ez dut nahi orduko ukan holako orena.
Zu, bertsolari garen guzien sustengu izan zarena,
omen batekin ezin ordaindu denek zuri zor duguna.

Bertsularitza zuri esker da Iparraldean atzarri,
ta eskas zuen berotasuna zuk bai diozu ekarri.
Gu denen bila ez ote zira ibilia herriz-herri?
Gure artean anaitasuna gainera zinuen jarri:
betidanikan izana zira ipar-hegoen lokarri.

Goresmen hori, jauna, zinuen aspalditik merezia;
egun hortako hautatu dugu otsailak duen zortzia.
Sara daukagu bertsularien ihesleku berezia.
Ez ote duzu hortan ereina bertsuetako hazia,
hartu dezazun zure lanaren esker onaren grazia?

Teodoro Hernandorena jaunaren omenez egin zen Bertsulari Eguna Saran, 1987ko otsailaren 8an; eta jaialdi hartarako jarri zituen Xanpunek bertsu hauek. Gero, 1987ko otsailaren 5eko *Herria* astekariaren 1889 alean argitaratu zituzten.

Teodoro Hernandorenari

Ipar-hegoak bilduak gaude, hitz batez diot gaur betan,
anaia on bat ezarri naizik denek egun ohoretan.
Hernandorena jaun, ez nakien, ez, lehengo denboretan
hoinbertze lan ta hoinbertze egin duela bertsu obretan;
bainan gaur senditzen dut hemendik nagola horri zorretan.

Ez du atxeman gu atxemanda menturaz ez jakintasunik;
beharba ere ez du ez ukan behar zuen erantzunik.
Bainan bihotz baten gainean gaur kezka zerbait badaukat nik:
egun bezenbat berri hunentzat lenago ez hor ukanik...
Hernandorena izan ez balitz izanen al zen Xanpunik?

Arbol eder bat bilakatu zen zuk han atxeman muskila;
eta hortako hartu zinuen erromes baten makila,
eta arekin ibili zira herriz herri gure bila.
Egun eskertsu nai zaitut hemen mintzatuz umil-umila.
Bihotz-bihotzez, Teodoro, hau: eskerrak mila ta mila,
eskerrak mila ta mila!

Herria, 1987, 1889 zbk.5

Herriz herri, 1987, 315 zk. 3

Herria, 1994.12.22

Oharra: "Hernandorena jaunak duela zonbeit egun utzi gaitu...
1987ko abuztuaren 2an omenaldi bat egin zioten Saran; eta
huna Xanpunek eman ziozkan bertsu ederrak".

Itsasoa

Zure aldera itzulia dut begien beteko soa:
kolorez urdin, zoin ziren eder, zabala bezin gozoa.
Edertasuna lurretik beha beti daukazu osoa,
aberastasun paregabea baitzira zu, itsasoa.

Zureak dira eremu handi zabala bezin luzeak,
hortakotz gira zuri begira lurretik ezin aseak.
Duzun bakea puskatzen dautzu mendebaleko haizeak,
edertasuna ematen dautzu gainerat hasarretzeak.

Orduan dira zukan heldu beldurgarrizko uhainak,
zilar kolore eder bat hartzen du orduan zure gainak,
pauza lekutik atzarraraziz erdi lo diren arrainak,
behurririk ez duelakotz zure indarren dohainak.

Zurea dugu beldurgarrizko indar bortitz berezia,
ez ote ziren ainitz ait'amen nigar malkoek hazia?
Gostua ere horrengatik du orai den bezin gazia.
Denen gainetik betikotz duzu paregabeko grazia.

Euskonews & Media orri batetik,
Euskal Herriko Bertsozale elkarteak.

Euskadi zaharra

Goretsi dezagun denek Euskadi zaharra.
Bihotzetan piztu dauku indarraren karra,
erakuts dezogun beroz zoin dagon azkarra.
Gora Euskadi eta euskaldun indarra!

Hizkuntzarekin dauzkagu kultura, kirola,
zoinek irakinazten bait dauku odola.
Semeon semeak jarraiki nai badute hola
Euskadi maitea ezin galdu da nehola.

Aizkolari izan, berdin harria jasotzen,
edo arraunlaria itsasora jotzen;
orgen altxatzaile edo lastoa botatzen,
beren indarrarekin gaituzte jostatzen.

Berdin pilotaria harrika plazetan,
nola dantzaria den zuzen urratsetan.
Soinulariak aldiz, goiz ta arratsetan,
bozkarioa dute sortzen bihotzetan.

Donibane Lohizune

Nork ez ote du ikusi edo bederen famarik entzun
zoin eder eta zoragarria zu, Donibane Lohizun?
Edertasuna eta gainerat zer ixtorioa duzun!
Hau ikusteak berak gizon bat egin dezake jakintsun.

Alde batetik itsasoa du, bertze aldetik mendiak.
Zuri begira akitu gabe alha ditazke begiak.
Izar itxura ematen dautzu goiz-albak utzi argiak,
eta urrezko jantzi eder bat iguzki-sartze gorriak.

Arrantzaleak, baserritarrak eta berdin hiritarrak,
elgarretarik bildu ditzagun gure herriko indarrak.
bere lekua atxiki dezan gure hizkuntza zaharrak,
beti geiago distiratzeko Donibaneko izarrak.

Bertsu hauek, 1997ko martxoaren 20ko *Herria* (2397. alea)
aldizkariaren orri bereizi batean argitara eman ziren, “**Itzuliño
bat Donibane Lohizunen gaindi**” izenarekin, Donibaneko
herriaren historia honela laburtuz:

*Dena dela, azkenean jendeak plantatu ziren Urdazuriko ur
hegi hortan, bazterra dena lohia izanikan ere. Hor eraiki
herrirka berriaz idatzia dagoen lehen aipaldia kausitzen da
eliza-paper zahar batzuetan. Paper horiek 1186an argitara-
tuak. Herriaren izena, Sanctus Johanes de Luis. Handik
berrehun urteren buruan, aldiz, Johan de Lohitz da agertzen.
Euskaraz, toki hori Lohitza deitzen bide zen, lohiaren gatik.
Eta Donibane, Joanes Batista sainduaren ohoretan, bixtan da.
Behin Donibane Lohitzune beraz, eta orai Donibane Lohizune,
arteko “t” hori bidean nunbait galdurik...*

Xuberoa⁶

Euskadiko eguzki aldeko hegala
ez zira luzea, ez, ta ez ere zabala;
bainan bihotzean hor duzun ahala
sendiarazten duzu hori berehala,
bihotz eta arimaz euskaldun zirela.

Goazen Xuberora Mauletik eta Larrora;
amets goxo batentzat behar den denbora,
hor ibiltzen goxo da, eskuin, ezker ta gora
begiratzuz gero badago nun xora.
Nork ez dezake, beraz, Xubero ohora?

Nola zu, Atharratze Xuberok Baratze;
Liquet Thare ta bertze, daukatenak hartze.
Xuberoko xorien biltoki, ohantze...
Munduan ez daukate denek horrenbertze.
Denak aipa bezazke ez balitzaut luze.

Nola ahantzi hemen gure Hiru Hiri?
Mendixka baten dagozi, arrosa iduri.
Hemendik aritu baitzen Etchahun kantari;
bere bizia gandu denen zerbitzari,
kantu ta soinu eskainiz guziari,
dohaina eskaini du Herri guziari.

⁶ Xuberoa gai harturik saio asko egin zituen Xanpunek.

Agur berriz, Xuberoa!
Zaude beti zu beroa,
leku goxo, arraroa,
segurtatuz geroa.

Xanpunen eskuidatzietan aurkitua.

Agur eta ohore

Duela hogoi urte moldatu gaituzu gora goraki.
Zer buruhauste ukan zinduen zuk bezin argi nork daki?
Zuk eman bide eder hortan da hau beti gorago jaiki.
Esker onezko goresmen hau gaur dugu kantari.
Denek zaitugu ekarki.

Agur, ohore, bihotz-bihotzez guk zuri, Beñat Charriez.
Zuk egin lana ezin ordaindu gaur guk eskaini sariez.
Gure bihotzak salatzen zaitu gaur kantu bat edo biez.
Zonbateraino estimatua zaren gure kantariez!

Izan bankoan, izan kantuan, baduzu ainitz botere,
omere ona lagun zabilta apez kartsu baten pare,
zure lanetan erakutsiaz bertute eta botere,
denak gidatuz, zuzen fermuki apez kartsu baten pare.
Erran zaharrak dion bezela, beti azken hitza bere.

Xanpunen eskuidatzietan aurkitua.

Jesus Zubeldiari

Ama maiteak zerurat buruz ziola *Magnifikata*
leihu hegian xori pollit bat pausaturik zion kanta.
Hegazkin harek bide zakien zu mundu huntarik gau-ta
beretzat ere izanen zela ama goxo on bat falta.

Goxatu duzu herio latzak utzi ordu bihurria...
Nola ahantzi zuk egun hortan eman duzun irudia?
Zure kantuak ez ote zuen mezu baten intziria,
aingurutxo bat zinela gure ama bila etorria?

Geroztik ez da gure etxean leihu maite hori hesten;
eta zendako xori maiteak ez du gehiago abesten?
Ama eta zu egun berean zeruratu baizinezten,
eta geroztik ari zaizkigu Salbatzailea goresten.

Xanpunen eskuizkribuetan aurkitua.

Jesus Zubeldia (II)

Leku goxoa bezin maitea nola den Hondarribia
alaitasun ta ere berdin da nortasunaren kabia.
Egun batean xoko hortarik haize goxoaz balia
airatu eta Ziburun egin du bere pausa balia;
geroztik gure errexinola dugu Jesus Zubeldia.

Hondarribitik airatu ordu pausatu baitzen Ziburun
bi kabi goxo eta maitiak ez dira elgarri urrun,
hor dauka beraz maitez hautatu xori pollitño bat lagun.
Senide goxoz inguratuak ikusten ditugu egun,
erakutsiaz nola gintazken euskaldun eta fededun.

Zonbat talde den gaur zuri esker ibilki airoski kantuz,
zuk moldatua gaur dauzkan bozak zuzenduz bezala lantuz.
Zer lanak eta buru haustek denak zure kondu hartuz!
Zerbeit ordaintza egin nai dugu omenaldi hau moldatuz,
gaur bereziki zure omena ta nortasuna goratuz.

Gizon argia zira bai buruz eta halaber eskuz;
gure xokoa alaitu duzu bai kantuz eta bai txistuz.
Zuk dakizuna bertzeri ere agertu eta erakuts,
ahal guztia zabaldu duzu herri maiteari buruz.
Egin gaituzun ongi guziet millaka eskerrak, Jesus!

Herria, 1989, 2024 zbk. 4
Hondarribia, 1989, 34 zk 9

Hogoigarren mendea⁷

Azken pausurat heldua zauku gaur hogoigarren mendea;
zer ekarriko duen ondotik lur osoa dago beha.
Ondorioa izanen denetz jendetasunik gabea,
edo bertzela baketsuago, guk uste baino hobea.

Aurrerapenak handiak dira iragaki den mendean;
baina, halaber, gerla gaixtoak berekin dauzka aldean.
Handiak beti ttipia naizik atxiki bere menpean,
iraultza ainitz etor ditazke oraino ustekabeen.

Strasburg aldetik joko omen du helburuaren ezkila,
hogoi menderen hatsa emanik gelditu zaukula hila.
Urte guziak bete ondoan badirela hogoi mila...
Hastean zuen itxaropena orai berriz pitz dadila.

Salbatzailea otoitz dezagun lagundu gitzan guziak.
Beren eskugain osoa hartuz zuzentasun zuhurtziak.
Mende berriak sendatu detzan bertzeak eri guziak,
Haize gaixtoak ez detzan galdu salbamenduzko untxiak.

Xanpunen eskuidatzietan aurkitua.

⁷ Hogeigarren mendeari bertsu ezberdinak eskaini zizkion Xanpunek.

Mende zaharra

Itzali zaukun mende zaharrak urteak zauzkan bi mila;
bere omena alde guzitan zoritxarreen dabila.
Atera dauku ate-xokoan gorderik zaukan makila,
ondatuz ainitz bizitza eta halaber zonbeit familia.
Salbatzailea dolu horiez, otoi, urrikal dadila!

Oroit dezagun eskura ahal guziaz mende berria,
sendatu dezan zaharrak eman kolpe ikaragarria.
Gizonak daukan ahulezia dauku hor bistan jarria,
atxik dezagun beti pixtua esperantzaren argia,
osagarrian goxa dezagun familia ta herria.

Xanpunen eskuidatzietan aurkitua.

Alejandro

Gure artetik zauku airatua Alejandro.
Zeru gainetik begira zaude, guziak baino gorago.
Bainan zuk utzi bihotz min latza beti berdin bizi dago.
Ez ote dauku dolumin hori oraino jarri barnago?

Xuri dira zure ondoan ainitz pena negar malko,
gure artean ez baitzaitugu berriz ikusten ahalko.
Bainan dakigu, zeruan zaude zoriontsu sekulako;
sinesten dugu Jesusek berak hitzeman daukulako.

Bihotz oneko gizona eta ongi egitea maite;
fedezko zure eginbidea beti ongi duzu bete.
Ahal guziaz nehorri egin gabe hemen zerbeit kalte,
utzi gaitutzun etsenplu ona denek gogoan daukate.

Ordenagailuz eginiko bertsupapera,
beste xehetasunik gabe Xanpunek emana.

Herrira begira

Eskuara baitugu sortzetik hizkuntza,
galtzerat ez uzteko egin zor den funtsa.
Ahal guziaz berdin emanaz laguntza,
munduak egin dezan bere ezagutza.

Zuri, gorri, ferdea gure koloreak,
sasoin guzitan bizi ditugun loreak.
Ukan detzaten berdin gure ohoreak,
zazpi probintzi eder dauzkate gordeak.

Atxik dezagun, beraz, guretzat gorderik,
salbatzeko ez baita gaur bertze molderik.
Itsas-mendi artean ez da deus pobrerik;
mundu guziak ez du hau baino hoberik.

Ari izan naiz lehen itsaskiak saltzen,
guti irabaz eta gehiago galtzen,
Kontrario ainitz ta diru guti sartzen.
Bide hortarik ez da etxerik azkartzen.

Nun ditugu antxoak, halaber sardinak?
Kosta hegitik dira gaur ihes eginak.
Handiek lehertuak, hauk ttipien grinak!
Hola idortu dira gaur itsas-ezkinak.

Politika hortarik zer ematen duten:
gezur larri-larriak hor dira entzuten.
Sakelak bete arte barnean irauten,
gerokotz utzi gabe baliatuz aurten.

Politika kontuan konfidantza guti,
hor dabilta gaur hoiek goiti eta beiti.
Nun aurkituko duzu hor hainbat gezurti?
Egun erortzen dena bihar berriz xuti.

Laborari maiteak, nun dago laguntza?
Nork ote gaur egin zuen ezagutza?
Zernahi eskaintzeko ta eskas beti funtsa...
Handiak bete eta ttipiena hutsa.

Rusoek atomika, angelesek behiak,
nunai kausi ditazke erotzeko gaiak.
Ongi eutsi gaur, otoi, baserriko lehiak,
ez bagira haragiz aseta hil nahiak.

Laborantzan ari den angles erregina,
hortan dauka menturaz bere atsegina.
Biharamunez ez du honek ainitz grina:
bertzen bizkar badauka naikoa egina.

Gizona baditake ustez den jakintsun,
haste gabetan berdin da sobera urrun;
Holako gauza batzu badabilta egun:
gaude herioa gaur hortik jinen zaukun.

Nola berdin Rusian zuten Txeernobilen
atomika aireaz zonbat zuten hilen!
Gureganatu balitz, gu're hilen ginen.
Arrazoina zer ahal zen nork zuen jakinen?

Gainera berdin egun ditake ikusi:
Jainkoa bazterturik, dirua nagusi.
Elgar beharrez beti pusketan erhautsi,
zeruko bake ona hunat bedi jautsi.

Hortaratzen bagira ezin ukatua
holako hutsa dela ezin barkatua.
Burasoek ere guk parte bat hartua;
hortakotz da frantsesa hoinbertze sartua.

Soineko bat hartzea, hori ez da aski;
ez gaitezen bilaka kanpotar maraski.
Bihotzaren zauriak orai erakutsi,
gerokoz ez detzagun, otoi, hola utzi.

Geroak ote gaitu hoinbertze izitzen?
Ikas dezagun denek bakean bizitzen.
Hura ere bilatuz omen da kausitzen...
Bake hori uzteko Xanpun da ixiltzen.

Xanpunen bertsupapera.

Xanpunen galtzak, eta zenbait

Otarre eder baten barnean gozagarri diren gauzak:
ahatekiak, bai eta ere, benapartar onddo beltzak.
Horiek janez zer gixendura dukena Xanpunen gantxak!
Berriro ez ditu errex lotuko gerrian galtzak.

Lapurtarren eguna

Igande huntan goستن dugu lapurditarren eguna,
herrialde on maite huneri betidanik zor duguna.
Itsas-mendien arteko lore ospetsua zaituguna,
bihotzez izan beti bezala zaren bezin euskalduna,
eta erakuts kanpotarreri herriaren nortasuna.

Pilotarien xapelgoak

Orai ditugu luzatu gabe pilotarien xapelgoak;
zer arrakasta duen munduan hain gurea den jokoak!
Argitaratzen baititu gordean dauden xokoak,
gaur pilotari lotu detzogun bihotzak eta gogoak,
anaitasuna osa dezaten iparrak eta hegoak.

Agur beroak

Agur beroak dauzkat zuentzat, Andrea ta Maikel Bidart.
Zuen etxerat etortzeko gaur baduzue naiko indar,
xanpaña xorta goxo bat hartuz dezazuen atsegin har,
gaur bezalako bixita egin dezazuen berdin bihar.

Guy maiteari

Senar maitea, aita goxoa, paregabeko aitona,
famiak duen goxotasuna beti ekarri diona.
Lagun artean maitagarria ta itsasoko gizona.
Guy maiteari eman Zuk, Jauna, betikotz den zoriona.

Sasoin onena

Sasoin bakoitzak berekin dauka zor diogun iraupena,
biekin ere ez ote dugun kanbiatu nai orena.

Lanek badute beren aldetik beren on eta kemena,
bainan neretzat duten adinaz huna zoin dutan onena:
uso maiteak Euskal Herrirat deramazkan udazkena.

Arrabotsa

Arrabotsa da, hala diote, eta ez dakigu nor den;
gai huts horrekin mintza gintazke behar baba zonbeit oren.
“Hala ote da?”, baten galdea. Arrapostua ba omen;
bai eta nehork ezin ekarri horri zerbait segurtamen,
gezurra berdin izan ditake, beraz, geldi gaiten hemen.

Isabelle eta August

Isabelle eta Auguste, bi urrezko bihotz,
Jaunari eskainiak behin betikotz.
Guziak hartuz bozkario eta poz,
bizia iragan bedi alai eta uros.
Zuen odola nahasiz geroz,
etxea betez neska eta mutikoz,
segida eman ez bizi guzikotz.

Beti berdin zoriontsu

Jesus maitea, zure etxean egun bi bihotz amultsu
bizi guziko maitasunean elgarri josi dituzu.

Umil ta kartsu

heldu zauzkitzu;

otoi, Jaun ona, egizu

izan ditela egun bezala beti berdin zoriontsu.

Maitea

Nahi nuke zurekin
itzuli bat egin,
bai bazinduke enekin
hartzeko atsegin.
Zerua da urdin,
itsasoa berdin,
bizia ez dadin
jar gure bihotz min.

Nere bihotzak

Nere bihotzak egun, Urruña, zu goastera nerama,
lekuko hartuz gure zaindari Sokorin daukagun Ama.
Zoin den handia eta zabala herri maite hunen fama,
zurekin dugu berdin halaber Euskal Kulturaren Bilduma.

Hemen hazia xoko guzitan nasaiki baitzen ereiten,
ikusiz bere ondorioa denak bozkaria gaiten.
Gaur muskildurik arbol ederra ari zerauku egiten,
eta ikusiz zoin fruitu eder gozoa duen emaiten.

Nola amets bat zela baitzuen iduri guretzat atzo,
begira egun gure haur maiteak gaur eskuara nola mintzo!
Ikastolako alkiak hartuz lanean ari zoin zintzo,
erakasleak bilakatuak berentzat amaren altzo.

Ez bedi izan gure errana gerokoz dagon hitz hutsa,
bainan ikusi ikastoletan eskuarak daukan funtsa,
ekar dezogun gure ahalen araberako laguntza,
uztarri berak ibili detzan kultura eta hizkuntza.

Xanpunen esku idatzietarik.

Kantu

Kantu ta xistu,
omorea pixtu,
ganez eskuz esku.
Egonen naiz prestu,
nahi zaitut babestu;
ez dugu irrisku.

Bihotza eskainiz
ausartatzen baniz,
oroitaraz berriz,
prestuki atxikiz,
goxoki ta irriz.
Gauden hor hitza hitz,
ez, otoi, gerla pitz.

Maite pollita zu,
emanez bi musu,
eginez lau pausu
zuganatzen nauzu,
dantzatu nahi baduzu,
gustatzen bazautzu.

Soinuak nabilka
bihotza gaindika;
zuri ttinka ttinka,
salto eta puntuka
goxoki hitz erdizka.

Xanpunen eskuidatzia; burutu gabeko saila.

Hogoita hamar urte

Hogoita hamar urte landatu ginduen gure arbola,
bozkariatzen gaitu ikusiz xut eta azkar dagola,
muskil ainitzez emendaturik denak loratu zaizkola;
gorets dezagun gaur Donibane Lohizungo ikastola.

Eman gaituzte hastapenean buruhauste eta grina,
bainan ez zaio aurka arizan gaur arte duen adina.
Bere naigabe ondotik berdin ekarri du atsegina,
egun ikusiz gure hizkuntza dela plazetarat jina.

Zoin ederra den gaur entzutean arbaso honen hizkuntza!
Behar ginduke guziek egin zor diogun ezagutza.
Hori galdurik gure izana baditake arras hutsa,
ekar dezogun, ordu delarik, beharra duen laguntza.

Agurtu nahi zaitugu denek gaur, Donibane Lohizun,
ikusiz ere zoin leku goxo berdin ederrak dituzun.
Gaur ikastolak ematen dautzu gehiago aberastasun,
herri osoan baidezakegu euskara maitea entzun.

Bertsu honekin dautzuet nere lana gaur bururatuko,
bainan egungo besta goxoa hartu nahi nuke lekuko.
Hasia dugun urrats onari ez dezogun egin uko,
bide hortarik ibiliz ez da gure euskara galduko.

Xanpunen eskuidatzia.

Apezturik zuk mende erdi bat

Apezturik zuk mende erdi bat daukuzu egun betetzen;
zure bizia doa arimen laguntzen eta baketzen,
Eliza Ama sainduan beti otoitz kartsuak eskaintzen,
Jainko Jaunari boz eder batez ukan graziak eskertzen.

Ez dakit ea nere bertsua ditaken egunaren doi,
edo lezoken gaur zeruari iduzki bezenbat hedoi.
Bainan nola den bihotzez heldu, onartu zatzu hauk, otoi;
goresmen eta bai zoriona zuretzat, aita Haristoi!

Xanpunen eskuidatzia.

Andre Iturralde jaunari

Ixilarazten bazaituztet gaur, jaun andereak, barkatu.
Moldatua den besta kariaz nahi zaituztet agurtu.
Iduzkia're hedoi artetik nola baitzauku agertu,
zeruak ere egungo bestan nahi zuen parte hartu.

Goretsi egun auzapez ohia, gure jaun Iturralde Andre;
donibandarrek hau zor zintugun eta berdin eginbide.
Horrenbertze lan egin baituzu herri maite hunen alde,
donibandarren bihotz beroan betikotz bizirik zaude.

Zure izena zaitugu egun bide handian ezartzen,
dakizuna da hortik girela ateratzen eta sartzen.
Zure izena jendek ikusiz nai dugu ikas dezaten,
lehen zuk bezala herri pollit hau maitatuz errespetatzen.

Hamasei urtez izana zira herri hunen zuzendari,
bihotz guzia diozu beti eskaini izan berari.
Egundik ere segitzen duzu hasi zinuen sailari,
bide handian baizaude orai donibandarren zaindari.

Kantuz erranak on edo gaizki, denak hartzen ditut ene;
bainan oraiko buruzagiak hartu nai nituzke barne,
egon ditezen Iturrald'jauna egotu den bezin erne,
eskualdun bezin ederra beti izan dadin Donibane.

Xanpunen eskuidatzia.

Donibane eta Ziburu

Goizeko alban ideki ordu itsas alderat begiak,
ikus ditazke zilar disdirant itsasoaren hegiak.
Itzuli ordu hona nun diren eskuen pean mendiak,
ederragoko xokorik ote du gure mundu handiak?

Donibane ta Ziburu ditu agertzen lehen argiak,
zoin diren leku paregabeak, ederrak bezin garbiak.
Anai-arrebak direla ere erran baiditake biak,
Urdaxuriak berexten ditu ta bateratzen zubiak.

Alde batetik eta bertzetik zonbat untzi ur gainean;
horreri esker ez ote dira gehienak ari lanean?
Denak pozetan itsas aldetik zerbait agertzen denean,
nunaitik bezin beharra baita hori gaurko egunean.

Gauaz nahi bada freskura hartuz gure leioa ideki,
arrantzaleak ikus ditazke itsas zabalera gaki.
Bertzeak aldiz berari kendu diotena hona ekarki,
gu lotan gauden ordu goxotan behar baitute hauk jeiki.

Baserriaren edergailua denbora batez ukan du,
gaur zorigaitzez horiek ere sobera zauzku bakandu.
Etxe berriak egin beharrez xaharrak dituzte kendu,
ardi ta beien hazle zen lurra gaur hiri bat ematen du.

Gora detzagun kantari eta dantzari diren taldeak,
kofoin berari beren ezitia ekarki duten erleak.
Herriak duen edergailu ta kultura agertzaileak,
horren bitartez gure hizkuntza oituren salbatzaileak.

Gure bizian ibili behar urrats bortitz eta gudu;
eginbidea zer den herrian denek jakin behar dugu.
Elgar lagunduz berria altxa izan dezagun helburu,
beti bi izar izan ditezen Donibane ta Ziburu

Xanpunen eskuidatzia.

Lassalet jaunari

Agur berexi bat dautzut egun eskaintzen, Lassalet jauna,
hoinbertze urtez zuzen ta leial zerbitzari zaituguna.
Kargua uzten duzula zauku hau zinez berri iluna!
Zeren Hendaiak zurekin baitu galtzen zinezko laguna.

Auzapez zira, bai eta berdin zu kontseilu jenerala;
erakutsia gaituzu beti lanean duzun ahala.
Burua argi, berdin indartsu, bihotza zabal zabala,
hartu bidetik baztertu gabe beti ibili zarela.

Berdin dakizu gauza guzitan hartzen zure negurria,
izanagatik auzapezgoa pisu bezin bihurria.
Eta ganera nola den berdin buruhauste iturria,
bereziki nai bada ikusi urus maite den herria.

Zu eskertzeko hautatua dut bertsutan egungo gaia,
berdin goretsiz zuk erakutsi umiltasun ta kuraia.
Uzten gaituzu gure herria garbia bezin alaia;
zure ordainak berdin begira gaitzala gure Hendaia.

Xanpunen eskuidatzia.

Aita Challet-i

Gaur, aita Challet, zu goresterat nator bertsu pare batez,
Eliz Amaren zerbitzaria berrogoita hamar urtez.
Jaunaren deia entzun ondoan, Haren nahia oso betez,
gizon argia bezen umila, ororen gainetik apez.

Donapaleun, gero Itsasun, berdin Amerikan gaindi,
nola artzaina dabilan beti bere artaldea segi.
Zonbat ezkontza, zonbat bataio, fededun ditezen geldi!
Bide berean duten fedea azkar eta zabal bedi.

Orai ez nuke begietarat jautsarazi nai nigarra,
oroitaraziz herriarentzat beti ukan duzun karra.
Ikusiz gaztek zuten bertute eta zainetan giharra,
zuk piztua da gure plazetan den euskaldun indarra.

Bainan lehenik Jaun ona duzu goretsi denen gainetik;
ez zira behin ere gelditu herriarentzat lanetik.
Aita Sainduak berak ere du parte hartzen Erromatik,
zorionekin eskerrak zuri egin duzunarengatik.

Ziburun gira bozkariotan eta denak fedezale;
kantu ederrak, otoitz kartsuak, zonbat laudorio ele!
Guziak gira gure Jaunari grazia hunen eskale
Betaniako kazkoan luzaz ahantz dezan aita Challet.

Berrogoita hamar urte apeztu zelarik, omenaldia eskaini zioten
aita Jean Challet hazpandarrari Ziburun, Betaniako fraidetxean. Eta
Xanpunen bertsu hauek *Herria* astekarian agertu ziren,
1997.07.10ean.

Bizi guziko bateratuak

Ikusiz lore xoragarriak usain eztizko arrosak,
eliza huntan inguramenak egun zoin diren airosak!

Alde batetik soinu ahotsak
eta bertzetik kantari bozak,
guziak gaitu beterik pozak
gaur adixkide gazten ezkontzak.

Gaur zorion eta bozkario, jaun eta andere esposak.
Bozkarioak bete detzala betikotz zuen bihotzak.

Jesus maitea, gaur bateratuz hemen bi bihotz amultsu,
bizi guziko bateratuak dituzu.

Hurbildu dira gaur zuregana biak, umilki bezin kartsu.

Maitasunaren iturria, Zu,
izan ditela, otoi, egizu
egun bezin zoriontsu.

Elgarretarat bateratuak dira gaur bizi guziko,
ez al ditutzu beren bizian orai bakarrik utziko;
beren bihotzen etxe ederra berdin eder beztitzeko,
eskainiz zonbat neska eta mutiko,
maitasun hori osa dezaten betiko.

Xanpunen eskuidatzia.

Sor lekua

Sor lekua
bezalakua
da famatua,
ezagutua,
bai zabaldua,
dagon bezala ez da galdua.
Euskal Herria da deitua,
gazte zaharrek zoin maitatua!

Gure Euskadiz naiz zoratua,
zeren hau dugun guk sortlekua,
da berdin ere zoin famatua!
Gure arbaso zaharrek hautatua,
zelai ederrek dute hartua,
itsaso mendiz inguratua.
Mundu guzian ezagutua,
edertasun bat ezin galdua.

Utziko dugu azken orduan;
ez gaiten egon hori goguan.
Bainan atxikiz beti buruan:
Paradisuak duen graduan,
hemen ez gira leku galduan.
Nahiz erabiliz berdin buruan
nola ote den bertze munduan,
zorion osoen eremuan?
Hau utzirik nork nahi ote du gan?

Jesus ona, otoi, orai egizu
gure Euskadi hau parabisu;
ez gaiten jarri sobera itsu,
odol gorritik bada askitsu.
Tiroa baino hobe bi musu,
urrun direnak hurbildu atzu.
Amen nigarrak ainitz du pisu,
bakerik gabe nola eztitu?

Gure hizkuntza dugu lokarri,
behar laguntza denek ekarri.
Maitasun eta fede uztarri
hartu dezagun bihotz hazkurri.

Xanpunen eskuidatzia. Burutu gabeko saila.

Gure lagun Xomin⁸

Gaur gure lagun Xomin ikusiz nola erretiratzerat doan,
hogoita zazpi urte pasatuz Basco Gel'en hotz-beroan,
Eskual Herriko xoko guziak ongi ikertu ondoan,
Elgarrekin gan denbora ona dugu guziek gogoan.

Gure etxeko saltzailea zen; egin dituen urratsak
izan bide'tu goxoak baina berdin ere aski latzak.
Onartu behar erosleetan pobre eta aberatsak.
Ahal guziaz zerbitzatu du nagusi jauna Gueragac.

Lagun maitea eta gainera izigarri jostakina;
berdin lanean zintzoa bezin garbia eta jakina.
Langilea da, eta gainera maite lan ongi egina...
Ez du nornahik etxe batean hartzen horrelako grina.

Orai badakit: lanaren grina harrika botako duzu;
Anita eta zure haurrekin goxatuko berdin usu.
Gaur Basco Gel-ek eskertuz orai bihotzez opatzen dautzu,
erretiroa izan dezazun luze eta zoriontsu.

Don Xomin (II)

Bihotz bihotzez hemen agurtuz Onaindia senideak
bertsu batzuez hau egiteko hartzen dut eskubidea,
senide hori guretzat baita zinezko adixkidea;
eta bertzalde bururatzen dut aspaldi neukan xedea.

⁸ Txomin Onaindiari eskainitako bertsuak

Don Alberto, bai eta zu Karmen: otoi, egungoz barkatu
Don Xomin badut denen artetik bertsoen gaitzat hartu.
Diamantezko jubilatatu bat nork ez du nai gaur laudatu?
Merezimendu bikainak dauzka ezin zazkonak ukatu.

Hiru hogoi urte aurten eginak don Xomin zela apeztu,
oroigarritzat bertsu batzuek behar diozkat abestu.
Pasatu ditu bere denboran zonbeit ordu beltz, estu.
Baina zuk duzun fede azkarrak deusentzat beldurrik eztu.

Jin zaukularik Frankotarrek moldatu gerla zikina,
Gogorra izan da guzientzat utzi duen bihotz-mina,
sorterria utzi beharra, nola zuentzat Markina.
Baina jaun onak Donibanekotz bide zintuen egina.

Sorterriaren uztea beti baita gogor eta samin,
senditu duzu behar zelarik ordu hartan iges egin.
Baina guretzat zorigaitz honek ekarri gaitu atsegin.
Hori ez balitz ezagutuko ote ginuen don Xomin?

Xaharrak eta eriak ere dauzka bere urratsetan,
ahal guziez penak goxatzen dabil horien etxetan,
goizean ezin egin duena egin nairik arratsetan.
Don Xomin dute beren argia munduko ordu beltzetan.

Elizan ere xoko batean zaude gure konfesorra,
zure bitartez ordaindu naia Jaunari daukagun zorra.
Sanoki egin ditake zuri dugun obenen aitorra.
Hitz batez diot: zera guretzat kontzientzien leiorra.

Hasi ezkontza, bataio eta lehen jaunartze eguna,
gure etxean ordu goxoen lekuko bat zaituguna.
Baina halaber, jin zauzkularik herioen gau iluna
zu izan zira orduan ere sostengatu gaituzuna.

Bi senideak zonbat lortuak, Onaindia ta Basurko,
biak maitatu ditut bihotzez nik ezagutu orduko.
Horra zergatik agertzen naizen gauza horien lekuko;
maitasun hori sekula ez daut denborak ere kenduko.

Don Xomin Onaindia (III)

Mendekosteko besta ginuen, zinezko besta handia,
elizan ezin kokatuz kasik etorri baitzen jendia.
Han apez batek, apeztu zela egin du mende erdia.
Nork ez ote du ohoratu nai gaur don Xomin Onaindia?

Zeremonia bururatzean hango Aita Abadeak,
eskerrak ditu dener ordaindu; zer solas paregabeak!
Gu den-deneri mintzatu zauku, zer talenduren jabea:
aingeru boz bat, goxo-goxoa, baina hitzetan trebea.
Ez da galduko holako artzain bat deraman artaldea!

Zure suaren beharretan den gaurko mundu hotzitsuak,
eliza ainitz dauzka fededun artzain eskasiz hustuak.
Bero detzala gazten bihotzak zure indarraren suak,
ta jalgi diten artzain berriak, gazte azkar ta kartsuak!

Mirespen eta maitasun handia zien
Onaindiatarrei, bistan denez.

Bitartean eskerrak

Azpikoz gora jarriz ere gaur Iholdy
ezin aurki ditazke Mayi pareko bi:
arpegiz maite, eder, ta bihotzez handi,
Xanpunek ere baitu bihotzean sendi.
Hau sekretua baitu, beraz, hortan geldi.
Baina pasatzean ni xoko hortan gaindi,
ttinko-ttinko besarkatu naiko zaitut, Mayi.
Bitartean eskerrak mila eta mila aldi.

Xanpunen eskuidatzia.

Jubilatuak Baionan

Zer familia ederra garen moldatuak gaur Baionan!
Huni dezogun beharra duen kalda bero hori eman.
Goizetik hasi bai arratserarte behar dugun hau ereman,
anaitasunak eta fedeak dezaten elgar atxeman.

Aita Sainduak egin otoitzak errepikatuz gaur hemen,
Jauna adora elgar maitatuz manamendutan da lehen.
Gaurko mundua ikusiz gaude egiten ahal ote den.
Ezin maitatu dena dezagun errespetatu bederen.

Hautsi detzagun lurrari sopra lotzen gaituzten gateak,
Jesu Kristori idekiz zabal gure bihotzen ateak.
Bere fruitua ekarri dezan dugun jubilau urteak
beren lekua izan dezaten maitasun eta bakeak.

Ikusiz egun munduan dauden aurrerapenen aisiak,
bertze aldetik gosete eta gerlak dauzkan garraisiak;
nola baratze gaizki landua beretzen duen sasiak
ez ote gaitu gu berdin ari gaurko fede eskasiak?

Otoizten zaitut eliza huntan, ama maitea, umilki.
Ikusten duzu gizona nola den gaur munduan ibilki.
Gizonak ama zu zaituela bederen ba ote daki?
Otoi egizu bihotz hetsi hauk zuri ditezen ideki.

Xanpunen oharra: “Eskaintza: Onart detzala bertsu hauek, otoi,
gaur Jeanne Salha maiteak”. Xanpunek idatzi eta 2000ko ekainaren
8an Baionako San Andres elizan kantatuak.

Sokorriko Amari

Antoine Etchegorry apezpikoaren *hilarriak* sailerako egindako bertsuak.

Ama Sokorrikoa, gure zaintzailea,
bihotzetan, etxetan eman bakea.
Besoak zabaldurik zaude gure beha,
Dena doan zerurat eskualdun jendea.

Ama Sokorrikoa, gutaz oroit zaite,
ager Euskal Herria zonbat duzun maite.
Eman gure gaztetan, bai kar, bai siniste,
otoitzeko gizonak hetan izan baite.

Gutan gure artean bizi bedi Jauna,
zabal dadin mundurat haren Berri Ona.
Maitatzen otoitza, maitatzen lana,
Gaiten mende berrian denak bat aitzina.

Hilarriak, 2000

Haurren lehen jaunartzea

Denak agurtuz behar zaituztet, haur maiteak, gaur goretsi;
hemen eskaintzen duzuen bestak badauka zerbeit berezi.
Zuen arima ezti, garbian Jesusek nahi du bizi.
Zuekin betan egun eder hau gaur ospatzera goazi.

Huna zer dutan zuek lagunduz Jaunari nere otoitza,
nola aldare ttipi bat zaizten gaur zuetarik bakoitza.
Jesus onari berdin eskainiz umilki zuen bihotza,
hau izan bedi zuen bizian betiko bere egoitza.

Alegeratzen gaitu guziak gaur lekuko izateak,
zahar ta gazte, denak zuekin zorion beraz beteak.
Nola galdatzen baitaiku berdin aurtan jubilau-urteak,
idek detzogun egun Kristori gure bihotzen ateak.

Buruen buru, dena euskaraz, zer besta zoragarria,
ikusiz gure hizkuntza zaharra bere tronuan jarria!
Munduak duen zaharrena da, ederra bezin garbia...
Bera lagunduz salba detzagun fedea eta herria.

Mahain saindutik goazen orai besta daukagun mainera,
haren graziak eskuratzerat hemen ukanen gainera.
Eguna pasa dadin goxoki, gaur zor zaion arabera:
sainduki hasi eta segituz, goxo bezin alegera.

Herriko haurren jaunartze egunerako eginak.

Haurren lehen jaunartzea (II)

Famila sainduaren gerizan buraso ta haurrideak,
haurrak eskutik egin ditugu mahain sainduko bideak,
Jauna hartzerat ekarriz gure alabak eta semeak.
Burua gora atxik detzala egun finkatu fedeak,
hizkuntzan ere beti izanez gaur diran bezin trebeak!

Gu burasoak haurren sostengu bildu gira denak huna,
zuri aitortuz gure xedea bihotzean daukaguna.
Haurren geroa ez bedi izan dioten bezain iluna,
beren arimen aterbea zu izan zaiten beti, Jauna.
Eta sekula ez dezaten ahantz zuri eskaini eguna.

Zeru gainetik, Jesus maitea, zabaldu, otoi, besoak,
lagunduz haurren moldatzaileak eta beren burasoak,
baterat bildu direnak egun Ikastolako haurtxoak.
Deneri esker pasa detzagun egungo oren goxoak,
oroitzapen hau atxiki dezan gure bizitza osoak.

Herriko haurren jaunartze egunerako eginak.

Mayi-Martzialen urrezko besta⁹

Hasi nahi nuke alegeraki egun eder hau goresten;
hunen pareko edergailuak ez dira diruz erosten.
Bai, bereziki amodioak bi bihotz baditu josten,
bozkariotan Mayi-Martzial ditugu denek ospatzen.

Mende erdi bat maitasun baita zuen gainera pausatu,
nola amets bat lo on batean bezela dela pasatu.
Bizi guzian elgar maitatuz berdin zarezte goxatu;
berekin dauzkan oren beltzetan ere ez zaizte lotsatu.

Urdazuriko ur bazterretik joanez Laka hegira,
hor zarezte zuek segur egonak mendi aldera begira.
Zuen inguru edergailuek egun badute dirdira;
dudatu gabe kopetak eman izerdiarenak dira.

Aita-amaren lan berezia zinez zoragarria da;
begien betekoak direnak zuen sei seme-alaba.
Langile bezin argiak dira, gehiago ezin da galda.
Nola aita-ama haurrak halaber, hori aitortzen ahal da.

Buraso xahar maitagarriak ezin hobeki zainduak
izanagatik, adin handian osagarritz ezinduak.
Elgar maitatuz ohe berean direnak biak zainduak,
zer eremua zabaltzen duen zuek eman etsenpluak!

⁹ Haien eskontza egunean elgar ezagutu zuten Xanpun eta Anttonik.

Orai behar dut oroitzapen bat hemen deneri salatu:
Mayi-Martzial, zueri esker dut Anttoni¹⁰ ezagutu.
Zuen zorionezko egunak geroztik bilduak gaitu;
ez da dudarik egin urratsa guri ez zauku damutu.

Orai gostura, Mayi-Martzial, pentsatzen dugu artetan
hor ikustea goxo goxoa zintzoki ari kartetan,
hola denbora pasatuz berdin batere uste gabetan,
burua argi, begiak erne; ez da gorputzen kaltetan.

Berdin otoitz bat izanen dela bederen nere ustez,
Jaunak begira gaitzala denak hemen andana bat urtez.
Giren guziak bildu gitezen bertze egun goxo batez,
gaurko urrezko besta eder hau ospatzera diamantez.

Xanpunen eskuidatzia.

¹⁰ Anttoni: Xanpunen emaztea.

Joseph Caminori

Mende erdi bat betetzen duzu aurren, zinema apezte.
Egun sainduak bozkariatuz bihotzak betetzen dauzku.
Ohartu gabe, nola amets bat, dira urteak pasatu,
bizi osoa eskainiz beti Jainko maitearen esku.

Apezte ordu zure esku zen eskualdun gazteria,
bai eta berdin predikatzailer eta ere beilaria.
Gidatuz berdin zonbeit denboraz Seminario handia.
Parroki ukan duzu Baigorri eta Hazparne herria.

Azken parroki etorri zautzu Baionako katedrala,
apezpikuak izendaturik Bikario jenerala.
Camino nola bidea baita luzea bezin zabala,
erakutsirik beti zuk duzun fedea eta ahala.

Zu goresteko bildua zautzu familia guzia betan,
izanagatik batzuek bizi Amerika alde hetan,
oroituz odol bera zaukula ibilki gure zainetan.
Ez ote ginen gu elgartzeko besta hunen beharretan?

Arnegin sortu iturriñoa bilakatua da ibai.
Hau zuri esker begien bistan ikusi ditalke orai.
Seinalea da hor bazagola maitasun, bai eta kurai;
eta gainerat goxotasun hau ezin aurki dugu nunai.

Nola daukagun bide guzitan argizari den izarra,
erakusteko non eta norat dugun ibili beharra,
gaur zuri esker ikusten dugu familiak dun indarra.
Benedikatu dezala Jaunak eskaintzen duzun biltzarra!

Buraso maite onek gaituzte zerutik egun laguntzen,
beren zorion, bake gozoaz denak berdin inguratzen.
Gure artean daudela hemen gaur nehork ez du dudatzen,
sainduki hasi besta lagunduz gaur sanoki bururatzen.
Besta on eta zorionak!

Bertsu hauek Xanpunen paperetan aurkitu orri batetik jaso ditugu. Bertsuen aurretik honela dio: “*Jubilé d’Or sacerdotal/ Joseph Camino – 1 er Juillet 2001*”.

Xanpun zendu zenean, Joseph Camino apez jaunak honako eskutitz hau idatzi zion haren alargunari:

Andere Xanpun adixkide maitea:

Donibaneko elizan, Manuel zenaren ehorzketa miressgarri heietan, urrunerat ikusi zaitut, aise asmatuz zoin samina zitaken zure bihotzmina.

Ustekaberik itzali zautzu beraz laguna. Jainkoak hala nahi zuen dudarik gabe, Manuelek berak erranen zuen bezala!

Ene dolumin bizienak nahi dauzkitzut eskaini, Xanpunen orroitzapenetan, hain nuen estimatzen! Dakikezun bezala, ene apez jubilaueko bertsu batzu zinez ederrak moldatu zauzkidan. Eta Egu-berri bezperan, Urdazuriko elizan, ukan dut xantza Manueli berari ene eskerren bihurtzeko. Ni hurbiltzean alaba ttipia ari zion erraiten ongi kantatu zuela meza denboran! Eta ageri zuen alaba ttipiaren konplimenduak bihotza aitatziri hunki ziola!

Bai, ene doluminak zuri, baita ere familia guziari.

Ez dut erraitearen beharrik, jadanik ene otoitza zureari juntatu dudala behin baino gehiagotan eta eginen ere oraino, bereziki meza sainduan, Jaunak eman dezon Xanpuni bere betiereko zoriona.

Zuri ere Jainkoak eman dezauzula behar duzun indarra zure bideari aintzina jarraikitzeke, ainitzek baidute oraino zure beharra.

Bihotzez goraintzi, andere Xanpun adixkide!

Joseph Camino.

Bi bihotz maite

Danielle-David, bi bihotz maite zure aurrean dauzkatzu,
beren bihotzak eskaintzerat gaur biak umil eta kartsu.
Nola maitasuna ezin agor den, iturria baitzera Zu,
beren maitasun zoragarria, Jauna, benedika atzu.

Bihotzak duen goxotasuna seinale da begietan,
beren geroa Zuri eskaintzen zaituztela lorietan.
Ez dezatela trabarik aurki hartu duten bidetan;
gure egungo otoitzak doaz beren nahikunde beretan.

Ekarri dute egun berekin aingerutxo pollit bat, Xan
dudatu gabe egun nahi baitu ait-amen lekuko izan.
Otoitza ere egiten baitu egun hemen bere gisan,
hau geroxeago arreba pollit maiteño bat ukan dezan.

Xanpunen eskuidatzietarik. Eguna: 27 octobre 2001.

Zuberua pausaleku

Abadie jaunak harturik behin Zuberua pausaleku,
xoko pollita edertasunez dena apaindu derauku.
Mendiak bistan, itsasoraino dauka dena bere esku.
Gaztelu eder paregabea lekuko egon zerauku.

Gazteluaren izena ere berea dauka: Abadi.
Bidetik ikus ditaike baina hurbildu eta hobeki.
Pasatuz gero Hendaia alde itsas ezkinaren gaindi
Ikus ditake zoin dagon eder, azkarra den bezain handi.

Xanpunen eskuidatzietarik.

Abadie jaunaz

Gazte maiteak, Abadie jaunaz nahi dautzuet gaur mintzatu,
nolako gizon suharra den hau herriarentzat izatu.
Bere ondasun gizatasunak du herriari itzatu.
Nola lagundu, nola maitatu guri erakutsi gaitu.

Ziberoan du lehenbiziko altxatua jauregia;
izena ere emana dio, berea den Abadia.
Alde batetik mendia dauka, bertzetik itsas-hegia.
Bere etxerik hunki diteke izarrek duten argia.

Maite zituen herri-kirolak, maite zituen bertsuak;
zabaltzen ere zituen errex bihotza eta eskuak.
Behar zelarik, eginez berak araberako jestuak,
behar zelarik beregain hartuz herriak zauzkan gastuak.

Erran dezagun jaun handi hori joana dela aspaldi;
baina halare bere omenez beti bizi da Abadi.
Eta gaur ere holako ainitz herrian sortu baledi,
egun den baino osoagoa litake gure Euskadi.

Eskuidatzia.

Helene eta Luisito

Bai, zorionak; bai, goresmenak, Luisito eta Helen.
Bien bihotzak gorets detzagun bertzerik ezer baino len.
Seme-alabez eta ilobez inguraturik gaur hemen,
ikus dezagun maitasunaren dohaina zoin ederra den.

Mende erdi bat elgar maitatuz hau urrezko maitasuna!
Bihotzez bezik negurtzen ahal ez ditaken ontasuna.
Berekin dauka indarra eta biziaren nortasuna.
Lehen aldian bezela egun benedika atzu, Jauna.

Zoin ederra den denbora hartan landatu zuten arbola
ikusiz egun fruitu ta lorez dena beterik dagola!
Berdin jasanik bere denboran zonbeit haize-zirimola,
egizu, Jauna, oraino luzaz ikusi detzagun hola.

Ohartu gabe doa denbora bereziki elgar maitez.
Lekukotasun horrek hunkitzen gaitu denak, nahi ta ez.
Egizu, Jauna, gu berriz hemen aurkitzea egun batez,
gaur urrezkoa dugun bezala izan dadin diamantez.

Arbol gainetik berdin xoriak lurreraino jausten dira,
egarrituak, ixil ixilak, ur-putzu baten hegira.
Beren tragoxka egin ta berriz itzul arbola gainera.
Agian, berdin bilduko zaizte guziak Putchutegira.

Goxatu duzu herio latzak utzi ordu bihurria.
Nola ahanzi zuk egun huntan utzi duzun irudia?
Zure kantuak ez ote zuen mezu baten iduria,
aingerutxo bat zindela gure ama bilat etorria?

Geroztik ez da gure etxolan leiho maite hori hesten;
eta zergatik xori maiteak ez du gehiago abesten?
Ama eta zu egun berean zeruratu bait zinezten,
eta geroztik ari zirete Salbatzailea goresten.

Xanpunen eskuidatzietan aurkitua.

Mende erdi bat elgar maitatuz

Bai, zorionak merezi ditu gaur besta zoragarriak,
bozkariozko nigar malkoez berdin bustirik begiak.
Bere fruitua ekarri baitu maitasun mende erdiak,
bihotz bihotzez agurtuz orai Christiane Jan Battit biak.

Urrezkoa da maitasun horren lehen urratsen trenpua,
zuen bihotzak ongi josirik egin duzuen tenplua.
Mende erdi bat elgar maitatuz ezin hobeki lantua,
eta gainerat zuen eskutik gaztentsat zer etsenplua!

Zuen artean izan duzue maitasunaren urtsoa,
beti etxerat ekarriz berriz bere erramu hostoa.
Eta harekin nola ukatu bere goxamen osoa?
Fedea lagun, beti etxean behar den bake goxoa.

Zuen laguntza izan duzue zinezko fede bizia.
Berdin galdetuz gure Jaunari bake on baten grazia.
Elgar maitatuz ukan behar den kurai, indar berezia,
haurreri buruz beti ekarriz zuen maitasun guzia.

Bortz haur ederrez beztitua den ohantze zoragarria,
gaur bakearen urtxo ederrak bere gerizan jarria.
Eta ohantze horrek izena nola duen Olargia,
luzaz atxiki beza gordea zuen maitasun garbia.

Donazarren den ohantzeak izena du Olargia,
atxik dezala beti piztua familia horren argia.
Goresten ditu familiarekin bizia eta herria,
bai eta berdin bihotz horiek duten maitasun garbia.

Xanpunen eskuidatzia.

Aita Paul Olasori

Gure artetik Jainko maiteak Aita Paul ereman dauku,
zeruko Amak ere nai zuen bere besoetan hartu.
Badaki ere, ixil ixila, berak zer zuen pairatu.
Umiltasunak duen indarra etsenplu bat utzi gaitu.
Orai zerutik, Aita Paul, otoi, hemen gaudenez orroitu!

Otoitza, lana: San Benoaten orden zuzen ta zuhurra.
Hau betetzeko, Aita Paul, segur etzira izan uzkurra.
Beloken lurrak lantzeko sarri ibili duzu aitzurra;
gaur estalkitzat ukanen duzu zuk landu duzun lurra...
Berriz zeruan ikusi arte dautzugu gaurko agurra.

Zer elizkizun hunkigarriak zirenak Aita Paulenak:
apez guziez inguratua, familatik gehienak!
Zoin azkar dauden doluminean josten gaituzten aihenak!
Berdin gainerat, nola ez daki fedez aski azkar denak,
betiereko zorionean ezdeusten direla penak.

Février 22 - 24

Aita Paul Olasori azken agurra, ehorzketako egunean.

Otoizlari 144, 1992.02.12

Egungo deia

Belokeko Martin Sein, Xanpunen lehengusua, eta aita Gabriel Lertxundi apeztu zireneko hirutan hogoi urte bete ziren 1992ko uztailaren 18an. Hori ospatzeko meza berezi bat eman zen bertan. Eta Xanpunek bertsu hauek kantatu zituen, azken puntua jende guziak errepikatzen zuela.

Egungo deia onart dezala artzain guzien artzainak,
gazten bihotzak hunkitu detzan bokazioneen dohainak.
Ukan ditzagun xahartu zauzkun apaiz zerutiar ordainak;
bere hitz onak har detzan, otoi, lur huntako esku gainak;
ez gaitzan ito egun dabilan fede gabezi uhainak.

Azken xedean zuri dut otoitz, gure Belokeko Ama,
zabal dezagun gauden mundura etxe goxo hunen fama.
Dezagun beti elgar maitatuz bizitzea denek asma,
lagun gaitzatzu girixtinoak garraiatzen gure zama,
anaitasuna izan dezagun pakea zaintzeko arma.

Voix de Belloc aldizkaria, 146, 1992ko iraila.

Ziburu maitagarria

Ziburu leku maitagarria dugu itsaso ta mendi,
huni begira maitatu gabe ezin bazintaizke geldi.
Muskoako Ama daukagu gure fedearen argi;
artzain zaharra, aldiz, daukagu orai berriaren sehi,
ziburutarren fede ederrak azkarrago dezan segi.

Mendi aldetik itsas hegirat artzain berria da heldu;
herri maitean detzagun, beraz, gure bihotzak zabaldu.
Hemengo aire hunek berekin zerbeit gazidura badu...
Ongi etorri beroena gaur denek eskaintzen zaitugu
etxe berri bat goxo-goxoa aurki dezazun Ziburu.

Xanpunen eskuidatzia.

Bi bihotz

Bi bihotz maitasunak gaur bateratuak,
zoin ederrak dauzkaten ekarri fruituak!
Urrezko maitasunak du inguratua
biziaren iturri dugun aingerua.

Begitartea dauka argi ta goxoa,
hizkuntza bat osoa baita bere soa.
Eskaintzen duelarik amari besoa,
sehaskaz utzi naizik beraren altzoa.

Bere goxotasunak ez dauka mugarik,
bihotzez bihotz mintzo senti dugularik.
Zure baitan dagola ez dago dudarik;
ezin atera gira goxamen huntarik!

Edertasuna ere hor dauka berekin,
jostatuz, zoin goxoki bere aitarekin,
zorion bat osoa baidezake egin!
Nigarraren iturri jar diteke berdin.

Xanpunen bertsupapera.

Deneri zorionak

Kontzenbitua Karakasén
goiz hasia naiz airatzen,
ait'amen lana baitzen.
Fruitua gero da agertzen;
beraz, huna gaur nun naizen.
Ziburun naute bataiatzen.
Gero Sarako bidea dut hartzen.
Lehenik ait'ameri zuzen-zuzen,
deneri zorionak eskaintzen.

Xanpunen eskuidatzia.

Ekainak hemezortzi

Ekainak hemezortzia,
zer egun berezia!
Familia batentzat grazia
aingeru batek harturik bizia.
Egun hori ezin ahantzia.

Geroztik zaio hola
lan, otoitzak higatuz ahala.
Ileak urdin, leuna axala,
eta zonbat kantu xaramela!

Nola oihanean errexinola,
gaur zoriona zor zaiola.
Urte guziz bezela
Jaun zerukoak utzi gaitzala
oraino luzaz gure Jane Salha.
Jaunak hitz hau otoitzat
har dezala.

Xanpunen bertsupapera.

Herriko ezkila dorrea

Zentzu gabe zure goxotasun beroez
Euskal Herria utzi dut egun eder batez.
Burasoak dohakabe nigarrez
gabetua ezkila dorrez,
pilotaleku, adixkidez.

Gabon, ezkila dorre pollita,
gazte gazterik utzi behar
izan zaitudana.
Haur denborako ezkila errepika,
etxea hanbat aldiz alaitu nauzuna.

Zuretzat jasan dut pairamena;
eta erraten ahal dauzut
zu gogoan ere
negarrez hurtu naizena.

Gabon ezkila dorre maitea,
mende zaharretan egina.
Zutarik urrundua izaitea
daukat nere urriki mina.

Xanpunen eskuidatzia.

Etxe berria

Etxe egilea da Jaun Arribillaga;
langile eder eta gizon abila da.
Laster ibiltze hori ez, otoi, gaur galda!
Noizean behin haatik sistatu behar da.

Mainku ibilki bada, dauzka arrazoinak.
Ez dio atxikitzen aur aski haxoinak;
adin batean utzi igora gizonak,
Rugbiah hanbat kalte badio pinponak.

Beraz, ez daukagu, ez, denbora galdurik.
Ez dut eginen bada deusez arrenkurik.
Teilatutik ez bada orai sartzen urik,
paretean ez dago nehon arraildurik.

Ezarri dugu xutik gaur gauden etxea;
ez da egun bat izan hunen altxatzea.
Kendu zauzkio orai ura ta haizea.
Orain posible dugu hor gerizatzea.

Lehenik diozkagu zimenduak bete;
gero hola egona da sei hilabete.
Behar denbora idor, ta azkartu arte,
etxe azkar batentzat ez omen da kalte.

Orai arribatuak gira teilatura;
erremua emana, hartzen du itxura.
Hola bederen badut geroko mentura:
laster sartzea, naski, bizitza lekura.

Xanpunen eskuidatzia.

Euskal hazia

Atzo hazia zinen, gaur muskildu zare;
eta bihar izanen arbola-landare.
Gure hizkuntzarentzat bai geroaz ere
izanen itxaropenen izarraren pare.

Ez gaitzazula egin ait'amen auzia,
oroituz guk zuretzat izan zuhurtzia.
Beti ez bada egin behar zen guzia,
zuk osa azu bihar guk eskas utzia.

Hizkuntza eder bezin aberatsa dugu;
gurekin hazi behar uda ta negu.
Munduko lehenaren fama ederra du;
gure urratsetatik ez dezagun kendu.

Nola hartu ditaike gure neurria
ikusiz mundua zoin dagon bihurria?
Hizkuntza izan bedi zimendu-harria,
huntan finkatuz salba dezagun herria.

Ait'amen kezkek ditut agertzen bertsutan;
oroit zure geroa duzula eskutan.
Euskal hazi maitea, ikus mundu huntan
maitasunez zertako ereina zaitudan.

Xanpunen bertsupapera.

Jesus onari

Jesus onari eskain detzagun haurrak gure otoitzetan,
bere egoitza goxoa egin dezan bere bihotzetan.
Gidatu eta argitu detzan biziaren urratsetan,
bozkarioa zabal dezaten kanpoan nola etxetan.

Haur maiteak, gaur jinen zaitzue zero ta lurren jabea.
Bihotzez egin azue xede berexi hunen galdea,
azkartu dadin Euskal Herria, t'hizkuntzarekin fedea;
behin betikotz izan dadien egun hautatu bidea.

Xoko ttipi pollita

Xoko ttipi bat mendixka gainean
maitasunak berotuz bihotza,
idurikatuz boz apal batean
orroitzapen goxo baten hotsa.
Arantzaz betea hil zen arrosa.
Azkain, zu zira azken abotsa.
Xoko maitean gaitezen pausa,
ta gure arimak betikotz goxa.
Bere paperean ageri denez bertsu ezberdinak
egin zituen Xanpunek gai honekin.

Xanpunen eskuidatzia.

Herriak ehun urte

Iduri atzo sortu zinela jadanik mende erdia,
urtebetetze hau goresterat heldu nintzaizu, *Herria*.
Maite zaitugun astekaria, leiala bezin argia:
hizkuntza zainduz duzu zabaltzen zure asteko berria.

Ipar-hegoen mugak etzaitu zu egundaino mugatu;
denen berriak nola salatu ez duzu inoiz dudatu.
Gertakariak, nola kirolak, behar hitzez inguratu...
Denak lekuko hartuz nai zaitut, *Herria*, egun goratu.

Zure langile, buruzagiak: zaituztet denak agurtzen.
Atxiki beti gure hizkuntza beti azkar eta zuzen.
Berriketari maitea, segi zuzen berriak ekartzen,
oren goxoak pasa detzagun *Herriaren* irakurtzen.

Xanpunen bertsupapera.

Aita Jean-François

Edergailu hauk ikusi eta bihotzak kantuz nerama,
ikusi gabe zoin diren eder gogoz ezin baita asma.
Goresten duzu, anai Jean-François, eskulanak duen fama,
lekuko eta gidari hartuz beti Belokeko Ama.

Zinez begiek hor hartzten dute behar duten atsegina.
Zure eskuez zonbat lan duzun ezin hobeki egina!
Ez da dudarik, mundurat zira dohain haren jabe jina.
Otoitz kartsu bat da zure lana, bihotzez bihotz doana.

*La contemplation de ces beautés enchante mon coeur!
Sans les avoir vues, on n'en peut imaginer la splendeur!
Prenant toujours pour témoin, ou pour guide, Notre-Mère de Belloc,
vous célébrez, Père Jean-François, la grandeur du travail manuel.*

*Les yeux s'y nourrissent vraiment du plaisir dont ils ont besoin.
Combien, de vos mains, avez-vous créé d'oeuvres parfaites!
Sans nul doute, ce talent, vous l'aviez en venant au monde.
Votre travail est une prière fervente qui va de coeur en coeur!*

Xanpunen bertsupapera.

Kattalin eta Xemartin

Xoriño batek salaturik dut berri goxo, ona jakin:
mende erdi bat elgar maitatuz iraganik elgarrekin,
munduko goraberak harturik etor bezala berekin.
Gaur zoriontsu izan ditela Kattalin eta Xemartin.

Zonbat maitasun, bai eta indar, nortasun eta bertute!
Horiek denak bateraturik hain indar handia dute.
Bilduma horren sekretua da: elgar beti asko maite.
Nola amets bat pasatzen dira berrogoita hamar urte.

Urrezkoa da biek elgarri lotzen zaituzten haria.
Gainerat zoin den azkarra gaitu eman bere agiria...
Zuer begira gauden guziek, hori zer argizaria!
Guk ordaintzea maitasun hori da zor diogun saria.

Maitasunaren eremu hori ez da sekula mugatzen;
zoin barnakorra den ere ez du gaur nihorek dudatzen.
Seme-alabek, nola bilobek zaituztegu inguratzen.
Holako ordu goxoetan da biziari gustu hartzen.

Hemen nai nuke otoitz gisako den bertsu gartsua egin.
Gure Jaunari kantatzen ahal duguna noizean behin,
izan dezagun oraino luzaz egun bezenbat atsegin,
urte ainitzez gurekin utziz Kattalin eta Xemartin.

Herria, 1997.09.18

Christine eta Marc

(Ezkontza egunean)

Lehen agurrak zuentzat dauzkat bihotzez, Christine eta Marc.
Bi lagunetan arintasun bat badu geroaren zamak.
Azkarrak eta goxoak dira maitasunak dauzkan armak,
izan ditezen ondotik gero zorioneko ait'amak.

Jauna, bi bihotz elgar maitatuz zure aurrean daudenak;
beren lekuko etorri dira alegeraki gaur denak.
Hemen eskainiz bihotz bihotzez zueri, Christine eta Marc,
bozkariozko hitz goxoenak eta berdin zorionak!

Jauna, gaur zuri eskaintzen dute beren maitasun guzia,
zur'eskuetan ezarri berdin batasunaren bizia.
Zure graziaz ukan dezaten indar eta zuhurtzia,
haize gaixtotik begiratzeko gaur hartzen duten untzia.

Zoin den ederra eta goxoa maitasunaren ahala!
Ezin negurtu baitugu berdin duen eremu zabala.
Bake urtxoak pausatu naizik zabaldurik du hegala.
Zuen maitasun goxagarria betikotz hauta dezala.

Zuen bihotzak izan ditela urtxoaren ohandea,
maitasun horren helburu baita bizia ohoratzea.
Nola lorez den beztitzen beti maite dugun baratzea,
ainguru eder batzuek berdin goretsiz zuen etxea.

Xanpunen eskuidatzia.

Alejandro zerurat

Gure artetik zerurat zauku airatua Alejandro.
Zeru gainetik begira zaude guziak baino gorago.
Baina zuk utzi bihotz-min latza beti berdin, bizi dago...
Ez ote dauku dolu-min hori oraino ta barruago?

Ixuri dira zure ondoan ainitz pena, nigar malko,
gure artean ez baitzaitugu berriz ikusten ahalko.
Baina dakigu: zeruan zaude zoriontsu sekulako!
Sinesten dugu Jesusek berak hitzeman daukulako.

Bihotz oneko gizona eta ongi egitea maite;
fedezko zure aginpidea beti ongi duzu bete,
ahal guziaz nehoi egin gabe hemen inoiz kalte.
Utzi gaituzun etsenplu ona denek gogoan daukate.

Xanpunen eskuidatzia.

Eman didazun

Eman didazun muxu horreri ez dakit nola erantzun;
lotsarik gabe aitortuko det zuk nola eman didazun.
Nere herrian zabalduko det, inork nahi badu entzun,
muxuk ematen dakin birjina daukatela Arantzazun.

Nere flakezaz ote zaudete zuek ia saminduan?
Zer kulpa daukat ni Jaungoikoak hola egin baninduan?
Ez naiz bakarrik, gehiago ere ikusten ditut munduan...
Arrazoietan luzitzen det nik gizon handien onduan.

Xanpunen eskuidatzia.

Gure amatxi

Paper batzuek hitz guttirekin hola salatu gaituzte,
gure aitaxik omen dauzkala gaur lau aldiz hogoi urte.
Horien denengatik halare nola ziren beti gazte,
egun familiz inguratuta zoriontsu izan zaite.

Ixil ixilik, baina begia daukazu gure gainean,
eta maitasun paregabe bat bihotz on horren barnean.
Hitz aberatsez mintzatzen zira guri mintzo zirenean.
Kontseilu ona bezik ez dugu ukan zure erranean.

Nola atxiki zuk zure haurrak gure baitako gordeak,
ez dira nunai ukan ditugun burraso paregabeak.
Bai bihotz eta berdin laguntzaz ez zirezte herabeak!
Ez dira, segur, galdukor izan zuen urrats ta bideak.

Zorionezko bertsu hau nai dut zorionezkoa egin;
goretzi nahi dugu egun hau bozkario berarekin.
Amatxi, zaude goxoki egun seme-alaben hurrekin.
Bozkariotan eta penetan, beti irrifarrarekin!

Nola ahantzi gure artean gaur dugun ttantta Arina?
Zoin den pollita eta maitea gure amatxi panpina!
Gaur izan bedi gu guziontzat beste hunen erregina.
Horra zendako gordetzen dutan panpina horren adina.

Xanpunen eskuidatzia.

Arin-en 85 urteak

Hona nun gauden egun bildurik zaharrak eta gazteak
ospatu naizik hemen Arinen larogoita bortz urteak,
halaber bere jokoan dauzkan indar eta bertuteak.
Gaur uzten gaitu herri guzia bozkariotan beteak,
ikusiz berdin zoin zabal dauzkan geroarentzat atea. (bis)

Bere kirola zoragarriki jokatzen duen futbola,
berdin gainerat daukan mailean oso goraki dagola.
Jendea ere jostarazteaz bereziki dio axola;
nola dudatu bertute hori bihotzez heldu zaiola?
Agian, luzaz gure Arinek zoratuko gaitu hola.

Zuri-beltxa da zure jantzia, eta berdin ikurrina,
emazte baten esku urrezko balioekin egina.
Lau hitz bakarrez salatzen gaitu Arinek duen dohaina:
harturik ere itsas uhaina zoazi beti aintzina,
bihotza alai, burua gora, hankekin arin-arina.

Jokalari ta buruzagirik ez dut hemen izendatzen.
Egina duten lan ederrak du beren omena zabaltzen.
Bertsu hunekin ditut guziak bilduma batean sartzen,
t'alegeraki gure eskerrak diozkategu eskaintzen,
segi dezaten lan eder huntan beren laguntza ekartzen.

Kantari talde xoragarri bat moldatu zen Salvatorez;
hamabortz urtez estalia da kantu baratzeko lorez.
Boz paregabe, hunkigarriak; gaindika dago omorez.
Herria ere altxatzen gaitu edertasun ta ohorez.
Atzo hola zen, egun hola da, eta bihar zendako ez?

Xanpunen bertsupapera.

Kattalin

Agur bero bat eskaintzen dautzut bihotz-bihotzez, Kattalin.
Zu omentzean nork ez ote du hartzen gaur hemen atsegin?
Zure bizian ahal guziaz laguntzerat duzu egin,
eta gaur ere bide berari segitzen diozu berdin.

Egun goxo bat eskainia da; ez duzu, ez, ebatsia.
Denok dakigu, bertzen laguntzen gazterik zira hasia.
Sendagilea ofizioaz, eta ongi ikasia.
Arrantzaleek senditu dute luzaz zure eskasia.

Baina gaituzu denen gainerat eskuaraz irakatsi;
hizkuntza eder maitagarria ez duzu eskutik utzi.
Nola maitatu eta zerbitza ondo duzu erakutsi,
gure euskara erabilirik gai guzietan nagusi.
Beti herrian bere lekuan nahi izan duzu ikusi.

Zerbeit ordaindu ote dezake gaur agertzen den omenak?
Karia hortan alegeraki bilduak gaituzu denak.
Beraz, Kattalin, onartu atzu gure agur beroenak;
bizi guztiko oroigarriak dohatzu gaurko orenak.

Borzgarren bertsu xume hunekin beharko dut bururatu,
gure maitasun guziarekin nairik denak inguratu.
Ainitz gehiago banuzke baina denak ezin gogoratu...
Bihotz bihotzez heldu direla, Kattalin, zuk ez dudatu.

Xanpunen bertsupapera.

Zerurat igo da

Atzo gurekin ginuen eta egungotz zerurat igo;
bere bidean Zeruko Aitak harentza dei egin dio.
Ukaldi horrek senide eta euzkotar denak gaitu jo.
Zenbat estimu genion hari egun erakusten zaio...
Gure artean beti bizirik zaude, Joxe Antonio.

Nor ote zinen Euskal Herrian Joxe Andoni Zaldua,
irradi eta egunkariak doi baidute zabaldua.
Bihotza eta bertute danak goi mailerat azaldua.
Eskerrak ere asko zor dautzu, egun ez bada galdua;
nola negurtu nortasun horrek duen merezimendua?

Urrezko senar, aita-bihotza, denen adixkide, lagun;
hizkuntza eta herriarentzat ari zana gau ta egun.
Korapilotzar ta gorrototik beti zagoen hain urrun!
Zure urratsak guk etsenplutzat, beharrez, hartu detzagun,
beldurrik gabe agertuz beti euskaldun eta fededun.

Lur huntan utzi bihotz maitentzat zer kolpe gogor, samina!
Bai, zuek baizik ezin hartua neurria eta ezina.
Seme-alabez inguratua hor zaudena gaur, Begoña,
azken bertsu hau dut otoitz gisa Jaunari buruz egina:
otoi, goxatu dezan zerutik zuen gaurko dolumina!

Xanpunen bertsu hauek eskeintza zehatza zeramaten: “1948an Donostian jaio, eta 1983an Itziarren –autopistan- istripuz hil zen Joxe Antonio Zaldua lagun maiteari, doluminez”. Joxe Antonio Zaldua zenaren alarguna eta Xanpunena, lehengusuak dira.

Sorterria

Nola xori hegaldari ihes doan neguari,
itzultzeko udaberriz, kantuz bere herriari,
euskalduna berdin dabil itzulika munduari.
Baina bere sorterria josiz beti bihotzari.

Bere bizi suharra du itsaso, mendietan.
Ez du errex laketuko arrotzak daudenetan.
Berdin ere biziko da goxotasun ta bakean,
nola baita maitasuna sortu herri on maitean.

Zabalduz hor munduari bihotzak duen begia,
nunaitikan du ikusiko beti bere sorterria,
izarretan pollitena, goxoena den argia.
Orduan entzuten da bere hizkuntza garbia.

Mendi-zelaietan zira osatua.
Mendeak ditugula hola pasatua.
Behin eta betikoz hemen pausatua,
arbasoen arbaso onek hautatua.
Parabisu itxura daukazun lekua,
zu zaitugu, herria, kabi maitatua!

Xanpunen bertsupapera.

Eneko gazteari

Bertsularitzak izpiritua zorrotza nai du laneko.
Zuk nola duzun erakutsia gaituzu iraganeko:
Xapeldun jarriz eta ezarriz bertzeak zure meneko.
Jarraiki zazu bide berari oraino luzaz, Eneko.

Gazten artean agertu zira hoberen eta xapeldun.
Zorionekin goretsi naizik etorriak gira egun,
erakusteko zer atsegina zure lanaz hartzen dugun.
Dohain ederra zabaldu dadin guziek lagun dezagun.

Berezia da, bai, eta berdin goxoa bertsularia;
berekin dauka gizarteari josten gaituen haria.
Ez da errexa, baina badauka bere gisako saria:
kantuz goresten ahal baitira etxea eta herria.

Xanpunen bertsupapera.

Bakezko loreak

Egun Elizak ospatzen ditu Ziril, Metodo bi saindu,
Aita Sainduak izendaturik Europa dezaten zaindu.
Makur bideak heldu badira odolik gabe zuzendu;
gerla gaixtoak utzi, doluak bakezko lorez apaindu.

Hoinbertze mendez gerlak hil ditu gizon-emazte miliunka;
oraino ainitz amets-lekutto odolak bustia dauka.
Orai baturik bakea nahi du, hori ez dezagun uka;
gehiago, otoi, ez giten bizi bat bertzearen beldurka.

Jaunak diote errana hitz hau bere diszipulari:
langile gutxi zirezte baina uzta badago ugari.
Laguntzarekin bakea ekar gaur gure inguruari;
ahal guzian izan gitezen, Jauna, zure mezulari.

Hautsi detzagun lurrari josi nahi gaituzten kateak;
zabal detzagun hetsirik dauden bihotz idorren ateak,
izan ditezen alegeraki itxaropenez beteak.
Nunai bezenbat beharra badu Eskual Herri maiteak.

Basusarriko jaun ertorari.
Xanpunen bertsupapera.

Zoin maite zaitugun

Ez duzu, segur, zure denbora jostagailutan pasatzen,
ari baitzira, bai garbiketan edo arropak kaxatzen.
Edota berdin orratz-hariaz hautsiaren peaxatzen,
eta bertzela labe ondoan bazkari ona prestatzen.

Gu etortzean besarkatzerat goxatu naizik zurekin,
goxo, maiteki hartzen gaitutzu bihotza bete atsegin.
Gu goxatzeko beti zabilta ez dakizula zer egin.
Zor zaituguna gaur nai dizugu hemendik eskaini berdin.

Ikusi egun aita-amak guk denek zoin maite zaitugun,
ama Anttoni maitenarekin eta berdin aita Papun.
Bide beretik segitu behar dugu luzaz eta urrun.
Eskas direnak ere gogoan denek atxiki dezagun.

Xanpunen bertsupapera.

Etienne Salaberri apez jaunari

Bertsularien untzirat nairik nere ur korta ekarri,
nai izan ditut paper batean eskribiturik ezarri.
Gaia ere da ezin hobea: da Esteban Salaberri.
Apaiz kartsu hau nai nuke egun zor diogun mailan jarri.

Duela zonbeit aste diogu bere sort-herri Heletan,
omenaldi bat eskaini ipar eta hegotarrek bertan.
Egun goxo bat pasatu dugu, jauna, zure ohoretan;
geroztik nintzen zure alderat bertsu batzuen zorretan.

Mezatic landa, bazen mintzaldi, joanik Gazten Etxera;
bazkari ona, zonbeit kantaldi, bai, zer egun alegera!
Ororengatik egon zinen zu umil, beti gizon bera
eta jendeak ordaindu dautzu bihotzaren arabera.

Jakin ginuen, bai, zu nor ziren arras denbora ttipian:
erakusle on bat oroz gainetik, Baionako *Villa Pia*-n.
Izanagatik kargu handi ta dorpe horien azpian,
beti euskara hazi ta landu duzu zure hitzaldian.

Iragatzeko zure eskua zoin den zuzen ta garbia!
Erakusten du izpirituaz ere zoin ziren argia.
Bai eta ere han agertzen da zer den zure egarria;
maite duzuna maitarazi nai: Jainkoa ta Aberria.

Irakurturik astekaritan zuk eman punta idorrak,
aurkitzen dira hitz goxo eta halaber ere zigorrak.
Alde batera ala bertzea, dira denak hunkikorrak.
Han ikasten da nor den hartzeko, bai eta nork dauzkan zorrak.

Bai badakizu mintzo zautzuna nola behar duzun entzun,
bai eta ere galderak hartuz zer gisaz hari erantzun.
Erakutsia ere gaituzu euskara zoin maite duzun.
Izatu duzun maitasun harek egina zaitu jakintsun.

Barkatu, jauna, han edo hemen egina dukedan hutsaz,
nola bizia higatu duzun Jainkoa eta hizkuntzaz.
Eskualdunak oroitu giten egin gaituzun laguntzaz,
otoiztuz Jauna gure artean ahantzi zitzaion zu luzaz.

Etienne Salaberry apez jaunari omenaldi egin zitzaion bere sort-herri Heletan, 1979ko urriaren 16an, Eskualtzaleen Biltzarrak eskainia. Xanpunek bertsu hauek paratu zituen, eta Biltzar horrek argitara emandako *Etienne Salaberry eskualtzaleari* liburuxkan agertu gero.

Gorets dezagun Eliza

Gure xedetan lehen-lehenik gorets dezagun Eliza,
ahal guziaz lagundu eta bihotz bihotzez zerbitza,
elgarri ezin barkatuz nola erdi itsu baigabiltza.
Zabal dezala lur triste huntan Kristoren bakezko hitza,
izan dadien bihotz-arimen argia eta geriza.

Begira ere dezagun orai ibilki dugun mundua:
erran ditake orai dagola Jainkoari urrundua.
Bazter guzitan elgarren hiltzen, nagusi da urgulua.
Fededunek guk nortasunean altxa dezagun burua,
zuzentasunak irabaz dezan hasia duen gudua.

Betharrameko anai-arrebez dugu xede berezia,
otoitzean, bai, eta lanean deramatenak bizia.
Baina ikusiz Euskal Herrian dugun apez gabezia,
egun, San Mixel, zure bitartez galda dezagun grazia
berpiztu dadin lehen bezala bokazionen hazia.

Gazte maiteak, segitu azkar hasi duzuen sailari,
beldurrik gabe jarraikiz beti fede bidexka zailari.
Oroit San Mixel beti dagola gure herrien zaindari.
–Jauna, hemen naiz– zion hitz ona errepikatuz, Berari,
jarraikiz beti bere bidean erromes edo beilari.

Ez gaiten izan gure artean bihotz gabe edo zikoitz.
Gaitz gaixto hortan luzatu gabe atera giten aski goiz.
Bideko lagun galda dezagun gure San Mixel Garikoitz.
Herria eta bai herritarrak ez ditu ahantzi inoiz.
Euskaldun eta fededun gauden guziek dezagun otoitz.

Bertsu hauek *Herria* aldizkarian argitaratu ziren, 1996ko abuztuaren 28an, honako ohar-kronika hau erantsiz: “Abuztuaren 28^a, egun Ibarreko beila da. Goiz huntan berri on guti: Belgikan gertatu abrekeria, miliunka haurrak salduak eta zikinduak munduan zehar. Iheslariak gibelerat igorriak, zektak Euskal Herrian sartzen ari, lagabezia emendatu eta emendatuko, eta Chirac-ek galdatu bere ministroei, nahi ala ez, irri eder batean ager diten jendeari... Horra 1996 urte huntako abuztuaren 28 goiz huntako berri loriosak!

Ibarren hamarrak eta erditako meza jaun apezpikuak euskaraz derama. Kantuak populu guziak emaiten ditu ederki. Predikua ez da luzeegia, bainan funtsez eta formaz paregabea. Gure artzainak, euskaraz agertu puntuak, frantsesez bilduma labur batean, berriz emaiten ditu. Horra hor etsenplutzat har ditaiken manera bat.

Ondotik, hemen kausituko dituzuen XANPUNen bertsu ederak, eskaintza denboran. Nahiz denbora doi ilun den, bihotza pizten du gisa huntako liturgia batek. Jakitean, bertzalde, ehun bat gazte, oinez jinak direla Ibarrerat goiz huntan.

Omen ditake

Hola diote, eta berdin baditake.
Famak zabaltzen dira gero jo eta ke;
baina hunen zuzentzen gero duzu neke.
Ez baldin badaukazu aski segurtamen,
nun den, zer den eta nor den,
erran beti: omen.

Harek ere badauka bigarren andrea;
baina andreak ere menturaz berea,
galde eginez beti: hau egia dea?
Ez baldin badaukazu aski segurtamen,
nun den, zer den eta nor den,
erran beti: omen.


Pettan ari zelakotz behin konfesatzen,
bertzen bekatuak zituen salatzen
ustez-eta hau bertzek zutela salbatzen.
Ez baldin badaukazu aski segurtamen,
nun den, zer den eta nor den,
erran beti: omen.

Omen horri ez, otoi, aterik ideki,
nola luma haizeak bait zauku ibilki.
Nun aurki, nola bildu, hau nehork ez daki.
Ez baldin badaukazu aski segurtamen,
nun den, zer den eta nor den,
erran beti: omen.

Zurumurru dugu hau euskaraz deitzen,
berri zuzenik hunek ezpaitu ekartzen.
Mingaina ez badugu zuzenki ezartzen,
behar ez den lekuan berdin baita sartzen.
Gero ez da errexa makurren sendatzen.

Xanpunen bertsupapera.

"Au Chipiron" Il y a 40 ans



Agotik ezin utziak ziren jan ditugun xipiruak
Donibaneko "koutxa" maitean arrautzulek bilduak
Lahouner jaunak urreeko eskuz gintuzkien moldatuak
beren tinta on eta beltzean baizeituen goxatuak
Merzitua du duen fama "au chipiron" ostatuak

Quel régal manger les chipirons,
pêchés dans la belle baie de Saint Jean de Luz.
Préparés par les mains d'or de Monsieur Lahounerre,
mitojés dans leur encre noire
Oui Vraiment le Restaurant "au Chipiron"
mérite sa renommée.

Etzeko andre ta zerbitzari ohoratu nai ninouzke
Frekin duten grazia ona nun nai baden ez dut uste
Bazkaltarrak izan ditela adineko edo gazte
Errezebitu bezin goxoki zerbitzatzen baidituzte
Orta zer gatik "xipirouerat" biltzen giren orrenbeste

Je voudrais rendre hommage à Mme Lahounerre et aux serveuses
La gentillesse qu'elles ont ne se rencontre pas partout
Que le client soit âgé ou jeune,
il est servi aussi gentiment que reçu.
Voilà pourquoi on aime se retrouver "au Chipiron".

Xanpun

Ttipi bertsularia

Urruñaldetik beti zauzkigu bertsulariak agertzen,
zoinek baitute herri maitea goستن eta edertzen.
Iragan zaukun mendeak zion Ttipi deitu bat eskaintzen:
laboraria, gizon argia bertsua aise egortzen.
Egun goretsi dezagun bera, egoki da eta zuzen.

Halan eta Mattin zuen izena, baina ezizena Ttipi;
izpiritua zorrotza eta arrazoin garbia beti.
Haren kantuak oraino dira Euskal Herrian ibilki,
maitasunaren hitzekin ere jakin bihotza noiz aurki.
Gaur egun dugun bertsularitzak horrenbeste ote daki?

Harrabotsa da, hola diote, baina ez dakigu nor den.
Gai huts horrekin mintza gintazke behar bada zonbeit oren.
Hala ote da?, batek galdea, errepostua ba omen,
bai eta nehork ezin ekarri horri zerbeit segurtamen.
Gezurra berdin izan ditake, beraz geldu gaiten hemen.

Xanpunen bertsupapera.

Urruñan, Lizarragan

Lizarra deitu etxe maitean, agiri batzuk diote,
mutil azkar bat ukan zutela duela lau hogoi urte.
Bortz haurrideko sendi ederrak etxea zuela bete,
ait'amarekin erakutsiaz zonbat zuten elgar maite.

Bataioan Jean dauka izena, eta deitura du Bizkai;
beti agertu izan zaukula lan guzientzat aski gai.
Bizi guzian erakutsi du hanbat indar eta kurai:
animaleak hazten, gainerat lurra ibiltzen ere bai.

Gazte guziek bezala ere izan ditu eztabadak;
hiru urtean kendu diozka behar gabeko *arusadak*.
Gero bortz urtez jasanak ditu alemamen Estalagak,
eta egungo urrikia du debalde utzi abalak.

Geroztik dira urte multxoak ohartu gabeen joan,
baina hauk atzo pasa bezala argi dauzkatzu gogoan.
Pentsatuz ea zer gertatuko zaukun heldu den geroan,
bakeak leku xuhurra baitu gaur dugun mundu zoroan.

Gero aingeru pollit bat zautzu etorria ingurura:
Haranburu`tar Antoinete zen zure maite eder hura.
Biak ezkonduz heldu zirezte buraso onen gradura,
hiru seme ta hiru alaba eder ekarriz mundura.

Noiz behar urus eta orduan etorri zauku malura,
ixtripu batek kendu baitauku ama goxagarri hura.
Geroztik bere izena dabil gure hitzetan ardura.
Zoin bortitza den ama on baten eskasien arregura!

Zure laguna erortzen bada zoazilarik gudura,
lepoan hartuz segitu zazu zure bidean aurrera.
Ordu latz hartan zuk egin duzu kantuaren urrats bera.
Daukazun karga arindu naizik laguntzerat heldu gera.

Amak dezala orai zerutik zoriontsuki goaita,
egungo bestan lur maite huni zerua josia baita.
Seme-alabek eta ilobek goretsiz dezagun maita
lau aldiz hogoi urte beterik oraino gazte den aita.

Xanpunek ez du esaten noiz egin zituen bertsuok, baina orde-
nagailuz dotore asko egindako paper baten banatu zituen.

Mende erdi bat

Mende erdi bat apez zirela; zer apez argiz betea!
Noiz ikusten da apez artean jubilatzen den taldea?
Bat Etchegaray jauna daukagu, Erroman Kardinalea;
Andiazabal au Urruñarra, kalonje erakuslea...
Nola ahantzi Ziburun Chalet, mezu on zabaltzailea?

Sakramendua hartzean ziren berrogoi eta lau apez;
zer hutsartea ikus ditaken egun mende-erdi batez!
Eskuin ta ezker zabaldu ziren Jaunak egin deia batez.
Gaur zorionak eskain detzagun deneri bihotz bihotzez.
Onhart bitzate gaur zorionak Euskal Herriaren partez.

Mundu guzian zabaldu dute Jesus maitearen hitza,
eta berari eginez berdin zaukatenaren eskaintza.
Baina gaur egun xuhur dabila apez horien ordaintza,
nahiz munduan soberan dagon zer egina ta langintza...
Segurta azu, otoi, Jaun ona, artaldearen artzaintza.

Manera berri batez bidea eskaintzen dauku Jainkuak.
Apezak xuhur diren lekuan hurbil gaitean laikuak,
hain beharrezko baitu horixe gure Euskal Herri gaizuak.
Hartu detzagun langile eskasiz hustuak dauden lekuak,
gure laguntza pixka eskainiz luza detzagun eskuak.

Xanpunen bertsupapera.

Gora Donibane!

Gizon batzuek dute nahikunde ergela:
bakea den lekuan egiteko gerla,
iduri odolaren egarri direla.
Erran dezotegun gaur hobeago dela
tiroen hotsa baino kantu xaramela.

Donibaneko gure Patroina dugu Joanes-Baptista.
Bera goretsiz egin dezagun gaztek aurten besta,
plazarat bilduz soinuarekin berdin mutil eta neska.
Egun batzuez berdin ahantziz geroaz daukagun kezka.

Pilota, soinu eta dantzari, bestan gabiltza guziak.
Egin detzagun denek airoski Muttiko zazpi jauziak.
Ez utz galtzerat gure ohiturak, arbaso onek utziak,
erakusteko herriko bestak berekin dauzkan graziak.

Auzo herritik eginen dute bestaraino itzulia;
aurki bezate gure artean egiazko familia.
Soinu, kantuan eta dantzatuz goxamenen iturria,
deneri dugu eskaini nahi gure ongi etorria.

Laborariak, arrantzaleak, eta berdin hiritarrak,
denek erakuts herriarentzat maitasun eta indarrak,
landatuz diren itsaso, mendi, ibai ta zelai ederrak.
Gora, gora, zu Donibane, eta zurekin Donibandarrak!

Ezkondu zirenez gero, Donibane Lohizunen bizi izan zen beti
Manuel Sein *Xanpun* bertsularia. Eta bihotzez maite eta miresten
zuen, bertsuok erakusten digutenez

Alegeraki gira

Alegeraki gira zuengana heldu,
bozkario hau naizik deneri zabaldu.
Ez dezagun burua sobera apaldu,
ahuldua den hura dezagun ahaldu.
Itxaropenak bere lekua behar du.

Denbora neurtuan nola giren bizi,
atzo bezala, egun aintzina goazi
hartuz behar duguna indar ta zuhurtzi;
biharkoa bihar ta etzikoa etzi,
geroaz ez dezagun ahal bada etsi.

Ez gabiltza harroki, ez eta espantuz;
bainan bozkarioa egin ahala lantuz.
Eman beharra eman, hartu naia hartuz,
bihotza gaindika den guzia salatuz.
Nola salatu, horra: hitzez eta kantuz!

Kantua baita beti bihotz altxagarri;
gure partea dugu nai egun ekarri,
denak bozkariotan gaitzala ezarri.
Nor ez ote da hemen gaur horren egarri?
Beraz, dugun dohaina eskainiz elgarri.

Xanpunen bertsupapera.

Pilota jokoak

Izan haur kozkor edota adinekoak,
berdin xapeldun handi paregabekoak;
izan erreboteak, trinketa, xokoak,
kanpotik etorriak nola etxeoak,
denak xoratzen ditu pilota jokoak.

Zuri begira bada gozamen ta bake;
denbora ere errex iragan ditake.
Goazen, beraz, denak, dohain horren eske.
Borobila zirena eskuratzen neke,
bertzela bihotz baten itxura zinue.

Beti zuri segituz indar eta gogoz,
zuri begira gaude, bi begiak zorrotz.
Bihotza irakiten, baina burua hotz,
zure omenak hori behar duelakotz.
Izan zaite betikotz herriaren bihotz.

Mundu guzian zabiltz itzul eta bira,
izarrezkoa baita daukazun distira.
Jostagailu bat jina iduzki azpira,
beraren itxurako edergailu zira.
Goza gitezen, beraz, gaur zuri begira.

Xanpunen bertsupapera.

Pilota

Agurtuz goretsi nai zaitut zu, pilota!
Gai pollitagorik ezin nuen hauta.
Eskuz ereman edo xisteraz bota,
nahiz ezartzen gaituzun batzu besten kontra,
zabaldua gaituzu munduaren borta.

Zuri esker dauzkagu hoinbertze ohore;
munduko *Jai-Alai*-ek ikurrina lore.
Nortasun osoan, bai dohain, bai botere,
lehen nola gaur izan zaite gero ere
lur osoan Euskadiren enbaxadore.

Izan eskuz, xisteraz, sarez edo pala,
lekua izan hetsi, bai berdin zabala,
goratik gan zintazke, nol'apal apala,
beti negurtzen duzu gizonen ahala.
Nola dudatu plazan erregin zirela?

Ikusteko baitzira zu zoragarria;
berdin gorputzarentzat, zer osagarria!
Zalutuz hanka-beso, halaber gerria,
nasaiki ixuraziz dugun izerdia.
Ote da kirola bat zu bezin garbia?

Eskuidatzi honetan Xanpunen beste eranskin hau ere irakur daiteke:

Mundu guzian zabiltz itzul eta bira,
hurbil Danibaneko itsasora beira.

Zuri esker daukagu hoinbertze ohore,
munduko *Jai Alai*-ek ikurrina lore.
Nortasun osoan, bai dohain, bai botere.
Lehen nola gaur izan zaite, gero ere
lur osoan Euskadiren enbaxadore.

Munduko xapelgoak berdin laster dira,
goza gaitzazu, beraz, hor zuri begira,
lur osoa ekarriz Eskual Herrira!

Paperaren buruan eta bertsuen aitzinetik honela dio: “*Pilota / Hymne / Composition et Arrangement: Jasques Ballue. Paroles: Xanpun*”.

Ipar haize xorrotxa

Ipar haize xorrotxa itsasotik heldu,
lurrean gaudenentzat seinale bat badu.
Soineko estalgiak ez detzagun kendu,
negua ez zaukula oraino urrundu.

Itsasoa ikusten dugu eder ta legun,
bere edertasuna ikus ala urrun.
Burutapen bat badu, ez da ageri inun,
hasarretzen delarik haizea obendun.

Delarik iparra edo hego mendebala,
itsaso goxoa da kexu berehala.

Oharra: Xanpunen paperetan agertu bertsuak. Bertsuak egiten
hasi eta burutu gabeko saila dirudi.

Itsas haizea

Itsasoa berez da ederrez egina,
begiratzeak beti dauka atsegina.
Zabala bezain baita leguna ta urdina,
iduri du zerua estalgitzat egina.

Begientzat dago eder eta legun,
bere edertasuna ikus ahala urrun.
Burutapen bat badu, ez da ageri nihun.
Hasarretzen delarik, haizea hobendun.

Gainerat, heldu bada haize mendebala,
orduan erakusten derauku ahala.
Lurrari puska kenduz dabil berehala
erakutsiz dener indartsua dala.

Orduan, mariñelen buruhauste, kezka...
Beren biziak ere eskuetan dauzka.
Haixe gaixtoa, hik eman diok bazka;
geldi dadien, beraz, ez geio arraska.

Xanpunen eskuidatzia.

Zorionak bioi

Lehenik egun berezia da hau, Maite eta Jean Marcerie,
eta halaber zuen bitartez bilduak giren deneri.
Zer estimua ekarki dugun nola hemen den ageri,
Zorion ainitz bertsu berean eskainiz hemen zueri.

Hiru urte du zinen pilotan zu munduko xapelduna,
erakutsirik joko horretan nola zinen ahalduna.
Ez dugu egun ahantzia guk Senperen pasa eguna.
Gaur zorionak berriro ere; gora zu eta laguna!

Baina egundik aldaratzen da zure pilota jokoa,
zeren hautatzen duzun betiko lagun paregabekoa,
denok lekuko gaudela eta begirale Jaungoikoa.
Zu izan zaite maitasun hunen atea duen gakoa.

Senarra utziz azkar-azkarra bere kanpoko lanean,
andrea aldiz etxekoandre uzten da etxe barnean.
Aingeru batzu ekarriz berdin ordua heldu denean.
Agian, beti izanen zaizte egungo zorionean.

1997ko buruhilaren 22an.
Xanpunen bertsupapera.

Amatxi Anttoni

Bozkariotan heldu nintzauzu egun, amatxi Anttoni,
zorion ainitz naizik gaur zuri kantatuz hemen eskaini.
Urtebetetze goxoa eta atseginkor izan bedi,
zurekin duzun maitasun hori sekulan ez dadin geldi.

Hiru hogoita hamar urte da betetzen duzun adina;
zu ikustea guretzat baita egiazko atsegina.
Burua argi, begia erne, iduri urrez egina.
Ez da nunahi aurkitzen ahal dugun amatxi panpina.

Karrikan ere beti baitzira bixi-bixia ibiltzen;
iduri luke adina ere ez dukezula senditzen.
Goizetik arrats, lanean beti; kasik ez zira gelditzen.
Gazteak ere gaur badu lana urrats berari segitzen.

Xanpunen eskuidatzia.

Bi bihotz

Bi bihotz honek merezi dute egun ohore, goresmen.
Hortarakotz naiz zuen artean aurkezten kantari hemen.
Baterat bilduz bihotz horiek daukate ainitz ahalmen.
Axafila baitan ikus ditake zonbat egiten ahal den.

Bai, zorionak zuri, Margarit, eta zuri, Inazio.
Jauna lekuko, bizi guziko egin zinezten sozio.
Berrogoi urte dituen puska egun kendua baizaio;
baina Jaun onak eman detzola gainerako ainitz geio.

Xanpunen eskuidatzia.

Erroman ginen

Donibane Lohizune, Baiona, Mont-Marsan eta Pabeko 165 erromes joan ziren Erromara, 1987ko azaroan. Eta Xan-punek honela eman zituen bi bertsu erromesaldiaren ostean:

Erroman gaindi ibili gira, halaber ere Assisen;
gogo bihotzen nahikunde a hobeki ezin hazi zen.
Fedea eta jakitatea berritik zauzku beztitzen.
Ikasi dugu lagun artean elgar lagunduz bizitzen,
Jainko onaren grazia baitzen urrats guzien kausitzen.

Gure bihotza bozkariozki dugu denean zabaldu.
Gidari onak bide txarrean ere ezin gaitu galdu.
Jaun apezpiku eta jaun apez, denek gaituzte lagundu.
Erromatik gu heldu ikusiz nor naik erraiten ahal du
herri-ekilak ginela Bazkoz berriz errepikan heldu.

Pyrénées-Atlantiques, 1989.11.15

Irratian

Hurrengo bertsu hauek ere Xanpunen paperetan agertu dira; bainan oso era berezian eginak: Bertsu bat ordenagailuz idatzia eta hurrena, eskuz. Ordenagailuz direnak beste batek kantatzen dizkio, itxuraz, irrati bateko hizlari Ugutzek. Eta eskuz idatziak direnak, Xanpunen erantzuna dira. Guk denak kopiatu ditugu, irratikoak ezkerrean eta Xanpunenak eskuinean.

Egun on zuri, Xanpun, gure adixkidea.
Aise atzeman duzia irratiko bidea?
Bertsularitzan beti izan duzu tirria,
plazagizon kantari eta koblaria.

Halaber, gaur zuri, adixkide Ugutz,
zuk gidatu bainauzu irratira buruz.
Bertsu lanean beti ari naiz urus,
lagunarte goxo hau guk ez galtzerat utz.

Arkatza eta papera eskuan harturik,
izkiriatur egiten ditut bertsuak nik.
Koblaria ez naizela ez hortaz dudarik,
dohain bat ere behar dela Jainkoak emanik.

Eskutan dauzkat orai paper ta arkatza,
baina idazte hori neretzako latza.
Jakiteaz ez bait naiz aski aberatsa,
bertsutan segituko dut zure urratsa.

Bertsuak itzultzean potoa dut egiten,
xikanatzea hori dela dautzut aitortzen.
Barkamendu horrengatik derautzut eskatzen,
bertsutan galde egiterat nauzu ausartzen.

Bertsutan nornaik berdin eginen du poto;
batzuk harritzen dira, nik diot: zertako?
Lagun maitea, otoi, ez kezka hortako,
makur eta zuzena anai direlako.

Huna lehen galdera izenari buruz:
otoi, erran zaguzu nundik hartu duzun.
Zure haur denboretaz zerbait erraguzu,
zu entzuteaz lorian izanen gaituzu.

Nere sortze izena daukat Manuel Sein;
Gur'etxe xaharrana Xanpun baita baitzen,
izantate gisa deraut izena eskaintzen.
Horra zertako egun Xanpun nauten deitzen.

Erraguzu deneri nola zinen hasi:
bertsuak ongi egiten nola duzu ikasi?
Senperen sortu eta euskal giroan hazi,
guzien errespetua duzu irabazi.

Besta ondorez nintzen bertsuekin hasi,
kantuz zerbeit erraiten bada zerbait aisi.
Senpereri Urruña bainuen nahasi.
Bertsutan ongi ez dut behinere ikasi.

Ainitzek ez dakite artista zarela,
antzerkilari gisa ona zinela.
Ikasi hura ez bazaizu heldu nahi bezala,
arrapostia emaiten zinuen berehala.

Artista gisa egin kantu ta antzerki,
ikasten ere gosta zitzaukun azkarki.
Geronek pentsaturik gu berdin ibilki,
nehork jakiteko hau Pettanek badaki.

Herri batek dituen aberastasunak,
mintzaira galtzen badu, galtzen ditu denak.
Keinka hortan ginela anitz euskaldunak,
ez dira urrikalgarri holako pertsunak?

Hortaratzen bagira, ezin ukatua;
ezin barka litake gure bekatua.
Ez ote dugu berdin guk parte hartua?
Hortakotz da frantsesa hoinbertze sartua.

Eskualdun agertzeko boneta gorria,
arropa xuriekin, zer girgileria!
Ez dugula horrekin salbatuko aberria,
hola segituz denak, adio Euskal Herria.

Soineko bat hartzea, hori ez da aski;
ez gaitezen bilaka kanpoko marrazki.
Dugun zuria, beraz, orai erakutsi:
etxeakoak zaindu ta kanpokoak utzi.

Txangurro itsaski saltzen ari izan zinen,
zu denen adixkidea, gure Manuel Sein.
Itsasoko geroa nola duzu ikusten,
pelajiko sare horiek ez baituzte kentzen?

Ni izan naiz ere itsaskiak saltzen,
irabazian baino gehiagoren galtzen,
alta ez niozkaten ateak zabaltzen;
Hala ere zakiten zen lekutik hartzen.

Antxoa ta ttipia, legatza murritzu;
arroxela da aintzu arras desagertu.
Politikoek Europan sakelak betetu,
itsasoaren geroa dute dena hondatu.

Nun ditugu antxoak, halaber sardinak?
Kosta hegitik dira gaur ihes eginak.
Handiek lehertuak, hauk ttipien grinak,
batzuen doloreak bertzen atseginak.

Europa hortan diren politikariak,
erdiak bederen dira gezurtiak.
Parrasta bat baduzu direla urdiak,
galtzak kenduko dazkute, gaixo ipurdiak!

Politika kontuan konfidantza gutti;
hor dabilta gaur egun, goiti eta beiti.
Nun aurkituko duzu hor hainbat gezurti?
Egun erortzen dena, bihar berriz xuti.

Laborari ttipiak ez dute laguntzen,
aldiz aberatsenak sosak ongi altxatzen.
Inglesen erreginak gehienik hunkitzen;
erregina izaitez kanpo, lurra omen du lantzen.

Laborari maiteak, nun dago laguntza?
Nork ote du gaur egun zuen ezagutza?
Zer nai eskaintza eta eskas beti funtsa,
handiena bete eta ttipiena hutsa.

Duela dotzena urte Txearnobilena,
eta berantaxoño behi eroena;
diozginez hazitako oilaskoarena,
nagozu ez den gizona burutik joena.

Rusoek atomika, angelesek behiak;
nunahi ikus ditazke erotzeko gaiak.
Ongi hetsi beraz gaur baserriko deiak,
ez baigira haragiz aseta hil naiak.

Mundu huntako jainkoa duzu dirua;
beregatik gizonak galtzen du burua.
Diruarengatik beti sortzen dira guduak.
Zer abrekeriak behartu kasan ohi munduak!

Zorigaitzez ditake gaur egun ikusi
Jainkoa bazterturik dirua nagusi.
Elgar beharrez beti pusketan erantsi,
jendetasuna gaur zoin behera den jausi!

Adixkidea, orai behar da bururatu;
uste dut entzuleak duela plazer hartu.
Gure lan huntan denak behar dira izartu;
hortan bururatzen dugu egungo *interviui*.

Bururatu dezagun guk *interviua*;
eman ote zaio zor zaion baliua?
Buruhauste bat dela erran gabekua,
bainan kurritu dugu egungo mundua.

Jiten ahalko zira nai duzunean berriz;
zurekin solaseak pasatzen'tugu irriz.
Etorriko zarela hortaz, bai, segur niz.
Egundik hartarat artio izan suerte anitz.

Agur beroenekin, entzule maitia;
gozagarri zen egun hemen izaitia.
Gertatuko al zauku, bai, berriz jitia.
Ez adio, ta gora gure irria!

Baina beste bi bertsu hauek ere erantsi zizkion bere eskuidatziari Xanpunek, ez dakigu noiz irratian egindako saio huntan:

Egin ditugu ere guk zonbeit antzerki,
gure haurkeri batzu ibiliz ekarki.
Gure dohain guzia hola ginun aurki.
Erakusleak segur sofritu ederki!

Antzerkia jokatzan ginuen ahalaz,
hunkiturik baiginen gaiaren zabalaz,
bertute ainitz zuen erretor apalaz.
Gaur behar ginuke, bai, guk ainitz Matalaz!

Zorionak, Helen

Elgar maitatuz mende erdi bat da urrezko maitasuna;
berekin dauka errespetuan egiazko nortasuna.
Ezin da neurtu eremu hortan dezakegun ontasuna.
Luzaz oraino hola dagoen benedika azu, Jauna.

Gaur zorionak zuri eskaintzen dauzkitzugu denek, Helen.
Maitasun huntan ama baitago oroz gainetik ta lehen.
Seme-alabez inguratua ikusten zaitugu hemen.
Ikus amaren gradua nola handi bezain ederra den.

Xanpunen eskuidatzia.

Espiritu saindua

Errepika:

Saindua zaren Izpiritua,
argi guztien argia:
gaur izan bedi zuk argitua
gure mundu galgarria.

Jaungoiko Aitak gu salbatzeko emana dauku Semea,
egin dadien gizon hautatuz Ama emazte xumea.
Zure bertutez egin gaituzu Ama bekatu gabea,
eta halaber gure arimen salbamenduko bidea.

Trinitateko misterioan zu hirugarren presuna,
Aita Semearekin batean Jainko bat egin duzuna.
Zu egiaren argia eta hitz onaren oihartzuna,
bataioaren hari sainduaz zuri josi gaituzuna.

Apostoluak triste zaudela Jesus gabe ilunbetan,
zure argiak argitu ditu, ere indartu bet-betan.
Mintzarazirik ainitz mintzaira hor hasi ziren berbetan;
zabaldu dute Jesusen hitza lurraren lau hegaletan.

Bihotz xumeak zuk argiturik dira jakintsu ta saindu;
makur zoazin gizon bakarrak umildu eta zuzendu.
Zure argiaz Eliza duzu gidatu eta apaindu.
Lagun gaitzatu gure fedean azkarki dezagun zaindu.

Xanpunen eskuidatzia.

Izar bat

Egun batez izar bat zen desagertu zeruetan,
aingeru bat beldurturik galtzean itsas-uretan.
Zerutik jin eta hasi izar haren ikusten;
aurki du lur gainean zabalik zazpi pusketan.

Nigar malkoak begian, erran dio izarrari:
zazpi puskak, otoi, denak lotzatu elgarri.
Bai, lurretik egin azu zeruari buruz argi...
Horra noiztik eta nola sortu zen gure Euskadi.

Gero, gure aingerua zero alde airatu zen,
mendez mende nola jakin, bazarenetz zerbeit izen.
Gizaldiak iragan ta gizon itxura du hartzen.
Ta geroztik aingerua guk ABADIE dugu deitzen.

Neurtu du zeruetan dagon izartegi leuna,
Ziberoatik zeruraino baitu bere erresuma.
Uda, mendi nola zelai, edo itsaso marruma,
denen bidegurutzean utzi du bere bilduma.

Ziberoako lur maiteak betikotz zaitu estali.
Ordutik da argi eder paregabe hori jali.
Gizaldi bat iragan ta deusek ezin du itzali.
Hau betikotz Euskadiren argizari izan bedi.

Agur, bihotz osoaz, zu Abadie jauna,
 egun miresgarria goستن duguna.
 Ait'amak zu mundurat ekarri eguna,
 euskaldun fededuna, zinez jakintsuna,
 Herria nola maita erran gaitutzuna.
 Zaindu dezagun berdin dugun hautasuna.
 Izan zaite zeruan gure oihartzuna.

Xanpunen bertsupapera.

URTHE BERRIZ URRUGNAN

1
 Omoro ou batian lotzen naiz pertutan
 Gis'artako sujeta izanik eskutan
 Zentrotik mintzatu nai nuke aldi nutan
 Kontu emaa azuo ea zertaz dutan

2
 Urthe herri bezperaz badu zombelt aste
 Kantuz ibili gira hiru langun gazte
 Etchelan zerbitzatu ongi in gaituzte
 Gazteki in ginuola ez ginuen uste

3
 Gaua ezin ohekl zitzaunkun pasatu
 Kantuz eta kurrituz otzaro kasatu
 Bolanyer batek haik gaitu akusatn
 Aren postaliak guk tugula pusatu

4
 Gu ginela arturik yaun arek idata
 Yandarmelat inasi orrentzat plata
 Guri egun ardia gal'uzteko dala
 Idira oz atxatutu zerbeit bat in nala

5
 An aillatu ortuzen asi komedia
 Zorroyki aldu baitzen y andarmen galdia
 Delako urthe herri gau artaz balia
 Bolanyer bati dugun autsi portalia

6
 Errepostu eman dut harridar batian
 Gaizkiak ez dugu egin guk kantuz gatian
 Guinerat ez kantatu yaun aren aitian
 Bertze frango igual utzi bilartian

7
 Present arthurik baitan an nik bi zartako
 Nehonik ez laitekil gauzori zerlako
 Ez naiz presentu izain erran gis'artako
 Gauz guli aski dote yoa emateko

8
 Gerozlik egin dugu heta itzulia
 Aiten kmpainan oruko aldia
 Buruz buru mintzatu portalen yabian
 Ez dezala aknea faltarik gabia

9
 Bakea ez baisen an-aras aisele bildu
 Altek afera zuten eskut an ichildu
 Portalen gastuz gure galn agindu
 Deus etzen izain ori guk autsi bogindu

10
 Autsi naiz ikusi yaun arek prestia
 Ougi pensatu zuen guretat sistima
 Dobita eman azi guztien eskima
 Bertzentzat pagatza zitzaunkun lastima

11
 Abilki yokatu da aski zelakun
 Gure sosak naizik ibili golkun
 Gero ariko zela eyekin yokun
 Ederki trompatuz baita oraikun

12
 Pagatzen ditugula dut erranen haik
 Non nai nituren dute gauza au goratik
 Afer ortan ez tugu dremendemen falitik
 Pagatzen ditugula buruson gaitik

13
 Behartzen zaioe ba giren gaztekuak
 Burhaznek dituzien gu gairek'eskunak
 Yaklu beharizuen bertzela ez ginef'astunak
 Bta austalieri pagatzen gastuk

14
 Guttirentzat gizona orerrik dabila
 Edo segurak zauzkan bizpshiru mila
 Berririk egiteko ustoz zea abila
 Autsi arrimutuez kotenta dabila

15
 Afer au gertatu da Urrugna Herrian
 Berrogoi seiyelik ta zazpiko gabian
 Espres emanak ditnt olachet copian
 Yendeck kantu delzaten nai daiten tokian

Champun

Zorionak

Zorionekin heldu naiz egun zuen denen goresteko:
doan urteak bide ona utz dezala bertze bateko,
osagarria eta bakea lokarri bien arteko.
Bataren ona ez bedi izan heldu denaren kalteko.

Bai, zorionak eskaintzen ditut bihotza zabal idekiz;
egin nauzuen fabore handi hori gogoan atxikiz.
Esperantzaren argia ere berdin hola diteke pitz,
obra handiak egiten dira berdin zonbeit jestu ttikiz.

Urteak doaz ohartu gabe, hola: ez on eta ez txar;
langabezia, aldiz, dagola beti bortitz eta jazar.
Lantegi zonbeit ditezen gero bide zuzenean ezar,
ukan detzala herri maiteak orai ainitz Beñat Etchart.

Lehenik aita goretsi nai dut ezarriz bere heinerat;
buruhaustek ta ohoreak heldu zaizkio gainerat.
Baina lanaren kontzientziak beti azkartzen du zoinbat;
danen artetik beti gelditzen baita lehen zagon Beñat.

Zonbeit arrosa pollit zuretzat dira, etxeoandrea,
arrosa baita emazteari konparatzen den lorea.
Usain ezta, berdin ederra dauka bere kolorea.
Ez al da bera etxeo goxo ta sendiko amoreta?

Zoin den ederra eta azkarra beti familia batua,
aita eta ama seme-alabez goxoki inguratua!
Maitasunaren hari azkarra ez baitago urratua,
berekin duen azkartasuna eztelarik mugatua.

Xanpunen bertsupapera.

Bidarraiko aingerua

Bidarraiko aingerua,
duela mende erdia
ikusi duzu mundua.
Geroztik egin biziaren gudua
beti gora atxikiz burua,
utziz oroitzapen ezin galdua.
Orai mende erdiak
zabalik dauzka begiak,
beharrezkoak diren argiak.

Bidarraiko aingerua,
orai du mende erdia
ikusi zinuela munduko argia;
geroztik egin biziko gudua
beti gora atxikiz burua.
Utziz zure ingurua
ahal guziz lagundua,
eta oroitzapen ezin galdua.

Gauaz eginaz lana,
ez baita beri errexena,
herrien sendagile emana;
saila ongi eremana,
bere bizian gorderik daukana,
kolpe gaixto ainitz ukana.
Hor ikusten da indarraren dohaina.

Zorionak, Marie Jeanne.
Gaur mendi erdi baten gerizan,
beti berdin, maite eta goxoa izan
biziak aintzina izan dezan.

Xanpunen bertsupapera.

Errimadun prosa

Garai batean Iñaki Eizmendi *Basarrik* egin ohi zuen antzera, errimadun prosan hitz egitea ere atsegin zuen Xanpunek, eta sail huntan ditugun eredu laburrak dira lekuko.

Amador Zabalbeaskoa eta familiari:

Gure Amador Zabalbeaskoa,
nere agurra zuri buruz doa.
Eginbidez argitu zait gogoia,
ongi etorri ezin hobeagoa.
Oroitzapen bat badugu egiazkoa,
harek bihotza baiteraut joa.
Hor ikusi dugu maitasun beroa,
alta zuk zinuen kalbarioa,
su gaixto baten ondorioa.
Gerta bedi gaur sendo sendoa
sofritu arazi zaituen soa,
agian, sendatu zaitzu besoa
besarkatzeko nere partez familia osoa:
andretxoa hurrekin, eta amatto gaizoa.

Eskerrak milaka, Amador. Ez dauzkagu ahanztekotan zuen urrats eta jestuak.

*Muchos cariños
a ese país de sueños
que es Los Baños,
y salud por muchos años.*

Izena du Minaberri

Izena du Minaberri,
bainan ez gaitu mina berritu,
bainan bai goxagarritu,
horko gorabeherez argitu.
San Frantzisko erakutsi gaitu,
gora ta behera dena kurritu,
azkenekotz horkoak ginela iduritu.
Merezimenduak baditu,
eskerrak bihurtu gabe ezin naiz gelditu.
Milaka eskerrak zure ongi etorri paregabeaz.
Ezin dira diruz ordain egin gaituzkitzun guziak.
Hola elgarretaratzen baidira jende biziak;
Jaunak eman gaitzala hortarako graziak.
Bihotz bihotzez.

Rene eta Malbinari¹¹

Rene eta Malbina,
huna Xanpun ohatzerat jina,
piaia goxoa egina.
Banintz ni ere xori edo hegazkina
hor nezake airatzeko atsegina.

Rene eta Malbina Oyartzabal,
zuen ondoan pasatu egunak egin dira gogoz.
Hitz dautzuet egortzen ahal,
atxeman ditugu zuen ateak zabal.
Gehiago ez zinuten egiten ahal,
eta guk batean bazkal,
bertzean afal.
Holako gidariekin ezin gintezke gal.

¹¹ Ameriketan izan ostean Xanpunek idatzia.

Familiak izena Oyartzabal du,
diguzkitenak ateak zabaldu.
San Frantziskon bere lagundu,
horko eremuetan ez gintezen galdu.
Batean bazkal, bertzean afaldu.
Jendeak gehiago zer egiten ahal du?
Hitz hauekin eskerrak bihurtzerat naiz heldu.

Mixel Iturbideri:

Laguntza egitea hartarik eginbide,
erakusten duzue indar eta fede.
Bi bertute hauk zuen baitan daude,
urrats guziak eskualdunen alde,
zuen etxean diren guziak adixkide.
Bertzen ordaintza hau izan bedi xede,
iturritxoak hola egiten du bide.
Egun ibai handia da Mixel Iturbide.
Agur bihotzez, jaun eta andere,
ezin burura dut eskerrak bihurtu gabe.

Oroitzapen beroenak Donibane Lohizunetik, eta milaka eskerrak zuen ongi etorri bereziaz. Ez dauzkagu ahanztekotan zuekin iragan oren goxoak. Bertze karta huntan agurtzen ditut gure ingururat –zueri esker– bildu zauzkigun eskualdun guziak. Besarkada bat deneri. Agur eta berri on.

Ongia
Ongia egiteko prest beti
egin gabe ainitz azantz;
bi dohain eta bertutez egina da
izen hau: Petrisants.
Eta zuen ongi etorria guk
nihola ezin ahantz.

Bai, milaka eskerrak zuen ongi etorri paregabeaz. Donibane Lohizunen onart azue Xanpun eta familiaren besarkada hau.

Hor daude bistan itsaso eta mendi;
zuek jaustean hemen gaindi,
otoi, Xanpunen etxean geldi.
Ni izan naiz, hor orai zuen aldi.

Izarra zuten gidari
Nola batzuek haize arrosaren orratza,
edo haizea argizari,
izarra zuten gidari.
Hilabete luzeak zeramaten
jakin gabe norat zeramazkan.
Hor zagon arrats guziz,
eta beti izan berdina.
Segur ziren gidatzen zituela harenganat.
Izarra gelditu zen Hiri handiaren gainean.
Orduan saiatu ziren Hiri handian
gaineko atetik merkatu lekura heltzen.
Izarra gorde zen.
Jende alde handiaren artean
izar bat aurkitzen ez zen errex.

Xanpun

Eguberrietako ipuina

Galdegin zuten, ba:

–Ikusi al duzue izarra?

Nehork ez zuen izarrik ikusi.

Merkatuko jende guziek,

eta Hiriko jende guztiek

bilatzen zuten izarra

karrketan, etxe guzietan, nunahi.

Hiriko buruzagiak galdez ari ziren:

–Nor dira arrotz horiek:

Zeru ikertzaileak, izar-jakintsunak?

Sorginki zerbeit?

Aberatsa behar zen izan

izar bat izaiteko.

Beharbada, erregeak ziren.

Xanpunek haurrentzat jaietarako idatzia.

Bat-bateko bertsuak

Xanpun ahoz ahoko bertsularia zela esan dugu, bereziki, bat-batekoa. Eta Bidasoaren alde bietan, han-hemen jaialdietan hark botatako zenbait bertsu bildu dugu ondorengo orrialdeetan, plazaz plaza egindako lanaren zati bat irakurleari eskaini nahirik.

Betikoa errepikatu behar dugu, ordea, hemen ere: ez direla hemen Xanpunen bertsu denak, eta ez haren bertsurik onenak ere. Baina txarrenak ere ez dira izango, seguruenik.

Jaialdi bakoitza nun eta noiz egin zen aipatuko dizugu laburki lehenengo, egoera bakoitzera egokituz hemen duzun bertsu bakoitza patxaraz irakurri eta kanta dezazun, Xanpunen handitasuna gozatuz.

Nonbaitetik hasteko, zenbait bertsu-lehiaketa eta txapelketan kantatu zituen batzuk eskainiko dizkizugu lehenik.

Bertsulari
Sariketak - Txapelketak

Donostian, 1968ko otsailaren 4an eta 11n

Donostiako Anoeta pilotalekuan egin zen *100.000 pezeta-ko sariketan* Xanpunek kantatu zuen zenbait bertsu jarraian.

Sariketa hartan erabili zuen gaietako batean, “Erlojuari” bota zizkion bertsuak, lehenik:

Erlojua naute
gaitzat ezartzen,
ni enaiz jazartzen,
eman nauten moduan
egun baitut hartzen.
Bai, izanagatik,
hau diot goratik,
askotan lo hartzen
Neronek nahi eta ez
horrek nau atzartzen
Neronek nahi ta ez
horrek nau atzartzen.

Nork ez ote dakizka,
ba, horren omenak?
Aitor'tzagun denak:
horrek jotzen baititu
atsegin ta penak.
Batzuek ez badaude,
ez egin nei galde,
zoratuik daudenak.
Horrek joko gaituzki,
naski, azken orenak
Horrek joko gaituzki,
naski, azken orenak.

1968ko sariketa hartako beste gai bat: Xaharrek zergatik dute geroz maiteago bizitza?

Mundu hunetan bizi gareno, hori erran gabe dua,
sortuak garen lur hunentzako degu bihotz ta gogua.
Etorriz geroz ez ote gare zer edo zer hor lotua?
Eta zenbatez geiago egon ta naiago da mundua.

Adin batean oroitu eta sortaka dator nigarra
ikusiaz gure zainetan ahul dagola indarra.
Baina lurrari lotzeko degu gure arrazoi bakarra:
gazte maiteak, badezutela oaindik zaharren beharra.

Izan ditaike, zahar maiteak, jadanik zauztegun saildu.
Nere bertsuak hau pentsatzen du ondorio bat izainen du.
Izan zarete gure ondoan ezin baizauztegu galdu,
gu'gaztiak daukun pixka hori ez al da zuenganik heldu?

Probintzia arteko bertsulari txapelketa

1970ean, probintziarteko sariketa antolatu zuen Teodoro Hernandorena bertsuzale eta iparraldeko bertsularien laguntzaile handiak Leitzan, Bergaran eta Gernikan. Gipuzkoatik Lazkano eta Gorrotxategi, Bizkaiatik Azpillaga eta Abel Enbeita, Nafarroatik Arozamena eta Bautista Madariaga, eta Iparraldetik Mattin eta Xanpun hartu zituen, 1970eko apiriletik maiatzera egin zen sariketa hartan. Antolaketa, aurkezpenak eta gaijartzea Hernandorena jaunak berak egin zituen, egunez egun. Epailaritza, berriz, Inozentzio Oleak, Mitxel Itzainak, Alfonso Irigoienek eta Joxe Manuel Arribillagak.

Leitza, 1970.04.26

Lehenengo jaialdia Leitzan egin zen, 1970eko apirillaren 26an. Huna hemen Xanpunen lehen agurra:

Zuen artean daukaten poza ezin ditaket nik neurtu.
Anai-arreben artean nago, nola ez dezaket aitortu?
Len baino geiago sentimentu zerbait nerebaitan da sortu.
Lapurdiren izenean nahi zaituztet denak agurtu.

Her: Emaztea ez al da etxeko nagusi?

Xan: Hoi ez al da bazter ainitzez ikusi?
Andreak manatzea beti ez da itsusi;
gizonak beti nagusi ezin dira utzi.

Her: Jendearen aurrean estutzen al zera?

Xan Orai ere horretxek nakar ni kaltera.
Erdiratzen naiz kasik baterik bertzera
Kasik segidan ganen ninteke etxera.

Hernandorena: Hitzean eta hortzean biraua esaten du
gaurko zonbeit gaztek.

Anai-arreba maite-maiteak,
huna nun den gure hutsa.
Kasik horrekin askotan ere
galtzen dugu euskalduntza.
Jainko maiteak eman gaitza
lahortan behar den laguntza.
Sobera maixko bertzen hitz beltzak
erranez hortxe gabiltza.

Ez du balio gorde dezagun
ezin utzi hori bizik;
ez naiz ariko, naski, gaur hemen
zuek gonbertitu nahizik.
Baina garbiki aitortzekotan
ezin erran hauxe bezik:
gure euskara garbi-garbiak
eztaukala holako hizkuntzik.

Eskapatuta mintzatzen gira
komunzki gu elgarrekin,
eta zoin errez hitz beltz hoik
hartuz mintzatzen batzuk bertzeekin.

Behar ginduke gogoan hartu,
behin bederen hauxe jakin:
nahi bada mintza daitekela
gaur errespetu geiagokin.

Hernandorena: Gorrotxategi artzaia da, eta Xanpun, morroia. Baina morroi hau, Xanpun, artaldeko arkumerik onena jaten harrapatu du Gorrotxategik, bere baimenik gabe.

Gor: Igande ontan zer gertatzen dan
aitortzen bear nik hasi,
zu buru uztea, ene morroia,
benetan baita itsusi.
Arkume jaten baimenik gabe
zertako zaitut ikusi?
Leku onetan gertatzen dana:
morroia dala nagusi.

Xan: Mendian bizitzeko badago
mentura, ba, ainitz molde.
Ta ardi bat erre eta jan dut,
hori ezin diot gorde.
Bainan legeak pilatuz geroz
menturaz daduzkat alde...
Hartu bazaitut, egina baitut
eman jornalaren alde.

Gor: Ez al dakizu hori legean
barrenengoa eztala?
Errespetatu zazu lenbizi
nagusiaren itzala.
Baimena eskatu ta jan zindeke,
izan zaitea formala.

Orregatikan nik ezin kendu
zure lanaren jornala.

Xan: Nagusi jauna, ez dadiela,
otoi, sobera oldartu;
kontzientzi pixka bat nik
badetala gaur ohartu.
Etzaitezela hasarre hortan
ahal balin bauzu sartu.
Zuri galdetuta ezin da ukan,
beraz behar da hartu.

Hernandorena: Xanpun erretore jauna da, eta Lazkano,
herriko sekretarioa. Herrian besta ausartak, ferde samarrak
antolatu omen dira aurten, dirua biltzeko aitzakian.

Xan: Erretor gisa hasi behar det
gaur nere kezka zabaltzen;
beste modurat egin dezuten
besta hoi egiten ahal zen.
Zer debrutako ari zarete
kanpoko moduak hedatzen?
Ala herriko fedea ere
ari al zerate galtzen?

Laz: Ai, zuk diozun errespeto hau
herrian aspaldi il zan.
Era berri bat jartzea ere
danentzako komeni zan.
Nere ustetan festa egin da
hemen tokatzen dan gisan.

Plazan zuk utzi gazteari ta
konpon zaitea elizan.

Xan: Ez al dakizu zure moduak
badaukala gaur irrisku?
Eta horra zerk ematen nauen
nagon bezainbat estu.
Egon zaitea gauza den gisan,
etzazula lekurik hustu...
Ala ibili nahi al zira
debruakin eskuz-esku?

Laz: Aurrerapena sekula ere
eztago galerazita;
guzientzako ez al da hobe
zerbait berri ikasita?
Apaizak ere trajetan dabiltz
sotana zarrak utzita;
herriak zertxo ikasiko du
zuek ola ikusita?

Xan: Hola bagabiltz, egia esan,
Aita Saindun libertatez.
Konprenituko duzu, egi hau
aditzen zu egon zaitez;
eta esango dizut oraintxe
hemen bertan nik hitz batez:
sotana kenduta're garela
izan garenak gu apez.

Laz: Herrian autan hartutzen dezu
sortzen dan hainbat huskeri;
zure hitz hoiek meillarik ere
ez didate egiten neri.
Apaizak berak ez ote daude
gaur gu bezin pekatari?
Berak sinisten ez duten gauza
esan nai diote besteri.

Bergara, 1970.05.03

Sariketa hartako bigarren saioa Bergaran egin zen,
1970eko maiatzaren 3an. Xanpunen lehen agurra:

Zuen arterat etorri gira
bihotzak ongi beteak,
bozkarioak hor baigauzki
egun hemen izateak.
Lehen aldikoz bisitatzen'tut
nik Bergarako parteak...
Agur bat bihotz-bihotzetikan,
ene haurride maiteak.

Her: Ez al dezu nai fraile komentuan sartu?

Xan: Hortako nik ezitudan ideiak behar'tu.
Ta gainera izanagatik itxurak'e hartu.
Oino bokazionerik nik eztet senditu.

Her: Nun saltzen da txartela zerura joateko?

Xan: Hor zonbeit bide ote da, naski, bitarteko?
Txartelak nunahi dira diruaz hartzeko,
baina bertzerik behar da zerura sartzeko.

Hernandorena: Zu bizi zeran etxea, elizatik irten gabe egoten diren santujale batena da. Baina etxetik bidali nahi zaitu zure familia ta guzti.

Xan: Ezta pozteko daukatan gaia,
baina hor dira bideak;
beti elizan dabiltzan hoiek
ez ditut adiskideak.
Nere nagusia dut hola ta
egi onak erraileak,
eta atzetik ostiko eman;
hoik dira Jainko-jaleak.

Etxetik nai nau kanporat eman
ene famili ta guzi;
baina ez nuke nahi bederen
bertzen gogo hor utzi.
Elizan beti sartua dabil,
kasik bera da nagusi...
Gutixeago gan zaite eta
fedexago erakutsi.

Zorrikan gabe pagatzen diot
nik bizi naizen lekua;
baitezpa handik kasatu nai nau,
gaitza ezta oraikua.

Eta kasikan lekuko ere
hartu nai luke Jainkua.
Bekatu al da holako bati
mozten bazaio lepua?

Hernandorena: Arozamena eta Xanpun. Gaia: Arozamena, eskolatu gabea da. Xanpun, eskolatua. Biok obra bateko sozio zerate; baina bat lan gogorretan ari dena, eta bestea, ofizinan, bulegoan.

Aro: Gertakizunak nola diraden
 hastera nua kontatzen:
 Gure lantokik damakin martxa
 etzait askorik gustatzen.
 Hamar bat ordu zimenduetan
 nere gerriak nekatzen.
 Eskoladuna emen ari zait
 nere odola txupatzen

Xan: Adiskidea, zabaldu duzu
 orain zure ingurua.
 Ez al dakizu betidanik hor
 dabilala, ba, mundua?
 Noren karkulek zaituzte zuri
 irabazazi dirua?
 Zuk menbruak hainbat nekatzen dut
 kontu egiten burua.

- Aro: Hainbeste gauza egiteko're
ematen dida goguak;
tranpa askotxo izaten dute
hemen txit eskolatuak.
Zu ofizinan exerita ta
nik egin behar zuluak!
Oraindik ez dizkidatzu eman
lengo urteko diruak.
- Xan: Etzaitezela, sozio jauna,
beldur gaixtotan gelditu;
zure lagunak, dudatu gabe,
bere kezkek ere ditu.
Ez al duzu, ba, zoin kexatua
nabilan gaur iduritu?
Hortxe nabila diru eske ta
sosik ezpaitut ukitu.
- Aro: Irabaziak partitu bear
hemen bitatik bateko.
Zu eta ni hor jarri giñaden
langillien bitarteko;
ta lotsarikan eztaukat bate
hemen egia esateko:
Hamar lagunek lan egin behar
hogei lagunek jateko.
- Xan: Bien arteko makur gaixto hau
behar ginduke berdindu.
Xanpunek ere bere gisako
karkula orain egin du.

Zuk egiten duzu hitz asko ta,
naski, bertzeri agindu...
Gutxio ukatuko zuen hoi
lenago esan banindu.

Hernandorena: Xanpun eta Madariaga. Gaia: Ijitoa eta guardia zibila zerate zuek. Ijitoak guardia zibilaren alabarekin ezkondu nahi omen du. Xanpun (ijitoa) hasiko da.

Xan: Hartzen dudan idaiia hunek
gaur bide du irriskua.
Jauna, zure aurrerat nator
orain ni estu-estua.
Zure alabaz egin nahi dut
lagun baten gustua,
ea onartuko zinduken:
nai nuke hartu eskua

Mad: Modu horretan ez tet espero
iñoiz suhi bat jatorrik,
alaba horreri ezpaiot jartzen
aurretik orden gogorrik.
Ezkondu baiño lenagotikan
hartuko ditut bai neurrik.
Nere suitako ez tet etxean
ijito lapur beharrik.

Xan: Eskuin ta ezker fama gaixtoak
guretzat dira ibiltzen;
batzuek belzten gaituzte ta
bertze batzuek zuritzen.

Zuek goseak hilen zaiztela
hoi etzait iruditzen,
zeren buhamerik inoiz ezten
sekula goserik hiltzen.

Mad: Ai, ijitoa, etzazu pentsa
zutzako alabarik badela;
zuk zerbait neri botatu arren
entzungo dizut epela.
Lengun oilloa ostu zenidan
zortzi bat egun eztela.
Alabarengana joaten bazera
dantzatuko det pistola.

Xan: Otoi, etzaitela agertu
hoin bortitz edo hoin zakar,
ijitoak ere bere baitan
bihotz gozo bat baidakar.
Zenbat gaixtakeri ezta
gaten hor gure bizkar?
Hoik ahantz eta alaba hori
eman nazu azkar-azkar.

Mad: Erakutsiko dizut zer detan
zurekin borondatia:
aspalditikan ijituakin
naiz leporaiño betia.
Geientsuenak traste alperrak
edo lapurrak baidia,
zukin ezkondu baiño naiago
det monjatara juatia.

Gernika, 1970.05.10

Sariketa honetako azkenengo jaialdia, finala, Gernikan egin zen, 1970eko maiatzaren 10ean.

Bakarkako saioan gai hauxe jarri zion Hernandorenak Xanpuni: Zure seme bat Ameriketara joan zen, pilotara; eta hango emakume batekin ezkontuta bizi dela jakin duzu.

Seme maitea, ematen nauzu gaur betiereko lotsa,
ezin betea izana baita zuk utzia nauzun hutsa!
Pilotan artzerat joan zinen eginez, bai, harrabotsa,
eta beldur naiz ereman ote duzun zurekin bihotza.

Amerikarat hemendik gana, jakina're dut berria;
zerorrek ez nauzu igorri, baina bertze batzuk ekarria.
Eta gainerat hartu omen duzu laguna edo andria.
Gan ezbazinde herri huntarik ez ote zen gai hobia?

Dirua egin duzu menturaz, zabiltz batetik bertzera.
Aita gisa gaur entseiatzen naiz nere kezkek agertzera.
Etzaitut ez nai, seme maitea, beti nere seme zera,
ateak zabalik daude eta laster itzuli etxera!

Hernandorena: Orai Xanpun eta Abel Enbeita. Gaia: Haur askoren aita zera zu, Xanpun. Abel, berriz, eskolako maisua.

Xan: Hitz bakar batez mintzatu nai dut,
 aurrean dudan maisua;
 ta bihotzetik egiten zaitut
 egitan dutan jestua.
 Familia asko daukan batentzat
 bidea zuzen hestua...

Ea, ba, zuk ere zabalduko
nauzun hortako eskua.

Abe: Maisuak beti jokatu behar
haurtxoaren onerako;
egun danetan bere ikastolan
ditu aurrera aterako.
Asko dituzu ta dirurik ez
eskolara eramateko...
Dirurik gabe ekarri itzazu
herritarra zeralako.

Xan: Hunkitzen nauzu, bai zinez hemen
nago burua behera.
Nahi nukena da nere haurtxoak
ibil ditezen legera.
Horra zergatik ni itzulia
nintzen gaur zure aldera.
Ez apuratu, pagatuko dut
ne'ahalaren arabera.

Abe: Pagatze horren kezkarakin gaur,
aita, etzaitez zu bizi;
eta haurtxuak etxetik hunat
lenbaitlen beintzat igesi.
Nere eskutik ikasbideak
eingo ditue ikasi;
holako aitak oi ta gehiago
ez ote du, ba, merezi?

Xan: Kasik nigarra begitan daukat,
jaunak, zu hain orduko!
Zoin bihozduna zaren, jestua
ez al daukazu lekuko?
Bai, pozik ditut nere haurtxoak
zureganat bialduko.
Holakoekin gure euskera
beintzat ezpaita galduko.

Abe: Beti izan naiz, ta gaur ere bai
ez daukanari eustera;
etorri zera borondatea
maisuari erakustera.
Gu euskaldun lez, herriko eta
herriaren seme gera...
Nik ikastolak erakutsi ta
zuk irakatsi euskera.

Hernandorena: Azpillaga eta Xanpun. Gaia: Senarra eta emaztea zerate zuek. Senarra berandu heldu da etxera, eta emaztea oso hasarre dago.

Azp Ala behar da etxeratu naiz
goizeko ordubatian,
ta emaztea mutur beltzakin
hantxe zegon bitartian.
Ni egondu naiz gaur ikastolak
zedukan batzar haundian;
ta, emaztea, kontura zaite
zenbat holako bear dian!

Xan: Zoin gizonki gaur ematen duen
senarrak bere auzia!
Kondatzen ahal nauzu gaur hemen
nahi zinuken guzia;
ta sinetsiko nion behar ba
ezbanu neonek ikusia
zurrut egiten; etxerat sartu
zerade busti-bustia.

Azp: Behar zenduke kupira pixkat
eta xamur egin hitza.
Zerbait naiean ari geranak
modu hortantxe gabiltza.
Geiago balitz indarrez, neri
emango ziran paliza!
Goizeko hirurak ere goiza zan
berakin izan banintza.

Xan: Bere aldea zaindu nai luke,
hau mintzatzaile abila!
Ta bekatoros delarik heldu
zeraut hor umil-umila...
Bai, zurekilan naizelarik ni
auzoa konpon dadila!
Baina ni etxean utzita beti
soltero gisan dabila.

Azp: Hau bezelaxe egoskortsuak
izate'ira andre danak.
Hartu itzazu orain zuretzat
ekarritako laztanak.

Ikusten denez berekoi honek
eginda zituan planak...
Goizeko zortziak alderako
bukatuko'itugu lanak.

Xan: Nere senarra mendratuz doa,
diot, urtetik urtera;
eta laguna orai jarri du,
bai, zinez zorte dorpera.
Nai ezpadezu amodioa
ez dadin eror lurrera,
hitz egin nazu gizonki ibiliko
zerala gaurtik aurrera.

Euskal Herriko Bertsulari Txapelketa nagusia

Arrasate, 1979.12.23

Euskaltzaindiak antolatuta, 1979ko abenduaren 23an hasi eta 1980ko urtarrilaren 6an amaitu zen Euskal Herriko Bertsulari Txapelketa nagusia, 1967ko lehiaketaren ondoren sortu zen etenaldiaren ostean. Arrasaten hasi zen, hain xuxen, abenduaren 23an. Eta Xanpunek goiz hartan han botatako bertsuak dira ondorengo hauek, Joxe Mari Iriondok gaiak emanik.

Iriondo: Xanpunentzat lau oinak: Hotza, motza, lotsa, poltsa

Xan: Aitortuko zaituztet: gaur Xanpunek hotza;
 hau esan behar eta bai diot motz-motza.
 Aho haundia dauka, hortaz ezta lotsa;
 bere failo bakarra: hutsa dauka poltsa.

Iriondo: Xanpun eta Koxme Lizasorentzat gaia orain:
Zuek biok hil zerate, eta bat zerura joan eta bestea infernura
joan zerate. Hasi, Xanpun.

Xan: Mundu hunetan iñala ditut
 enganatu nik bazterrak,
 ta egin'tudan gauza guztiak
 etziren, naski, ederrak.
 Eta zeruko atera bainau
 ereman nere beharrak.

San Pedrok jakin baititu denak;
hari zor dizkat eskerrak.

Liz: Biok munduan biziak gera
Jaunak eindako gizonak.
Azken ordua iritxi zaigu,
ez dirade garai onak.
Zeru aldian hik hor daduzkak
santu zar-zar hoiengonak;
ni infernuan festa ta soñu
ederki bizituko nak.

Xan: Zeru barrurat sarrarazi nau
santu horien moduan;
eta nindagon harek ere ez
al du tranpa bat goguan?
Baina ni nola naizen oraindik
betierekotz barruan,
tranpa guziak ez bide dira
bekatu batzu munduan.

Liz: Munduan ere ondo pasa det
naiz arratsa ta naiz goiza.
Xanpun maitea, zeru aldera
zu oso gaizki eroi'za
Nik infernuan juerga badet
eta munduko oroitza.
Zeru aldian zuk dadukazu
maiz penitentzi ta oitza.

Xan: Zu ari zera istoriotan,
ifernuan zagoz gaizki;
harat juteko, ez da dudarik,
egin duk kolpe tzar aski.
Eta aitor dut: ni zeru hortan
sartua banaiz erreski,
orroitu zaite San Pedro horrek
tranpen berriak dakizki.

Liz: Berdin samarrak izanak gera
Xanpun eta ni munduko;
baiña hala ere nere kopetik
eztit orain ilunduko.
San Pedro zarran aginduari
ez diot egiten uko;
zerua ona izango'uk baiña
eztiat kanbiatuko.

Jesus Alberdi *Egileor* eta Xanpunek egindako beste saio bat, Arrasaten hau ere. Gaia: Egileor itsua da; Xanpun, berriz, mutua. Egileor hasiko da.

Egi: Bi gizon alkarrekin
bildu gera sakon,
ta hona gure gaitza
zer eratan dagon.
Itsua're ezin da,
beraz lasa egon;
ezin det ikusi hemen
zenbat jende dagon.

Xan: Izigarrizko lanari
itsua da lotu;
neri bista izaitea
kasi zait damutu.
Ikusten ditut gauzak,
hau ezin dudatu;
baina zer kalbarioa:
hau ezin kondatu!

Egi: Beraz, lagun mutua,
aditu zaidazu:
adiskideak gera gaur
biok, ni eta zu.
Zu mutu zaude eta
ni berriro itsu.
Ikusten ez tetan lekuan
lagundu zaidazu.

Xan: Mutuaren kargua
ez dezu erreztu;
kondatu bihar zaitut
eginahala justu.
Zu ere maitatzeko
naukake nik gustu.
Ezin kondatu horrek
gauza onik eztu.

Egi: Nere barrena dago
tristuraz betea,
gaitz honek ekartzen du
guretzat kaltea.

Justuan bilatzen det
ataiko atea.
Nere ustez hobea dek
mutu izatea.

Xan: Zerbeit esan nahi ta
handik ez moldatzen;
mutuaren kasua da
ta nabil zoratzen.
Zu nola poztu ere
zait, bai, gogoratzen,
baina hitzak ahoan
bertan zaizkit galtzen.

Gernika, 1979.12.30

Bertsulari Txapelketa nagusi hartako bigarren jaialdia
Gernikan egin zen, 1979ko abenduaren 30ean.

Iriondo: Xanpun eta Narbaizarentzat gaia: Xanpun txistua
da; Narbaiza, ttunttuna. Xanpun hasita, zuek nahi bezala.

Xan: Musikari batentzat
hau ordu estua!
Nik behintzat esango dut
inahala justua,
Ematen du dantzalditan
zinezko gostua.
Ttunttuna gutti dago
ez badu txistua.

Nar: Txistuzalea, zera
gaizki hitzegiña;
nunai ikusten zaitut
aizean berdiña.
Lagunik ezpadezu
hain zera ariña!
Ttunttunak edonun du
bere atsegiña.

Xan: Hasi ezkeroz gabiltz
norberaren alde,
ta gauden leku hortan
orain berme gaude.
Txistua jotzeko ni
ez nabil herabe,
ta berdin jostatzen det
nik ttunttunik gabe.

Nar: Txistua iñoiz nago
bakarrik entzuna;
gertuan gelditzen da
aren oiartzuna.
Lagunik ezpadauka
sortzen da hutsuna.
Orkestan ere berdin
jotzen da ttunttuna.

Xan: Gaizki esandakoak
ez atxik goguan,
ta biak ibil gaiten
behar den orduan.

Auskalo zenbeit giren
danentzat galduan!
Biek segi dezagun
euskaldun moduan.

Nar: Txistua nik eztet gaur
baztertzen honekin;
Euskalerrian leno
aditzen zan ekin.
Zer gertatu behar zan
aurretik banekin:
ondo etortzen gera
biok alkarrekin.

Donostia, 1980.01.06

1979ko Bertsulari Txapelketa nagusiko azken saio nagusia Donostian egin zen, 1980ko urtarrilaren 6an. Ondoren datozen orduko bertsu hauek, Auspoa 141 liburuan argitara eman ziren:

Xanpunen lehen agurra:

Donostia, zu izar harturik iparraldetik hegorat
zuzen-zuzena ekarri nauzu anai-arreben ondorat.
Ez dut urrerik eskainiko nik, bainan besarkada on bat;
ta hari esker egun sartzen naiz senidetasun gozorat.
Iduritzen zait naizela haur bat jina amaren altzorat.

Iriondo: Orain, bi-bitako saioaren garaia da. Saio honetan, Xanpun eta Enbeita izango ditugu, honela banatuta: Lehenengo, binaka. Au da, parejaka eta zortziko handian, hiruna bertso. Gaia: Xanpun, zu fabrika bateko nagusia edo ugazaba zera. Gaur goizean hor etorri zaizu Enbeita, hemezortzi urteko gazte hau, lan eske.

Xan: Gazte maite hau gaur etorri zait neri lan-galdez etxe(r)a; kaltegarri da zinez neretzat gazte on baten galtzea. Bainan hala ere ausartatzen naiz hau berari eskatzea: egi-egitan lan-gogo onez hunat etorri al zea?

Enb: Bizi bearrak hala jarrita hemen nator zuregana; konprenitzen det gaur neregatik dadukazun duda dana. Zintzo nator ta eman eizadazu, jauna, arren neri lana! Jornala barik bakarrik nai det nere etxearen jana.

Xan: Nagusi batek kezka baditu gaia azaltzen danean; egun ez nuke, naski, nai egon langile hoi menean.

Emanen dautzut ofizioko
lagun bat aldamenean,
bertzeik ez bada han bai bederen
ikas dezazun lanean.

Enb: Len ere zutaz nik gauza onak
aditu nituen, baiña
enuen uste aurkitutzea
horren zintzo ta apaiña.
Egingo dizut nik nere lana
neri eskatua aiña;
ta zuk neretzat bakarrik eman
eiten detanan ordaiña.

Xan: Beraz, gaztea, sartu zaite gaur
nagusi honen gerizan,
ta dakizuna beharko duzu,
naski, lanean arizan.
Ni portatuko naiz, ta zuzen da
nagusi on baten gisan.
Zure partetik, gazte maitea,
zu araberako izan.

Enb: Dudarik bada nik gura neuke
ateratzea bertatik;
enaiz etorri ni bizitzeko
ugazabaren lepotik.
Kontzientzi bat det ta ez dit izten
jaten besteren ogitik.
Lana emaidazu, bizi nai det ta
nik neronen izerditik.

Iriondo: Bina puntu orain bertsulari bakoitzari. Doinuak aldatuz ibili gera aurrekoetan; baina Usurbilgo bertszuzale bantzuen eskariz, doinu berdinean jarriko ditugu puntuak, eta bertszuzale honek eskatu duen doinuan gainera. Xanpun:

Iri: Festarik festa zabiltz sasoi ederrian...

Xan: Bainan hau ere egiten bere neurrian.
Ta balia gaitzen hala beharrian;
aski goiz sartuko gira estatu txarrian.

Iri: Zer ekarri dizute zuri Erregeak?

Xan: Etorri diren puxka hek ziren gaur meheak.
Ta hauxe jakin behar du entzule jendeak:
ez ditut errespetatzen jaun hoien legeak.

Iriondo: Orain bakarka etorriko dira bertsulariak, gai ezberdinei erantzunez. Xanpun lehenengo. Hiru bertsu, zeuk nahi duzun neurrian eta doinuan, “sarrerarik ez eta hor kanpoan gelditu den bertszuzale bati”.

Jaun Iriondo, kezketan nago benetan entzun ondoan;
izan diteke zure esana daukatala nik gogoan:
nola zombaiten denbora egun ohar gabe badoan,
sarrera eskas izan diteke euskaltzale bat kanpoan.

Ta hiru bertsu nauzki eskatu jaun horrek gaur harengatik.
Kanpoan egon ez du merezi, esanen dautzut goratik.
Ate-zaintzaile horiek, otoi, apur bat kendu trabatik,
edo bertzenaz pagatuko dut haren gastua zarpatik.

Balio ote du bertsu hunetan geiagorik esatea?
Hori gertatuz ez litake gaur euskotar bat izatea.
Ez balin badu sarrerik, eta harentzat zer den kaltea,
urrikaldu ta bederen hari zabaldu laster atea.

Iriondo: Orain, bikoteak aldatu egingo ditugu, beste saio bat egiteko. Eta ofiziotan izango da hurrengo saioa ere, baina hamarreko txikian. Beharbada, neurri honetan beste zenbait neurritan adinako doiñu-aukerarik ez da izango. Zeuok ikusi.

Etorri, Larrañaga eta Xanpun. Larrañaga hasiko da, hiruna bertsu osatzeko. Gaia: Atzo gaez biok neska berarekin dantzan egin zenuten.

Lar: Xanpun eta ni biok
 ibiliak bero;
 danak esan beharra
 daukat onuzkero.
 Ezkonduak gu biak,
 ez gaude soltero,
 norbaitek igual hau
 etzuen espero;
 geio're egin dut nik
 dantzatuta gero.

Xan: Galde bortitza egin
derautak hik arin.
Nik ere dantzatua
diat hantxet berdin;
tontokeritako guk
gaur sobera adin,
bainan dantzan hasi ta
hartzen da atsegin.
Beso-txainda're ez da
kalte noizez behin.

Lar: Dantzatzeko ez giñan
egon gu zalantzan;
edanetik beteta
gu erdi balantzan.
Umorea bagendun
dantzatzeko plazan,
aldrebes edo ongi
an jardunak dantzan;
baiña ondorengoa
ederragua zan.

Xan: Txarkeria gogoan
jarri zira teman,
nik nai nuke auzia
bururat ereman.
Zer komedi gaixtoak
ukan ditudan han,
harek eskuin behar ta
nik ezker nahian,
lanak zeuden puntuak
zuzen ezin eman.

Lar: Nola ibili giñan
dadukat goguan,
ta argatikan nago
ni esan asmuan:
zuk bezela umorea
nik ere banuan.
Dantzatzera bakarrik
Xanpun etzan juan.
Nekin ein zun tratua
ta akabo orduan.

Xan: Bera ibilia da
han estekatua,
neskari lotu eta ez-
in esekatua.
Aski hurbil zinela
ezin ukatua.
Istant guzian zuen
neri trukatua;
ez Xanpunen gain bota
zure bekatua.

Iriondo: Orain lau oinak, zortziko txikian bertsua osatze-
ko: Parranda, emanda, edanda, txanda

Xan: Atzo egina dugu
guk naiko parranda,
baxoerdi hoitatik
sobera edanda.

Gainerat, aitortzen dut:
hau bertzek emanda.
Inoiz etorriko al da,
bai, guretzat txanda.

Goizeko saioan Xanpunek egin zuen azken agurra

Goiz huntako saioa nola zaukun bete,
bazkaltzera guziak gonbituz zerate.
Ez dezala egin hor harek zerbeit kalte.
On dizuela deneri; berriz sarri arte.

Arratsaldeko saioa, 1980ko urtarrilaren 6an. Lehen agurra,
Xanpunek

Naizen lekuan aurkitzea da benetan, bai, zoragarri:
horrenbeste anai-arreba gu begira egun elkarri.
Benetako Euskadi batua hemen dugu gaur lokarri;
Erregek erregalo hoberik ezin gintuzten ekarri.

Binaka zortziko txikian

Iriondo: Larrañaga eta Xanpun. Zerbait gogorra pasatzen
da zuen artean: “Hi haiz hemen lapurra”, esan diozute elkarri,
hasarre.

Lar: Nik aurretikan ere
 banuen bildurra,
 baiña laster nik eman
 biaiot egurra.

Nere kartera ederrak
egin du agurra.
Lagun uste nin baiña
i aiz lapurra!

Xan: Gizon bat iuiatzea
ez duk, ez, oin errez;
beldur nauk ez ote
haizen gaur aldrebese.
Lapurrak be burua
zaindu nai dik berez.
Guk deitzen diau: Zozuak
belea ipurdi beltz.

Lar: Juzgua egitea
daukat nere esku;
batek ikusi zaitu ta
orain zaude estu.
Seguru dakit kartera
zuk dezula ostu.
Besterik ez du merezi:
esku biak moztu.

Xan: Ez nabil hemen, naski,
nere ondu naizik;
ez daukat egin ona
zaindua gaur baizik.
Hire buruari hi
begiratu hitzik,
moztekotan hireak
moztu hor lenbizik.

Lar: Hortik ondo bizitzen
badezu naiko lan,
ilusio txarra dago
Xanpunen ganbaran.
Gaurtik aurrera zera
lapurraren faman;
baiña diru askorik
ez dezu eraman.

Xan: Gure arteko auzi
hoi ez hortan urra;
aspaldi nik banaukan
gauz hunen beldurra.
Zuzendu nahi duzu
ba zure makurra.
Ni inozentea naiz ta
hau dugu lapurra.

Binaka *Esne saltzailearen* doinuan

Iriondo: Xanpun eta Azpillaga, biok bata bestearentzat
errege omen zerate gaur, Erregeen eguna izaki. Egizkiozute
elkarri zuek nahi erregaliak.

Xan: Errege batentzako
gaur badaukat grina,
uste gabe jina;
gradu hori baita
kezkatzeko dina.
Iparraldetikan
hunarart naiz jina.

Eskaintzeko badut,
zuk ere berdina:
botoila bat pollita,
ta han koñak fina.

Azp: Hau ikusita nere
 begian malkua,
 ona da gaurkua,
 lagun bat etorri da
 berdin gabekua.
 Errespetatze' itugu
 lege ta Jainkua,
 nola bera daukagun
 beti-betikua.
 Bihotza ematen dizut;
 ez al da naikua?

Xan: Batek eskaintzen dio,
 bertzeak eskea;
 zerbait ditekea.
 Bazter guzitan dago
 sua eta kea;
 elgar konpontzeko
 gauza bat nekea,
 guk bilatzen dugu-
 na ez da merkea.
 Berriz eskaintzen dautzut
 ordainez bakea.

Azp: Pake-premian dago
 benetan mundua,
 pakea galdua.

Nola iritxi lezaken
guretzat sendua?
Lapurdin bizi zera,
etzaude galdua;
baiña gaur Donostian
libre azaldua.
Erdiko muga dago
zuretzat kendua.

Iriondo: Orain Xanpun datorkigu bertsutara, beste guztiei bezala, bi puntu eta gaia emanda:

Iri: Ni ondo nabil eta besteak hor konpon!

Xan: Bakotxak bere trenpuan gaur behar du egon.
Behintzat makal aire batek joa dauka Xanpon;
uste dut ondoko hori hobeago zaion.

Iri: Batzuek eskubi ta beste batzuk ezker.

Xan: Mundua hola zuzen da Jainkoari esker.
Zoin dabila zuzenena seinale da laster.
Ta bide on hartarik gu ez gaitezen bazter.

Iriondo: Orain hiru bertsu, doiñu eta neurri librean, Xanpun. Gaia: Gizona ez da ogiz bakarrik bizi.

Jainko maiteak bai mundurako
gorputz bat emana gaitu;
ta harek dauzkan gorabera
behar ditugu garrantu.

Ez gintezke, ez, haragiaren
hazkuntzaz beti gelditu,
ta gorputzaren nahiari ere
beti ezin obeditu.
Harek arima bat baduela
behar genduke orroitu.

Gorputzak eta arimak daukan
bidea behar da bete;
batek ona du eta, menturaz,
bertzearentzat da kalte.
Bainan mundurat, ez da dudarik,
hortako eman gaituzte;
orroitu ere ez gira hemen
betikotz, eta hau bete:
behar ditugu biak ereman
Jainkoak nai duen arte.

Zer ote dugu gorputz triste hau
ikusiz nola hor naizen,
ta haren zainak lana ematen
nautela egun garraitzen.
Baina barnean, aitor dautzuet,
bertze zerbait dut senditzen,
ta gorputz hori baino gorago
dela ere iruditzen;
bertzenaz hemen animale bat
bezala izanen nintzen.

Sariak eman ostean, azken agurra Xanpunek:

Lendabiziko agurtzen ditut
egungo bi txapeldunak,

ez ote du, ba, zerbeit grazia
eman gaituzten egunak?
Gutxienetik gaur bilarazi
gaitu anai euskaldunak.
Eskerrak dener bihur detzagun
hemen gaur zor ditugunak;
ta egun hunek izan detzala
ondorio biharamunak.

1982ko Bertsulari Txapelketa nagusia

Oiartzun, 1982

Aurrekoa bezalaxe, Euskaltzaindiak antolatuta, 1982an egin zen Euskal Herriko Bertsulari Txapelketa nagusia, Oiartzunen egindako jaialdi eder batekin hasita. Huna hemen Xanpunek han kantatu zuen zenbait bertsu, lehen agurrarekin hasita:

Anai-arrebak, besakarda bat hemendik umil-umila.
Egun bortitz hau zuen bitartez goxoa izan dedila.
Kezka denekin lagunen gisan ildo beretik nabila,
kasko zuritu soildu hunentzat txapel koskor baten bila.

Iriondo: Orain bertsulariak binaka jarrita, launa bertsu kantatuko dute, zortziko nagusian. Xanpun eta Patxi Iraola-rentzat gaia: Iraolak zorra zion nonbait Xanpuni, eta, ordainez, loteria eskaintzen dio gaur. Xanpun hasiko da.

Xan: Ez dakit norat goazen egun
bide huntarik ibiliz.
Hunek zor pixkat neri izaki
pagatu nahi nau negurriz.
Uste al duzu kito girela
bilete hori ekarriz?
Naiago nuke bilete hori
kolorez berdea balitz.

- Ira: Etzaidazula kopeta belztu,
etzaidazu egin demanda,
mixeriaren pixua zer den
ondo jakiñik nintzan da.
Etzaitezela hasarratu, ez,
loteria hori emanda;
nolabait zugan agertu nai nun
besterik ezin nuan da.
- Xan: Loteriako biletak hartzen,
aitor dizut, naiz ni trebe.
Horrenbesteko desgrazia det,
kasik hartzeko herabe
Makinat aldiz egina nauzu
bileta tzar hoiien jabe;
itxaropena asko izan dut
eta beti diru gabe.
- Ira: Nola tristea izandu oi dan
ezindunen bizikera,
zu ordaintzeko ber hainbat diru
iñundik ezin atera.
Baiña gaur nator argitu nai ta
loteria hau ematera.
Ekatzu, bada, ta hor konpon zaitez
zu konforme ez bazera.
- Xan: Gauza guziek nola daukaten
neurri edo izaria,
zu ez al zare airatu naizik
ibilki izaiten txoria?

Bainan gaur diot leku txarrerat
zira hemen eroria...
Bileta hori saltzazu eta
ekarri horren saria.

Ira: Etzait gustatzen egin didazun
hasarrearen orrua;
lengoz gaiñera berriro ere
triste da nere barrua.
Nik banedukan zurekin zerbait
gozatutzeko gogua;
baiña ez nuen pentsatzen zu
ziñanik horren arrua.

Xan: Harroa naizen hau esaterat
egun zira irriskatzen;
ez ote dezu harrotasuna
egun zerorrek bazkatzen?
Bileta tzar bat eskaini eta
dauzkazun zorrak ukatzen...
Ez ote zira hasia hemen
eskapadurak eskatzen?

Ira: Dirua banu zorrak ordainduz
geldi nindeke gustua;
nik dadukaten borondateaz
zabal nai nuen eskua.
Hau entregatuz zurekin zerbait
hitz egiteko asmua;
eta bestetik jarri nai nizun
aberastu arriskua.

- Iri: Langileen erdiak hor daude paroan.
- Xan: Noizpeit etorriko dela datoz anparoan.
Kasu hortan ez daude, ez, bihotzez beroan;
bide txarrak daude hor guretzat geroan.
- Iri: Herrixka bat gerala gure zorigaitza...
- Xan: Halarik ere zapaldu nahirik dabilta.
Ez dakigu zoin bidetik ateratu hitza;
doi-doi baigindezke eskuaraz mintza.

Iriondo: Kartzelako gaian kantatuko dute jarraian bertsulariiek, hamarreko txikian, launa bertsu osatu arte. Azpillaga eta Xanpunentzat gaia: Hogei mila duroekin kartera bat azaldu da hor, jende artean. Eta horren abisua ematean, biok kartera eske zatozte.

- Azp: Etxetik diru gabe
ni ez naiz juaten,
diru gabe ezpaita
ezertxo izaten.
Kartera galdua det
lengo egun baten,
ta badakit herrian
nolatan daukaten.
Xanpun, etzaite hasi
gezurrak esaten.

- Xan: Gai horren gainean gu
ez gaitezen hizka;
baina etxe alderat
egin gure piska.
Diru kontun Xanpunek
gauz batzuk dakizka.
Bileta gutti dauzka
bai elgarren gaizka.
Zertako kartera hori
ez egin erdizka?
- Azp: Erdizka egiten bada
zure mesedia;
berana eztan gauza
eskatu erdia.
Noraiño iritxi dan
onen pikardia!
Hemen zaitu behar du
bakoitzak beria.
Zurea gezurra da,
kartera neria.
- Xan: Horrenbeste duru hor
ezta gure kalte;
horiek bai etxean
bertute daukate.
Zuk ere nere gisa
diru hori maite.
Bainan gauza batez gaur
segur izan zaite:
doi-doi geurea dela
jabea jin arte.

Azp: Ez aintzakotzat hartu
Xanpunen esanak;
leno ere holakuak
badira izanak.
Kartera beretzat nai,
hortan daude lanak;
bere aldera jotzen
dizkigu kanpanak.
Saria jasoko du
bilatu duanak.

Xan: Alkar aitzerik ez da
gertatuko hemen;
begira jada nola
hasarretuz gauden.
Beraz, ez du diruak
askorik iraunen,
neri utzita baitut
pobrier emanen.
Baina jabea azaldu
bedi lehenbaitlehen.

Azp: Guztiok badakigu
Xanpunen bizitza:
lanik ez du egin nai,
jornala murrirtza.
Aspaldi era hortan
dadukazun ditxa...
Behar bezela emen
ezin eman hitza;
kartzela joan zera
gaizki bazabiltza.

Xan: Gure kasua orai
jar dezagun xutik,
botaraz bailezake
hau arrazoin gutik.
Ohartuak zarete
guziak gaur goitik,
hunek'e eukitzen hau
badaki gogotik:
xakua bildu eta
ez uzten eskutik.

Iriondo: Arratsaldeko saio honetan, Iraola eta Xanpunen txanda orain. Zortziko txikian, launa bertsu kantatzeko gaia: San Martin eguna pasatu da, eta "oraindik ere hoiek bizirik?" galdetu omen du norbaitek hortik. Iraola hasita

Ira: Beraz badabil hemen
hoinbeste notizi?
Batzuek goxo eta
bestientzat gazi.
Sanmartinak pasatu
ta txerria bizi...
Jendea iltzen galdezka
noiz behar dan hasi?

Xan: Sanmartinez xerriak
hilez egiazki;
sekretu on guztiak
harek badakizki?
Gu behintzat bizi gera
eta ez gera gaizki;
utzi gaituzte, ez baitzen
oino gantzik aski.

Ira: Etzait asko gustatzen
hoien diadarra;
kontu hauek ez dira
egiteko farra.
Badakizu gaur degula
denbora kaskarra;
koskor bat hiltzeko ezta
oso giro txarra.

Xan: Jendea kezkatua
badago azkarki,
txerriak bizi bada
zertako badaki.
Beintzat aitor du: hola
pozik da ibilki.
Oraindik ez daduka
haragirik aski.

Ira: Xanpun, badut nerekin
gauza bat goguan,
ta hitz egin behar det
senti dan moduan,
guk ere zerbait okela
nola badeguan.
Baiña salbako al gera
aurtengo neguan.

Xan: Oraindik gabiltza gu
jan ta edanean,
gu hazten baserrian
dabiltza lanean.

Bai aski goiz inen dut
hoi hilen denean;
bitartean balia
gaiten oihanean.

Ira: Aske gaude oihanez
oindik ibiltzeko,
dauden ezkur ondarrak
pixka bat biltzeko.
Dena mejoran degu,
ez dugu galtzeko:
badaude gizenagoak
aurretik hiltzeko.

Xan: Bi txerri polit hemen
aurrerat goazi,
ta gizendu artean
gai zaitela hazi.
Zertako guretzako
bi sorte berezi?
Txerriak'e ez al du
bizia merezi?

Iri: Gorputz, amuts, huts, putz

Xan: Orroitu Xanpun dela arima ta gorputz;
berdin egin dezake bai uzker edo putz.
Ezta zuzen-zuzena, badauzka zonbeit huts;
baina zuzen direla dauka orain amuts.

Iri: Ziri, hiri, irri, xirri

Xan: Jendeak dabilta gaur zarra eta zirri,
bertzer egin nahirik, naski, zonbeit irri.
Hik etzakela saka neri sobra ziri,
buelatu ta ordaina emanen haut hiri.

Iriondo: Zer dio gure historiak?

Hiru bertsu gai honi buruz, doinu eta neurri librean, Xan-
pun

Zuk eman gai horri nahi diot, orai berean ordaindu;
egin liteke istorioa barnetik hartzen bagindu.
Gure Euskadik bere denboran gauza ederrik egin du.
Beste iñork hau bilatu eta, beharba, ezin berdindu.
Daukan itzala hau du bakarra: ezin duela agindu,
ezin duela agindu.

Gure Euskadin historia zabaltzen zaigu nonaitik.
Hori entzunda gure odola ezin zauku egon geldik.
Bai, oso txiki izanagatik ote dago bat hoin haundik?
Saiatu gaiten zuek hemendik eta gu ipartarrak handik
hauxe batzen gaur; puskatze hori ezto merezi Euskadik,
ezto merezi Euskadik.

Anai-arrebak, ez da dudarik; egun lekuko zarezte.
Etsaiek ere, eskatuz geroz, baidiote horrenbeste.
Gu euskadunak bagira eta bertziek ez dute uste.
Batuak gaude mendi gainetik nahiz zahar edo gazte.
Bi pusketan gaur bagira ere bertzek puskatu gaituzte,
bertzek puskatu gaituzte.

Durango, 1982.11.28

1982ko Bertsulari Txapelketa nagusia zela-eta, azaroaren 28an Durangon egindako saiotik jasotako zonbeit bertsu.

Iriondo: Xanpun eta Larrañaga jarriko ditugu bertsutan orain, gai hauxe emanda: Biok periodikua hartu eta irakurriz, ofizinan zaudete, aurrez-aurre. Larrañaga hasi eta Xanpunek segi, zuen bertsuak zortziko nagusian.

Lar: Berri batzuek zabaldu dira
 makiñatxo bat aldeta.
 Seguru asko orain artean
 hor egon dira gordeta.
 Nik *Egin* daukat eskuan eta
 Xanpunek berriz *Kaseta*.
 Debaluazio haundiarekin
 ikusitzen da pezeta.

Xan: Behar badegu mintzatu orai
 gai horretaz elgarrekin,
 nere aitormen bat behar zaitut
 berehalaxe gaur egin.
 Kazeta hoiek erosten dira
 bainan zer dute atsegin?
 Ongi pentsatuz nahiago det
 horko berririk ez jakin.

Lar: Bildurrez nabil; berri xelegre
 hau irakurrita nago.
 Leno kezketan giñaden eta
 orain daukagu geiago.
 Berri hoberik periodikuz
 ez ote dute emango?

Lenaz gaiñera guk gasolina
ez degu merke izango.

Xan: Egunkaria hartu ezkeroz
zor zaizkonak eman behar zaizko;
bainan ote da ondo pentsatuz
hoitan zerbait egiazko?
Hasten dirade berri kondatzen
eta on bezen bat gaizto.
Nere iduriko egia gutxi
eta gezurretik asko.

Lar: Lenago ere herri zar hontan
giñan dana beharrían;
zorionikan ez dago asko
gu jaio giñan lurrian.
Dirutik ere arin gabiltza,
eta lanetik hurrian.
Lenaz gaiñera gaur mixeria
jartzen zaigu indarrían.

Xan: Zabal-zabala idekiko dut
egun batez egunkaria,
ikusten badut hantxet emana
titulu gisa jarria:
uzten dutela gure gain eta
gurea dela Euskal Herria.
Bainan noiz behar dute azaldu
horrenbesteko berria?

Iriondo: Xanpun eta Sebastian Lizasorentzat gaia: Xanpun, itotzen dago, itsasoan. Sebastianek aterako luke pozik, baina ez daki igeri egiten. Hiruna bertsu hamarreko txikian.

Xan: Hau ezinbertzeak gaur
 nauena ni joa,
 aurrez-aurre ikusten
 baitut herioa.
 Urrats gaizto bat egin,
 zer ondorioa!
 Akabo da gizona
 eta hondora noa.
 Zatoz ni laguntzerat,
 hor dago geroa.

Seb: Ia itoan dago
 auzoko mutilla;
 igerian eztakit,
 hau da maratilla!
 Potzu hortan len ere
 galdua da pilla!
 naiz intentoan geldi
 ni akaso hilla,
 potzura sartuko naiz
 lagunaren billa.

Xan: Nere orduan denak
 badauka bihozmin!
 Ezin egin nahi ta
 beharra ezin in.
 Otoi, adiskidea,
 zuk ez ihes egin;

baina laguntza hartu
ta lehenbaitlehen jin,
ene gorputz triste hau
gaur ito ez dedin.

Seb: Laguna, hi uretan
oso estu habil,
eta ni igerian
berriz ez nauk abil.
Baina saltatuko nauk,
egon hadi trankil!
Eskutik heldu zaidak
egon arren debil,
biok biziko gaituk
edota biok hil.

Xan: Salbatzekotaz orai
hurbil da denbora,
nere gorputz triste hau
badoa hondora.
Eta arima altxa
zeruetan gora,
bederen hurbil dadin
amaren ondora.
Altza bedi agudo
zeruetan gora.

Seb: Bestera gerta daike
bihar edo etzi;
probatu aurretikan
zertarako etsi?

Lagun, aurki noa ta
hartzak pazientzi.
Hire tximak heldu edo
eskutik imurtzi.
Lagunikan itotzen
ez nezake utzi.

Xanpunek kartzelako gaian bota zituen puntu eta bertsuak:

Iri: Haizeak eraman du gure esperantza.

Xan: Lagunari eskeinia hor dio arantza.
Zorigaitzez haizeak hori dauka gaitza:
beti egiten gaitu bertzenen emaitza.

Iri: Hamasei bertsolari, txapela bakarra.

Xan: Hura eskuratzeko gaur behar azkarra.
Alta Xanpunek balikek, bai, baten beharra;
baina bertsutako eskas talendu ta indarra.

Iriondo: Hiru bertsu botatzeko gaia: Zer eskatzen du
herriak?

Xan: Garbiki diot, haurride onak,
ta nihork eztu dudatzen:
herri batean denek goxamen
zerbeit dugu inguratzen.
Ta zerk ote du herri maite bat
gehien-gehienik bazkatzen?
Bake on batek; eta guziek
horra zer dugun eskatzen.

Bakea duen izar ederra
hartu dezagun gidari,
eta inahalaz jarraiki gaiten
eman duen bideari.
Ez da dudarik izanen dela
gozamen ona ugari.
Lehenbiziko eman dezola
gure Euskal Herriari.

Ikas dezagun gure urratsak
norabeiterat gidatzen,
eta ez utzi anaitasunez
egin hariak higitzen.
Hasi gaitezen maitasun eta
bake sekretu bilatzen.
Baina bakea bera ez da heldu
guk ezpadegu bilatzen.

Xanpunen azken agurra

Orai bukatu bide dugu guk
bertsulariak duen lana;
eta banator, anai-arrebak,
hau opatuz zuengana:
Ofreitu edo eskainiz hemen
deneri bazkari on bana.
Hau da bihotz, bai, zabal-zabal
egiten ahal dudana.
Zuen presentzi horrek baideraut
berotasun hau emana,
berotasun hau emana.

**Han-hemenka
jaialdietan jasoak**

Urruña, 1963

Eskualtzaleen Biltzarrak antolatu zuen Euskararen Eguna zela-eta, Mattin Treku *Mattin*, Fernando Aire *Xalbador*, Manuel Sein *Xanpun*, Joxe Joakin Mitxelena, Jon Azpillaga, Juan Joxe Eizmendi *Errexil* eta Joxe Agirre ziren bertsutan Itsasmendi aretoan egun hartan. Gaijartzaile eta aurkezle, Iratzoki jauna.

Gai horixe eman zieten-eta, Mitxelenak hegoaldeko bertsularien eta bertsularitzaren indarraren aipamenak egin zituen. Xanpunek, iparraldeko bertsularitzaz hitz egin zuen:

Gauza bera nik erraiten ahal ote dut umil-umila?
Zure idai edo sendimenduak jota hementxe nabila.
Ibiltzen gera bertsularirik badenentz gu zintzo bila.
Talendu pixkat senditzen duna, otoi, agertu dadila!

Bertze guzien modukua da bertsularien bizia;
ezin erran da dugula guk gizontasun berezia.
Sokorriko Ama, galdatzen zaitut bihotz-bihotzez grazia
Urruña aldera heda dezazun bertsularien hazia.

Bertsulariak, zuen laguntzak ez du sendimendu hotza;
zuek ekartzen duzuen sok`horri horrek hunk`io bihotza.
Ez pentsa gero gure gradua dela gradu edo arrotza.
Kuraia pixkat, anaia onak; gure tartean ez lotsa!

Uztaritze, 1964

Uztaritzen, Hiribehereko plazan bertsulariak zituzten urriaren 11 hartan. Eta Xanpun, Errexil eta Mattin ofiziotan jarri zituen Etkezuri gaijartzailleak: Xanpun bordariari etxea erortzen ari zaio; baita Errexili ere. Kasualidadea da, baina bi etheen jabea da Mattin.

Xan: Nagusia, gu baldin baga
 zuganat etortzen,
 gure errenkura dugu
 laburzki aitortzen.
 Oraitxet entzun bia'uzu
 igan eta hortzen,
 etxea ari zaukula
 errotik erortzen.

Err: Mattin, nola geraden
 gu zure bordari,
 galde bat egin biar
 gaur nagusiari.
 Etxea oraintxe ia
 lurrerat erori.
 Hoiiek antolatzera
 bea'uzu etorri.

Matt: Gizon, tresna ta abar
 bada errementa;
 denak ni jarrai hemen
 hunat etorrira
 hauen etxia lurrera
 omen doa-eta.
 Hobe luteke pagatu
 urteko errenta.

Xan: Gure auzia arrima
dezake gauz gutik:
Lenbizi etxe zar hura
egon daila xutik,
haren azpian ez gira
gan nahiak mundutik.
Hortako errenta txikia
nai zaitut eskutik.

Err: Gure tartian bada
zenbat gorabera;
nausia, azkenian
umilduko zera.
Errenta altxatu ta
etxia lurrera.
Kriminalak baino ere
okerrago zera.

Matt: Nigarrik ez da jaliko
nire begietan,
hauek partitzen balira
Mattin lorietan;
beti errenkura naiz ni
bordari hauetan.
Bordari on guti da
gizon ederretan!

Xan: Egiaren erraiteak
nola duan munta,
orain Errexil ta biak
gu gaitezen junta,

nausi txar baten kontra
gauz horrek badu-ta.
Gureak konpon ditzala
bera salduta.

Err: Hemen ibilki degu
zenbait gorabera.
Errentak enpliatzen
nun ibilitzen zera?
Etxia erori ezkeru
gu akabo gera!
Gehiago kostatu zatzu
gu hiltzen bagera.

Matt: Horren beldurrangatik
nago ni gostuan;
nere bordarik bizi
dira deskantsuan.
Bordaririk ezin kolpa
holako kasuan.
Zazpi gautarik seitan
daude ostatuan.

Urruña, 1964

Otsailaren 2an Urruñan egindako bertsu jaialdian jasotako batzuk orain, Xanpunen ahoz ahoko bertsen sail honetan.

Halabeharrez, telebista baten aurrean eserita irudikatu zituen gai emaileak, Urruñan. Eta “Dakarreko zure arrantzale lagunak ikusi dituzu oraintxe telebistan, Xanpun”, esan zion, bi bertsu bota zitzaizkion.

Mariñel batek beretzat dauzka, bai, zonbeit zorte berezi,
eta heiek aipatu gabe Xanpunek ezin'tu utzi.
Etxetik urrun, gizagaizoak, Dakar aldean dagotzi.
Ta guk heurak ahanzterikan ez dute inola merezi.

Hoi en sujeta ukitu ezkeren ezin utzi dut atzerat,
nola doazin, gizagaizoak, leku batetik bertzerat
kasik bizia irriskatuaz zerbaite onen ekartzerat.
Jinkoak diotela arrantza on ta lehenbeitlehen sartu etxerat!

Xanpun eta Basarri elkarrekin jarri zituen gajartzailak
Urruñako *Itsasmendi* aretoan arratsaldeko bostetan eginiko
bertsu saioan. Gaia: Xanpun heldu da Dakarretik, han arran-
tza sasoina eginik; eta bere aitari –Basarriri– aitortzen dio
nola dakarren han egindako emaztegai bat, eta harekin nahi
duela ezkondu. Bere emaztegaia, neskatxa beltza da.

Xan: Aita maitea, zuretzat daukat
 orain galdera zorrotza,
 aitortzen baitut egia erraten
 kasik naizela gaur lotsa.
 Andregai bat Dakarren in dut,
 koloreaz dago beltza.
 Bainan kanpotik ez bide da, ez,
 presunarentzako gaitza...
 Gure irudikoa izanagatik
 maitena hura neretza.

Bas: Gure seme au, jaunak, gaiztotzen
 beti urtetik urtera!
 Igaz bezela aurten'e junda
 ortxe Dakarko partera;

eztigu esan itsaso artan
zer arrai duen atera.
Disgusto aundiak emanak ditu
bere aitaren kaltera.
Ustez arrantzara bialdu nun,
ez andregai egitera.

Xan: Aita, ez, otoi, hori entzunda
gaur lotsaturik gelditu,
bihotz bateri behar baitzaio
bide zuzen obeditu.
Seme hunek hoi zuri aitortzeak
bere arrazoinak baditu;
hola penatu bazaitut orai,
batere etzaitez arritu:
arrantzale onak arrain guziak
saretan biltzen baititu.

Xanpun eta Mattin elkarrekin jarri zituen gero gai emaile-
ak Urruñako festa hartan, gai hauxe emanda: Biok baserrita-
rrak zerate. Belauniko, atzeraka eta aurreraka, belar-zama biz-
karrera jaso ezinda ari dan Mattin ikusi duzu, Xanpun.

Xan: Ene auzo hau aspaldiskoan
nola naukan begitan,
egun batean, beraz, atxeman dut
lagun hau lan erditan.
Zalapartaka, karga ezin altxa
hantxe dabil zalapartan.
Hartako behin ereman'azu,
ez entsaiatu zu bitan.

- Matt: Nere tokitik bide hegira
kasikan dira bi pausu.
Egin ahala eginka beti
ni lanian aitzen nuzu.
Zetako hola trufaka ari,
ta neri bota bertsu?
Aiseago're inen nuen nik
zuk lagundu baninduzu.
- Xan: Karga haundia ttikiak altxa:
horrek daduka aski gaitz;
eta munduan dakizuena
horixe gertatzen da maiz.
Zure serbitzuko nago ni, Mattin,
eskatuz gero zuk noiznahiz.
Jestu ttiki bat egin nazu ta
lasterka etorriko naiz.
- Matt: Egin ahalka hola aitzia da
pertsunarentzat kaltia.
Ezta posible ahal den baino
gehiago erematia.
Eztu balio zu ere gero
hortik beira egotia.
Bihotza dunak berak behar du
erakutsi borondatia.
- Xan: Etzaitela izan zu, otoi, Mattin,
hoin esker gaizto, zimela;
nik nere eskaintza egin zaitut gaur,
etzaitela errebela.

Eta gainerat auzoak gira,
zertako billatu gerla?
Nik uste nuen lagundu eta
zu lotsatuko zinela.

Matt: Sentimenduak idorrak dauzka
Xanpun hunek bihotzian;
batetxo ere ezta urrikaltzen
ni honela ikustian.
Erdi trufaka neri begira
goiko bide-sahetsian.
Zerbeit gauza on sendi dularik
laster dut han bahetzian.

Xan: Pentsatzen zuena ezin gordeta
agertu zauku janeko;
eztut erran nai gizon ttipia
danik kargaren meneko.
Borondatia daukala dio
zerbeiti lotzen deneko.
Onarentzat on den gizon hura
ez ote da on txarreko?

Matt: Nere laguna holaxe baita
frango leku bihurrian.
Hobeko nuen nik ere karga
hartu banu negurrian;
ezin altxa ta laguntza eska
hantxet utzi dut lurrian,
ta hunek ez nau lagundu nahi
zikintzeko beldurrian.

Xanpun eta Uztapide elkarrekin ofizioan jarri zituzten beste batean, gai hauxe emanda: Uztapidek zakurrak ditu etxean. Baina, itxura denez, zakur horietako bat Xanpunen oilategian sartu da, eta bizpahiru oilo ito. Hasi, Xanpun.

Xan: Agertu behar dugu elkarri
 mamia eta azala,
 eta mintzatu oraintxe biek
 gizon batzuek bezala.
 Bospasei zakur dauzka etxean,
 hori da bere itzala;
 baina aitor dut gau eta egun
 beti zaungaka dirala.
 Zuzen ezpadabiltza gero,
 danak garbitu ditzala.

Uzt: Espelikazio batzuek daude
 ematen oso samurrak:
 mundu au ia betea zeukan
 gaiztoak eta lapurrak.
 Badakizute nolatan geunden
 gau eta egun bildurrak;
 lo egiteko orduak ere
 izaten ziran laburrak.
 Zakurrak zaunka eiteko dira;
 kanpoan dira zakurrak.

Xan: Gure auzia xuritu behar
 dugu gaur frango bitxiki,
 eta ez nuke nahi hortako
 karratxurikan atxiki.

Dozenerdi bat zakur badauzka
gutxinez, haundi ta txiki;
ta nere oilotegian ere
ez ote dira ibilki?
Zauriaren gainerat igoa
neri aztalak haziki.

Uzt: Berela esan bear det, Xanpun,
bein asi geran kasuan:
nik lotu eta eukitzen ditut
zakurrak arrats osuan.
Oien kontuak egiten ditut
txit era kuriosuan,
ta etzaitela zakur jabeai
zu asi amenazuan;
txakur aitzakin oilloik onena
beronek jango bait zuan.

Xan: Duzuelakoz bertsu polita
lagunaren aboz aditu,
hoi sinetsita, nere entzuleak,
etzaitzeltela gelditu.
Hunek manatzen ditu zakurrak,
ta zakurrek obeditu...
Huna oraintxe zertsu zaitan
zakur hoitaz iruditu:
hauzoko oiloak hilik igortzen
heziak izan bear ditu.

Uzt: Arrazoirikan eztakit dezun,
lata ematen didazu;

kulparik gabe jende aurrean
ia erdi lotsatu nazu.
Zerbait pentsatu bearko degu
zuk arrazoia badezu.
Ittotzen diran oiloak eta
zakurra ekarri izkatzu,
ta egin ditun oker guztiak
danak ordainduko zaitzu.

Xan: Samurtu gabe arrimatuaz
makurrik ez dago egun;
zakurrengatik zertako behar
dugu bizitu guk ilun?
Zakur horiek ere betiko,
beraz, ezin dute iraun;
nola auzokoak giran ta
aspalditikan ezagun,
lepoa bihurtu oilo heiekin
otruntza egin dezagun.

Uzt: Ortik aurrera zakur kontuan
asko ez goaz esatera;
biok hasarre giñanak leno
bilduak gera batera.
Zakurrak lotu egin beharko
ta ez etxetik atera,
ta leporikan bihurtutzean
ni joango naiz jatera.
Erdi gaixorik nabil ni baiño
garbituko det platera.

Urruña, 1965

Otsailaren 21ean, Urruñan egindako bertsu saiotik hartutako zenbait ale. Jaialdia, *Itsasmendi* aretoan egin zen, gai emaile eta zuzendari Irazoki jauna zela. Txomin Ezponda lehenengo aldiz jin omen zen Urruñara egun hartan; eta Xan-punek honela eraso zion, gai jartzailearen aginduz:

Xan: Noizpeit beharrez guk ezagutu
 nolazbeit batek bertzea;
 Zeruko Aitak, beraz, egin du
 gaur biak hunat heltzea.
 Ta tokatzen zait, ikusiz geroz,
 lagun huni galdetzea:
 ea poztuten zaion Urruñan
 bertsu ematen jartzea.

Ezp: Lehen aldikotz egun bait neraiz
 Urruña hontarat jina,
 zuen artean izaitea da
 gaurko nere atsegina,
 bertsulariak bazirela
 hemen bait nuen haizina.
 Jaun prestu bat aldean badut
 bainan eztakit izena.

Xan: Nola jakindu baitiat hemen,
 aiskidea, hi nor haizen;
 eta serioz egotua nauk
 hire berttua aditzen.
 Nik baditiak, egia erran,
 Urruña huntan bi izen:

Manuel diat legezkoa ta
Xanpun naitek deitzen.

Ezp: Entzuna ere nik izen hori
belarriz nuen entzuna:
bertsularia pollita eta
Xanpun zelakoa jauna.
Orai nerea errateko ere
etorri zautak orena:
nahi baduk hau laburki entzun,
Ezponda duk nire izena.

Xan: Hire izena jakite horrek
segur eman dik atsegin.
Berri horiek erranta hemendik
guk eztezaun ihes egin.
Orai jendiak gue talendua
zertsu den nahi dik jakin.
Hortakotz bertsu bat edo biga
emain'tiau elgarrekin.

Ezp: Geroari're egundik hemen
jarri behar gare begira:
lehen baziren, bai orai ere;
gero're izango dira.
Zendako hau guk galduko degu
eskualdunak bagira?
Hemendik goiti kantatutzia,
Xanpun, duk nere desira.

Xalbador eta Xanpuni gai hau jarri zieten: Xalbador aita da, Xanpun seme esposatu berria. Eztu sobera elgar aditzen bere emaztearekin, eta aitaganat dator, “emazteari bi mazelako” eman dizkiola esanez, larri.

Xan: Aita, kondena nindeke
 infernu zolako;
 ez al da berriz gertatu-
 ko maiz holako.
 Andria beti mokoka
 han ari zelako,
 hasarretu naiz eta eman
 tut bi mazelako.

Xal: Andriaren nagusi
 gizona zen jaio;
 geroztik izana da
 lenbizi bataio.
 Haren gaixtakerier
 ez egon soraio.
 Merezi duenari
 eman behar zaio.

Xan: Baina gure sujet hori
 eztago erditan;
 ohar zaite, nik nigarra
 daukat gaur begitan.
 Eta hari nola erran
 hauxet ez dakitan,
 egin dutan lan hartaz
 nago urrikitan.

- Xal: Hire zainak beldurrak
hor dauzkak sartuak;
noren falta ote diren
atera kontuak.
Nik barkatzen ditiak
hire bekatuak.
Amak ere baditik
bakarrak hartuak.
- Xan: Zure sendimenduak
ez atxiki gako;,
bai, pena haundiak dauzkat
eginak hortakoz.
Ta barkamendu eskatzen
diot sekulakoz!
Konten naiz aitik etxenplu
eman dautalakotz.
- Xal: Errespetua ez daiak
nahi galarazi,
baina zerbait gisetan
behar bait da hasi.
Merezi duen hari hik
eman zerbait gazi;
ez gaitzan harek galdu
behar diagu hezi.
- Xan: Barka nezala, otoi,
egin dutan mina;
bai, gaixoak hartu baitu
hor orroitu dina.

Baina ne'urrikiakin
egiten dut zina
kalme gehixo hartuko'ut
hemendik aintzina.

Xanpun eta Mattinek egun berean egindako saioa. Gaia: Mattini etorri zaio tripako min bat gaitza, eta badoa Xanpun midikuarengana, eta erraiten dio nun duen min. Xanpunek ematen dio bere sententzia.

Mat: Medikua, hemen naiz
zureganat jina,
entzunik zirela zu
ona eta fina.
Jakin nai dut zuganik
oraitik aintzina,
zerk ematen derautan
neri tripan mina...

Xan: Laster ezagutu dut
nik Mattinen gaitza;
denen bistan esan behar,
horixe duk beltza.
Gorputz guztian jabe
egin zaio gantza.
Sobra jan t'edan eite'uk
eite'un lanantza.

Mat: Midiku jaun hau dago
ofizioan trebe,
honenganik entzun ber
nun gaur hau ere.

Nork beha'ik ba sinetsi
orden hori ere?
Bea're bizi ote da
jan ta edan gabe?

Xan: Sendatuko zirade
nere errana eginez;
bertzela oraino luzaz
egoin zira minez.
Bainan orroitu, Mattin,
egiten ahal denez:
zaude instant bat ur hutsa
egun oroz edanez.

Mat: Midikuak ez nau ni
emanen trenpura;
hunekin ere eztaike
eri bat gustura.
Ura edan bear dudala
jin zaio burura.
Len sobera edanik
dut nik errenkura.

Xan: Pixka hartzea, Mattin,
ezpaitu balio;
huni duen gaitza, beraz,
horrek eman dio.
Sobera eri zera
arnea dela medio.
Ez bauzu erran'iten
izain du ondorio.

Mat: Mediku hau ezin dut
hola obeditu,
zer eskola duen honek
ezin konprenditu.
Nere gaitz guztiak
galdegin ditu...
Nik eztakit zertako
ein zinen mediku.

Xan: Etzera nik erranta
zu, Mattin, eritu;
oain etzinduke behar
hitz hortan gelditu.
Nere erremediak
be'onak baditu.
Sendatu nai badezu,
beraz, ni obeditu.

Mat: Nere bisita baita
gaurko akabantza,
zukanik sendatzia
ez dut esperantza.
Beti hunek erraten du:
–haundiegi duk pantza!
Etxian ez edanez pipa
hunentzat donantza.

Xan: Etxitela zu ari
horrela guduan;
ez al duzu zuk leitu
zer markatu duan?

Etzaitut luzaz euki
nai hola munduan.
Zatoz ni ikusterat
hiru egunen buruan.

Ondorengo bertsu hauek Xanpun eta Errexilek egin zuten saio batetik hartuak dira. Gaia: Errexil aita da; eta Xanpun, semea. Aita askotan edana itzultzen da etxera, mozkortu eta guztiz zakartua. Eta semeak, bortizki eraso dio gaur.

Xan: Aita maitea, bortitz bortitza
itzultzen naiz zuregana,
eta garbiki erranen dautzut
bihotz gainean dudana.
Nola dezake gizon azkar bat
edari horrek engana?
Bai, zinez, aita, ona zintazke
ez bazinde maiz edana.

Err: Nere semea, zakar-zakarra,
fuerte mintzatu zera zu!
Oi, zure aita mozkorturikan
sobra maiz ikusten duzu.
Ongi naizelaik konprenitzen dut,
zuk hortan arrazoi dezu.
Eta tartetan tronpatzen banaiz,
semia, barka zaidazu.

Xan: Zu bezalako aita batekin
seme bat ezin da izi,
eta sobera erraiterikan
egun eztuzu merezi.

Bainan zuk, otoi, aita maitea,
edate hori gaur utzi;
gainerakoan hemen zurekin
bakez ezin gera bizi.

Err: Hori badakit, etxe guzia
egiten dutala nasi.
Bizio txarra hartu nuen ta
iñola ezin dut utzi.
Aizu, semia: betiko eran
zu neretzat zera bizi.
Ez ezazula aitak bezela
mozkorkeririk ikasi.

Xan: Beti semea ibilki zaizu
etxeko bakean bila;
eta galde bat egiten dautzu
hementxe umil umila:
gure etxeko bake on hura
oraino ez baita hila,
egun dukezun zimino hori
azkena izan dedila.

Err: Horra, semeak ondorio txarrik
nik uzteik eztu espero;
azken mozkorra gaurkoa bada
ez naiz arrailduko gero.
Nahi duenak idaia hartu,
erremedio badago.
Errege bezin ongi giñake
aita sendatu ezkerro.

Aiherra, 1972

Gaia: Arrossagaray Lourderat doa sasoinaren egiterat. Xanpun da aita eta hau bakarrik bera uzten du etxean. Zer diote elgarri? Aiherran Bazkotan emana.

Xanpun:

Gaur ez dezagun debalde utzi, bainan mintzatu, dena den, ene semea hor dabilana suertez baitaukat hemen; batean Parisen dela ta berdin bertze batzuetan Lurden, aita bakarrik lanean eta ez daki semea nun den.

Arrossagaray:

Aita maitea, bortxatua naiz ni ere hola jaietara; orai atera dautazu hemen naski gaitzeko kondera. Ez penarikan izan zuk, otoi, ni joanikan Lurdera, harat joana bainintzan segur zor haundien pagatzera.

Xanpun:

Sasoin egitera gan omen zen, gauzak ez luke hor funtsik; bera ihesi bezala gan da, aita bakar bakar utzik. Orduan ez nuen izanen baitezpa behar zen zuhurtzirik, barka nezola ez balitzait itzultzen sakelak hutsik.

Arrossagaray:

Aita maitea, gaizki zuk egun naski daukazu kopeta, nihaur ere gaur harritia naiz zure moldea kus-eta. Seme batek hortan egin behar du segur aski pentsaketa: semeak zorrak pagatu behar aita zaharrak in-eta.

Xanpun:

Lekuko gisa ateratzen nau nola ordaindu guk zorra,
eta aita batek hori entzun behar badu gauz gogorra.
Dirurik ez nau ekartzen eta gainerat hau horra,
ba'ut uste Lurden galdu duen lehen zuen fede ondarra.

Arrossagaray:

Aita maitea, zertako beraz holako errabiak?
Ontasun honak egiten ditu oraino zure semiak.
Lurde horretan pasatzen ditut nik urtien erdiak;
Ama Birjinak ongi bizitzen lagunt gaitzala gu biak.

Xanpun:

Seme maitea, zaude sanoki ta ez gaitezen engana;
errexki da ta gainerat eder joaitia Amangana.
Bainan orroit haren Semeak eginbidetzat du emana;
otoitza bezenbat estima omen lezakela lana.

Arrossagaray:

Otoitz hoietan, aita maitea, derauzkat egun aferak,
fama trixteak kusten ditut nik egun aitaren manerak.
Otoitz hoietan hunen bideak ez dira aski azkarrak.
Semeak egin beharko ditu naski aitak in beharrak.

Herria, 1972ko uztailaren 20koa.

Eliza eta komentua

Bazkotan eman bertsuak. Gaia: Alkatek eliza eta komentua dauzka baitezpadakoak. Xanpunek, aldiz, maiteago ditu heien bien arteko karriketan diren kaperaño batzu.

Alkat:

Xanpunekilan hasi girade orai gu biak aparkan,
nahiz horrela bata bertzia gertatzen giren batzutan.
Hau ere baitzen abiatua gelditua biderditan,
so egizu ba jende horiek denak ziren bezperetan.

Xanpun:

Adixkidea, zuk salatu nai nauzu naski gaur lepora,
meza bezperak aipatuz hemen, alta ezta ba denbora.
Horiek denak pasatu eta hauxe jin zaut ba gogora:
kapera hoik'e ez dira txarrak naski mezatik lekora.

Alkat:

Bere fedea lagun hunek'e baitauka bere buruan,
bainan hargatik Elizarekin aspalditik da guduan.
Fede haundiko nahi baitzuen sartu apezten graduan,
arno on hartarik xortaño bat kausitzen du ostatuan.

Xanpun:

Meza bezperat gan ditakela naski diogun barura
nahiz estatu hau gaurko egunez ez den ikusten ardura.
Ni ostatatut gaten banaiz hortaz ez naiz arregura,
zu're menturaz maizago zoaz ezinez ta komentura.

Alkat:

Zure iduri dagon gizonik munduan asko badea?
Elaiteke ba holakoekin komentua're betea.
Bainan hadakit bihotzean zuk zure gisako fedea;
bihotzean zuk fedea eta ostatuan aldarea.

Xanpun:

Naski bakotxak berea naita, zerbait behar dut atera;
bainan zorrozki ez dut sartu nai fraile horien artera.
Bainan aitortu dezagun hemen, itxuraren arabera:
ez ote dute komentuetan ostatuko arno hura?

Herria, (1973, 1196 zk) 5

Mattinek seme beltza

Gaia: Xanpun senarra da; Mattin, emaztea. Haur bat sortu dakote, bainan beltza da. Aiherran eman bertsuak.

Xanpun:

Nere kasuan denak badauka zer pentsa,
bizkitartean ez naiz ba gizon bat mentsa.
Zer idurikatzen dut ba sortu den horrentza?
Aita ta ama zuriak, eta haurra beltza.

Mattin:

Senar-emazten artean hau da komedia!
Hau erran behar dut okasioneaz balia:
seme bat beltza dela neri etorria,
nork erran hura ez dela aita iduria?

Xanpun:

Aitaren arrazoina gaur ez dabil berdin;
ta pentsaketak egiten tut noizean behin.
Ni joaten naizelarik norbeit etxerat jin;
beltz hoitaik batek lo ene etxean egin.

Mattin:

Ez zazula neri erran holako solasik,
afruntu horrekilan hiltzen nauzu kasik.
Nere ustian ez dut zuri egin hutsik,
beltzekin ez naiz ibili ametsetan baizik.

Xanpun:

Nahiz kasu bortitz hortan badabiltzan hor lau,
batzuentzat eguna dena, bertzentzat gau.
Huna zer pentsatze'utan, ta kontsolatzen nau:
agian, handitzean aitatxo erranen nau.

Mattin:

Senarrari sartu nahi diot bihotzain erdira
bixta heda dezala pixka bat mendira.
Egoiten bada artalde hoieri begira,
zurien artian bildots beltz batzu badira.

Herria, 1973ko hazilaren 1ekoa.

Donibane Lohizune, 1975

1975eko ekainaren 1ean, omenaldi gozoa egin zioten Uztapide bertsulariari Donibane Lohizunen. Lazkao Txiki, Ezponda, Alkat, Joxe Mari Arregi, Xalbador, Larrañaga, Arozamena, Koxme Lizaso, Mattin eta beste bertsulari asko bildu ziren han. Aurkezpenak eta gai ematea, Mitxel Itzainak egin zuen.

Xanpunek ongi etorri egin zien Uztapideri eta bertszualei, honela:

Manuel lagun maitea, zutaz ni mintzatzea barkatu.
Zu ikusteak sentimendu hau iñola ezin du trenkatu.
Hain zira gizon maitagarria, danek zaitugu maitatu;
ta arbolaren zazpi adarrak zuri esker dira alkartu.

Zure sonak gaur, ez da dudarik, egina du aski bide;
nork ez ote du agurtu nahi egun hemen Uztapide?
Ta gizon gisa agertzeko ere hau ez da izan kupide...
Horra zergatik daukazun egun horrenbertze adiskide.

Egungo besta, aitortzen dautzut, zuretzat dugu jarria.
Izan dadila zuek denentzat egun bat orroitgarria.
Besarkadaka zure bertsutan ibili Euskal Herria,
xuhur-xuhurra hona nun duzun zu agurtzerat etorria.

Xanpun, Lazkao Txiki, Ezponda, Alkat eta Arregiri, Uzta-
pideren liburutik jasotako pasarte bat eman zien gai Itzaina
jaunak, honelaxe: Uztapideren liburuan irakurtzen dugu:
Orioko “Begi exkerra” etortzen zen bertsupaperak saltzera,
eta guk erosi egiten genizkion. Abots harrigarria zuen, tenor
botza”.

Bi bertsu hauk bota zituen Xanpunek:

Adixkideak, aitor nahi dut, hortaz etzaitezuela duda:
Bertsuetako nahi on hori sortze-sortzetik heldu da.
Sentituz geroz zabaldu nahi, hori bai, naski, zuzen da;
zorigaitzez gaur nahi bezenbat ezin dezakezu heda.
Behin gaixorik sentituz geroz gizon bat ezin da senda.

Urteak ditut bertsu-lanean hola naizela ibilki.
Ez da dudarik, bertzeak dabiltz, segur, ni baino hobeki.
Jainkoak eman dohain hau eta zertsu den berak badaki.
Bein Uztapide entzun nuen ta gogoia harek ideki;
ez da dudarik, horren hazia gogoan dut nik iduki.

“Euskadiko mugak” gai eman eta, beste bertsulari batzuekin txandan, Xanpunek Donibane Lohizunen bota zuen berttua:

Nork ez daki gaur gure Euskadi
zer modutsutan dabilen?
Gu bentzutu nai gaituzten hoiek
ken ditzagun lehenbaitlehen.
Gu gera euskotarrak eta
zertako ez egon hemen?
Hoiek gaur buru uzten badira
guziok gaituzte hilen.

Urepele, 1976

Xalbadorren omenez, 1976ko azaroaren 7an Urepelen egindako bertsu-saiotik jasotako Xanpunen zonbeit. Lehen agurra:

Nola arrano bat pausatzen den mendi haundien gainean,
bertzeak baino gorago dabil, dabilalarik airean.
Xalbador berdin ezartzen zaitut bertsularien mailean.
Bainan badaki berdin pausatzen gure aldaxka berean.

Orain bertsu hau ebasten zaitut, zeren hau zor baitut egun,
gure Xalbador anaia eta haren ospea daukagun.
Beti izan da gizon argia, euskaldun bezen fededun.
Anai-arrebak, hori zor dugu: etsenplutzat har dezagun.

Mitxel Itzaina gai emaileak Joxe Lizaso eta Xanpun ofi-
ziotan jarri zituen Urepeleko jaialdi hartan. Gaia: Senarra eta
emaztea zerate zuek. Hiru seme-alaba badituzue eta laugarre-
na bidean. Senarra, Lizaso hasita

Liz: Emaztetxua, garai batian
 artu ziñutan amorez,
 ainbesteraíño gustatu nintzan
 gorputzez eta kolorez.
 Oraindaiñoan iru bat aurtxo
 azi ditugu ain errez,
 nola arraio zaude zu orain
 laugarrenaren beldurrez?

Xan: Senarrak maite nau, eta diot
 segur ordaina emaiten.
 Biak amorez gaur ari gira
 gure hazia ereiten.
 Hiru dauzkagu eta orain hau
 laugarren hori eraiten.
 Ohartu al zira, ene senarra:
 ez dituzu zuk egiten.

Liz: Etzaitzezela marmarka asi,
 nere emazte maitia.
 Senarrak ere orain nai luke
 zuri zerbait erraitia.

Zuk nere esku uzten al dezu
or lan pixkat egitia?
Orren neke astuna ote da
bular ori ematia?

Xan: Senarra, entzuten bagindu guk
gaur noraino al goazi,
ez ote du andreñoak ere
bake pixka bat merezi?
Senarra errezena egin ta
nasai-nasaia zait bizi;
andreak, aldiz, haurrak egin ta
gainera behar'tu hazi.

Liz: Nola bukatu bear dute gaur
ditugun pazienziak?
Etxeko penak erri bateri
dizkagu erakutsiak
Orguillu geio ez al du biar
familiako artzaiak?
Sano badira aziko'itugu
etortzen diran guziak.

Xan: Jaun-andre arteko auzia da,
aitortzen dut egiazki;
mirakuluz heldu balitz haurra
ez litaike zinez gaizki.
Bainan ama hunek amodioaren
ondorioak badazki.
Zerorrek egin zazu, nik behintzat
neretzat badaukat aski.

“Nork esaten du egia?” gaia jarrita, beste bertsu hauek bota zituen Xanpunek Urepeleko jaialdian:

Galdegin nauzu ea egia
nork ote duen esaten.
Nerea orai erranen nuke
guziek sesi dizaten.
Noiztenka dugu gezurra ere
beharra atxematen.
Gezurra bera, sinisten bada,
ez al da egi izaten?

Baina hala ere ez gaiten ibil
gu egiari ihesi;
gezurra bezein bizi baitago
hori behar da sinetsi.
Eta egia leku batean
bakarrik dago nagusi,
ta hori ezin ebanjelio
saindu hartan bezik kausi.

Ofiziotan, Lazkao Txiki eta Xanpun. Gaia: “Zer ari da gertatzen munduan?”, galdetzen du apezak. Lazkao Txiki da apez hori.

Lkt: Pixkabanaka aldatzen doa
gure lurreko bizitza,
ta egun ia alperrikan da
ebanjelioko itza.
Nai degu eta egun gu ezin
kristauen antzera mintza.

Ikusitzen det gaur gu apezak
alper-alperrik gabiltza.

Xan: Lagun maitea, etzaitela zu
lotsetan sartu hortako;
ni elizez kanpo nago eta
erranen dautzut zertako.
Ez uste, baina ikusiz hola
fedea dagola flako,
ez ote ditugu guk apezak
noiznai baino beharrago?

Lkt: Baiña gaur gazte askok ez dute
zuk dadukazun usterik,
ezpaitute pentsatzen ondoren
zorionik iristerik.
Mundutasunak itsutu eta
ez dadukate federik;
baiña pentsatu lur au eztala
pasadizo bat besterik.

Xan: Bai, nolabaite zu ta ni gira
hezur-haragiz eginak;
lehenbailehen kasatu ditzagun
gure kezkek edo grinak.
Etorriko naiz elizan alde
zuk salbatuko arimak,
kartsuki otoitz eginez, lagun
gitzan Lurdeko Birjinak.

Xanpun, Lazkao Txiki eta Lazkanori Itzainak emandako
gaia: Oilarraren jabea, ostalaria eta ostatuan lo egin nahi
duena.

- Lkt: Aboa itxiaraztea beste
ezer etzaigu gaur falta.
Ara zertara beartzen geran
kanpoan nagusi baita.
Atzerritarrak kejavu dira
oilarrak kantatu nai ta.
Segi kantari, oilar maitea,
zu bertakoa zera-ta.
- Xan: Ni ostatuko nagusia naiz,
atera behar kontua,
auzoa eta etxea ere
kezkatan baita lotua.
Oilar tzar hori beti kantari,
loa du ezin hartua.
Nausiak ez badu isilarazten
nik kentzen diot lepua.
- Laz: Etsaiak hurbil ote nituen
egina neguen juzgu;
hauxe da marka bizi beharra
atzerritarraren esku.
Jaiotzatikan eta izatez
hauxe det nik bizileku.
Hau da makurra: neure lurrean
ezin egin kukurruku.
- Lkt: Oilar maitea, kantari zaude
zeru aldera begira;
egunak duen sentiarekin
biotza dezu kupira.

Eta kanpotar arrotz gaiztoak
orain kontent ezpadira,
esaten diet: joan ditezen
etorri ziran tokira.

Xan: Oilar gaizoa, kantari ona,
ez da, ez, hori itzala.
Bainan dakite goizetan, segur,
gu gustura gabiltzala;
eta gaur hunek entzun dezala
bertze guziek bezala:
Kantarik ere berantxeago
kukurruku in dezala.

Laz: Esan zidaten: jaiotzatikan
izango zera kantari,
eta kasurik ez egin iñoiz
auzoko berriketari.
Nere bizitza horixe danez
sarri egingo det hori
naiz ta gaurtikan konta al izan
oilar bat geio martiri.

Zestoa, 1977

Urteoroz antolatu ohi zuten holako bertsu-jaialdi bat Zestoaan. 1977ko otsailaren 5ekoa, Joxe Lizasoren omenez antolatu zuten, bertsulari eta bertszaleen pozgarri. Jaialdiaren aurkezpena eta gai ematea Joxe Mari Iriondok egin zuen urte hartan ere.

Xanpunen lehen agurra:

Muga txar batek puskatzen dauku gure Euskadiko lurra;
bainan daukagun anaitasun hau ezin du hauts edo urra.
Zestonar onak, baliatzen dut gaurko denbora laburra,
zuei ekarriz iparraldeko anai-arreben agurra.

Bertsulariak taldeka hartu, eta Azpillaga, Xanpun eta Ma-
ttin elkarrekin jarri zituen Iriondok, gai honexekin: Hilabete
honen 26an, “Bertsulariek bertsulariei” deituraz, jaialdi bat
egingo da Galarretan, Xalbador eta Arozamenaren omenez.
Zuen bertsoak, txandaka.

Matt: Gaur senide bat galtzen denian
 denek dadukagu pena,
 ta horixe da urte azkenian
 gurekin pasatu dena.
 Xalbador lenik galdu ginuen
 eta gero bigarrena,
 hura bezela berdin joan baita
 Migel Arozamena.

Xan: Zoin bortitza den bi anai hoiek
 ukanik azken orena!
 Hogoita seian egiten dugu
 hoikin zor dugun omena.
 Batto Xalbador ginuen eta
 bertzia Arozamena...
 Ukan bezate zeru gainean
 bakearen gozamena!

- Azp: Munduan sortu diran guztiak
bukatzekoak baitia,
bertsularitzan sartua dago
gure Jaungoiko maitia.
Esaera da: kunpli dezagun
Jaunaren borondatia...
Haien bitartez zabaldu zazu
Euskal Herrian atia!
- Matt: Bi anai hola galduarekin
gelditu gera penetan;
geroztik honuntz bertsuzaleak
hor dagozi nigarretan.
Eta hil hunen hogoita seian
dela frontoi Galarretan...
Egun haundi bat egingo degu
omentzeko biak betan.
- Xan: Iturri baten ura bezala
zerabilzkatzen bertsuak,
izan zitezen gai alai edo
serios hoik dohaintsuak.
Baina eraman ditu alderat
Jaungoiko boteretsuak...
Egin detzala bere alboan
bertsulari dohatsuak!
- Azp: Xalbador eta Arozamenak
egin diguten galtzea!
Orain besterik ez degu: otoitz
egin eta oroitzea.

Askok diote ederra dala
Euskadirentzat hiltzea,
baina haiekin hobeki gendun
Euskadi serbitutzea.

Matt: Hirugoi urte orain baditu
bizi naizela munduan;
hameka bertsu kantatua naiz
lagun hoiengandik.
Eta gaur ere kantatutzen det
lagun on hoiengandik...
Neretzat ere toki txiki bat
gorde zazu zeruan.

Xan: Denek dakigu anai horien
galtzea zoin idorki zen;
nehork eztaiki beren espos ta
haur on hoiengandik zuzen!
Zeruko Aita, zuk badakizu
aldaparen ordokitzen.
Lagundu atzu bihotz horien
penari ihardukitzen.

Azp: Euskal Herrian zaitu zituzten
ez dakit zenbat jatorri;
guk ere segi behar lendikan
dadukagun bide horri.
Omenaldia Arozamenai,
eta berdin Xalbadorri.
Bertsozalea sentitzen dana
Galarretara etorri.

Zestoako jaialdi hartan Xanpun eta Lazkanok egindako saioa duzu ondorengo hau. Gaia: Esan ohi zen, eta esaten da, euskara baserriak salbatuko duela. Zuen iritzia.

Xan: Hirian bizi izanagatik
nago estatu txarrian,
gure euskara ikusten baita
ez da leku azkarrian.
Haren galtzeko bekatu horren
karga dugu bizkarrian.
Graziak hiri hortan galdua
salbatzen den baserrian!

Laz: Baserri zarra izan da beti
gure lorien baratza,
giza egiteko leku mardula
ta ikastetxe aberatsa.
Baina hustutzen ari zaizkigu,
jendia dator berantza.
Nik galdua det baserriakin
salbatzeko esperantza.

Xan: Gaitz gaixto hori eztezagun utz
gaten, otoi, bururaino.
Baserri hoietan gure euskara
dago azkar bezin sano.
Eta entzun zak, dudarik gabe,
hik adiskide Lazkano:
euskara eztuk inoiz galduko
baserri hoik dauzkano.

Laz: Hizkuntz txukun bat nai dunik bada
joan baserri aldera;
baina hoiiek datoz goitik bera, ta
au da guk degun galera.
Horretan utzi behar al degun
nik egiten det galdera.
Gure hizkuntza jarri dezagun
kale-bizitza moldera!

Xan: Mundu haundi hau kreatu zuen
Jainkoaren berezkuntza:
euskaldunori eman ziguten
oraino dugun hizkuntza.
Ahultzen ari balin badare
eman zaiogun laguntza.
Galtzen baginu ezin barkatu
litake guk egin hutsa!

Laz: Ez daiogula hizkuntzai eman
reliki baten tankera!
Zabal dezagun uri danetan,
jendeai eman aukera.
Denok horretan burrukatuaz
gogor saiatzen bagera,
salbatuko da gure Euskadi,
salbatuko da euskera.

Lopategi eta Xanpun, Zestoako jaialdian. Gaia: Zer dira malkoak?

Xan: Galdegin nauzu, adiskidea,
zer ote diren malkoak.

Nik egundaino ez ditut entzun
galde hau bezalakoak.
Erran ditake heiek direla
bihotz on baten gakoak.
Zorigaitzean penak ematen
sarri guri holakoak!

Lop: Iñork malkorik sentitzen badu,
ez eutsi, kanpora bultza!
Ura baitugu korapilo bat
askatutzeko laguntza.
Malkoak badu bere anima,
ez da materia hutsa...
Miñezko eta atsegiñezko
sentimenduen gorputza.

Joxe Lizaso eta Xanpunek, txandan, gai honi buruz egin
zuten gero, Zestoan: Hori ere badator, eta aurtengo udaberria-
ri bertsuak.

Liz: Ez da pekatu itz egitia
gizonaren iritzia.
Noizbait agertzen asi bie'gu
sentitzen degun guztia.
Berrogei urtez or damakigu
negu beltz bildurgarria;
Euskadirentzat noiz ote degu
gustoko udaberria?

Xan: Ikusiz negu beltz horrekilan
ikaratuz gabiltzala,

bai eta horrek zoin hotza eta
azkarra duen azala.
Udaberria, begira gaude;
sekretu hori ez sala.
Euskal Herria ikurriñaren
kolorez bezti dezala!

Liz: Beti negarrez zertan jarraitu
 mundu ontako bizitzak?
 Izanez ere oinbesteraño
 zapaldu gaitu ekaitzak.
 Negarrez daude gure mendiak,
 negarrez gure elizak.
 Frutu berriak eman ditzala
 Gernikan dagon aritzak!

Xan: Neguak utzi duen ondarra
 zaila dugu iristia;
 hoinbertze iraun dezakela ere
 zailago da sinestia.
 Zenbat begi ez ote da egon
 negu hotz horrek bustia?
 Ea behingotz ekartzen gaitun
 zorioneko amnistia.

Irria gai emanda Xanpunek Zestoan botatako bertsuak:

Ezin da hartu galdegin nauzun
gai horri gaur negurria,
zeren ta zuzen esplikatzeko
baita aski bihurria.

Mundu huntarat pena guzien
ahantzeko ekarria.
Zer litake ba,gaurko batzar hau
ez ba gindauka irria?

Zenbat alditan nigarrak itzal
eta irri horretzek pitz!
Erran ditazke, hasi ezkeroz,
hortaz nahi bezenbat hitz.
Sendagailutzat ere horretzek
badauka meritu ainitz;
jakin ezker goizetik arrats
ariko gintazke irriz.

Hernani, 1977

“Bertsulariek bertsulariei” bertsu jaialdia egin zen Hernani Galarretako pilotalekuan, Xalbador eta Arozamenaren oroitzarrear, 1977ko otsailaren 26an. Bertsu hauek eskaini zizkion Urepeleko bere lagun minari Xanpunek:

Hemen badugu, bai, anai on bat
segurki paregabea,
ta bertsutako, erran dezagun,
zer dohainaren jabea!
Ta gizon gisa haundi izan arren
umila eta gordea.
Gizonak behar dituen dohain
on guztien aterbea.

Euskal Herria maite zinuen
beti ororen gainetik,

ta ikusi nai ere zinuen
garbi, haundi eta zutik.
Lagun gaitzatzu kontseilu batzuk
hartuz zure liburutik,
atera gaiten herrian egun
giren ateka estutik.
Lurrean hasi zinuen saila
burura zazu zerutik.

Zeruko Aita, arima horiek
betikotz dira zeuriak;
egin dituzu behin betikotz
dohatsuak, zu iduriak.
Hoiien galtzeak bazenbat nigar
hargatik ixuriak!
Igorri'atzu zero gainetik
goxamenaren euriak,
sendatu diton doluan dauden
bihotz horien zauriak.

Bergara, 1978

1978ko martxoaren 19an, bertsu-jaialdia antolatu zuten Bergaran, Erramu zapatuz urteoro egin ohi duten bezala. Urte hartakoa, Basarri eta Uztapide omentzeko antolatu zuten bereziki, Egileor, Mattin, Azpillaga, Joxe Lizaso, Gorrotxategi, Lazkao Txiki, Lopategi eta Xanpun bertsutara eraman zituztelarik. Gai jartzaile Abel Muniategi izan zen.

Lopategi eta Xanpun elkarrekin jarri zituen, gai hauxe emanda: Bihar dira hauteskundeak Frantzian. Badirudi ezker-
ra aurretik ote dihoan; baina euskaldunontzat bai ote dakar
abantailarik horrek?

Lop: Xanpun, zuek han eta gu hemen,
Euskalerria penetan.
Udaberriruntz jarri oi gera
beti itxaropenetan.
Ezkerra gogor ari omen da
Frantziko hauteskundetan.
Gauza onikan espero al da
abertzale euskaldunetan?

Xan: Izan dadien telebista edo
berdin da hor radiotik,
zuri-gorriak mintzatu zauzku
bat bestearen ondotik.
Euskadi baden ere ez dut nik
entzuna baten ahotik.
Ez det uste deus itxaropen on
ateratu laiken hortik.

Lop: Kondenatuak gera, izan ere,
bi estaduri begira:
alde honetan Espaiñira ta
iparraldean Prantzira.
Eta erdian geu're hasarre,
bada naiko jira-bira.
Zuen aldeko abertzaleak
hobeki batzen al dira?

Xan: Beren gezur ta agintz hoiekin
luzaz gaituzte bazkatu;
ta hobekio esan nezake:
leporaino nazkatu.

Guk ere Euskadi nahi badugu
egun batian askatu,
zuek bezala etsai-etxeak
beharko tugu puskatu.

Lop: Hemen aspaldi jarri baizuten
diktaduraren eskela,
baiña denboraz ikusi degu
ezer aldatu ez dela.
Euskaldun denok bildu gaitezen,
galduak gera bestela.
Iparrekoai esaiezue
gu anaiak gaituztela.

Xan: Gure artetik kasa dezagun
jabetzaletzar higuina;
kanpotiarrez badaukagu guk,
naski, aspertzeko dina.
Nahi genduke Euskadi on bat
bihotz ta eskuz egina;
bateratuko ditu bakeak
ezkerra eta eskuina.

Xanpun eta Gorrotxategiren txanda. Gaia: Martxoaren 19^a
ez da bakarrik Erramu bezpera, baita udaberri bezpera ere.

Xan: Bazter guztiak erdi erreak,
bipilduz dira jarriak;
zer estatu txar utzia duen,
bai, negu beldurgarriak!

Graziak, naski, piztuko duen
heldu den udaberriak,
eta ahaztuko ditugula
neguak utzi larriak.

Gor: Agurtutzen da gure artetik
negu hotz bildurgarria,
eta ondoren kuku zar baten
abesti zoragarria...
Len adar hutsez zeuden zugaitzak
atera ostro berria;
orduan danok esaten degu:
hemen da udaberria.

Xan: Neguak bazterrak xahutzea
bertze alderdirik eztu:
ginduen lore eta arbolak
alde bat gaituzki hixtu.
Orain xoriak atera eta
eman kantu eta xixtu,
neguak hil gaituen lekua
berriz'e dadien pixtu.

Gor: Esan liteke ia gaudela
udaberrian bezperan.
Urte guztiko hartuko nuke
izan ezkerro aukeran.
Len esan dedan zugaitz sendoak
berpiztutzen ditun eran,
erdi hilean bizi geranok
ia ba piztutzen geran.

Xan: Ez al du udaberria nahi
euki gaur negu beltzak?
Gu ere ez ote gira orai
arte egon aski hotzak?
Primadera edo udaberria,
pixtu detzagun bihotzak,
Euskadi berriz'e argi dadin
hil baino lehen izotzak!

Gor: Egia esan, udaberriak
egietan poztutzen nau;
udaberriakin amesetan
pasa ditut hainbeste gau.
Esan liteke gaiñean dala
eta sartuko zaigu, rau!
Ia ba pozten dezun lenbailen
triste dagoen herri hau.

Ahetze, 1978

Mattin Trekuren omenezko bertsu jaialdia egin zen Ahetzen, 1978ko apirilaren 30ean. Huna hemen Xanpunek bere lagun minari botatakoak, bihotza bete-betean:

Hemen dagoen jende maiteak, orain bederen badaki:
zerbeitetako Jaunak eginak gaitu haundi eta txiki.
Mattinek deraut nere garaiaren bidea orai ideki;
euli txikiak mando haundia Ahetzen zuen ausiki
eta gainerat aurdiki.

Aitor dautzuet, konparazio gisa dugula hau hartzen.
Ez al zarete, anai-arrebak, egun zuek hor ohartzten?
Mattin ttipia dugu alturaz, bizi zaukuna Ahetzen;
gaur ez ote da gizon ttipia haundien hura agertzen?
Hori aitortu behar zen.

Egun berean, Joxe Lizaso eta Xanpunek erabili zuten
beste gai bat, Mitxel Itzainak halaxe eskatuta: Bertsularia
etxean ixilik egoten da.

Liz: Guraso onak gu ere bota
 giñun mundu zabalera.
 Etxetik kanpo ibiltzen gera
 goizetikan arratsera,
 erririk-erri, gaur bezelaxe,
 dakiguna esatera;
 baiña etxera juandakuan
 ixilik gelditzen gera.

Xan: Lagun on horrek erran'tuenak
 Xanpun hunek badakizki:
 kanpoan errez mintzo gira ta
 gaureztat hau ezta gaizki.
 Etxean ixil egoten gira
 arrazoi hau da komunzki:
 gu gabe gure andretxo hoiek
 mintzaten badira aski.

Liz: Ezta egia, neri andreak
 ez dit erritik ematen.
 Egun guztiak gurean ere
 pakez ez dira izaten.

Ezin liteke beti jarraitu
bertsu-kontuak esaten;
norbere etxian zaila baitute
profeta onak izaten.

Xan: Huntan behar dut gaia bukatu
zertako gehio luzatu?
Urteak dira modu horretan
gaituztela gu usatu.
Emazte hoiek berritsu diren
ezin dira akusatu;
kanpoan asko nekatzen gira,
eta etxean pausatu.

Liz; Xanpun laguna, nik uste nuan
iristen zala indarrez.
Gizarajo hau penaren penaz
ia hasi da negarrez.
Galderatxo bat egingo dizut
eta zure on bearrez:
etzaitezela geiago egon
zure andrian bildurrez

Xan: Aitor dautzuet, zeren ezpaitut
azken bertsu hau gordeko;
Mixel, ez bahu gaia atera
miletaz huen hobeko.
Baina ez nuke hori erran nai
andreaki atzartzeko.
Ez al da alta ixiltasuna
onena gu pausatzeko.

Liz: Onek dadukan auzi gogorra
 nik nai nuke erabaki;
 saltsa oietan sartu obe duk
 ik'e poliki-poliki.
 Erru aundia ezpaldin bada,
 emakumeak erruki;
 baiña erritan asten danian
 galtzak eurekin eduki.

Xan: Bi bertsuentzat hasiak ginen,
 orai eman dugu doble;
 erran beharrak erran ditugu,
 hortarik husturik gaude.
 Baina ni hemen nago menturaz,
 ez naiz Lizasoren alde.
 Hau ez ote da hemen hasia
 egun etxerako orde?

Itzaina jaunak Jose Lizaso, Agirre eta Xanpun jarri zituen lanean hurrena, gain hauxe emanik: Zuei hiruroi emazteek hanka egin dizue etxetik.

Xanpunek kantatu zituen bertsuak:

Orain artean etxean andria zen jabe:
Aitor dautzuet ez banaiz horrentzat herabe.
Hemendik gan zeraut eta orain andrerik gabe...
Karkula egiten diat ez ote den hobe.

Ez pentsa andrea denik holako erlea;
harek azkena beti dik berea elea.
Itzultzen balin bazeraut berriz etxera nerea,
hobeagorik etzela hori seinalea.

Gernika, 1978

Bertsu jaialdia egin zen Gernikan, 1978ko urriaren 15ean, Kepa Enbeita *Urretxindorra* zenaren oroitzarrez. Manuel Lasarte, Abel eta Jon Enbeita, Azpillaga, Etxeberria, Xalbador II eta Xanpun izan ziren bertsutan, eta Deunoro Sarduy gai emaille.

Bi bertsutarako gai hau eman zion Xanpuni: Zozoa, mokoan janariagaz, badoa haurrak daukazan habira. Eta bidean doala, ihiztari batek tiroa bota eta zozoa hil du.

Esango nukena da, hau dela apaiz baten predikua,
parabolatzat harturik hemen xoxoa eta pikua,
harek umeak ezin haziz han zaukana lana naikua.
Ihiztari hura esango det zela bihotz gabekua.

Batetik urrikari umeak, halaber ama xoxua!
Bestetik maitasunez beterik hola zebilan gaixua!
Hori ikusiz hemen badugu pentsamendu bat osua:
mundu huntan ere ihiztari txarrak pizten gaitu sua.

Urepele, 1978

Xalbador bertsularia hil zeneko bigarren urteurrena zen 1978ko azaroaren 5ean, eta bertsulariak ziren Urepelen. Mattin eta Amuritzak egin zuten lehen agurra; eta gero, bertsulari askok, haien ondoren. Jaialdia aurkeztu eta gai emailtza egin zuen Mitxel Itzainak gai hau eman zion Xanpuni: Zertan dituk Donibane Lohizuneko arrantzaleak, Xanpun?

Arrantzaleak gaur deramazki zainetan, bai, ordu latzak!
Ez uste izan dabiltzala hek gizon larri, aberatsak.
Ainitz gostaiak ere dituzte egin dituzten urratsak;
gaur nihor guti hazten du gero atuna eta legatzak.

Izan ditezen urean edo lurrean, badute kezka;
ta azkenekotz haurrideekin hasiak ditugu aurka.
Itsaso horrek mugarik eztu, bainan dudarikan ezta,
horrek ere gaur badauzkala zaindu bear diren lau puska.

Denbora batez ongi haziak baditu hauk itsasoak;
gaur urrikari ikusten ditut, bai, nik mariñel gaizoak.
Ezin hazia etxeak eta hartan jabetzen auzoak.
Tresnak baituzte ureko, bainan kezkaz dituzte besoak!

Egun hartan, Urepeleko gazteek prestaturiko beste gai hau
jarri zien aurkezleak Xanpun eta Azpillagari: Ikastola.

Azp: Ikastolari kantatuzeko
 hemen eman dute nota;
 aspalditxoan gora dijoa,
 gogor jotzen du alboka.
 Herrian iñor azaltzen bada
 gure ikastolen kontra,
 hori ez leike abertzalea,
 herritik kanpora bota.

Xan: Gure eskuara maitea
 noraino ote goazi?
 Bere gertakari hori
 ote zuen gaur merezi?
 Gaixo euskara, begira orain
 zoin aurki zaukan bizi!
 Azkar izanen zen segur
 galtzerat ez balitz utzi.

Azp: Ikastolatan irakasleak
daduzkagu aintzinlari.
Bihotz sendoko gazteak dira,
eskua eman berari.
Ikastolakin salbatutzea
datorkio euskerari;
eta euskera salbatzen bada
askatuko da Euskadi.

Xan: Agur berezi bat orai
hemen egiterat noa,
gaur euskararen zaintzaile
baitago andereñoa.
Erakutsazu euskal garbia,
guk nahi bezin sanoa.
Horrekin urruntzen dugu
etsaiak utzi lainoa.

Azp: Ikastolatan ikusten dira
euskaldun hainbat landare,
orain pepittak badira ere
azkar ditugunak lore.
Euskalerria beti izan da
bere mintzairaren jabe,
t'ederki bizi gintezke hemen
frantses ta espainolik gabe.

Xan: Azpillagaren bertsuak
hau ekarri nau gogora:
oinon ez dela galdua
behar ginduken denbora.

Euskara ona zabal dezagun
ta zabaldurik joan gogora...
Berak ezarriko ditu
gainerakoak kanpora.

Itzainak honela eman zion beste gai bat Xanpuni: Xalbadorrek bere liburuan dio: “Zu maite etzaituen herritarrik ez da; baina Urepelen, nahiz lehen haur asko sortzen zen, orai bat edo biga bakarrik omen dira jaiotzen urtean”. Zure gogotak, Xanpun.

Itzainak galdegin nauen horri hau diot nik arrapostu:
Urepelerat jitea dela guretzat, bai, zinez gustu.
Hain da leku maitagarria ta odolik ezin da hoztu;
beraz, herritar maite-maiteak, leku horiek ez hustu!

Jaiotze edo sortze horrentzat omen da zerbait arrasta;
lehen usatuak bataiatzen ene haur andan parrasta!
Xalbadorren hitza gogoan har, ta zaindu, gostaiak gusta.
Urepelentzat maite ez duen umerik oraina ez da!

Zestoa, 1979

Urteko jaialdia Zestoa, 1979ko otsailaren 17an, Jose Lizaso, Lopategi, Azpillaga, Mattin, Agirre eta Xanpun bertulariekin. Gai jartzea, Joxe Mari Iriondok egin zuen, aurrekoetan bezala.

Xanpunen lehen agurra:

Leku onerat itzultzea du euskotarrak berezkoa.
Nik behin herri hau maitatua, maitasun hori badoa.

Gaur ere galdegin nauzue, ta ezin eman ezezkoa.
Bihotzez agur bero hemen, zeztotar eta Zeztoa.

Garai hartan, hegoaldeko herrietako hormak hauteskunde-
-propagandaz beteta zeuden. Baita Zestoakoak ere. Agirre eta
Xanpuni gai horixe jarri zien Iriondok: Hormatan zintzilik
dauden santu hoiek gustatzen al zaizkizue?

Agi: Egun txar asko pasa dala ta
bai al dator hoberikan?
Santu hoiengandik ez da etorriko
itxurazko legerikan.
Jentuza horrek ez daki ematen
bakoitzari bererikan,
paretatako santu hoiekin
bai al dezu federikan?

Xan: Bazter guztiak hor dabilta gaur
laudorioez hantuak;
erran ditake ere ba kasik
gizon hoiien espantuak.
Zerbaite leku hartu nai eta
hor dituztenak kontuak.
Nere Elizak ez ditu onartzen
gisa hortako santuak.

Agi: Arrazoi dezu; ez dira izango
Elizak onartzekoak
orain aitatu diraden santu
paretaren ertzekoak.

Azaltzen dira Suarez eta
berdin bere antzekoak.
Santu klase hoiek ez dira izango
aldarean jartzekoak.

Xan: Agirre, bai al dakizu neri
zer iduritzen zaitan?
Apez batek ere konfiantzik
ez du saildu hoiien baitan,
zeren dabilizan bertute edo
anaitasunaren faltan.
Egun Kristoren itxura eta
berdin hoik biharko Satan.

Agi: Gure aurrean zailak dauzkate
jende horrek merituak,
aspalditikan eskarmentuan
nola gauden geldituak.
Santu berri hoiien jokerarekin
guk bihotzak zaurituak...
Garbi esateko: hoiek dirade
Patxiren akolituak.

Xan: Jaunak begira gaitzala, otoi,
gure elizan sartzetik.
Batetik ez ditugu ezagun,
eta etsaiak bertzetik.
Begira ere gaitzala hoiien
hitz horiek gu galtzetik.
Aurretik lausengu asko eta
berdin ostiko atzetik.

Agirre eta Xanpuni beste gai bat: Biok infernuko atean topo egin duzue gaur usatekabeen.

Agi: Horra infernuko atean biok
nola geran topatuak,
batere uste ez genduela
honerako tokatuak.
Itxura danez ez gera izango
oso garbi jokatuak.
San Pedro zarrak ondo zekizkin
bertsolarien kontuak.

Xan: Sekretu asko izan behar da
bertsolarien artean;
baina gehienak azaltzen dira
holako kasu batean.
Gure munduko bizitza zagon
gure arimen kaltean.
Horra zer debruk ekarri gaitu-
en infernuko atean.

Agi: Baiñan uste det leku onera
betirako gatozela;
iruditzen zait dibertitzeko
parajera gatozela.
Bailarinakin biziko gera
guk nai genduken bezela.
Hortik aurrera egun ederrak
asko izan ditezela.

- Xan: Nere ifernuko kezka gaiztoa
 gaur beintzat ezin gorde da
 Nork ez dezake kasu hunetan
 bere kezka hori heda.
 Zeren mundutik eta infernurat
 ez daukat nik kasu bera:
 hemen eskasiaz pekatu eta
 ifernu hartan sobera.
- Agi: Zure bihotza samurtu dala
 nik hartu diot itxura.
 Bildurrez zaude zu sartutzeko
 betirako infernura.
 Iraungo degu, etzazula izan
 gauza horrekin ardura.
 Bildurrik gabe joan behar du
 lagunak dauden lekura.
- Xan: Infernu hortan bero dagola
 hori da gauza jakina;
 harako zen, beraz, gure suer-
 te gaizto hori egina.
 Bainan su hartan segur badago
 egarriarentzat dina.
 Oxala han balitz egun Zestoan
 zen arno soberakina!

Zestoan bertsu giro bikaina izan ohi da. Bertsu giroa, eta euskararen aldeko giroa. Eta “euskara” gaia eman zien Iriondok, bakarka kanta zezaten, hango bertszuzale batzuek halaxe eskatuta. Huna hemen Xanpunen bertsa

Gure hizkuntza paregabe hau
al doa buruz behera?
Hala balitz, gu guziak itzul
gaitezen haren aldera.
Biharko iduzkia bezin segur
guk galduz euskera,
dudarik gabe leku hunetan
deusetarako ez gara.

Joxe Agirre *Oranda* azpeitiarrari sari berezia eman zioten Zestoako bertszuleek egun hartan. Eta azkenean, bertsulari denek agur bana kantatu zuten. Huna hemen Xanpunena:

Hau bihotzetik erran nahian aspaldiskoan nindagon:
Bai, Agirreri egin zaiona, naski, denek zor ginion.
Ta opa diot izan dezala luzaro asko zorion!
Zuen artean ere gehiago ezin omen gira egon;
ez adiorik, anai-arrebak, eta deneri bai gabon!

Etxahunen hiletan, 1979an

Pierre Bordazarre *Etxahun Iruri*-ren hileta egunean, 1979ko urriaren 3an, bertsu hauxe kantatu zuen Xanpunek, elizan:

Eskual Herriak parte hartzen du
gaur zuer doluminean,
zeren Etxahun hain barna zaukan
bere bihotzen barnean.
Gau eta egun herriarentzat
ari izan zira lanean;
gaur pausa zaite merezi duzun
zeruko zorionean.

Urepele, 1979

Uteoro bezala, bertsulari pila handia bildu zen Urepelen, 1979ko azaroaren 4an, Xalbadorren heriotzeko urteurrena zela-ta. Alkat bertsularia aurkezle zela kantatu zuten denek.

Oñatin bertsutan izan eta berandu samar heldu zen Xanpun, eta hark bota zituen hiru bertsuak jaso nahi izan ditugu, bilduma honetarako.

Lendabiziko agur bero bat hemen zareztenak denak.
Ezin jasanak ziren barnean nauzkan kezka eta penak.
Batzu badira nere kasuan menturaz hemen daudenak.
Bide gainean pasatu ditut eskuin ta ezker orenak;
bainan halare Urepelera bildu nau haren omenak.

Erran dezaket, eskuzartarik ere gaur eztut merezi,
baina halare ohartu zaizte: nehor ez dut nahi ahantzi.
Oñati hartan izanagatik kantu-soinuz poz garrantzi,
iduri zuen paradisuan kasik gindela han bizi;
bainan halare Xalbador ona gogotik ezin nun utzi.

Ahalgetua bezela nabil egungo nere buruaz;
urrikal zaizte aurrean dagon oraingo ardi galduaz!
Ez naiz ez gero urguiluz ari hartua dutan graduaz.
Barkamendu bat galdatu nai dut egungo ne'beranduaz,
eta eskerrak bihurtzen ditut zuek eman barkamenduaz.

Zornotza, 1980

Euskal Herriko Bertsulari Txapelketako garaile izan ostean, Amurizari omenaldia egin zioten Zornotzan, 1980ko urtarilaren 27an. Xanpun ere hantxe zen bertsularien artean, Zornotzan lehenengo aldiz; eta huna hemen bere lehen agurra:

Herri maite hau egun arte nik
ez dut ezagutu ontsa;
bazterretikan ibiltzen nintzen,
gaur ukitzen dut bihotza.
Zuen seme bat goresterako ere
emana naute gaur poza.
Agur, anai-arreba guziak;
agur t'erdi, zu Zornotza.

Amuriza agurtuz botatako bertsua:

Hoinbertze hitz on entzun ondoan
nik ez dakit nola mintza;
baina lehenik agur bero bat
hartzak, otoi, Amuriza.
Hik egin gaituk bihotz-bihotzez
hor dukanaren eskaintza;
eta badakik gure Euskadi
ere nolatan zerbitza.
Agian, luzaz izanen al duk
hik txapel horren geriza
hik txapel horren geriza.

“Euskal Herrian euskaraz” gaitzat eman, eta honela kantatu zuten Xanpun eta Larrañagak, Zornotzako jaialdian:

- Xan: Jaun Iriondok eman gai horrek
badauka zerbeit atsegin;
horren bitartez gora-gora hau
erraiten ahal duk behin
Euskal Herrian ez diradela
euskal izenean berdin.
Euskaldun izatekotz bederen
euskeraz nai da hitz egin.
- Lar: Zerbait zabaldu nai genduke guk
eman diguan berria;
iñoiz erderaz entzunda nago
kezka bizitan jarria.
Euskerarekin ederrago da
gu sortu giñan herria.
Geure mingaiña alderaztia
ez al da penagarria?
- Xan: Gure hizkuntza zoragarriak
du eri baten daldara,
eta menturaz gu hobendunak
hortaratuak gaur bada.
Utzi dezagun harrokeriaz
ibilki dugun erdara,
eta hitzerdika bada ere
mintza dezagun euskara.
- Lar: Zerbait pentsatzen jarri gaitezen
memoriz eta ganbaraz:
euskeraz ondo ezpadakigu
zertago egon ikaraz?
Jarduten badeu ikasiko da
naiz ta gaur ez izan kapaz.

Pentsatutzen det Euskalerrian
egin ber dala euskaraz.

Xan: Gainera gizaldi askoz hori
ibilia den hizkuntza;
gure arbasoek hizkuntzetan
hori zuten ezagutza.
Galtzen bagindu ezin barkatu
litake guk egin hutsa;
beraz gorputz eta arimaz gaur
egin dezogun laguntza.

Lar: Oitura txarrak harturik dago
egun askoren mingaiña;
esango nuke saiatzearen
falta sarri dala baiña.
Euskera gabe Euskalerria
ta lora gabe jardiña,
nere iritziz jarriko nuke
konparazio berdiña.

Zornotzako jaialdian, hunako bertsu saio hauxe egin zuten
jarraian Jon Enbeita eta Xanpunek, Joxemari Iriondo gai jar-
tzaileak “Bidasoako mugaren alde banatatik” aginduta.

Enb: Etsaia beti izan beharra
gure herriaren jaubia.
Hau euskaldunak bihotz erdian
daroagun naigabia!
Luza eidazu alde hortatik
ezkerra ta eskubia,

ta besoekin egin dezagun
ibai ontako zubia.

Xan: Zer gertatu zaitan muga hortan
noa orai zabaltzera:
aski nuen hunat jiteko gaur
urrats batetik bertzera;
poliza gisa, gris edo beltza,
enau utzi ni sartzera.
Entseia gaitezen nola peiska
muga horren botatzera.

Enb: Itxi dituzte gure arteko
etxe barruko ateak,
eta zarratu alde hontatik
zuengana joateak.
Entzun bezate zapaltzaileak,
Madrilgo balienteak:
gure askatasun gosea ez du
urratzen zuen kateak.

Xan: Urte hautan frogatua dut nik
muga hau nola dabilen.
Horrek bi giltza dauzka; bat dauka
Parisen, bestia Madrilen.
Guk behar duguna hauxe degu:
hori bota lehenbaitlehen.
Denegatik gure nortasun ta
odolik ez dute hilen.

Enb: Zenbat ta geio buruan gu jo,
geio gera agertuko;

ta helduko da gure eguna
luzaro edo gertuko.
Mugak ez digu aske-gosea
guregandik baztertuko,
eta askatasuna lortu arte
Euskadi ez da lertuko.

Xan: Hitz eder asko erabilita
gu ezin gaituzte engana,
sobera garbi ikusi baitut
egun gertatu zaidana.
Muga horien kentzea diot,
dela, bai, hau gure lana
gizonak botatzen ahal baitu
beste gizonek emana.

Belok, 1980

Belokeko komentuan egindako saio batekoak dira Xanpun, Mixel Xalbador eta Arrosagarayren ondorengo bertsu hauek. Emile Larre zen gaiak ematen, eta honela jarri zituen Xanpun eta Mixel Xalbador: Belokeko komentu huntan egiten da ainitz lan... Bibleko lehen liburua agertu dute astetan; eta Euskal Herri guziak hemendik jakinen duelakoan, hemen emaiten dugu lehen berria... Orai, hemengo berriez irri egin behar dugu, baina ez dakit irri egitekoak diren berri horiek. Xanpunek, –berak ere itxura du, nik uste–, egingen du aita Abadea. Bere fraidetarik bat atxeman du hemen, naski otoitzetik artetan faltatzen dena; eta galdegiten dako aita nau-siak, ea zer gertatzen den. Fraide hori da Xalbador.

- Xan: Aita Abade gisa badaukat egun nere erregura;
hasian hasi eremanen dut eginbidea burura.
Fraide gaztea, zer ote da, ba, zure kezka gaixto hura?
Zure jarleku hori hutsik dut ikusten sobran ardura
- Xal: Nik otoitzaren egiteaz dut tenoretan hartzen arta,
tenore hartan lekuetararat sekula ez bainaiz falta.
Ta gainerako ene denbora zuk zergaitik ez errespeta?
Benediktiner ere artetan egin dezaket bisita.
- Xan: Bertze gauza bat ere badaukat behar duguna ikusi;
Benediktinen aitzaki bila ez zaitela, otoi, hasi.
Zeren alferren gaitza duzula kasik nai nuke sinetsi:
Lanetik ere frango polliki hasia ziren ihesi.
- Xal: Gehiagoko konfiantzarik nolaz ez duzu zuk nitan?
Nik errespetu eskasik ez dut, jaun Abadea, zu baitan.
Beti artoski ibiltzen bainaiz eni manatu lanetan,
eta kalterik ez dut egiten aipatu dutan bisitan.
- Xan: Hartua duzu-eta oraindik urrats horien usaia;
ez ote zautzu piska-piskaka jabetzen ari etsaia?
Abadearen enganatzea, otoi!, ez egun entsaia.
Eliza maiso bisita zazu eta utzi arno xuria.
- Xal: Zure idaiak batzu bertzekin ezarri ditutzu nahas,
eta beldur niz zure idaiak makur direla arras.
Arno edaten ez nadien ar ez zaitela erraiten has.
Komentu huntan zertako dira beraz lau hektarea mahats?
- Xan: Azken bertsuan, otoi, zuk entzun orai erranen dudana:
Aita gisa naiz, eskua luze heldu orai zure gana.

Eta gogoan hartu betikotz San Benetoren errana:
Errespetatu dezagun elgar, egin otoitza ta lana.

E. Larre: Orai, nik hasi eta berak fini, puntuak Xanpuni.

Bestara zaiku egun jende guzia jin...

Xan: Nahi zuten kartsuki hemen otoitz egin.
Hau ikustea nori ez zaio atsegin?
Otoitzu Jauna berriz ola gerta dadin.

Saindurik ba ote da hemen komentuan?

Xan: Ez dakit saindurik baden mementuan.
Zer nahi gisa, ez gira gu toki galduan,
nahiz debru baditaken zu ta ne kontuan.

E. Larre: Oixtion aditu dugu Hazparneko hiru misionistek
hasi zutela etxe hau, duela ehun bat urte: aita Bastres senper-
tarra, aita Duperou ziburutarra eta aita Lapeyre azkaindarra.
Hiru bertsulariak erranen daukute aldizkatuz, bira bertso edo
hola, horien iduriko nola erreusitu duten, zendako erreusitu
duten, Euskal Herriak nola eman duen holako otoitz-leku bat
eta zertako duen.

Arrosagaray:

Geroztikan hartua du Belokeko hunek indarra;
Euskal Herri huntan naski holakoa da bakarra.
Hauxet lan ona egin zaukuten eta zinezki bakarra;
huna gaur lore bihurtu zauku heien orduko pindarra.

M. Xalbador:

Beloken izaiten dira beraz Beneditanoak,
hemen egiten otoitzak, hemen kantatzen salmoak
ta gisa hortan hor aberasten girixtinoen gogoak.
Hemen suhartzen baitira naski euskaldun gizon sanoak.

Xanpun:

Hiru euskal apez bero, dena bihotz ta bertute;
izigarriko lanari lotzeko kurraia dute.
Hekien lanak pasatua du airoski gaur ehun urte,
ta etxe hau ez ote dago beti berdin azkar, gazte?

Arrosagaray:

A! Zer loretegia den egun zuen baratzean!
Atsegin emaiten du hunek gure bihotzean.
Orai zauztenak ordainduz geroz molde hunen onartzean
geroan ere izan ditezen ariko naiz otoitzean.

Xalbador:

Hiru apez izan ziren, eta ziren lanaren lotsa.
Bertze anitz sartu eta etorri gero laguntza.
Beloken bizi dira artzaintza, eta bizi laborantza...
Euskadi're biziko dela hor hartzen dur esperantza.

Xanpun:

Hemen dugu guk lekuko bertute ta indarra;
Euskal Herri maite hunek badu Beloken beharra.
Hunek ez ote gaitu aiosten gure Euskadi bakarra?
Beloke da, dudarik gabe, guk behar dugun izarra.

E. Larre: Orai, berriz ere, Xanpun nahi nuke aditu... Joaten nizalarik hanxetarat, fraide bat atxemaiten dut Xanpunen lehen kusia, bertze bat ere haren lehen kusia, denak lehen kusi. Esplika dezala hori.

Nere tentatzen hasi zira zu, gaixtakeri hori maitez;
behar derautzut erran halere zuzen baita hau, nahi ta ez.
Aitortzen dautzut: arrazan daukat debru baino gehio apez.

Orai nai nuke berdin salatu nere fede berarekin,
eta zoin diren apez horiek orai behar duzu jakin:
Batto aita Paul, bertzea Pantxo, hor daudenak elgarrekin.
Hirugarrena nork ez ote du ezagutzen... aita Mattin?

Azken agurra, Xanpunek:

Gaur pasa dugu komentu huntan
egun bat paregabea.
Agur deneri, ta bereziki
zuri, aita Abadea.

Otoizlari, 96 zbk - 1980

Urruña, 1981

1981eko apirilaren 12an, Urruñan *Hazia* taldeak antolatuta egin zen jaialdian, “euskara salbatzeko zer egin?”, galdetu zien Mitxel Itzainak, Jon Enbeita, Ezponda eta Xanpuni. Huna Xanpunen bertsuak:

Gure hizkuntzak izaite hori ote dauka, ba, hoin ilun?
Eta horrentzat ez ote dago salbamendurik gaur inun?
Iduritzen zaut ba hor dagola bilatzen badugu egun,
sortu-etxean bere erroa bertan azkartu dezogun.

Estatu triste hortarik urrun gaitzala zeruko Jaunak,
menderen mende izan ditezen Eukadi ta euskaldunak.
Nai baditugu argitu hemen hor dauzkan ordu ilunak,
geronek degu itzali eta izan gaiten argidunak.

Lau oinak jarrita honako bertsu hau bota zuen Xanpunek:
Herria, berria, ekarria, egarria

Badakizue, ez da egungo berria,
denek altxatu nahi dugula herria.
Horra gure indarra hotzak ekarria
Jaunak hazi dezala gure egarria.

Xanpunen azken agurra

Gaur bozkarioz betea nabil nere herrirat etorriz,
eta ezin dut behar den hitza erabili gaur neurriz.
Haziak gaitu besta moldatu eta badu muskil aunitz.
Oxala hazi gozo on hori hola zabalduko balitz!
Xanpun ere etor litake hunat nahi duzuen hainbat aldiz.

Usurbil, 1981

Mattinen omenezko bertsu jaialdia antolatu zuten Usurbilen, 1981eko uztailaren 4an. Eta Lazkao Txiki, Lasarte, Joxe Lizaso, Azpillaga, Lopategi eta Xanpun ziren bertsulari. Eta Antton Aranburu gai emaile. Xanpun bakarka jarri zuen, gai hauxe emanda: Zer aldaketa ekarri lezake Miterrand presidente berriak Iparraldeko euskaldun eta abertzale batentzat?

Denek dakite Frantziak buru egun daukala Miterrand;
azken bozketan bere saioa airez-aire du ereman,
eta bitarte hortan gaituzki gauza ederrak hitz eman.
Orai beharko gaituzki guri orduan agindu eman.

Batetik zion etzela hura gure etsaitzat jarriko;
ta Euskadiren alde zela, bai, alde guziez ariko.
Harat gana zen anaia onik etzuela itzuliko.
Hortan uste dut bere hitzean dagon nere iduriko.

Jaun Miterrandi esango diot gaur Usurbildik abian
kontuz ibili dadila, otoi, eskualdunen erdian.
Izan dadila beti zuzena esanbide on garbian.
Euskaldunari ez dezaiola eman hitza behin ere jan.

Usurbilgo jaialdian azken agurra, Mattin¹² eta Xanpunek
egin zuten bosna bertsu kantatuz, aurkezleak horrelaxe eska-
tuta. Xanpunenak jaso ditugu hemen

Izanagatik egun eztarrian nik min,
bihotzetik nai nuke agur goxo egin.

¹² Egun honetan kantatu zuen Mattinek azkenengo aldiz jendearen aurrean, seguruenik.

Eta besta pulit hau oso izan dadin,
ekarria dautzuet hunat nik gaur Mattin.

Zuen artean kantuz eztaukat, ez, lotsa;
dutan itzala egun: ahula abotsa.
Baina, usurbildarrak, ez, otoi, hor lotsa,
zuekilan baitauka Xanpunek bihotza.

Mattin, altxa'tzik, otoi, aurrerat begiak;
utzi mail zahar horren traba alderdiak.
Ez dituk, ez, zinezko eta alegiak:
Luzaro jinen gaituk herri hunta biak.

Zuekin aurkitzeak emanaz atsegin,
bihotz altxagarri da hau urtean behin.
Otoitz dezagun hola beti gaitezen jin,
gaur baino azkartxago Xanpun eta Mattin.

Mattinen presentziak besta eztu histen.
Ez ote da garbiki gaur hemen ikusten,
Mattin hasi zaukula bere penak uzten?
Nago Usurbil hunek ez al duen pitzen.

Bestalde, hiru bertsutan kantatu zuen Xanpunek “zerk bel-
durtzen zuen” esanez, honela.

Bertsuak neri emanak nauzki, bai, ordu zoragarriak!
Kasik gaur ezin hartu baititut poz horretxen negurriak.
Baina aspaldi huntan ez nau lagundu nahi eztarriak.
Horra zergatik egun ditudan ordu txar beldurgarriak.

Beldurtze hori ezar dezagun merezi zuen hazketan;
denak gabiltza askatasun ta anaitasunen esketan.
Aitor dautzuet hola zerk nauen bildurtzen, jarri kezketan:
Batu beharrak giren Euskadin nola gabiltzen pusketan.

Nere begiak zabaldu ordu zer ikusten dutan hemen;
gutiz gehienek dakizuena ez dut ez berriz erranen.
Hiru anaia: bat Miarritzen, bertzia Karabantxelen.
Beldurrik gabe ateratuko al dituzte lehenbaitlehen.

Oiartzun, 1981

1981eko ekainaren 7an, Mattin Treku omendu zuten
Oiartzunen. Xanpun berandu heldu zen bertsu saiora, Parise-
tik zuzenean bait zetorren. Hala ere, hunako bertsu hunkigarri
hauek kantatu zizkion bere lagunari:

Paris aldetik, aitor dautzuet, ez naiz nahi orduko jautsi;
eta segidan Oiartzunerat etorria naiz ihesi,
denek bezala Mattin maitea nahi bainuen goretsi.
Zoin maite dugun Oiartzun huntan nahi diogu erakutsi.

Barkatu, otoi, berant airean badut gaur hemen erantzun.
Bai, bihotzetik mintzo naiz eta, Mattin maitea, hau entzun:
Ikusten duzu zuk inguruan zonbat haurride daukazun!
Hau moldaturik ere eskerrak aitor dautzuet, Oiartzun.

Txomin Garmendia, istripuan erituta, min hartuta zegoen
garai hartan, eta bi muletarekin heldu zen Oiartzungo saiora.
Haren muletak eman zizkioten eskura Xanpuni, bertsuak
kanta zitzan:

Gaia izan ta harek egin nau bi bastoi haundiren jabe;
bistan den gauza: hauk ibiltzeko ez luke nahi izan trebe.
Lagun gisa hauek beharrak dira, ta ez izatea hobe.
Bai, opa diot lagun zar horri ibiltzea hauek gabe.

Ta zonbat dabiltz gaurko egunez bi makil hoiek eskutik!
Sortzean hoiek ekarri eta heiek utziz doaz mundutik.
Jainko maiteak begira gaitzan ikaragarritzko hortik,
ta hauek gabe ibil gaitela oraino luzaro xutik.

Xanpunen azken agurra:

Zuen artean gaur aurkitzeak ematen gaitu atsegin;
oren goxo hau, esan dezagun, ez da nai ordurako jin.
Alkarte hunek ahazten ditu zonbeit desgrazi eta min.
Gauden gaudenak batuak hola egun, bihar, beti berdin,
ta bihotzetik oihu eginez: gora Oiartzun ta Mattin
gora Oiartzun ta Mattin!

Urepele, 1981

1981eko azaroaren lehenetan, urteoro bezela, Xalbador bertsulari izanaren heriotzeko urteurrena gogoratu zuten bertsulari eta bertsuzaleek Urepelen. Beste askotan bezala egun hartan ere Urepeleko jaialdiaren aurkezle izan zen Mitxel Itzainak gai hauxe eman zion Xanpuni: Orai, iparraldeko arrantzaleak zertan dituk, Xanpun? Frantziako gobernua laguntasun berriak agindu omen ditik arrantzaleentzat.

Hire galdeei erantzun behar nik orai larri ta estu,
hik hemen jakin nahi duana ezpaizakiat hain justu.

Euskal Herrian bildu arrainak nahi ditiztek frantsestu...
Nere irudiko heien bitartez Xanpunen sakelak hustu.

Aitzaki eta maitzaki dela bazakitek nor engana;
eta poliki egiten ditek beren alderako lana.
Huna gaur zer den zerga hoiekin hemen ikusten dudana:
eskuinarekin kentzen dutela ezkerrekin emana.

Behin behar da aitor dezagun ez direla aldrebesak,
eta dirua biltzeko ere badauzkate bide errezak.
Biltzen dituzte orai dioten kapitalak eta zergak.
Aise bilduko ditiztek hoiek Xanpun gaizoan interesak.

Xanpun eta Lasarteri gaia: Zein dira zuen mixeriak?

Xan: Gazte denboran piska-piska bat
 izatu naiz pekarria;
 bospasei urtez hunki gabe egon,
 atzo naiz berriz hasia.
 Gaur ikusten dut hemengo zitan
 ainitz min ta larderia.
 Huna zer dugun adin gaixtoak
 ekarriko mixeria.

Las: Gure Xanpunek sufrimentuen
 erabakia eman du.
 Zartu giñan da gartzetuzeko
 orain ez al da berandu?
 Mixeria latza daukala berak,
 bertsutan hala esan du.

Zertsu esango ote zenduke
nere osasuna bazendu?

Xan: Orai artean osagarritik,
aitor diat, ez nauk gaizki;
baina hor kontu orai andreak
neurriak har banauzki.
Ta soberasko jan-edanetan
beti kaska eta kiski...
Errenkura hortan dabilan batek
badik mixeririk aski.

Las: Ai, mixeriak sortzen zaizkigu
eta aitortu ditzagun!
Beraz, andrea're kejutua
daukazu zurekin, lagun
Baiña halare lepagain hori
hemen ikusten da legun.
Zuk eztaukazu mixeririkan,
ez dezu beintzat ezagun.

Xan: Lagun maitea, itxurarekin
ez hadila hi engana.
Lepo legun hau urten pisuak
ez ote naitek emana?
Orai badiat hau erematen
nik ere nahiko lana?
Mixerri gabe utz nezakek gaur
hor soberasko dudana.

Las: Nere gorputza ikusten dezu
dagoala eroria:

erabatean trastornatua
dago lengo memoria;
karrozeria auldua eta
motorrean aberia...
Ongi pentsatzen jarri ezkerro
badet naiko mixeria!

Donostia, 1982

1982ko urtarrilaren 17an, Jon Mugartegiri Donostian egin zitzaion omenaldiaren ostean, Xanpun hautatu zuten hurrengo urtean omentzeko. Albistea jakin zuenean, honako bertsu hauek bota zituen, erabat hunkituta:

Ustekabeko berri goxo bat nauzue gaur helarazi,
eta horrek nau nere bihotza orain uzten hestu, hertsu.
Bertze urteko ni balin banaiz omenaldikotz berezi,
ne' baitan nago gaur irakiten, ia ezin dut sinetsi
zeren baitakit nik ez dutala horrenbertzerik merezi
horrenbertzerik merezi.

Zuen jestuak Xanpun honeri bihotzerat heldu zaizko.
Hor ikusten dut: anaitasunak dauka zerbait egiazko.
Jaunak nai badu Donostirat naiz, beraz, kantuz etorriko;
egin dezala zuek guztiak hor izaitea lekuko,
bertsulari ta bertszuzaleak denak han besarkatzeko
denak han besarkatzeko.

Ahetze, 1982

1982ko uztailaren 18an, Mattinen oroitzarrezko jaialdia egin zen Ahetzen, bere heriotzeko urteurrena baitzen. Xanpun, Jon Enbeita, Mixel Xalbador, Azpillaga, Lazkao Txiki, Ezponda eta Joxe Lizaso izan ziren bertsutan. Gaiak Joxe Mari Iriondok eman zizkien.

Xanpunen lehen agurra:

Anai-arrebak, zuek agurtu naian gaur bihotzez nago.
Nork ez ote du Ahetze huntan bateratze hori gogo?
Gaur Mattin dugu eskas, ta ezar dezagun denez gorago!
Anai-arrebak bildu baigaitu baterat aldi bat gehiago.

“Mattinek irria zuen maite” gai emanda, honako bertsu hauek kantatu zituen Xanpunek Mattinen gorantz.

Ez dugu egun guk jarri nahi sentimendu arrotzetan,
gaur berotasun bera baitago bai batzu eta bertzetan.
Mattin maitea, zu baitzinauden Euskal Herriko etxetan.
Gaur seinale du berdin jarria zinden gure bihotzetan.

Guk Mattinekin ukan dugu hau: poza edo atsegina.
Berekin zaukan triste zeudenak alegeratzeko dina.
Iduri zuen bere irriaz estaltzen zuela mina;
gorputz txiki bat, bihotz handi ta bozkarioez egina.

Lagun on horrek eman gaituzki bai, zinez, zonbat atsegin!
Jaunak deitu zuen ordutik hemendik du ihes egin.
Bainan dezala gaur gureganik, ezbazakien, hau jakin:
hodei guzien artetik izar egonen zaukula Mattin.

Xanpun eta Jon Enbeita jarri zituen gero, ofiziotan. Gaia: Aita (Xanpun), footina egitera doa goizean goiz; eta semea (Enbeita) etxera dator, gaupasa bapoa eginda. Atarian topo egin duzue.

Xan: Etxetik atera naiz
 pixkat korritzeko,
 gorputzaren odola
 ere berritzeko.
 Seme hau zatorren han
 etxerat sartzeko;
 aitak hau du eginbide
 segidan hartzeko:
 Hator, otoi, nerekin
 pixkat preskatzeko.

Enb: Gaupasean izan det
 nere atsegiña,
 eta etxe aurrean
 aitaren ekiña.
 Eziñak eman dio
 tripetako miña.
 Etzendun zertan egin
 goizean footiña
 gazte denboran ondo
 ibili baziña.

Xan: Semeak hitz gaizto bat
 deraut hola bota;
 naiz semea izangatik
 etzaiten inporta.

Edan ditu ba, naski,
dakit zonbat kopa,
eta ez nahi ixuri
bi izerdi sorta.
Nola korri lezake
xutik eztago-ta?

Enb: Gaupasean izan det
milla ikusmira,
eta etxeratu naiz
eguzki argira.
Ta aitaren sermoia
dator atarira.
Irria azaldu zazu
zure aurpegira.
Edadeko kontuak
besterik ez dira.

Xan: Aitak orain badauka
edade edo adin,
gogoetan sartu da
pixkat zuzen dadin.
Seme bat hor ikusiz
ez du, ez, atsegin;
ta gogoetak ere
bai noizean behin,
hoin trasteko semea
nola duen egin.

Enb: Nere gaupasa ez da
izanen kaltera;
nere urtetan zu be
ibillia zera.

Zergaitik hainbat sermoi
gaur nere gaiñera?
Sartu nai badezu
zuk ere katera,
bihar joango gera
juerga batera.

Xan: Orai, gazte maiteak,
 gaitz huni ez peka.
 Etzaitezela zurruta
 zahar horri esteka.
 Aita kezkatua da,
 arrazoina dauka.
 Semea hola ikusiz
 hori ezin uka.
 Ni korrika nabil ta
 aldiz hau herrestaka.

Enb: Gauaz naiko korrika
 nik badet egiña,
 ta orain ere ez det
 anketako miña.
 Aprobetxatu nai det
 nere atsegiña.
 Gaztea nago eta
 juergarako diña,
 zuri bezela heldu
 orduko eziña.

Sara, 1983

Xanpunek Zokoan zuen arraindegian lapurreta bortitza egin zioten, gau batez. Eta 1983ko urtarrilaren 16an, Saran egindako bertsu jaialdian gai horixe eman zioten, nahi zituen bertsuak kanta zitzan:

Urte akabantzan denek badakite
gauza ona jatea denek dugula maite.
Ni saltzen ibiltzen naiz eta ez dut kalte;
hortakotz nere putzuak bai arrainez bete
ta denek diote;
naski, orai arte,
arrazoina dute,
akabantzak haste.

Ohart gabe denak ebatsi nauzkite.

Langosta eta homar, larogei bat kilo;
lau zakur zaintzeko, nor zagon frankilo?
Baina lapur zikina hura ez egon lo:
nere zerrakur hartan eginik lau zilo,
handik zauzkit igo,
bat baino gehiago,
arrastoak dio.

Zer du ba balio?

Hantxet merezi zituztela bi tiro.

Kondatzen zaituztet nere bihotz mina,
ta biharkotz ere badut nere grina.
Batetik moltsa daukat gaur arin arina,
eta bihotza ere bi parte egina.

Berriz balitz jina,
dezala jakina,

egina dut zina,
hemendik aintzina
bertan garbitzen dut nik lapur zikina.

Herria, 1983ko martxoaren 17koa

Donostia, 1984

Txomin Garmendiaren omenez egin zen, urteoroko Bertsulari Eguna, 1984ko urtarrilean. Eta beti bezala, bertsulari asko bildu zen Berrobikoaren goralmena egiteko. Xanpun eta Ezpondak saio hauxe egin zuten, “Zer gertatzen da zuen herrialde hortan?” gaia jarrita.

Xan: Iparraldeak gaur arte zaukan
leku baketsu omena.
Orai sinisten, egia esan,
hori oso gogor dena.
Hola ikusiz Madril alde ta
Parisetik datorrena,
ia kendu nai gaituzte guri
daukagun itxaropena.

Ezp: Iparraldean jaio ginen ta
iparrean behar bizi;
orain estutasunaz besterik
guk han ezin degu kausi;
ta muga hortan geure paperak
behar'tugu erakutsi,
hegoaldean degun anaia
nahi badegu ikusi.

Xan: Gu zanpatu nai duen jauntxoa
hunen jakintsu jar bedi:
gaur euskotarrak ipar-hegoan
ezin gintazke hor geldi.
Guk nai degula herri maitea
batua eder ta haundi,
eman dituzten pauso hoietarik
biztuko baita Euskadi.

Ezp: Botatu diren auzo horietaz
danek degu ezagutza,
eta iparrak hego partean
ditu begi ta bihotza.
Kendu zazute gure artean
oroi senditzen den hotza.
Pentsatzen dugu anai guztiok
eingo dezute laguntza.

Sara, 1985

Bertsu jaialdia antolatu zuten Saran, herriko ikastolaren-
tzat txanpon batzuk bildu nahiz, 1985eko urtarrilaren 20an.
Sara eta Urruñako ikastolako haurrek kantatu zuten; baina,
batez ere, Ezponda, Alkat, Lazkao Txiki, Sebastian Lizaso,
Amuriza, Lopategi, Lazkano eta Xanpun eraman zituzten
bertsutarako. Hona hemen Lazkano eta Xanpunek egin zuten
saio bat, ofiziotan. Gaia: Ondo bildu eta gordeta zeukan diru
guztia eman zion Xanpunek Lazkanori, etxe berria egiteko.
Baina, bi urte iragan dira, eta ez dago etxe berririk.

Bina-hiruna bertsu.

Xan: Orain urrundu beharko dut nik
lagun zar hunen urretik;
ta kontseilu bat: otoi, dirurik
inoiz ez eman aurretik.
Nik etxe-tratu bat egin nuen
oraintxe pare urtetik...
Diruak danak hunkitu bainan
etxea ez azaldu lurretik.

Laz: Xanpunek miloi batzuk zituen
ostuak eta gordeta.
Ondo manejatu dizkiot nik,
hortarakoxe gaude-ta
Naiz eta beltz azaldu orain
gure Xanpunen kopeta,
onen txanponak eraman eta
Suizan daukat txaleta.

Xan: Egin ginuen tratu zuzena
bi lagunek elgarrekin:
dirua behar zela aurretik,
baimenak ere han egin.
Nik milioiak huni emanda
ez da gero gaia berdin;
etxerik ez det, eta dirua
nun den naiko nuke jakin.

Laz: Lenago ere badakizute
lapur haundien konduta:
Al dan ondoen bizitzen gera
lapur txikiei ostuta.

Miloi batzuek eginak zeuzkan
arrai ustela salduta.
Eta ez dago pekaturlan
lapurrei arrapatuta.

Xan: Noizpeit atera beharko det nik
naizen estatu estutik;
ez al dakizu gizona galtzen
dula batzutan gauz gutik?
Bederen aitor egin du sosa
ukanik nere eskutik...
Ea etxea noiz demontretan
eman behar dezun xutik!

Laz: Mundu honetan tikiarentzat
maiz degu naiko desgrazi.
Zuk oraindikan dotriña ortan
ondo behar dezu hezi...
Txirrita zarran bertsu zar hura
ez al zenduen ikasi?
Orain da beti mundu onetan
lapur haundia nagusi!

Xan: Entzule onak, ez nago gero
ni hemen egun gostura!
Horri dirua emana eta
begira nere postura.
Eta norbeitek nahiko balu
delako etxe on hura,
lehenbizi zuti dezala ta
gero eman sosa eskura.

Laz: Edozer gauza nei esaten dit
agure atrebituak,
baiña oraindik kontatzen ditut
nik neronen merituak.
Berak arrai ta arrai-erosle,
gehienak ditu ituak.
Zubi azpian lo egiten dute
horrelako ijituak.

Amuritzza, Xanpun eta Lazkanok Sarako jaialdian eginda-
ko bertsu saioa irakurtzeko/kantatzeko aukera izango duzu
berehala. Gaia: Lazkano laboraria da; Amuriza, Lazkano bizi
den baserriaren jabea. Xanpun, berriz, baserri hori erosi nahi
duen kanpotarra.

Amu: Komeria mundu hontan
gertatzen zaiguna, aizu.
Laborari gizagaixo,
nola nagon badakizu.
Lana Parisen edo Nevadan
ere bila dezakezu;
baiña etxea saldu behar dut,
ta zuk utzi behar dezu.

Xan: Adiskide saltzailea,
etzazula izan lotsik;
eta zure pena hori
pozez jarriko dut kasik,
Euskal Herrirat etortzeko ni
zeren ta bainago pozik.
Nik erosiko derautzut hori,
eta ez dut eskas sosik.

- Laz: Nagusiak nere aurka
horrenbesteko arreta;
Hutsa zuzen nik ordaindu
ez banu bere errenta!
Metraletarik ez baldin bada
hartuko dek eskopeta,
eta berakin zulatuko det
nagusiaren kopeta.
- Amu: Nagusia ni naiz eta
defendatzen nai dut ekin.
Laborari, ene berri
zuk ezin al duzu jakin?
Tratua egingo dugu ixilka
orain biok elgarrekin.
Nik etxea saldu ta zu ezkondu
erostunan alabakin.
- Xan: Nahiz Parisekoa izan,
pentsatu dut geroari;
ta hortakotz ez gaitezen
sobera borrokan ari,
zeren-eta ondorio bat
gogoratu baizaut neri:
onar nezake gure etxean
nausi zaharra bordari.
- Laz: Orain arte bizi nintzan
nere baserrian alai.
Bizitzeko nik hau beste
txokorikan ez nuke nai.

Diru askorik ez daukat baiña
gizonaren arrautzak bai;
bertan hiltzea nahi ezpadek
berriz Parisa joan hai!

Amu: Ikusten al duk, Imanol,
onen traje ta krobata?
Nik galtzera ezin utzi
ekar lezaken soldata.
Utzi ezaidak etxea saltzen,
eztuk afera galanta.
Gero doblean hiri emango'hiat,
Xanpun laster hilko da-ta.

Xan: Hau entzun eta hasi naiz
nere baitan hau galdetzen:
sekulan aski dirutan
etxeaz banaiz jabetzen,
ea Euskadin badakitenentz
legeak errez betetzen,
gero beldur naiz etxe hori
ez ote nauten erretzen.

Laz: Nagusian harrokerik
ia pasa dira mugaz!
Hau ote da hogeigarren
gizaldi hontako Judas?
Txanponak ere gero, agian,
agintzen dizkit benturaz.
Nahiago det sosikan gabe
bertsu batzuk kantatuaz.

Urepele, 1986

Urepeleko udala eta Bertsularien Lagunak elkarteak antolatatu zuten jaialdian, 1986ko irailaren 7an, Xanpun eta Sebastian Lizaso elkarrekin jarri zituen Mixel Itzainak. Gaia: Xanpun, Reagan jauna dugu, EE.BBetako presidentea. Sebastian Lizaso, Gadaffi, Libanoko buruzagia.

Xan: Gadaffi jauna, mundu guztia
jarri nahia zuk menean;
t'hortxe zabilta terrorismoan
zakurren gisa lanean.
Orroitu zaite, udare batzu
hartu dituzu gainean.
Lehengo hartan ihes gan zira
ta kontu bigarrean.

Seb: Zuregandikan gauza hoberik
ezin liteke espero;
esan diteke aitona zar hau
burutik dagola ero.
Jakin izan det gazte denboran
pelikulatan bakero.
Azken urteta etorri eta
orain berriz pistolero!

Xan: Amerikarren buruzagi naiz,
indarra nai det ekarri.
Ta, orroi zaiten, errespetua
daukat nik horren lokarri.
Zu etzaitela, otoi, sobera
burua goratuz jarri!
Orain ezpada kristorenak zuk

- hartu behar'tutzu sarri.
- Seb: Au militarrez indartsu da, ta
beti dabil berriketan;
honen hitzakin mundu guztia
jarri litekela ketan.
Gauza batekin oroitu hutsez
Gadaffi dago penetan:
mundu guztiko etorkizuna
ero baten eskuetan!
- Xan: Gadaffi jauna, ero xamarra,
beldurgarri zu jarria;
mundu huntara ez ote duzu
makur bidea ekarria?
Noiz hartuko ere ote duzu zuk
zuhurtziaren neurria?
Kenduko zaitut agudo gero
odolaren egarria!
- Seb: Gogoan izan, eztezu pasa
zuk libiatarren malda.
Oraindik ere ixuri behar
hainbat izardi ta salda!
Nik, Reagan, zuri Libiatikan
haxe nai nizuke galda:
danetik dagon nazio hortan
eroetxerik ez al da?

Paris, 1987

Euskal-jolasak erakutsiz jaialdia egin zuten Parisen, 1987ko martxoan. Han ziren Côte Basque, Xuberoa eta hego-

aldeko kirolari asko. Tartean Xanpun eta Mendiburu ere bai, bertsutan. Huna hemen Xanpunek bota bertsu bat:

Bozkarioak gainezkaturik begietan daukat nigarra
gaur ikusita Paris aldean euskaldunaren indarra.
Erran ditake, bai, hor hola bada arbola zaharra,
ez dagola, ez, ainitzek uste duten bezanbat iharra.

Herria, 1987ko martxoaren 6koa

Banka, 1987

Iriarte-Bersinantoren ehorzketa

Feliz Iriarte-Bersinantoren ehorzketa Bankan egin zen, 1987ko maiatzean. Laka, Ezponde, Lazkano, Alkhat, Sebastian Lizaso, Arrosagaray eta Garmendiak bertsu bana kantatu zuten elizkizunean. Baita Xanpunek ere, honela:

Maite zuen aire bat hemen erabiliz
kantuz hasterat noa xedeak eskainiz.
Trixeago gintazke hor akabo balitz!
Zeruan biztua haiz lur huntan itzaliz,
beraz, ez adiorik. Ikus arte, Feliz.

Herria, 1987ko ekainak 4

Muxika, 1987

Balendin Enbeitari omenaldia egin nahita, bertsu-jaialdia antolatu zuten Muxikan (Gernika), 1987ko azaroaren 22an. Xanpun, Azpillaga, Joxe Lizaso, Agirre, Lopategi eta Amuriza izan ziran bertsutan. Gai jartzaile, Pedro Mari Aldana.

Lizaso, Amuriza eta Xanpun elkarrekin jarri zituen, ofiziotan: Lizaso, zeruko ateak joka heldu dena; Amuriza, San Pedro; eta Xanpun, ate joka ari denaren gurasoa, zeruan dagoena. San Pedrok ez dio zeruan sartzen utzi nahi Lizasori.

Liz: Mundu xarretik aldegitoko
 banuen ainbeste gogo,
 izanez ere mundu orretan
 bizitzerikan ez dago.
 Onuntz iritxi ta emen ari naiz
 ni ate zarra jo ta jo;
 baiña San Pedro ez da agiri,
 bakaziotan al dago?

Amu: Bihotza badot, baiña danari
 nik eztauztet parkatuko;
 lenau aitari hemen sarrera
 nik ez neutzan egin uko.
 Zure kasua desbardiña da
 pentsatzen hasi orduko:
 Aitaren zorrak ordaindu arte
 ez zara hemen sartuko.

Xan: Bere semea bizitua da,
 bai, zeruaren peskizan;
 eta ez al da lanean ere
 lurrean aski ari izan?
 Orai, San Pedro, ibili zaite
 Pedro santuaren gisan.
 Aita zeruan hartu ezkerro
 seme txarra ezin izan.

- Liz: Nere denbora nik igaro det
San Pedro adorarikan;
gaurikan ere enun pasatzen
errezatu gaberikan;
baiña engaiñatu nau ederki
atean azaldurikan...
Enuan uste nik zeru ontan
dirurik bear zanikan.
- Amu: Dirurik hemen eztala behar?
Zu zagoz burutik jota.
Dirua nori zeruen bere
ez ete jako inporta?
Ibili zaite kontuz, mutila,
hemen lege bat dago-ta!
Ein beharko dut semeai alto,
ta aita kanpora bota.
- Xan: Zeruan ere buru haundiak
beti gorago zabiltzak.
Seme maitea, entzun al dituk
San Pedro zar hunen hitzak?
Nik sendatuko ziozkat huni
lurrean ginduzken gaitzak,
kaskoan jota kenduko ere
bear bada bere giltzak.
- Liz: Nik ez ote det gaur ikusiko
aitatxo gizarajua?
Baiña San Pedro azaldu zaigu
bastante asarretua.

Lendabiziko diruarekin
egin ber al da tratua?
Zerua ere jarri al zaigu
mundua bezelakua?

Amu: Bardin-bardiñak eztira, baiña
antzekotzat jo egizu.
Tratua egin gura badozu
arretaz entzun nagizu:
San Pedro zarra aspalditikan
zeru onetan naukazu;
sartzen itziko dautzut bizarra
arreglatzen badakizu.

Xan: Zeruetako berri batzuek
ikasi ditut gaurgero;
bainan gaurkoa ikusi eta
aita gelditzen da ero.
San Pedronganik ez baitzuen,
ez, holakorik espero.
Nork esango du munduko diruz
eros ditaken San Pedro?

Liz: Aita maitea, barka zaidazu;
gauza asi da itsusten.
Baiña alare enaiz asiko
zure bizarrak orrazten.
Beraz, aberatsari bakarrik
barrura diozu uzten?
Jakingo nuke gaur beartsuak
nora bialtzen dituzten...

- Amu: Behartsuekin gure zerua
antziña dago konpleto.
Bazatoz, baiña hemen ez zara,
gazte, egongo obeto.
Hemen jendea gogaituten da
gauzak garbi esateko.
Laster baimena eskatuko' zu
inpernura joateko.
- Xan: Eztut esango San Pedro hau gaur
eros ditakela diruz;
baina halare galdera bat nahi
nuke egin huni buruz,
beraz dezala hunek ere gaur
bere bihotz ona erakuts:
Judasek ala San Pedro ote
zuten saldu behin Jesus?
- Liz: Nik uste nuan apalagua
izango zala zerua;
baiña San Pedro arraio onekin
nago ain asarretua.
Eztit inporta biar badare
neretzeko infernua;
Luzifer ere ezta izango
zu baiño gaiztoagua.
- Amu: Luzifer eta demoniñua,
ai zer moduko euskera!
Zu ibili ziñan handik taberna
batetik eta bestera.

Baiña San Pedro ta santuok be
hain kokoloak ez gera.
Neska gazte bat ointxe dator ta
joan zaite oste-ostera.

Xan: Hoinbertze hizka ibili behar
al da zeruko atean?
Aita barruan, semea kanpo,
hori da bien kaltean.
Orai San Pedro ibili zaite
zuk daukazun bertutean:
Atea zabal lehenbaitlehen
bizi gaitezen bakean.

Baiona, 1988

Urtarrilaren 24an Baionan egin zen jaialdia Bertsularien Lagunak elkarte eta Euskal Kultur erakundeak antolatuta. Daniel Landartek jarri zizkien gaiak Xalbador II, Ezponda, S. Lizaso, Lopategi, Mendizabal, Iñaki Murua eta Xanpuni.

Besteak beste, Txomin Ezponda eta Xanpuni hauxe jarri zien: Duela 20 urte, Piarres Lartzabalen¹³ “Matalas” obra eman zenuten hemen, leku honetan bertan. Zer sendimendu duzue?

Ezp: Dudarik ezta, orroitzen gira
Lartzabal ta Matalatsez:
antzoki hauxe dena bete zen
orduan gure entzulez.

¹³ 1988ko urtarrilaren 12an hil zen Piarres Lartzabal; eta Xanpunek antzeztu zuen *Matalas* pertsonaia emankizun hartan.

Eztakit oindik antzerki hura
ongi eman ginduenez.
Bukatzean nik Lartzabal jauna
ikusi nuen nigarrez.

Xan: Nor ez ote da gure artean
denbora hartaz oroitzen?
Erran dezaket egun hura gaur
ere dugula senditzen.
Leku berean, hauxe lekuko,
hementxe Matalas nintzen;
eta gaur ere hala naizela
kasik zeraut iruditzen.

Ezp: Guk izan dugu Lartzabal jauna
hurbiltzeko zoriona!
Abertzale bat osoa zagon,
bere hitzetan sakona.
Antzerkia ta bertzetan ere
ezta geldirik egona.
Nere gustuko Piarres zagon
muga gabeko gizona.

Xan: Aldi bat gehio gaur goresterat
nator ni hemen Piarres;
ta zonbat urrats ez al du egin
herria ondu beharrez!
Ikusi degu irriz lanean,
ta berdin ere nigarrez.
Halako gizon gutxi daukagu
herrian gaur, zoritxarrez.

Jaialdiaren azkenean, amaierako agurra honela egin zuen Xanpunek:

Erran gaituzte orai garela gu bukatzerat abian;
bizkitartean pozik ginauden artalde hunen erdian.
Ez adiorik, entzule onak, diot nigarra begian.
Ez nuen uste hoinbertzekorik nik Baionako hirian;
ta biharamunak izanen ditu egun on hunek, agian.
egun on hunek, agian.

Ondarroa, 1988

Euskal Telebistako *Hitzetik hortzera* saiorako bertsu jaialdia antolatu zuten Ondarroako *Bide Onera* antzokian, Jon Azpillaga, Jon Narbaiza, Manuel Sein *Xanpun* eta Jose Luis Mugertza *Elgetzu* bertsutan zirela. Gaiak Bernardo Mandanuzizek jarri zizkien. Xanpunen lehen agurra:

Alde batetik mendi-oihartzun, bestetik itsas-orroa;
zuen xoko hau gaur ikusten dut dela leku arraroa.
Aspaldi naukan zuen artean nik aurkitzeko gogoia.
Nere agurra, jaun-andereak, bihotz-bihotzez hor doa.
Zuek besarkatuz nahi bainuke agurtu gaur Ondarroa
agurtu gaur Ondarroa.

Xanpun eta Narbaizari gaia: Xanpun senarra da, eta alkohola debekatuta dauka, baina alkandora ardoz zikinduta iritsi da gaur etxera. Narbaiza, emaztea.

Nar: Senarra osasunez
dadukat jatsia,
horrelakua baita
nire iritzia.
Onetxek galdu behar du
gaur gure etxia.
Alkandoran al dezu
sobrante utzia?

Xan: Doinua aldatuko dut
honek dezan jakin.
Nere alkandora beraz
aurkitu du zikin.
Ni ezin konpondu hoin
edozein gauzekin;
bederen poz hartzen dut
ardo usainakin.

Nar: Arratsaldez etxetik
senarra aparta,
geroztik sei ordutan
niregandik falta.
Iluntzean ekarri du
mozkorra galanta.
Etzait bate gustatzen
dadukazun planta.

Xan: Esango dizut egia
gerta arabera:
taberna batean beraz
gaur aurkitu gera.

Baina ni konpondu naiz ta
dut gizon manera;
mozkortzar batek bota nau
ardoa gainera.

Nar: Gezurrik ez kontatu
 mesedez iñori,
 ahoan zerbezana
 baitzaizu erori.
 Begiak erdi itxi, ta
 mingaiña lodi.
 Alde zaitetz ondotik
 mozkor zikin hori!

Xan: Emakumen mingain txarrak
 zer du errenkura?
 Orain artean nik beti
 edaten det ura.
 Ta gehiago ez naiz egonen
 ni hola barura.
 Ura kanpoan gorde,
 ardoa barrura!

Bakarkako gai bat ere jarri zioten Xapuni hil berri zen Piarres Lartzabal goraldtu zezan.

Zuk eman nauzun gaia hartzea benetan gaur ez da errez,
zeren bihotza barru-barrurat hunkitzen baigaitu berez.
Iparraldean gure laguna zagon Lartzabal Piarres.
Zer etsenplua izan zaukuna bai fedez ta bai indarrez!
Abertzaletasun piska duna egun utzi du nigarrez,
egun utzi du nigarrez.

Izena zuen, dakizuena, izen ederra: Lartzabal!
Bihotza eta izpiritua ere berdin zauzkan zabal.
Beti prestu zernahitarako, bazaukan hoinbertze ahal...
Erran dezaket, ezin baita hau inola ere gogotik gal:
haren fede ta bertute hori degula denek zaintzen al,
degula denek zaintzen al.

Donostia, 1989

Urte hartako Bertsulari Eguna, urtarrilaren 15ean egin zen Donostian. Jose Luis Lekuona *Lexoti* oiartzuarra omendu zuten bertsuzaleek. Eta beste bertsulari askok bezala, bere agurra eskaini zion Xanpunek ere, bederatzi puntuko honekin:

Ateratu gera nor bere xokotik,
lagun baten gorestera zoin gogotik!
Ipar, hego, iguzki, alde ta baxotik
Donostira bilduak Euskadi osotik.
Hor ohiturak xutik,
eskaintzak eskutik
ainitz edo gutik.
Segi betiko hortik,
denak merezi baititu gaur Lexotik
denak merezi baititu gaur Lexotik.

Bilbo, 1989

Aste Nagusia jaiak direla-eta, Bilboko Santiago plazan kantatu zuten Iparraldeko zenbait bertsularik: Ernest Alkhat, Dominique Ezponda eta Xanpunek, hain justu. Gai librean egin zuten saioan, Europa aipatzea ezin bestekoa zen, Europarako bozketak egin berri ziren-eta. Huna hemen Xanpunek bota zuen bertsoetako bat:

Europako kontu gabiltzala gu zinez au ez da gaurkoa;
hau ez ote gizona ere enganatzeko jokua?
Askok diote Euskadik ere ukanen duela lekua;
baina lehenik zaindu dezagun geurea dugun txokua.

Egin, 1989ko abuztuak 24

Sara, 1990

Joxe Migel Barandiarani omena Saran, 1990eko otsailaren 11n. Xanpunek hiru bertsu hauek bota zituen, Barandiaran goralduz. (Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke)

Zinez ez dakit nondik has egun
ta gainerat hor zer erran
aski zuzenki gaur goresteke
Joxe Migel Barandiaran.
Hoinbertze urtez badakizue
nola bizitu den Saran;
baina ez dauku jakitatetik
hartu, baina beti eman.
Hari esker gaur Euskal Herriak
daki zer bide ereman. (bis)

Ikertu ditu Euskal Herriko
mendi haundien muturrak,
eta ez du, ez, ikaratu hau
ez iduzki, ez elurrak,
are guttio harpe zilotan
sartu ta hango beldurrak.
Sekreturikan ez du gehiago
harpe ziloan den lurrak.

Eta gainerat mintzarazi tu
arbaso zarren hezurrak.

Haren entzuten egoten jarriz
ematen gaitu atsegin;
haren hitzari ezin da etsi
ta ezin da ihes egin.
Erran daiteke mende historia
oso bat daukala berekin.
Jainko maitea, atxik ezazu
luzaz oraino gurekin,
haren bitartez gure herriak
gehiago nahi du jakin. (bis)

Herria, 1990eko otsailaren 22koa

Aiherra, 1990

Azaroak 25. Aiherrako Beltzuntze elkarteak antolatuta, bertsu jaialdia egin zen herrian. Juan Paul Duhalde izan zen aurkezle, eta Daniel Landart gai jartzaile. Huna Txomin Ezponda eta Xanpuni jarri zien gaietako bat: Ezponda, zerri-hiltzailea da, eta Xanpun, hark hil behar duen zerria. Kanibeta sartzeko unean, zerriak erasotzen dio bertsutan.

Ezp: Orain artean zerri maite hau
 deskantsuan baitzen bizi,
 nere alderdi bero-beronak
 bear diozkat erakutsi.
 Zerri maitea, ulertzen dut bai
 jausikika zira hasi.
 Ni kolpatua nago bakarrik,
 zu hiltzerat hor zoazi.

Xan: Ezin ditake, naiz zorzea den,
beti zuzenki obedi.
Sasoina dela aitor dezagun;
hor badago zerbeit egi.
Ni xerria ez naiz aski handi,
ta gainerat ez aski lodi.
Behin bederen, hiltzaile hori,
nitaz urrikaldu bedi.

Ezp: Urrikaltzeko ez ote dugu
guk orai memento txarra,
ikusi eta gure etxean
zoin haundi dagon beharra?
Zuri're kendu behar ditugu
urina eta giñarra,
ahal badugu zutarik egin
urte beteko xingarra.

Xan: Ni lotua naiz hausiki bātez,
eta ezta debaldetan.
Ez ote gira zu eta biak
idaia gaixto beretan,
zu kanibeta sartu nahi ta
hasiki uste gabetan...
Kontu egizu ez ote dugun
hil beharko biek betan.

Ezp: Zerbaitetako hurbildu ginen
gu xerri ederrangana;
nahiz oraino gaizoak eztu,
ez, azken hatsa emana.
Belarri haundi hoitatik egin
daike odolki andana:

horiekilan izanen dugu
guk hamar egunen jana.

Xan: Gertatzen dira ustekabetan
ditazken gertakariak;
oino irriak eginen ditik
gaur Aiherrako herriak,
zabaldu behar baitiozkagu
gertatu diren berriak:
Lehen aldikoz zerri-hiltzailea
hil diotela zerriak.

Ezp: Zerri tartean maiz zerrikeri
ainitz baitzauku agertzen,
zerri polita dago bai hauxe,
baina ez sobera gizen
Orai hil beharra baitago;
pixurik etzuen hartzen.
Lanik haundina izanen dugu
tripa guztiak garbitzen.

Xan: Ez gira biak satisfatuko
egungo idai beretan;
xerri koxkor bat zertarako hil
kasik hola debaldetan?
Ez urin, ez xingar, gaixoa
janen du ustegabetan.
Ni baino hobeak egun bazuzken
dudarik gabe heletan.

Xanpun eta Muruak bi-bitara egindako beste saio bat,
Aiherrako jaialdi hartan. Gaia: Zer egin behar da euskara
beste hizkuntzak bezala kontsideratua izan dadin?

- Xan: Gure mintzairai zor diogu hau;
ezar zor zaion heinean.
Orain artean kanpotiarrek
ibilki dute menean.
Hau salbatzeko hazlari gira
ta lotu gaiten lanean;
ezar dezagun hori nagusi
kanpoan eta barnean.
- Mur: Naiz ta denborak luzaro iraun
ogia eztaike burdin,
ta hizkuntzari nolabait ere
gerta dakioke berdin.
Zer egin behar da gure hizkuntza
besteen mailara dadin?
Oso erreza: jende guztiak
ikasi eta hitz egin.
- Xan: Ainitz badira traban daudenak,
hori nahi dutenak hautsi.
Hoieri behar zaiote orain
bertze zerbait erakutsi:
Mugarik ere ez dugula ta
hori gogotik ez utzi;
denak baturik zer indar dugun
hartu dezagun zuhurtzi.
- Mur: Denak bat egin ta giro bera
jarri guztion aizean.
Baiña hizkuntza biziko bada
bihotzaren babesean,
batzuk ikasi eta ondoren

erdera egin solasean.
Hizkuntza zertan ikas daiteke
gero erabili ezean?

Sara, 1991

Sarako *Omordia* aretoan, bertsu jaialdia egin zen, 1991ko otsailaren 17an, Jean-Baptiste Elisanbururen omenez. Jaialdiaren aurkezpena egin eta Elisanbururen idatzietako pasarte batzuk irakurri zituen Daniel Landart jaunak. Gero, Persiako Golfoko gerlari buruzko iritzia eskatu zien bertsulari batzuei. Honela eman zuen Xanpunek berea.

Entzuna dugun hitz bortitz hori gaur ezin dugu ingura;
nori etzaio Golfoko gerla gaur etorriko burura,
ezin negurtu ere baitugu handik datorren malura.
Bat bertzearen hiltzeko ote gira jinak gu mundura?

Andoain, 1991

Herriko Ikastolak antolatutako bertsu jaialdia Andoainen, 1991ko martxoaren 23an. Agirre, Lizaso, Xanpun, Garmendia, Etxeberria eta Mugartegi bertsutan. Gaijartzaile, Joxe Mari Aranalde. “Zer dio aitonaren bihotzak?”, galdetu zion Xanpuni.

Zuk eman nauzun gai hori hartuz oso barrurat goazi.
Aitona batek ez ote du gaur goxamen zerbait merezi?
Aitor dautzuet: bihotzak dio goxo behar dela bizi.
Ta hartu dutan bide on hori luzaz ez nuke nai utzi.

Beste gauza bat ematen bai nau kasik gaindiz zoriona,
ta sortuz geroz nere gostuko bihotzari zor diona.
Gaur goizean naiz nere ilobatxo bat eskuetan egona,
ta zoin goxoki galdegin nauen: zertan zaude zu aittona?

Ez pentsa gero nahi dutanik egin hemen kokoriko,
zeren hortakotz adina ere galdu zait nere iduriko.
Ez naiz zueri zerbait kondatzen ni gezurretan ariko.
Aste hunetan bosgarreneko egin bainaiz aiton-horko.

Entzule onak, aitor dautzuet bortxatua esatea,
zeren lehengo bertsua etzen osoa edo betea.
Nai dautzuet gaur hemen zabaldu aiton-bihotzen atea.
Goxoa da, bai, eta ederra aita ona izatea.

Hernani, 1991

1991ko maiatzaren 5eko bertsu jaialdia Ereñozuko Urmia elkarteak antolatuta. Garmendia, Xanpun, Lopategi eta Mañu-korta izan ziren bertsutan. Jose Mari Arrietak jarri zizkien gaiak. Halako batean, “Zer berri Iparraldean?”, galdetu zion Xanpuni, bakarka kanta zezan.

Zer berri dagon Iparraldean nahi duzu zuzen jakin;
ta eztet uste hau bururatu litaken gaur Xanpunekin,
zeren da hunek berri on guti ekarki baitu berekin.
Hemengo gisa han ere txarrek txarkeria nai dute egin

Erran ditake: Paris aldeko gizonek dute agintzen.
Badakizue nik esan gabe aspaldi nola gabiltzen,
Euskal Herria piska-piskaka ari baigaituzte hiltzen.
Eta han dauden ontasun piskak kanpotiar jaunek biltzen.

Azken bertsuan erranen dautzut, huntan baitut nik ikusten:
ohartu gira kanpotiarrek nola larrutzen gaituzten.
Gaur ez ditugu lehen bezen bat buruzagi gisa uzten,
gu ere hasi baigira orai gure hortzak erakusten.

Urepele, 1991

Hamabosgarren Xalbador Eguna Urepelen, 1991ko azaro-aren 3an. Xanpun, Lazkao Txiki, Mendiburu, Azpillaga, Peñagarikano eta Euzkitze bertsutan. Gai jartzaile eta aurkezle, Joxe Mari Aranalde. Xalbador hil zen egunean Mattinek Urepelen kantatu bertsu hauxe kantatu zien:

Biak bertsutan ibili gira aspaldi Euskal Herrian;
hemendik kanpo ere gu biak izanak Kalifornian.
Hau beti gizon serio, sakon; ni beti arrailarian.
Besta batean bikote ona biek egiten genian.

Bertsu hori entzun ostean, honela kantatu zuten Xanpun eta Lazkao Txikik.

Xan: Zonbat kontseilu ta jestu eder
 horienganik ukanik?
 Entzule onak, behar nuzke gaur
 dozenaka kantatu nik,
 emana nauten gauza ederrez
 eskertu nahirik lehenik.
 Xalbador eta Mattinik gabe
 izanen al zen Xanpunik?

- Lkt: Azken aldian nolatan giñan
oraindik daukat goguan:
azkenengoa Usurbilen zan,
ni ere antxe nenguan.
Biok berdiñak giñaden soiñez
jarritakoan albuan...
Mikrofonua gora ta bera
gabe kantatzen genuan.
- Xan: Orai zerutik galda nahi dut
ea zer dezaken egor?
Eta hemendik galdeta nahi dut,
otoi, gu ez giten eror.
Hik otoiztu zak, beraz, Mattin, ta
nik inen diat Xalbador.
Erran bezate Euskadiri guk
oraino zenbat dugun zor.
- Lkt: Oraindik ere oroitutzen da
egoaldeko jendia...
Gure Mattin il zitzaigula ere
amar urte juañ dia.
Gorputzez zuen, nik bezelaxe,
ttiki baten irudia;
baiñan benetan aitortutzen det:
bere izatez aundia.
- Xan: Bai, Mattin eta Xalbadorrekin
noiztenka ginen gertatzen.
Ta dakizue hoiñ artean
zuen ibili behar zen,
makur-biderik hartu ezkeroz
laster baitziren ohartzen.

Baina gaituzte erakutsiak
jendea errespetatzen.

Lkt: Erri ontako Xalbador berriz
aundia ziñan benetan.
Zure izena bizirik dabil
ia lurrik geienetan.
Zure izatea egiñik dago
neretzat iru pusketan:
Jaunak zeruan anima eta
bertsoak biotz denetan.

Baigorri, 1992

Txomin Ezponda eta Xanpunek Baigorriin kantatu bertsu batzuk gogoratuko ditugu jarraian, 1992ko urtarrilaren 5ean Baigorriin egindako bertsu saiotik hartuta. Laka eta Mixel Itzaina ziren aurkeztu eta gaiak jartzen. Eta “Emakumeak maskarada egiten Xiberoan, hemen bertsutan... Zer diozue emazteen goratzeaz?”, galde egin zieten. Eta aiek honela erantzun:

Xan: Garbitu nai dut egun Itzainak
egin gaituen sasia,
erakutsi baitu emazte hoiek
egun daukaten aisia.
Zer nai iteko on omen dira,
lehen zuten erasia.
Egun egiten duten gauz hori
guri ditek ikasia.

- Ezp: Eztaike erran emaztekiak
guk ez ditugula maite;
gizon batzuek horra zertako
uzten dituzten aparte.
Egia erran, hizkuntza ere
hoiek erakusten dute.
Euskal Herria salbatuko da
emaztek nahi badute.
- Xan: Orai pozten naiz zeren Ezpondak
ez baitu laster etsitzen.
Bai, bazakiat emaztek ditek
gauza ainitz erreusitzen.
Baina hoiekin ere ez dut, ez,
beti hobena kausitzen.
Jakin dezagun laguntzen baina,
otoi, ez utzi nausitzen.
- Ezp: Nagusigoak egundainotik
baitu bere atseginak.
Orroi gaitezen mundu huntarat
gu nundikan giren jinak.
Bere amari zerbait zor dio
munduko gizon haundinak.
Orroitu gaiten, gizon guztiak
emaztek gira eginak.
- Xan: Horiek denak ikusten tiat,
enauk, ez, hanbat itsua;
emazte batek ekar lezakek
hoinbertzeko serbitzua.

Bainan orroitu eta sinetsi
Xanpunek eman abixua:
Len horiengatik galdua
dela gure parabisua.

Ezp: Xanpunek orai sendi duena
bota du nere gustuko;
bainan emazten talendu hori
nik eztut dena hustuko.
Guk badakigu zer den egoitia
emazte hoiien meneko:
Emazte bakar bat aski dugu
bazter guztiak nasteko.

Xan: Hola osatzen gaituenari
hau ez dezagun guk hautsi.
Haurkeriak utz airean ta
gaiten ba lurrerat jautsi.
Horra nola nahi nuken beti
gure mundua ikusi:
andrea etxekoandre eta
senarra etxeko nagusi.

Ezp: Xanpunek orai erran duena
zer gauza xoragarria!
Gizon ainitzi emaiten gaitu
gauza horrek egarria.
Baina emazteki arraza dugu
guk parerikan gabia.
Gora emazteak! Zuen esku da
geroko Euskal Herria.

Sara, 1992

Herriko *Omordia* aretoan, 1992ko otsailaren 16an, Joxe Migel Barandiaranen omenezko jaialdian Xanpunek kantatu bertsua.

Zonbeit egun du hetsi direla aita on horren begiak!
A zer dolua hor erakutsi diona Euskal Herriak!
Bai, miztzaraziz harpe-ziloko hezur lur eta harriak,
atera ditu Euskal Herrian mila mendeko oinarriak.
Egun zerutik argi gaitzala jakintsun horren argiak
jakintsun horren argiak.

Lesaka, 1992

Urriaren 17an egindako jaialdi batean, gai hau jarri zion Manolo Arozenak Xanpuni: Hor atean sartzerakoan esan dizu batek: Aitona, zu bertsularia zira?

Nik uste nuen gizon maitea zagola atea zaintzen,
zeren eta hau hor seriozki begira egoki baitzen.
Ta galdegin nau, oso zintzoki, bertsolari ote naizen.
Gaur ez ote da ba ordaintzea aitton horri hauxe zuzen?
Oraingo hiru bertsuak ditut nik berarentzat eskaintzen.

Holako galde zoragarri bat nork ez lezake estima?
Baina ez jakin ni nor nintzen gaur, hori zitzaitan lastima.
Ez dut espero gaur bertsutarik ez txapela ta ez prima,
baiña, aittona, nere ondorat zaite zu, otoi, arrima,
zeren ta baita bertsuzalea bertsularien arima.

Eztakit ea duten aittona onaren deia onduko;
ez dakit ere noiz arte naizen bertsulari ni munduko.

Bainan ez dugu bat bertzeari egun guk deusik kenduko;
eta, agian, berriro ere zureganat naiz helduko,
bertsu batzuek kanta ditzadan aitona ona lekuko,
lara, lara, la, larai aitona ona lekuko

Urepele, 1993

Hamazazpigarren Xalbador Eguna Urepelen, 1993ko azaroaren 7an. Egun hartan gai jartzaile izan zen Joxe Mari Aranaldek hauxe galdetu zion Xanpuni: Zer moduz bizitzen da erretreta hartuta, jubilatuta?

Jakinen duzu, jaun Aranalde, erretretan nola naizen;
ez pentsa gero naizenik hola lan txarrerri ni eskaintzen.
Lehen badaukat aski egina, gaur dirua dut ordaintzen.
Nere bizia gaurtxe deremat osagarriaren zaintzen.

Aitortzen dautzut kasik nauela gaur eduzkiak ibilki:
ni berarekin lota gaten naiz eta berarekin jaiki.
Naiz ez daukaten diru kontuan jornal hortarik ausarki,
Miterrand ere gaur ezta bizi Xanpun hau baino hobeki.

Azken bertsuan zure inbidoak merezi baitu “iduki”;
ta behar dautzut garbiki erran ta egin ahala poliki.
Lehen erran dut lan guti inez orain naizela ibilki,
ta erretreta ez leno harturik horixe daukat urriki.

Donostia, 1995

Urteko Bertsulari Eguna zela-eta, Donostiako Anoeta pelotalekuan jasotako bertsuak dira ondorengo hauek. Joxepa Madariaga eta Inaxio Usarralde ziren gai jartzaile. Eta Azpirlaga eta Xanpuni hauxe jarri zieten: Biok arrantzaleak zerate, baina aspaldi huntan konpondu ezinak dira zuen artean. Zergatik?

Azp: Iparraldeko arrantzaleak
 jarri zerate tinkuak,
 baiña pentsatu arraiak ere
 ez direla betikuak.
 Guk hegotarrak izan zaituegu
 maiteak ta begikuak.
 Kendu itzazute sare bolantak
 ta sare pelajikuak.

Xan: Lagun maitea, dezagun orai
 gure lana ondo neurtu.
 Hoinbertzeraiño kalte daukanik
 ez, otoi, hola beldurtu.
 Arrantzaleak, denek bezela,
 bere kontuak ein behar'tu;
 arraina ere delarik behar
 da lasai-lasaia hartu.

Azp: Bizkaiko golko hortara denok
 juaten giñaden pozik,
 baiña ikusten da gaur ipartarrak
 ez daukatela bihotzik.
 Arte txar hoiek kendu itzazute
 baldin badezute lotsik;

bestela laster ez degu jango
ez bixigu ta ez legatzik.

Xan: Etzaitela sar, lagun maitea,
hola kezka txar zorotan;
eta uste dut bide txarretik
zabiltzala bide hortan.
Arraina beti aterako da
hemen ezpalin bada han.
Besteik ezpada haziko degu
arrain hori biberotan.

Azp: Hauek indarra dutela eta
beti berak dute txanda.
Eztago ezer biharko ere
gaur edo biharko janda.
Sasoi bateko aberastasun
hori itsasoan joan da.
Guk hoba degu zuzen jarraitu
alkarri esku emanda

Xan: Nere laguna, ez det dudatzen
arrazoin zerbait hor dabilka
Orroitu zaitez pelajika hauk
balio dute milaka.
Ez balin badu arrainik hartzen
jabea hor zen bilaka.
Beraz, zer egin orduan ere
elgarri tiro ta hilka.

Urepele, 1996

Joxe Mari Aranaldek idatzitako *Xalbador bertsularia* liburuaren aurkezpena egin, eta Xalbadorren heriotzeko 20. urtemuga ospatu zuten Urepeleko elizan, 1996ko azaroaren 3an. Bertsu saioan, Mixel Itzainak “Mattin” gaia jarri zion Xanpuni, eta hark erantzun:

Lehen zenduak gaur aipatzeak eman dezake atsegin;
bainan hortako behar dautzuet hemen zerbeit urrats egin.
Xalbadorrenak erran ditugu, ta gainerat behar jakin,
Xalbadorrentzat beso jakina beti izan zela Mattin.

Jaialdiaren beste zati batean Xalbador goralduz kantatu zuten bertsuak:

Hunkigarriak dira, bai, zinez egun doatzin orenak;
eta uste dut ni bezelaxe hunkitu zaituzten denak.
Nahiz hogeit urte pasatu diren, berritzen ditugu penak,
eta hor dauden gauza batzuek ezin ahantzi direnak.
Oraindik luzaz batu gaitzala gu Xalbadorren omenak,
gu Xalbadorren omenak.

Eta bertze momentu batean, berriz, Mixel Itzainak bakar-ka jarri zuten Xanpun Urepeleko elizako saio hartan, gai hauxe emanik: Eliza huntan asko ikasi du Xalbadorrek. Eliza huni, bi bertsu.

Xalbadorrentzat haundi ta garbi, sakratua zen eliza.
Eta hemendik kasik zabaltzen gintuen Jaunaren hitza,
eta gainerat Jauna ere bai zakien nola zerbitza.
Eliza hauxe zaukan beretzat Euskal Herrien geriza.

Nola ibili zaukun Xalbador kantuz herriz herri beti,
bai eta ere ibili zaku hego ta iparran gandi.
Gaur ez diteke hau erran gabe Xalbadorez hemen geldi:
Egun goxo hau zerukotz ere sakratua izan bedi.

Donostia, 1997

Bertsulari Eguna 1997ko urtarrilaren 18an, Donostiako Atano III pilotalekuan. Han zen Xanpun, beste bertsulari asko bezalaxe. Jesus Mari Etxezarreta *Izazpi* izan zen aurkezle bertsularien lehenengo saioan, eta Azpillaga eta Xanpun jarri zituen elkarrekin, “Lehengo euskalduna eta oraingoa” gaia jarrita.

Azp: Oraintxe ehun urte nengoen
 sasoiko eta gazterik;
 egia esan, ez nuen uste
 hontaraiño iristerik.
 Garai haietan etzan egiten
 euskera baiño besterik.
 Euskera gora doala baiña
 bai al dago sinisterik?

Xan: Ehun urte dauzkan euskara
 ez ote da zahartua?
 Horra zergatik gaztek dugun gaur
 gure bide bat hartua.
 Lehengoari ezin jarraikiz
 huna egin den lotua.
 Horra zergatik moldatu dugun
 guk gaur euskara batua.

Azp: Kontatzen hasi ezkeroko garbi
 garai hartako kasuak:
 Iparragirren kantu ederrak
 da Otañoren bertsuak,
 Pello Errota ta Udarregi
 ere etziran mantsuak.
 Mordo bat aztu bazaizkit ere
 gogoan dauzkat batzuak.

Xan: Hartua dugun bide berari
 lotu gira errabian;
 jendeak hori aire-airetik
 hartu dezala begian.
 Euskara batu hori dabilki
 jendeak Iparraldian,
 Nafar, Araba ta Gipuzkuan,
 bai eta ere Bizkaian...

Azp: Zer ari zera besteagatik
 holako gauzak esaten?
 Anaiak eta danak burrukan,
 horrek ez du ondo ematen.
 Politikari errua eman
 ta guztiak alkar jaten.
 Garaia da ta bildu zaitezte
 guztiok famili baten.

Xan: Zure euskarak duen hadina
 urte kontuan bai ehun;
 hori atzo zen, orroitu gaiten
 gu bizi garela egun.
 Lehengoa bai izanagatik
 zuk diozun bezin urrun,

gaur hemen dagon euskara pixka
bederen salba dezagun.

Xanpun bakarka jarri zuen gero, gai hauxe emanda: Iparraldeko bertsularitza. Ez dugu landare berririk ikusten. Zer gertatzen da?

Iparraldean bertsularitza orain zerauku ahuldu;
zaharrak gira gu orai eta gazterik etzauku heldu.
Gure hizkuntzak, bertsuzaleak, zerbait on nai balin badu,
hegoaldeko gazteek behar duzue harat zabaldu.

Memento batez bertsularitza ginuen gure pausua,
baina gaur ezta ahatik berdina gertatzen zaukun kasua.
Zer debrutako ote dago hor hola erdi gal itsua?
Piztu dezagun, ahal badugu, hola itzali den sua.

Xanpun eta Azpillagarentzat beste gai bat: Hirurogei urtek
zer erakutsi dizue zuei?

Xan: Gure aurreko jende on haiek
guretzat maisu bezela
izan zirela aitor dautzuet,
eta gizonak zirela.
Bere urratsetan bide berriak
zauzkiguten errebela,
eta gainera erakutsi ere
elkar laguntzen ahal dela.

Azp: Nik baserrian ebaki ditut
gari, garo eta sasi;

makiña bat lan egiñak gera
eta gutxi irabazi.
Hamairu urtetan eskola utzi,
berela lanean hasi.
Gerra aurretik sortu giñanak
izan degu zer ikasi.

Xan: Nik ere aitortu dezaket orai,
eskolan ez nintzen trebe.
Hobekiago errateko, ez
naiz ni eskolaren jabe.
Beti lanetik bizitua naiz,
eta egin behar ere,
ogi guti jana bainago
kopeta busti gabe.

Azp: Guk zenbat gauza ikasi degun
ezta erreza esaten;
urteak berriz nai baiño askoz
azkarro dira juaten.
Jubilatzeko permisua ere
nolatan eman didaten,
berealaxe ikasiko det
lanik egin gabe jaten.

Arrangoitze, 1998

Arrangoitzeko *Sukapil* elkarteak antolaturik, bertsu jaialdia egin zen herriko Trinketean, 1998ko martxoaren 7an. Hona hemen gai librean Xanpunek kantatu bertsu batzu.

Ohartu zaizte, adiskideak, denbora zoin laster doan;
bertsutan hasi behar zenik nik oraino ez dut gogoan.
Ta nola lana etxean baino nahiago dutan auzoan,
segi dezagun, anai-arrebak, daukagun giro gozoan.

Ez dakit ea Xanpunek daukan burutzar hau hoin argi,
ta nere lagun hau abixatu gabe ez nitake geldi.
Beharrezko diat buru hau makinatxo bat aldi;
hunekin kasik gau beltzenean egiten diat ilargi¹⁴.

Hemen berriak zertsu ditazken erranen dauzkiat egiz.
Jada Arrangoitzen nolatsu diren ikusten duk hire begiz;
zoin gostura gu goxatzen giren Trinkete huntat etorritz...
Oxala holako egun goxoa guretzat sarriago balitz!

Erranen daiat inguratua hortako pena ainitzez,
erraten ahal diagu egun hemen dena guk bi hitzez:
Euskara¹⁵ guti ibiltzen dela dena baitabila frantses.
Hik erranen dukan berrixka hori egia duk, zorigaitzez!

Nola hi hor, Jon, hasia haizen arrazoin horren galdeka,
aitortzen haut hau: ez ditugula bideak, naski, hameka.
Graziak hortxet oino daudela Ikastola ta AEK!
Heiri esker euskaldun batzuk azaltzen tuk han-hemenka.

¹⁴ Burusoildua zegola esan zioten lagunek-eta

¹⁵ Arrangoitzen euskara asko egiten al zen galdetu zioten.

Donostia, 2000

Euskara, jaldi hadi plazara izenarekin egin zen 2000ko Bertsulari Eguna, Donostiako *Gaska* kiroldegian, 2000ko urtarrilaren 29an. Xanpun eta Xabier Silveira elkarrekin jarri zituzten egun hartan, gai hauxe emanda: Xanpun irakasle zaharra da, eta Xabier, ikaslea. Urte osoa saiatu zara ikasle au bideratzen, baina ez duzu lortu. Gaur erretreta –erretiroa– hartzera zoazela eta bera bakarrik etorri zaizu agur esatera.

Xan: Nere bihotza gaur une estu
 horrek harturik dabilka;
 haur zelarik nere ikasgaitzat
 gaur ezin dut nik esplika.
 Nik ez nakien nere gisara
 jo edo ta madarika,
 goxoki baino hobeki baitzen
 hartzea hau ukaldika.

Sil: Ez dut gogoan egun bat egin
 ez zidana errietan;
 ez dut gogoan egun bat ni ez
 nenbilena berriketan.
 Gaur irribarrez agurtu nai dut
 malkoekin begietan;
 nik maitasuna ulertzen baitut
 bere era guztietan.

Xan: Bai batek edo bertzeak berdin
 daukagu gure itzala,
 bazindakien erakusleak

hor gaizki gabiltzala;
bainan nik erran solas horiek
bazuten bere ahala.
Etorri zira egun gizonki
ikasi duzun bezala.

Sil: Zuk erakutsi zenidana bai
daukat gogoan hartua.
Gaizto xamarra izatea da
nik daukadan pekatua.
Bazoazenaren pena badaukat,
hori ezin ukatua,
gaurtik aurrera ez dudalako
ziria nori sartua.

Xan: Ikasle gisa nik ere badut
izana nere axola,
ta badakizu lana egitea
ez dela errexha hola.
Baina halare hunkitzen nauzu,
jakin behar duzu nola,
zeren ta egun zuk eman nauzu
nik behar nuen eskola.

Sil: Eskerrak bihotzez, maisu ta lagun,
zure loreengatikan!
Bertze gauza bat ikasia dut
zure azken itzetikan.
Lana ez dela xamurra diozu,
hori ez nekin lendikan;
baiña orain bai eztut sekula
lan egiteko planikan.

Azken agurra egiteko eskatu ziotenean honela kantatu zuen Xanpunek Donostiako jaialdi hartan:

Erran duenaz bururatzeko orduak omen gaitu jo;
ez da dudarik, behar zelakotz, buruzagiak gaur dio.
Nola goxatu naizen ni hemen zuek zaiztela medio!
Egia erran holako bati ezin erran nik adio,
ta bizi banaiz, ez dudaik izan, etorriko naiz berriro,
etorriko naiz berriro.

Bertsularitzaren omenez Xanpunek kantatu zuen bertsea:

Bertsularia ote dago, ba, dohain guztien jabea?
Behintzat egun bat goersten dugu oroit parerik gabea.
Kamus dabila bertsulari bat, kasik irudik erlea,
endeak soildun, barnetik hartzen haren hitz edo elea.
Hau ez ote da gure hizkuntza bizi dela seinalea? (bis)

Omenaldiak

Urruña, 1982

1982ko martxoaren 28an, Xanpuni omenaldia egin zioten. Bertsulari andana handia bildu zen han, Daniel Landart gai emaile zutela: Joxe Lizaso, Lazkano, Lazkao Txiki, Alkat, Jean Mendiburu, Jon Enbeita, Ezponda, Azpillaga, Lasarte...

Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txikik* hunako bertsu hauek kantatu zizkion Xanpun maiteari, jaialdiaren azkenaldera:

Badakit, Xanpun, aitondu zera, gizon oso zeradena;
badakit iloba paretxo bat ain ona badezuena.
Zedorren puska berri dituzu, zeure egiteko dena.
Aiton batentzat hori liteke erregalirik onena.

Etorkizuna badezu, Xanpun, bi ilobatxo zeurekin.
Gure Jainkoak erregali obeagorik eleike egin.
Beti jostatzen ta beti parrez, beti dabilta zurekin.
Azi ta euskeraz zuk erakutsi Euskadi au bizi dedin.

Beste bertsu bat orain zuentzat dijoa, ilobatxoak:
Orain ongi entzun zuen aitonak daduzkan kontu goxoak.
Orrek bezela zuek'e bota euskal kantu ta bertsoak,
bizi luze bat eduki dezan gure euskera gaixoak.

Gero, sari ederrak eman zizkioten, jaialdia amaitzean. Eta bertsu hauek kantatuz eskertu zituen:

Barkatu, bainan seme-bihotzak lur sailduraino nerama,
zeren eta han beren pausuan dauzkat aita eta ama.

Segur naiz hemen daude utzirik pozkario-erresuma,
ni laguntzeko egun altxatzen dutan goresmenen zama.

Enuzke nahi gaur hemen dauden bihotz batzuek zauritu;
hau egibide bat daukatela alta zeraut iruditu.
Aipatu gabe zendu lagunak ezin nindeke gelditu:
Errexil, Ximun, Mattin, Xalbador, eta Etxahunez orroitu.
Gaurko egunak nai eta ez nai, heieri hurbiltzen gaitu,
heieri hurbiltzen gaitu.

Eskerrak ere, Urruñar talde deitzen zaituzten hazia;
zuri zor dautzut hemen iragan egun goxo, berezia.
Bai, utzi nauzu orroitzapen bat ezin da histen utzia.
Halaber klika ta kantariak ekarri nauten grazia.
Hitz batez diot: eskertu nai dut orain Urruña guzia,
orain Urruña guzia

Eskerrak hiri, Landart maitea; gai emailien jokoak
egun Xanpuni ukitu dazkok bihotzean dien xokoak.
Eskerrak ere, bertsulariak, ipar eta hegokoak;
zuen bertsuak agertuak gaur dira paregakoak.
Luzaz begira dezan talendu guziak dauzkan Jainkoak,
guziak dauzkan Jainkoak.

Bortxatua naiz, entzule onak, zerbeit hemen eskaintzea;
zuek ekarri nauzue hona zerbeit gisaz ordaintzea.
Egun Urruña bilakatu da Euskadiren baratzea.
Aski zaio ba naizen lekutik hari hemen beiratzea.
Irudi luke euskotarraren batasunen ohantzea,
batasunen ohantzea.

Orai, Anttoni, atrebitzen naiz denen bistan erraiterat
zer gaiek egun gaitun ekarri holako besta baterat.

Lokarri hoiek beti azkartuz doaz urtetik urterat;
bainan Urruña sartu zauku gaur segur gu bien arterat,
eta hari guk gaur zor diogu gure bihotzen parte bat,
gure bihotzen parte bat.

Zu zenbat urtez etzira egon gau ta egun kezkatua,
bertsu aitzakiz zure senarra norabeit espektatua?
Baina begira zer egun goxo ona zuen estekatua.
Egun guziak ahantzi dira, hori ezin ukatua,
eta Urruñak barkatu nahi nau nik zuri egin bekatua,
nik zuri egin bekatua.

Herri maitea, hementxe nuen nik ezagutu dohaina;
ahal bezala nai dut ekarri egun gai horri ordaina.
Barkatu ez banaiz heltzen ahal baina eginen dut ahalegina.
Beti argituz zeruko Amak Sokorriko mendigaina,
beira gaitzala gure hizkuntza ta urruñarrekin Urruña,
urruñarrekin Urruña.¹⁶

Orain jaiki naiz, aski baitugu. Banoa umil-umila,
zorionezko egun hau baita lorea eta makila.
Bainan gaur hemen atera zauku pozkariozko muskila,
erakusten du gure izatea oraino ez dela hila.
Denak lekuko hor kausitzeaz deneri nik esker mila,
deneri nik esker mila.

Urruñako omenaldia zela-ta, elkarrizketa sakona eta luzea
egin zion Xalbardin kazetariak 1982ko martxoaren 21eko

¹⁶ Bertsu hau bota zuenean, eserita zegoen lekutik jeiki egin zen Xan-
pun, oso urduri.

Zeruko Argia astekarian. Eta solasaldia amaitzean, bi bertsu hauek eskaini zizkion Manueli:

Euskal Herrian plazarik plaza sakonki bertsoan jardun;
aspalditikan orain egin den ekintza merezi zendun.
Mattin, Xalbador, Etxahun Iruri ta Barkoxeko Etxahun...
Haiek bezala zaude betiko gure bihotzetan, Xanpun.

Hamaika aldiz izana zara bertsozaleen pozgarri,
euskal nortasun izakeraren kutsa ta adierazgarri.
Iparraldean garai honetan bertsolarien euskarri.
Bidasoaren gainetikan zu izan zaitea uztarri.

Xalbardin

Zeruko Argia, 1982.03.21

Donostia, 1983

1969an hasita Donostian urteoro egin ohi zen bertsu jaialdi edo omenaldia Xanpunen ohorez egin zen, 1983ko urtarrilaren 23an, *Balda* pilotalekuan. XIV Bertsulari Eguna, hain zuzen.

Xanpunekin solasaldia¹⁷

Eta omenaldi hura zela-eta, aurreko egunean, Xanpunekin solasaldi lasaia eta luzea egiteko aukera izan genuen irratian, larunbat arratsetan eman ohi genuen *Beti Jai* irratsaiorako. Benetan hitzun bikaina zen, eta solaskide ezin hobea halakotetan. Hementxe dituzu berriketaldi hartan esan zizkigunak, hitzez hitz:

¹⁷ Loiolako Herri Irratian, 1983ko urtarrilaren 22an, J.M. Iriondok.

Xanpun gostura

Bai, bai, gostura nago, holako berotasuna dela-ta, hoinbertze ohore menturaz merezi gabe, baina benetan erraiten zaitut: oso ukitua baina animoso naiz.

— Elkarrizketa hau hasi baino lehen komentatu didazu aurten, bolada honetan, debru guztiak zurekin dituzula: lapurreta handia izan duzu zure arraindegian, eta beste makurrik ere izan duzu, ez?

— Bai, izan dut mementu bat izigarri gogorra, pasaia bat oso txarra. Batetik, izan ditut sekulako ixtorioak, arraindegiko ur-bonba eta, bakizu, ura hartzeko hango mekanika horiekin. Lapurreta egin naute gero; gauaz, berriz, hoinbertze kostatako uraren bonbak gelditu gabe ibilki dira bueltaka eta aberiatua gelditu, eta kalte handiak izan ditut hortik. Eztakit, hor ibili den debrurik gaiztoena harrapatzen ahal dudan, baina atxematen badut, hari ordu laurden bat pasarazi beharko diot oso txarra.

Senperen jaio eta...

— Pozarekin bihotza ukitzearekin batera, deabru gaiztoak etorri zaizkizu, beraz?

— Erran ditake baietz. Lehen ere erran dautzut, beti zonbeit gisaz mementu txarra pasarazi nautela behintzat. Graziak baditugun beste ordu batzu oso goxoak, eta banaz bertze ibilki gira. Graziak horri.

— Bihar, gitxienez ere, ordu goxoen eguna izango da zuretzat, Xanpun. Euskal Herriko bertsulariak eta bertszuleak Donostian bilduko dira/gira zure omenez eta ohorez. Xanpun, jaiotzez Senperekoa zera zu, oker ez banaiz.

— Bai, jaio nintzen Senperen, duela berrogoita hamalau urte. Gero bizitu ginen Ahetzen lau urtez; eta sei urte nituelarik etorri nintzen Urruñarat, Xanpun baserrira. Handik dator nere ezizen edo goitizen hori, dakizun bezala. Azkenengo

urteetan firmatu ere *Xanpun* egiten dut, eta ezagutzen nauenak nere izentzat har dezake. Emazteak ere Xanpun deitzen nau. Eztakit hegoaldean baduzuen ohidura hori, baina hemen, iparraldean, aspaldiko ohikuntza da hori: erran nahi baita, etxeak, etxaldeak edo bideak zer izen duen, huraxe hartu eta erabili.

Gero, ezkondu ginelarik 1952an, Donibane Lohizunerat etorria naiz. Ikusten duzu: Senperen jaio, Ahetzen eta Urruñan bizitu, eta azkenean Donibane Lohizunerat jin. Xoria bezela ibilia naiz, batetik bertzera. Hogoita zortzi urte dira ezkondu ginela, eta orduz geroz hemen bizi gira. Erran ditalke donibandar egina naizela, hementxe itsas-hegian. Laketzen da gainera.

Bertsutan

— **Eta bertsutan hasi, edo bertsutarako jaio, noiz jaio zinen?**

— Bertsutan hasi, bistan da ahal bezala hasi nintzela, arras gazterik hasi nintzen. Beti izan dut halango gutizia bat ditxoka, norbaitek zerbait erraten bazuen hari ditxo batekin erantzuteko. Nire erraztasuna hori izan da eta maite dut. Bereziki ditxoka hasi nintzen bertze asko bezala, erraten den bezala. Erraten dute gure amona zena ere oso ditxolaria eta erranlari ona zela; eta gero banuen aita zenaren anaia bat ere bertsulari ona, baina beldurtia eta agertu nahi ezik ibiltzen zena, erraten dutenez, lagunartean eta ostatuan-eta ibiltzen zena, batez ere. Eta hola. Odolean ekarki izan dut, segur.

Eta hortxe hamabi-hamahiru bat urte nituelarik, artean mutiko hasi nintzen lagunak zirikatzen eta hola. Eta gero, badakizu, bazen gure etxe inguru hartan arnoa saltzen zuten toki bat, eta noizean behin harat joan eta han biltzen ginen kantu batzu, bertsu txiki batzu eta hola kantatuz. Erran diezazuket biziki gazterik hasi nintzela bertsutan: hamalau urtetan

edo hola. Lehenengo aldiz agertu naizelarik plazan, Errexilekin eta Mattin Ahetzekoarekin aritzen nintzen bertsutan, gerla burutzear zela, herriko besta batzuetan. Gero, berriz, Saran egin zen xapelketa batera ere ausartu nintzen, eta han sari ttiki bat izatu nuen –xerri txiki pullit bat–. Eta gero, Ezpeletan aritu nintzen berriz; bainan gero urte asko pasatu nuen batere kantatu gabe. Etxean hogoita bi edo hiru animalia bagenituen, aita erreumak josia hil zen, anaiak gerlan... Eskolara ere noizean behin bakarrik joaten nintzen, pentsatu. Baina bertsozaleak izaki, joaten ginen bakar bakarrik Xalbador, Mattin, Uztapide, Basarri eta horiek entzuterat, nunahi agertzen zirelarik. Hura gure xoramena!

Bertsulariak iparraldean

— Aipatu dituzun bertsolari horiekin askotan kantatu al zenuen?

— Komunzki, orduan etortzen ziren bertsulariak ziren hegoaldetik Uztapide eta Basarri. Orroitzen naiz Joxe Lizaso eta Manuel Lasarte ere ikusi nituela inoiz kantari, Saran. Hemengoak, berriz, Errexil, Mattin eta Xalbador eta hola izaten ziren. Zubikoa ere bai, eta ni ere aritu nintzen noizbeit horiekin, bainan hola, bertsu bat edo bi, agur bat eta hola. Orai gazteak aritzen diren bezala ez ginen aritzen gu, saioetan-eta ez gintuzten hartzen.

— Oraingo bertsolari gazteek duten bezelako aukerarik ez zenuela izaten esan nahi duzu?

— Ez, ez. Guk ez ginuen hoinbertze aukera izaten ahal.

— Zuen eskualdean bertsu jai asko egiten al zen zure gazte denboran, hamalau hamabortz urte zenituen garai hartan?

— Ez. Erran daitaie Hernandorenak eta Monzonek ekarri zutela partikularzki bertsuen ohidura hori gure aldera. Batez ere, Hernandorena ibili zen herriz herri bertsulari bila. Bai-

nan, zonbat denbora izan daitaie Xalbador eta Mattin eta horiek atera direla? Jaun Hernandorenak atera zituen horiek. Beren herri inguruan-eta ezagutuak izango ziren, bainan handik kanporat, ez. Bainan ohidura hori sortu zela, edo horiek herriz herri hasi zirela, zonbatto urte izango dira ba? Hogoita hamar urte?

Bertsularien txapelketan

— **Pariseko bertsu saio sonatu hartarako Hernandorenak prestatu zuen hautaketa jaialdi hartan izan al zinen, Urruñan?**

— Ez, ez. Ez nintzen izan. Ni aritu nintzen hegoaldean Mattinekin, eztakit zonbat aldiz, bainan urte mordo bat badu. Iparraldetik Mattin eta ni ginen, eta hegoaldetik Lazkano eta Azpillaga, eta abar. Uste dut probintzia bakoitzetik bi bertsulari ginela.

— **Bai, Teodoro Hernandorenak 1970eko apirilaren 26an hasi eta maiatzaren 3 eta 10ean, Leitzan, Bergaran eta Gernikan antolatu zuen probintziarteko txapelketa hartan, esan nahi duzu. Iparraldetik zeu eta Mattin zineten; Gipuzkoatik, Lazkano eta Gorrotxategi; Bizkaiatik, Azpillaga eta Abel Enbeita; eta Nafarroatik, Arozamena eta Madariaga. Txapelketa hartan esan nahi duzu, ez?**

— Horixe! Hori izan da lehenbizikoa ni agertu naizela hegoaldean, lehenago inoiz ez.

— **Beranduko bertsularia zerala esan diteke, beraz?**

— Ba, oso goiz hasi banintzen ere ostatu eta lagunartetan, berant plazaratu nintzen bertsutara, oso berant. Eta mundu huntarik eramango dutan nere urrikia horixe izanen dut, lehenago ez gurutzatua hegoaldeko bertsulariekin. Halako anaitasun, berotasun bat atxiki dut hegoaldean! Hemen ikusten da bertsularitzak zer balio duen zuen aldean, zer maitea den eta zer balio emana zaion. Eta horrek handi egiten du bertsularitza. Guk, batek besteari eraginazten ginon bertsutan. Kantatu

ere askotan egiten ginuen, lagunarteko saiotan; baina hegoalderat etorri ezkerre ikusi dut bertsularitza guk uste ginuen hura baino gehiago zela, zer mamia duen hemen ikasia dut. Eta, erran dizudan bezala, pena dut piska bat lehenago ez gurutzatua zuekin hegoaldean.

Xalbador nire jainko ttipia zen

— Xalbador, Mattin, Zubikoa, Errexil eta Mattin aipatu dituzu. Zure iduriz, zein zen horietatik zuk estimurik handiena zenion bertsularia?

— Xalbador nire jainko ttipia zen; eta Mattin ere arras estimatua nuen. Xalbador eta Mattinek bazituzten bi dohain eder. Mattini gai seriosa emanda ere behar zion hark beti atera zer-bait irigarri. Xalbadorek, berriz, edozer emanda ere mamia ateratzen zion, baita gai arina izanda ere. Baina bertsulari bezala, den bezala erran behar da gauza, Xalbador. Lagun bezala, denak estimatu duguna, xoragarria, irria frango eginarazten gintuena, Mattin izan da; bainan bertsulari bezala, Xalbador haundia izan da. Eta gero, egiazki Xalbador osatzen zuena, Xalbadoren barnatasunari azala ematen ziona, Mattin. Mattinek zirikatzen zuen, atarazkitzen ziozkan batzutan Xalbadorre erran nahiak baino gehio ere. Eta hola, biak elgar osatuz, hoiek bikotx haundia izan zirela uste dut. Bikotxa oso-osea!

Hemengo bertsularitza osatu dutenak, zinez. Xalbador bera osoa zen bakarka; bainan Mattin bat aldamenean zuelarik, gai seriosa izanda ere, seriotasun puska ttipi bat kentzen zion hark ordainez berotasuna emanaz. Mattin eta Xalbador, enetzat, azala eta mamia izan zirela nago.

Hoinbertze grabazionetan Basarri eta Uztapiderekin ibilki dire eta horiek asko landu dute bertsularitza. Batean eta bertzean ikusten genituenean, gostura egoten ginen heiek entzuten, eta halakoxe nahikunde bat heldu zitzaunkun —ño, hoik

hainbertze egin behar ginikek ba!—; eta hoitatik ikasi ginuen dakigun pittina.

Etxahunekin bertsutan

— Aurtengo hau, oso oker ez banaiz, XIV. Bertsulari Eguna da; baina hamabosgarrena behar zukeena, lehengo urteko omen eguna baino lehenxeago hil zen Pierre Bordazarre *Etxahun* omentzekoa zena. Ezagutu al zenuen Etxahun?

— Bai, ezagutu dut. Eta bizpahiru aldiz aritua naiz harekin bertsutan. Bizpahiru edo hiru-lau aldiz ere bai, segur. Behin, plaza edo pilotaleku berri bat egin zutelarik, inaugurazio batera bere herrira gonbidatu ninduten, eta bertsutan aritu nintzen harekin batean. Baina bagenuen elgarren artean halako zerbait, traba bat: elgar ez ginuen ongi ulertzen. Badakizu, hizkuntzaren traba zen; eta, ez harek gurea ongi ulertzen zuen, eta ez nik harena. Gainerakoan, bai, gainerakoan oso lagun onak ginen. Baditut haren argazkiak etxean, eta bertsuak ere bai. Bainan gure euskararen traba hori izan genuen: nik lapurdiko euskara izaki, eta hark, berriz, Xiberokoa.

Ikustazu. Oso zaila da, hitz bat edo errima bat-edo galtzen baduzu, hala bertsutan aritzea. Bertsulariek elgar ondo aditu behar dute —hizkuntzaz ari naiz— bertsutan ongi egiteko. Bestela, zaila da. Etxahun eta neri ainitz aldiz gertatzen zitzaunkun hori, zoritxarrez. Bertzalde, bertsulari baino gehiago zen musikaria gure Etxahun haundia. Ez dut uste gainera harek maite zuenik ahoz aho bertsutan aritzea. Berexiki, kantatzea maite zuen hark. Eta bai xoragarria zela kantatzen, a! Soinulari izigarria ere bazen, eta horixe maite zuela iruditzen zaut. Behin baino gehiagotan erran zautan berak asko sofritzen zuela bat-batean bertsutan, eta nahiago zuela berak asmatutako kantuak eman. Bere ahotik entzuna da hori, aizu.

Xanpun zubigilea

— Xalbador eta Mattin hil zirelarik, bazirudien ipar-hegoaldera-ko bertsularien zubia Xanpunek izan behar zuela, haiek utzi zuten hutsunea ondo betez. Baina, Xanpun ez zaigu Xalbador eta Mattin etortzen ziren adina etortzen hegoaldera, bertsutara. Zergatik?

— Errexa da. Ni ez naiz galdutua izan hoinbertze aldiz; bainan gero beste gauza bat ere erran behar zaitut: Xalbador eta Mattin badakizu nik bezain ongi nola bizi izan diren. Eta Xalbador zena itzali zelarik agertu nintzen ni hegoalderat, zeren orduan Mattinek ekartzen ninduen, edo zuek deitzen ninduzuten Mattinekin batera. Horrela hasia naiz egiazki hunat etortzen. Xalbadorek ere erran zautan inoiz: —Ño, pena diat zertan ez haizen hi gurekin etortzen ahal bertsutara batera eta bertzera!—. Bere ahotik entzun nuen nik hori. Eta gero, bera itzali edo zendu zelarik, Mattinekin etorri izan naiz. Eta gostura gainera, Joxemari!

Xiberoan izana naiz lau zpabost aldiz, Baztanen ere askotan, Elizondon, Erratzun eta abar. Hemen, iparraldean, berriz, Donibane Garazin, Donapaleun, Hazparnen, Kanbon eta hola. Hegoaldean Donostian kantatu nuen lehenengo aldiz, Txapelketan, Xalbador zenak eskatuta. Hala ere, nik txalorik gehien jaso dudana lekua Bermeo izan da, nahiz eta gero bermeotar batzuekin hitz egiten hasi eta ez nuen tutik ulertzen haien euskara. Eta neure buruari galdatzen nion: zergatik txalotu ote naute, ulertu nautelako ala niri kurraia ematearren?

— Oso gizon lanpetua zarela egia al da?

— Bai, okupatua naiz; badakizu aski lan badudala neure gauzetan. Batetik, lehen lantegi baten okupatua nintzen, hango kargua nuen-eta, baina denen eskutik pasatzen zen. Gero hartu nuen oraingo lantegi hau, erraz eta goxo izango nintzela ustez, eta orai kolpe hau hartu dudalarik, geroz lotuagotzen nau. Ez dut izan Xalbador eta Mattinek izan zuten erraztasun hori, aska-

tasun hori, badakizu. Oraiko lantegian ere zonbeit gau eztut gal-
tzen ahal, bateko ura behar dela, besteko eztakit zer... Lan serio-
sa da, egiz; eta neu ere langile seriosa izaten saiatu naiz, eta
horrek atxiki nau, parte bat behintzat. Bainan, erran dizudan
bezala, egia da Mattinekin asko ibilki naizela azkenengo urte-
etan. Hola hasi nintzen puska bat han eta hemen.

Sarako jaialdi ederra

— **Lehengo igandean, urtarrilak 16, jaialdi ederra eman zenuten
Saran?**

— Bai, biziki xoragarria zen! Jende asko bildu zen, eta xora-
garriki pasa ginuen han. Hegoaldean egin duzuen xapelketak
ekarri duela uste dut giro eder eta berexi hori. Beno, Saran lehen
ere jendea bildu izan da, bainan lehengo igandekoa arras bere-
xia izan dela nago, eta hori zuek antolatu xapelketari zor zako-
la, zati handi batean. Gero, hegoaldeko irratiek, egunkariek eta
telebistak ere zabaldu du, eta jai izigarri ederra izan da, erran
bezala. Eztago sinisterik! Joan dan igandeko bestaren ederra,
erran dezaket, hegoaldean egin den xapelketaren ondorioa izan
dela, batez ere. Aretoa bete-bete egina zen, eta jendea xutik.

Urruñako omenaldia

— **Lehengo urtean, Urruñako herriak omendu zinduenean jende
asko bildu zen.**

— Bai, harritu nintzen, bainan jende ainitz bildu zen Urru-
ñan ere, eta hunkitua izan nintzen, zinez. Esperatzen zuten
arratsaldean zazpirehun bat jende etorko zirela, hortarako
lekua zuzendua zuten-eta. Bainan milaz goiti jende ziren,
erran zutenez. Bainan bertze gauza bat erran behar da: hego-
aldeko bertsuzale asko jiten dela holakoetan, iparraldekoa
baino gehiago askotan; eta horrek emaiten du berotasun izi-
garria. Eta hango jendeak ematen duen berotasunak hemen-

goa ere berotu egiten du. Gainera, egia errateko, Urruña, Urruña da! Urruñak egin nau egiazki jestu eder bat, eta biziki eskertzen dut nik hori.

Hegoaldeko txapelketa.

— Txapelketa aipatu duzu lehenxeago. Baina txapelketan mindu ere, jende asko mintzen da. Zeu, hain zuzen, azkenerako ez zinduten hautatu. Hasarretu al zinen, ala ez?

— Aizu, ondo aritu izan banintz bertsutan, hautatuko ninduten. Egia erran, oso pozik hasi nintzen; Oiartzunen gostura kantatu nuen, bainan izan nituen aistian aipatu ditugun traba zikin horiek, eta ez nintzen ongi. Ni naiz gizon bat, badituzu bi puskatan ematen diren gizonak: kezka denak alde batera utzi eta nunahitan lasai kantatzen dutenak, baina neri behintzat ondotik segitzen naute zikinkeri horiek denek; eta behin burua kezkatzen bazaut, harek eztit lasai kantatzen uzten, ito egiten nau. Hori batetik, eta gero bertzetik, berriz, aski talendutsua izan banintz, aski azkarra izan banintz, zerbeit gehiago egiten ahal nuen. Donostirat ez helduaren errua neurea bakarrik da, eta ez tut nehoren kulpa egiteko arrazoinik. Egin banu bertzek baino gehiago, hautatuko ninduten; eta ezta dudarik hor izango nintzela. Bainan gauzak diren bezala dire, eta kitto! Neu naiz hobendun bakarra, eta nik ez tut horren hasarrerik.

— Durangon, batez ere, lurra jota zeundela ikusi nuen.

— Bai! Banituen hemen esan ezin ditezken kezka zikin batzu. Gure lanari zegozkion Frantziako zonbeit lege berri nardagarri batzu, eta hek ondo gogoan nituen. Horien berri ezer jakin ez banu, badakizu, ez takizularik ez tuzu sofritzen, eta hobe. Bainan etorri behar zuten froga fiskal askok huts egin dute, eta hoiek zanpatzen zaituzte frangotan. Kezka horiek nituen buruan, eta horiek galdu ninduten, segur. Arraindegiko bonben aberiak ere hor nituen, bakizu.

Gero, bertze zerbait ere erran behar zaitut: den gizonik lasaiena izanda ere bertsu txapelketa batean asko estutzen da. Eta balin badu bertzaldetik beste estudura bat, bien artean itotzen da. Eta hola ezin ba bertsutan ongi egin. Xanpuni hori gertatzen zaio behintzat. Egun hartan gogotik emango nuen bertze norbeit ene ordainez, ahal izan balitz.

— **Zer iritzi duzu txapelketari buruz, oro har?**

— Xapelketa horrek, enetzat bezala besteentzat, asko erran nahi du. Batetik ikusi dugu zer bertsulari andana den, eta zer bertsulariak! Hor agertu diren bertsulariak, ezta dudarik, lan haundia egin dute, lan bikaina. Eta ainitz mementutan ez zen erraza izango bertsulariak bereixten ere. Hor bertsulari onak entzun'tut, ezagutzen enituenak. Bertsulari onak, eta bertsu sakonak gainera. Eta, badakizu, heiek entzuten dituen mahai-koak, gu bezalakoak bazter batera uztea aski erraza da. Orai bada bertsulari mordo bat, andana bat hobeto errateko, egiazki bertsulari onak eta ikasiak direnak. Eta hori eztakit maiz ikusi den Eskual Herrian orai arte, hegoaldean bertan ere ez, segur. Iparraldean ere aterako dira bertsulari onak. Hazia behar duzu erein lehenengo, eta hazi hori ereiten ari direla nago. Haatik aterako diren bertsulariak badire iparraldean, zorionez.

Hegoaldea da xapeldun oraindik urte askotarako, baina iparraldeari ere aurrera egin dezala erran nahi diot, behar dugu-eta bertsularitza indartu hemen. Bertzalde, gaur egunean bertsulari ez denari ere heldu zaio bertsularitzaren gutizia. Eta badakizu horrek zer berotasuna eta zer xarma ematen diozkan?

Xapelketari nagokiola, Oiartzunen, Idiazabalén, Duran-
gon eta Donostian, zer berotasuna, zer indarra ikusi nuen!
Donostiakoa, berexiki, izigarria izan zen.

Jaialdi batean ala txapelketan

— Nik nahiago lehengoan Saran bezela, jakina. Halako beldur bat ematen naute mahainguruan jujeak ikusten ditudanean. Hek, badakizu, eztira etorriak zuri txalo egiterat. Etorriak dire zure bertsua entzun eta puntuak zehatz emateko gero; eta horrek izutzen zaitu ainitz. Lasai gizona bertsutan aritzeko, gan den igandean Saran bezala jardutea hobe da. Saran edo nonbeit besta delarik, erran nahi dut. Bertsu batean hutsegín baduzu ere, hurrengoan konpontzen entseiatu eta aurrera! Baina xapelketa batean eztago hori egiterik.

— **Bai, bistan da mahaiak beldurra eta izua ematen duela; baina entzulei begira, zer?**

— Bidegurutze batean ematen nauzu hor. Badut uste bi entzule moeta, bi entzule klase direla: lehengo igandean Saran zen bertsu talde hortan jendea etorria zen gu entzuterat, baina ez jujatzerat. Bertsu onak izan omen dire, eta pozik izan dire denak; eta entzun egin gaituzte, berexiki. Txapelketa bat delarik, ikusten duzularik paper mutur bat aurrean hartuta lapitzakin apuntatzen ari direla, orduan entzule berak ere zaintzen zaitu beste modu batean. Aldiz, besta batean, bertsuak entzuterat etortzen da jendea, eta ez da egoten jujatzen ari denari beha. Entzuleak eztu puntuetan pentsatzen, bertsuaren mamian baizik. Azken finean, bertsularia bezalaxe entzulea ere izututa egoiten da xapelketa batean. Hala uste dut nik.

Hizkuntzaren arazoa

— **Etxahunen hizkuntza, euskara konprenitzeko gaizki ibiltzen zinela esan didazu. Horrelako zerbait gertatzen zitzaion Xalbador zenari ere hegoaldean kantatzen zuenean. Ez ote Xanpunekin ere horrela gertatzen?**

— Menturaz, ainitz aldiz neri gertatzen zaut gauza bat: bi aldiz bertsuari balioa kentzen diot, bi aldiz errepikatzen dut gauza bera. Nahi badut erran konprenitu, konprenitu eta uler-

tu biak sartuko ditut, jendeak hobeki har dezan. Bainan hola bertsuari kentzen zaio bere balioa, ze hitz bera bi aldiz sartu baduzu, puztu egiten duzu. Eta badut uste bertsulariak behar duela kantatu bere herrian bezala; gero bazaizte zuek aski talendutsuak erakusteko eta esplikatzekeo jendeari hitz bakotxaren erranahia. Xalbadorri, menturaz, etzizaion hastapenean asko konprenitzen, eta Xanpuneri ere ez. Bertsutan hasten zirelarik zure erritmoa segitu nahi duzu, bainan entzuleak hobeki konpreni dezan bertsula mozten duzu, eta nekez egiten ahal da gure lana ongi horrela. Hortxe dituzu bi oztopo galant, batez ere hegoaldean. Gauza berdina erraten naute Urepelerat edo Behenafarru alderat noalarik: Itsas-hegiko euskara ezin dute konprenitu nonbait. Askotan egoten naiz pentsatzen, nik hitz egiten dudana euskara hain traketsa ote da ba? Iparraldean ez, hemen eztut holakorik nik, bainan hegoaldeko bertsulariak hunat jiten direlarik, berdin ibiliko dire, segur. Nortaranahi ere, hegoaldean erraz samar ibiltzen naiz, egia errateko. Bada-kizu, ene emaztea mutrikuarra da, eta aitaginarrebaren euskarara oso ohitua nauzu. Eztut pentsatzen oztopo handirik dudarik.

Igandeko omenaldia Donostian.

—Erran dezakedana da omenaldi egunari buruz, eta bertsutan ere berdin errango dut, eztela ez urrezko eta ez papezko dirurik Xanpunen zorra eta poza ordain dezakeenik. Oso esker oneko naiz bertsulari eta bertszualeekiko. Eta egun haundia eta ederra izanen dela sinestuta nago. Milesker denoi!

* * *

Beti bezala, jendetza handia bildu zen, bertsulari eta bertszuale. Xanpunek, edo Xanpunen ohorez beste bertsulariak

kantatu zituzten bertsuak oso-osorik jaso eta gorde genituen garai hartan. Eta hementxe duzu orduko sorta.

Lehenik, Ezpondak maitekiro Xanpuni eskaini zizkion bertsuak jasoko ditugu.

Pozez banator Donostiarat lagun baten ospatzera,
hunentzat dutan sendimendua bertsuetan kantatzera,
Xanpun ta biok aspaldikako adiskideak baigera.

Zorionak hartu ditzala
zorionak hartu ditzala, bihotzetik bihotzera

Xanpun dadukat iparraldeko nere lagun zaharrena;
bertsularitza dugu lokarri izan daiken ederrena.
Beraz, leial ta urrezkoa du hunek bihotz hain barrena;
eta berau izana dut nik lagunik anaikorrena.

Sentimenduaren sustraiak barnarik heldu zaizkigu,
eta bat bestearen berri hori ondo badakigu.
Xanpunek lagun asko duela esan beharrik eztingu,
hunarart bildu giran guztiak hor geralakotz testigu.

Eta jaialdiaren azkenean bere agurra egin zutenen bertsuak orain.

Bertsuzale batek:

Bertsuzaleon besarkada bat hartu ezazu gaur, Xanpun!
Omendu asmoz bilduak gera hemen hainbat mila lagun.
Herririk-herri umiltasunez urtetan dezu zuk jardun;
olerkarien zentzu horrekin bertsu edertzen zendun.
Denon iritziz langintza horrek bere saria behar zun,
bere saria behar zun.

Seme kuttuna zaitu iparrak, zer esanik ez egoak,
anaikor luza zenitulako zuk beti zure besoak.
Gure herriak hori behar du bare dezan erasoak:
esku emanik egin ditzagun aro berriko pausoak.
Bi egunetan zail da zuzentzen mendetako arazoak,
mendetako arazoak.

Abel Enbeita:

Iparraldeko anai maitea, lagunetan lagunena,
erdiko muga apurtzearren emango zenduke dena;
langile zintzo, euskaldun trebe, abertzaleen kemena.
Eztut esango zarenik, Xanpun, gaur bertsulari onena,
baiña bai inork merezi badu merezi duzu omena,
merezi duzu omena.

Mugartegi:

Iparraldeko Xanpun, gizon zentzuduna,
euskal herriak sarri gogoz entzun duna.
Sentimentu garbiko bihotz euskalduna,
badakizu guztiok maite zaituguna.
Zu zera gizonetan euskal euskalduna.

Kepa Enbeita:

Euskaldunontzat gaurko egunak garrantzia haundia dauko,
Ipar Euskadi eta Hegoa hemen batu geralako,
anaitasunez batasun baten anai bat omendutzeko.
Xanpuni ez jako aztuko.
Herri-maitale, euskalzalea, bertsulai paregabeko,
errijen alde egin duana geroak du autortuko.
Sinistu, Xanpun, Euskal Herriak maite zaitula ta gogoko.
Balda honetan omentzen zera omengarri zeralako;
eta hartu gaurko herri-txaloak merezi dituzulako.

Bertso saioaren azkenean, Donostiako Udalaren saria jaso zuen Xanpunek lehenik; eta gero, iparraldean sortu berria zen *Bertsularien Lagunak* elkartearena, Daniel Landartek egindako olerki xume batekin:

Pasionea iragan ordu etorriko da eguna
gizon emaztek, haur ala gaztek idurikatzen duguna.
Euskal Herria ez da ez hilen, baina Euskadi sortuko
gero sekulan nehork ez deusek ezpaitu hiltzen ahalko.

Sariak jaso ostean, denei eskerrak eman zizkien Xanpunek, bertsu eder hauek kantatuz:

Bertsulari ta bertszualeak, eta hemengo udala,
ez da dudarik gaurko eguna nik grabatuta dudala.
Goiko mailerat altxa nazue ni naizen gizon apala!
Anai-arreben bihotza aldiz dago hor zabal-zabala.
Ez nuen uste nik horrenbaitan hoinbertze leku naukala,
hoinbertze leku naukala.

Anaitasuna gure artean ez da hila, ta ez dago lo,
eta maitasunaren untzi hori ez ote da berdin zilo?
Gibel aldean orroitzapenak hainbertze erregalo!
Zuen aldetik zenbat hitz goxo, eta ere esku-txalo...
Barkatu bainan, anai-arrebak, gaur bete-betea nago,
gaur bete-betea nago.

Huna zer dudan, edo gaur zeri nagon ni hemen iharririk:
gure arbola zahar maiteak eztuela adar igarririk;
gehiago ez da erran beharko ez Hego eta Iparririk.
Ez berexkuntzik egin sekulan, ez, otoi, galdu indarririk!

Erran dezaket egungo Baldan Euskadi dela bakarrik,
Euskadi dela bakarrik.

Azken bertsu hau kantaturen dut orain berriz horrat helduz,
ez bait girade, naski, ariko soberaño ordu galduz.
On dizuela, anai-arrebak, goaz bazkarira urus;
eta uste dut han ere berriz ariko graden kantuz.
Ondo bazkaldu eta ondoren kafe ta patarrak hartuz,
kafe ta patarrak hartuz.

Igeldoko *Buena Vista* jatetxeko bazkalondoan jasotako
zenbait bertsu ere gogoratzeke modukoak dira, ezbairik gabe:

J. Lizaso:

Oraintxe bada ordua eta astera goaz lanian;
ixilik nola egongo gera bazkaian ondorenian?
Au familia bildu gerana gaur Igeldoko gaiñian!
Xanpun maitea, gaur ikusten duk
Xanpun maitea, gaur ikusten duk ire lagunak zein dian.

Lazkano:

Ikusi utsez aitor gentzake, ez degu giro makala!
Horrelakoan bertsulariak oi degu bihotz zabala.
Gaurko egunak gauza bat dauka garratza edo tamala:
Horren goxo ta samur izan da bukatu egingo dala.

Agirre:

Bukatuko da, baiña ez degu bihurtu behar agoni.
Bertso batzuek ezin ukatu bazkalondo eder honi.
Desio dedan hainbat oraindik gaur esan gabe nago ni:
Eskerrikasko gaiñerakoei ta zorionak Xanpuni.

Lopategi:

Anaiengandik Xanpunentzako txalo eta zoriona
bihotz guztiei begiratuta giro honek dariona!
Jaso dezagun gure Xanpunen izatea eta sona,
bertsolaritan irriparrerik goxoena dun gizona.

Amuritza:

Txalo haundiei aurreko honek ideki dio atea;
irriparrezko gizona bada ezta izango kaltea.
Bertsu batean goizean zion zegola bete-betea;
bazkalondoan nola ote dago gure omendu maitea?

Txomin Ezponda:

Xanpunen omenaldia, zer egun zoragarria!
Ona delarik aurkitzen dugu maiz laburregia.
Bat utzi ordu bestia: hurrengoan Garmendia.
Osasunean baldin bagira etorriko gia
Osasunean baldin bagira etorriko gia.

Zeberio:

Xanpun, zuretzat eskeiñia da gaur hemen egun osoa:
goizean Baldan ta orain hemen guk bigarrenko pausoa.
Atze aldetik euzki epela, aurrekaldean itsasoa...
Holako leku eder batean kanta litake bertsoa.

Garmendia:

Goiz partetikana toki batean jardun gerade lanean...
Ixilik ezin egonik gaude bazkaldu ondorenean,
Euskalerriko bertsuzaleak Xanpunen aldamenean.
Ikara danak utzi litezke alkar maitatzen danean.

Lazkao Txiki:

Or Lapurdiko Senpere aldean bein sortu zitzaigun Xanpun,
arrezkeroztik kantari dabil abertzale ta euskaldun.
Aurrera ere opa dizut nik len dezun ainbat osasun,
beste berrogei udaberritan kukua adi dezazun.

Laka:

Ederki bazkaldu ondoan gu aurkitzen girade bapo,
ohitura den bezela prestikan bertsulari jaierako.
Hemengo berria gaur berean da Ipar Euskadirako;
ta gainera ere esperantza hartzen dugu gerorako,
hartzen dugu gerorako.

Alkat:

Hain maite dugun Xanpun laguna egun baitugu ospatu,
erran beharrik horrek eztauka badula hanbat meritu,
horri eskerrak hoinbertze anai hemen baitgera elkartu.
Erran behar dut Gipuzkoa gaur Xanpunez dala gozatu...
Baina ez hango gure Lapurdi, ez, otoi, hori lapurtu.
ez, otoi, hori lapurtu.

Egileor:

Bazkaiak danoi on dagigula; ta mila zorion, Xanpun.
Hoin hogeita hamar urte inguru egin giñaden ezagun;
geroztik eztet zure arpegirik nik triste ikusi iñun.
Aurrera ere holaxe segi pakea zabaltzen degun.

Narbaiza:

O, Xanpun, zure grazia
jendeak zun ikusia;
horregatikan gaur omentzeko hartu zan auzia.

Bildurik herri guzia,
hauxen da une bizia!

Zazpi senide alkartzen gaitun egun berezia,
zazpi senide alkartzen gaitun egun berezia.

Gorrotxategi:

Gaurko Baldako jai eder horrek iñun eztauka berdiñik;
Xanpun maitea, zure barruan etzendun izango miñik.
Baiña halare hor ikusi det malkoak gorde eziñik...
Gaur bitartean nik ez nekien negar egiten zekiñik.

Igarzabal:

Gaur omentzea igaz pentsa zan Lapurdi aldeko izarra,
eta benetan pozikan dago gure Euskal Herri zarra.
Alde honetan maitatzen degu, noski, Xanpun, irrifarra;
era berean maitatzen degu hegoaldean ifarra.

Sarduy:

Zeinek ez dio zorion egin Xanpun bertsulariari?
Gauza berririk nik ezin esan zar ta berria denari.
Barriz zorion, omendua ta Ipar Euskal Herriari...
Baiña entzun dot Xanpun kantuan andreak ein du bertsulari.

S. Lizaso:

Entzuleantzat arratsaldeon, Xanpunentzat zoriona!
Hegoaldean aspalditik da Xanpun lagunaren sona.
Berak esan du Baldan negarrez betea dala egona...
Parre ta negar egiten dakin bihotz haundiko gizona.

B. Enbeita:

Berdingabea dogu Xanpunen bihotza:
enbor, adar ta horri euskotar hutsa.

Euskera indartzea da bere ametsa,
Euskadin nagusitu Aitorren hizkuntza.
Hortxe dagi dantza egiñaz iraultza,
beti aurrerantza euskerari bultza,
ondo loretu arte euskal baratza
ondo loretu arte euskal baratza.

M. Xalbador:

Ipar Euskadi ta, beraz, Xanpun omendurikan hor,
hegoakin iparra hori maite du, egun dio aitor.
Garmendiari hurren urtean berriz bedi etor,
kulturako gizoner hainbertze dugu zor,
kulturatzaile asko ditene gero're sor.
Xanpun, maitea zira, hainberte maitakor.
Kantu, goresmen eta zorionka nator.
Neure erritma zail hori ez dadila agor;
dohain hortan dut parte, badut asko alor.
Falta dira Etxahun, Mattin ta Xalbador.

Larrañaga:

Goguak dakarrena bertsetan diot,
alkarri laguntzeko nola giñan jaio.
Aspaldiko urtetan lagun gera biok.
Xanpuni zorionak eman nai dizkiot.

Jon Enbeita:

Txori kantariz betea atzean da basua,
zerua urdina eta aurrean itsasua;
bitartean pausatu da bakearen usua.
Iparrak hegoaldera luzatu du besua,
zure ondora bildu da Euskal Herri osua.

Zuretzat besarkada bat ta, Anttoni, musua
zuretzat besarkada bat ta, Anttoni, musua.

Telleria:

Etzaizu falta pozkidarikan, etzaizu falta lagunik;
pozetan zaude, lagun Imanol, bertsu hauetxek entzunik.
Auek bezela bihotz-bihotzez maitatzen zaitut, Xanpun, nik!
Baiña ez al dut leku honetan bilatuko nik hutsunik:
emakume bat ez ote dago berttua kantatzen dunik,
bertsua kantatzen dunik?

Azpillaga:

Xanpun oraindik ez det agurtu, uste det garaia zala,
bera delako euskerarentzat ta Donostiren magala.
Esan liteke bertsulaientzat mugarik ere ez dala;
denak portatu behar luteke bertsulariak bezala.

J.M. Arregi:

Barriro ere Donosti hontan anaikor gerade batu.
Xanpun nai nuke bihotz osoaz emen gaurkoan agurtu.
Gertatzen dana omenaldian egiten dala trukatu:
dana eman duen gizon horrek eskeintzen zaiona hartu.

Mugarategi:

Xanpun, zu zera gizon zabala hitzean eta bertsu
bertsu-lanari heldutzen daki gogor bere arazoan.
Gizon bezela aurkitzen zera zu era kuriosoan;
horregatikan maitagarria zera Euskadi osoan.

Murua:

Iparraldeko bat gendun aurten denontzako txalogarri,
ta hurrengorako hegoaldeko beste bat hor degu jarri.
Arrazoi danak esanak dira, halaxe diot igarri...
Gaurko eguna bedi guretzat sentimentuen lokarri.

J. Lizaso:

Ipar eta hegoak alkartu gerade;
ikusten da oraindik gerala senide.
Xanpun gure laguna, kontentu al zaude?
Urrengorako Txomin omenaren jabe...
Ia azaltzen zeran makulurik gabe.

Bazkalondoko saio luzearen ostean, Xanpunek mikroa eskatu zuen, eta bere bertsuak kantatu, jatatxeko lagunarte ederrean:

Orai artean xoko batetik gira entzuten egonak,
nere lagunek eman nauzkiten bertsu goxo ta sakonak.
Ez nuen uste gaur horrenbeste balio zuen Xanponak;
baina onartzen ditut garbiki eman eskaini zaizkonak.
Baina hoinbertze merezi al du guretsia den gizonak?
lara, lara, la, la la...
goretsia den gizonak?

Xanpona dago diru ttipi bat, diote urre untzeko;
baina ttipia beti ona da haundiaren laguntzeko.
Baliatzen zait xanpon izate hau zuen ezagutzeko;
eta baliatzen ere hemen esker eta agurtzeko,
beti txanpon bat izanen baita zuek denon serbitzuko.

Lara, lara, la, la, la
zuek denon serbitzuko.

Orai, hi Txomin, nere partetik zorion hauek har hizkik;
anaitasun bat erakusteko al dago bertze argazkik?
Benetan zioat, maitasun hori behin sendituz geroztik,
nahi ta nahi ez, lagun maitea, begiak bustiko zazkik;
zeren munduak ez baitauka gaur hau ordain dezan eguzkik.

Lara, lara, la, la, la
hau ordain dezan eguzkik.

Donibane Lohizune, 1995

1995eko irailaren 24an, omenaldi ederra egin zioten Xanpuni, Donibane Lohizunen. Ipar eta hegoaldeko bertsulari asko bildu zen han, nola herriko Luis XIV plazan, hala Udaletxean eta Beti Alai pilotalekuan ere. Nolatsuko eguna izan zen jakiteko, aski duzu handik laster Jean-Baptiste Dirassarrek *Herria* astekarian idatzi zuen kronika irakurtzea, hitzez hitz:

Zorionak, Xanpun!

Zinez xoragarria izan da joan den igandeko besta hori, Donibane Lohizunen, Xanpunen ohoretan! Bagenekien segur ederra izanen zela bainan hoin hunkigarria ukanen ginuela ez ginuen hanbat pentsatzen... Eta hala izan da burutik burura. Froga herriak maite dituela bertsulariak eta azkar atxekia dagola Xanpun adixkideari.

Goizeko meza guziz kartsua izan da. Predikua, Emile Larre bertsuzalearena, dena mamia. Nola ez ditu goretsiko gure bertsulariak, gizonaren zerbitzuko, herriaren lekuko eta

mezulari? Bertsu batzu harturik, dela Xalbador zenaren liburu argian, dela Xanpuni duela hogoi bat urte Aiherran entzutenarik... Otoitz eskaintzak ere zoin kartsuki ez dira emanak izan Xalbador seme, Mendiburu eta Lakari esker! Kantuak ere gaitzak, Arin taldekoekin, Jesus Zubeldia zuzendari. Eta Ezpata-Dantza hura ere nolako taldearekin ez dute eskaini *Begiraleak* taldekoek!

Ohorezko bi medaila

Nork erranen zuen gero hoinbeste jende bilduko zela, eguerdi ganean, hiriko plaza nagusian? Hor, bertsulariek agur bero bero bat egin diote Xanpuni, eta mutxikoei airostu dituzte bazter guziak... Batzu aitzina dantza eta dantza ari zirelarik, Xanpun eta hunen adixkide frango errezibituak izan dira herriko etxean. Gure bertsulariak andere auzapezaren eskutik ukan du herriaren ohorezko medaila, herri guziaren ikustate seinale bezala. Artetik erraiteko, arratsaldean, gisa berean ukanen du Ziburuko herriarena, Ziburun ere estimu handitan baitaukate gure Xanpun.

Bazkaria ikastolakoek prestatu zuten eta aski ederki gainera. Marmitako bat hauta. Egundainokoan, bertsu parrasta bat eta gero saio bat gaitz ederra, trenpu hoberenean baigintuen Enbeita, Sarasua, Egaña eta Lizaso. Ondotik, oparia frango Xanpunentzat, liburu, margolan eta arno buxundatu, besteak beste... Eta azkenik, bixtan da, Xanpunen eskerrak, bihotzaren zolatik heldu zirenak.

Bai, egun hori izan da guziz hunkigarria eta ez dakigu zoin izan den keinkarik hunkigarriena: Ikastolako haurrek Xanpuni bihurtu bertsuak, bere semearen alabak eskaini dizkionak, denek elgarrekin eta denak xutik plantaturik kantatu dugun Gernikako Arbola, apezak predikuan erran dituenak, bertsularien agurra, ala nik dakita zer! Burutik burura, egun

gaitza izan da zinez, denentzat bihotz altxagarri, Xanpunen eta euskal kulturaren ohoretan...

Zorionak zuri, Xanpun eta ainitz urtez oraino!

Jean-Baptieste Dirssar

Herria astekaria

Omen-jaialdia amaitzeko ordua etorri zenean, Dirassarrek aipatu dituen bertsu hauexek kantatu zituen Xanpunek, bihotza leher zorian zuela, denei eskerrak emanez:

Agur deneri: bai auzapeza, bai andere ta bai jaunak;
hala bertsuak nere laguntzat gaur bertsulari lagunak.
Zoin goxo ziren hemen ikusi eta entzun ditugunak!
Instant batez gaur ahantzi zaizkit nere dolumin ilunak.
Behin betiko seinalatzen nau hemen gaur doan egunak,
hemen gaur doan egunak.

Musika talde, kantari eta berdin hortik Jaurlaritza;
berriketari telebistatik nere famak hor dabilta.
Gaur ezin dut nik hemen atxeman deneri zor dutan hitza,
eta gainerat hoinbertze opari hau egin nauten eskaintza.
Xanpun gaizoak, milesker! bezik eztauka bere ordaintza,
eztauka bere ordaintza.

Eztakit ea eskertu gabe hemen norbeit gelditu den.
Bertsu honekin, barkatu, baina eskertu nahi nuke hemen
Beira ditzagun ipar-hegoak gu zoin goxoki gauden,
eta pentsatu ere Xanpunen bihotz hori nun dabilen.

Besarkada hau eskaini nahi dut bihotza lehertu baino len,
bihotza lehertu baino len.

Donibaneko omenaldia zelata, Ortzainen sortu eta Urkoin
bizi Pierre Minaberry adiskideak hunako bertsuak idatzi eta
bidali zizkion Xanpuni

Doinua: Xardina saltzailea.

Zure omenaldia etorri da egun,
Euskal Herri guzitik hitzarturik lagun.
Boteretsua baita gaur gorets dezagun!
Agur eta ohore bihotzetik, Xanpun.

Baxenabarretik naiz bai hunaraino jin,
neure baitan ditudan sendimenduekin.
Adieraz nezake deiadarrarekin:
Xanpun paregabe bat badugu Lapurdin.

Gogoeta gaitezen, ez baita debalde;
zimenduak azkartuz Euskararen alde,
Ikastolan sartzeko eginen dut galde.
Baina aurkitzekotan Xanpun erakasle.

Jainkoak zerutikan baieztu bagintza
lehenik egin lio Xanpunen agintza,
goraki sustaturik zuk bertsularitza.
Eskerrik asko, daukat ordaintzeko hitza.

Mattin eta Xanpun

Airea: Gazte nintzelarik hemezortzi urtetan

Elgarrekin egun
bat bertziaren lagun
bertsutan tut entzun
Mattin eta Xanpun.

Bi gizon xarmantak, balinbada nehun.
Gorputz eder eta arpegia legun.
Eskualdun sorturik egoiki eskualdun.

Zeren hor sortu zen
Mattin da Ahetzen.
Maiz kurri ibiltzen
bertsuen kantatzen.

Besta egitia baitzaio gustatzen,
behar den denbora nasaiki du hartzen,
gauza den lekuan errexki laketzen.

Mattin gizon gaitza,
oi, zonbat urusa!
Badu laborantza,
ibilki da ontsa.

Ontasun on hortan nasai heldu gauza:
Mahats, ogi, arto, porru eta aza.
Ongi jan-edanez artatzen gorputza.

Hasi ta ezin geldi.
Xanpun da aspaldi
arrantzari haundi;
itsasoan gaindi
untzian badoa urrun zonbeit aldi.

Arraina ekartzen nasai eta lodi,
freskuran ezarriz ez dadien fundi.

Asko herrietan
entzun dut frangotan,
hoik ari bertsutan;
ostatu saletan
jendea biltzen da hoitara purrustan.
Alegrantzia da bihotz guzietan,
denbora pasatzen hor ustegabetan.

Hoik hola ikusiz
karkulan egon niz:
hoitarik ainitz
sortzen ahal balitz;
Euskal Herria gora laite berriz,
besta ta omore denetan ezarriz
hoikien entzuten lorietan irriz.

Gizon hoik biak
estimagarriak,
ongi ikasiak
dohainez betiak.
Xoratzen dituzte zahar ta gaztiak.
Hola ditueno jaun bertsulariak
bestak eginen tu Euskal Herriak.

Panpilli
Herria astekaria

**2002ko urtarrilak 17:
Xanpun hil da!**

2002ko urtarrilaren 17an hil zen Manuel Sein *Xanpun* bertsulari atsegin eta gizon aparta. Azkar zabaldu zen dolukanpaiaren hotsa Euskal Herri osora. Eta hurrengo egunean azken agurra ematera milaka bertsuzale, bertsulari eta lagun bildu ginen Donibane Lohizuneko elizara, Lapurdik eman zuen bertsulari haundienetakoa ohoratzeko.

Ezagutu zutenen artean marka nabarmena utzi zuen Xanpunek. Eta senitartekoak, adiskideak eta batez ere oholtza gainean kide izan zituen bertsulari lagunak burumakur hurbildu ziren sentipenezko azken agurra egitera.

Elizkizunean, besteak beste, Xabi Soubelet, *Begiraleak* antzerki taldeko ordezkariak bera eta lagunuen omena egin nahi izan zion, hitz hauekin:

Ezki! dorrearen pare
ixilik dago eliza,
gaur itzali baitzaio
itsaspuntako haritza.
Xanpun hor zen gorestekoa;
hark zuen bertsuaren giltza.
Begiraleak-en izenean
hartu nahiko nuke hitza.
Lehenik antzerki ekintza,
ta gure bertsularitza:
solas, irri eta mintza,
zuauren izaitzearen agintza.
Milesker zuri bihotzez,
zu, euskal enbor bortitza!
Omenaldi ederrena gaur
bihotzean dugun ixiltza.

Bertsulari askok kantatu zuten elizkizunean, baina Txomin Ezpondaren hauxe gogoratuko dugu hemen:

Ustekabean etorri zaigu
berri triste ta iluna;
Xanpunen hilketak izan baitu
lur ikaren oihartzuna.
Gure denboran izatu dugu
egizko anaitasuna,
oroitzapena besterik ez da
orai gelditzen zaukuna.
Egungotz agur, Manuel! Eta
ikusite arte, laguna.

Bertsulari belaunaldi gazteak ere bere aitormena egin zion Xanpuni, Sustrai Colina eta Amets Arzalluzen kantuan.

Zuk bazenuen berezko hori,
zuk bazenuen ahala.
Zure mezua hain zen zuzena,
egoki ta naturala.
Inoiz bertsu bat entzuten bada
zuzen zuzena doala,
sartuko zaigu zure ahotik
atera balitz bezala.

Xanpunen hileta ostean, honako soneto hau argitaratu zuen Jean Louis Davant euskaltzain eta idazleak, *Herria* astekarrian:

Mattin eta Xalbador ez ziren bakarrak;
hirugarren bat hor zen jokoan,

plazan baino hoberik ostatu xokoan.
Ai zer dohain ederra Xanpun Urruñarrak!

Ez zuen ez izitzen agertu beharrak;
baina zenbaketarik ez zaukan kolkoan.
Solasa maite zuen, irria mokoan,
adiskide legean askatuz indarrak.

Lehiaketa librean dastatu dut behin;
lagun arte ttikian, afari batean,
bertze biekin zela bertsu mailez berdin.

Amaturra zen hura zentzu on betean.
Horretan zuen muga, horretan omena.
Egun agur beroa, bihar oroimena!

Pierre Trounday jaunak bere bertsu-sorta bidali zuen
Herria astekarira, honelaxe:

Bordeletik, Xanpuni

Mundu bizia maitez baitira ainitzak,
lotzen bilatzeari bertsutako giltzak.
Beti ederragoen bilari gabiltzak.
Hala zitien hire dohainen agintzak,
nahiz beti hobeki legundu aditzak.

Ase-ezin baitira entzuleen hautuak,
kantatu diezkatek hitz bertan lantuak,
apaindu ere sortak bertsuz osatuak.
Orai hire izaite munduz aldatuak
bertzean osa bitza huntan bilatuak.

Fermin Mihura bertsulari eta bertsu jartzaileak egindako hauek, *Azkaine – Ascain* aldizkarian argitaratu ziren, 2002ko urtarrileko alean.

Inarrosaldi haundia sortu du Xanpunen hilberriak;
bizi luzeagoa merezi lagun estimagarriak.
Lagunartean finka zituen erroak ta lokarriak...
Zinez figura bat loriosa galdu du Euskal Herriak.

Nehoz ez dugu Xanpun ikusi esker txarreko ta motza;
berotasun bat berezko zuen, nehorekin ez zen hotza.
Hainbeste grazi eta bertsutan zer izpiritu zorrotza!
Hurbilekoek erranen dute: hau zela dena bihotza.

Gerla ondoan hasirik zuen bertsuetarako urratsa;
herririk herri, plazarik plaza mende erdia du pasa.
Mattin-Xalbador lagun zituela ez zaiken giro eskasa!
Ta gaurko gaztek aitortu dute hunen jite aberatsa...

Gure ondoan bazegon ere zer geriza arraroa:
kantatzen mottel ari baginen altxatzen zuen giroa.
Behin Parisen gerta ginen, ta zer lagunarte beroa!
Xanpuni esker zabaldua zait adiskideen saldoa.

Gizon argia zelakotz eta dena zuhurtziz betea,
harrigarria ehorzketetan izan den jende ostea.
Azkainen ere maite ginuen Xanpunen begitarte.
Milesker, Xanpun; ohoratu duzu zuk euskaldun izaitia!

Gogoan zaitut, Xanpun

Txikitan ezagun nuen zure izena, etxean behin baino gehiagotan aipatu zintuztelako. Onetik zerbait izan behar zenuen. Orain, onetik asko zeneukala esan dezaket, etxean entzundakoak egia zirela.

Zure jaiotzaren eta nirearen artean mende erdiko bizipen moltzo bat dago. Mende erdi bat. Eta hala ere, esaterik dago-kidan pentsatu gabe, gazteegi alde egin duzula esan nahi dizut, Xanpun. Zure presentziak zirrara berezi bat sortu izan didala. Batez ere zure begiradak. Eta irribarreak. Izugarri atsegin dut haur txikien jolasean aritzea. Zirikatu eta mimoak ematea. Eta zuk haur bat zeneraman barnean. Kariñoa adina errespetu sortu didazu. Gizon bat ere bazeneraman. Eta oreka horretan sentibera izan zana. Bertsolaria izatearen gainetik.

Iragan urteko azaroaren 11n, duela bi hilabete inguru, Ahetzen omenaldia egin zitzaion Mattini. Zuk asko estimatzen zenuen, nik ezagutu nahiko nukeen... Eszenatoki beraren gainean aritu ginen bertsotan lehenengo eta azken aldiz. Ohore bat zen Mattinen omenaldira gonbidatu izana. Zuekin abesteko aukera eskaini izana ere bai. Eta hori, behintzat, nigan gorde ahal izango dut. Zeinen eroso sentitu nintzen. Zenbateraino baloratu nuen umiltasuna. Gogoan izango dut gaia jarri eta hiru bertsoak, ti-ta bota zenitueneko hura. Zure erraztasuna ezaguna izanagatik, harrituta utzi ninduzun.


Ez dakit Manuel eta Xanpun zerbaitek bereizten ote dituen. Ez dakit Senperek segeturen bat gordetzen duen. Ez dakit errimarik gabeko lerroak zelan bizi izan dituzun, eta bihotzak zergatik jarri dizun azken puntua. Baiña ate batetik sartzen gogoratuko zaitut. Txukun jantzia. Gizon ile zuri eta apala. Mahaitik altxatu eta agurtuko zaitut. Bostekoa ala bi musu ematea tokatzen den zalantzan. Datozen egunotan lore ugari jasoko duzu, Xanpun. Nahitaez omenaldi bat ere toka-

tuko zaizu. Merezita. Baina ez nuen zure handitasunaz idatzi nahi. Honako hau da zuri eta zure alde zintzotasunez esateko neukana: Zugan zerbait garbia ikusi dudala._

Oihane Enbeita bertsulariak 2002ko urtarrilaren 18an *Egunkarian* idatzi zuen artikulua, Xanpunen heriotza zela-eta.



Onaindiatarrak, Xanpun familiaren lagun ninak.



Xanpun pentzakor.



Xanpun Ameriketán. (San Francisco)




Xanpun Donibane Lohizumen kantari.



J.M. Sedano eta Xanpun Mairuelegorretan, 1975.07.27an.



Xalbador, Xanpun, Ezponda, Errexil eta Zubikoa. Baiona, 1964.12.06.



Ezponda, Alkat, M.Xalbador eta Xanpun, Elizondon 1990an.



Gorrotxategi, Lopategi, Garmendia, Agirre, Lazkano, Etxeberria, Azpillaga eta Xanpun, Donostian 1980an.



Laka, M.Xalbador, Xanpun, Ezponda eta Lazkao txiki.



B. Enbeita, Xanpun, Hernani txikia, Uztapide, Loidisaletxe eta J. Lizaso.
Donostian, 1981.01.18an.



Bertsulari lagunak eta beren emazteekin Urruñako omenaldian,
1982.03.28an.



Xanpun eta J.M. Barandiaran, Saran.



Xanpun senar-emazteak, J.M Barandiaran eta Pilar Barandiaranekin, Saran.



Xanpuni omenaldia Donostian, 1983.01.23an.

Ataun'dik, 1982^o Epuillaren 28^o

Lein' dar Xanpun (Xanpun) jaunari
Urriñare

Abiskide!

Gaur onuraldia egiten dirute Bure adiskide -
de eta beste aintza laguntz eta elkartek, zuk egin
duran lan ederra dala ta. Guk ere aurruntz ~~er~~ dik-
hatsugu, nik bater ere sinbeste eta geiago eor bait
dirut. Hazi trankuntz ageririk bereenik zuk eta
beste aintzate kontonik eta aurruntz.

Barandiaran & Foxamut



Xanpun senar-emazteak Saran, 1994an.



Xanpun senar-emazteak Alliot M. andere ministroarekin,
Donibane Lohizunen.



Xanpun senar-emazteak, Donibane Lohizuneko jaietan.



Xanpun senar-emazteak, Donibane Lohizuneko jaietan.




Ez zen sukaldari ona, baina bai laguntzailea.



Xanpun gaztea, Kaxaranka dantzatzen, Donibane Lohizunen.



Xanpunen semearen ezkontza.




Xanpunen biloba maiteak.



Xanpunen alarguna, Alliot M. andere Ministroarekin.



Xanpunen alarguna, D. Poulou eta Donibane Lohizuneko jaun mairarekin.



XANPUN Joan Zaigu

alaba : Pello Koroa

Inarrosaldi handia sortu du Xanpunen Hilerietak
 Bilatuz geroa meten, lagun euzkoaldarrek
 Lagunarietan finka dituen arreak ta jolemeriak
 Zinez figura bat lortzea galdu du. Euzko-herriak:

Nehor ez ditugu Xanpun, kusi ester txarretxo ta morra
 Berogailu bat berako zuten, nehorretan ez zen horra
 Hainbeste gural eta bertan zuzen izinduz zorrotza
 Hurbilekoak erranen dute "hau zein dena bilhoiza"!

Gerta ondoan hasirik zuten berritarako urratex
 Herriek herri, plazaek plaza mento ezta du pazu
 Martin-Xalbador lagun diruela, ez zalken giro eskasa!
 Ta gaurko gaztek alortori dute huihen lite aberatse...

Quie ondoan bozagon ere zer geriza aralaroa...
 Kanpatzen moztel art haginien alboxen zuten ginea
 Behin Parisen gerta ginen ta zer lapularre beasa!
 Xanpun eder zabaldua zah adokidelen zaldia...

Gizon argi zelakori eta dena zuhurrat besea
 Haingarera ehorkeretan izan den jende ostea
 Atkaliren ere maite ginen Xanpunen beparasa
 Milesker Xanpun oihoratu diruzi zuki euskaldun izalrea!

Formin

Aurkibide antzera

Aitzin solasa	7
----------------------------	---

1) Xanpunen bertsupaperak

Urte berriz Urruñan	21
Aspaldiko ametsa	25
Zorionak, Leontine	26
Zenbait bertsu	27
Aita Martin zena	28
Eba	28
Beloken ginden	29
Gazteeri buruz	32
Au Chipiron	33
Corinne eta Patxiku	33
Udaberria	34
Zorionak, Juanita	35
Aitor dezagun, eta abar	37
Teodoro Hernandorenari	39
Teodoro Hernandorenari (II)	40
Itsasoa	41
Euzkadi zaharra	42
Donibane Lohizune	43
Xiberoa	44
Agur eta ohore	46
Jesus Zubeldiari	47
Jesus Zubeldia (II)	47
Hogoigarren mendea	49
Mende zaharra	50

Alejandro	51
Herrira begira	52
Xanpunen galtzak, eta abar	55
Nere bihotzak	58
Kantu	59
Hogoita hamar urte	60
Apezturik zuk mende erdiz	61
André Iturralde jaunari	62
Donibane eta Ziburu	63
Lassalet jaunari	65
Aita Challet-i	66
Bizi guziko bateratuak	67
Sor lekua	68
Gure lagun Xomin	70
Don Xomin	70
Don Xomin Onaindia	72
Bitartean, eskerrak	73
Jubilatuak Baionan	74
Sokorriko Amari	75
Haurren lehen jaunartzea (I)	76
Haurren lehen jaunartzea (II)	77
Mayi-Martzialen urrezko besta	78
Joseph Caminori	80
Bi bihotz maite	83
Zuberoa pausaleku	83
Abadie jaunaz	84
Helene eta Luisito	85
Mende erdi bat elgar maitatuz	87
Aita Paul Olasori	89
Egungo deia (Beloken)	90
Ziburu maitagarria	91
Bi bihotz	92
Denei zorionak	93

Ekainak hemezortzi	94
Herriko ezkila dorrea	95
Etxe berria	96
Euskal hazia	97
Jesus onari	98
Xoko ttiki pollita	98
<i>Herriak</i> 100 urte	99
Aita Jean-François	100
Kattalin eta Xemartin	101
Christine eta Marc	102
Alejandro zerurat	103
Gure amatxi	104
Arin-en 85 urteak	105
Kattalin	106
Zerurat igo da	107
Sorterria	108
Eneko gazteari	109
Bakezko loreak	110
Zoin maite zaitugun	111
Etienne Salaberry apez jauna	112
Gorets dezagun eliza	114
Omen ditake	116
Ttiti bertsularia	118
Urruñan, Lizarragan	119
Mende erdi bat	121
Gora Donibane	122
Alegeraki gira	123
Pilota jokua	124
Pilota	125
Ipar haize xorrotxa	127
Itsas haizea	128
Zorionak bioi	129
Amatxi Anttoine	130

Bi bihotz	131
Erramon ginen	132
Irratian	133
Zorionak, Helen	139
Espiritu saindua	140
Izar bat	141
Zorionak	143
Bidarraiko aingerua	144
Prosa errimatua	145
Eguberrietako ipuina	149
2) Bertsulari sariketak – txapelketak	
Donostian 1968ko otsailaren 4an eta 11n	157
3) Probintziarteko txapelketa	
Leitza, 1970.04.26	159
Bergara, 1970.05.03	164
Gernika, 1970.05.10	170
4) Euskal Herriko Bertsulari Txapelketa nagusia 1979	
Arrasate, 1979.12.23	175
Gernika, 1979.12.30	179
Donostia, 1980.01.06	181
5) Euskal Herriko Bertsulari Txapelketa nagusia 1982	
Oiartzun, 1982ko azaroa	195
Durango, 1982.11.28	205
6) Han-hemenka, jaialdietan jasoak	
Urruña, 1963	215
Uztaritze, 1964	216
Urruña, 1964	218
Urruña, 1965	226
Aiherra, 1972	235
Donibane Lohizune, 1975	239
Urepele, 1976	241

Zestoa, 1977	249
Hernani, 1977	255
Bergara, 1978	256
Ahetze, 1978	260
Gernika, 1978	264
Urepele, 1978	264
Zestoa, 1979	267
Etxahunen hileta, 1979	272
Urepele, 1979	273
Zornotza, 1980	274
Belok, 1980	278
Urruña, 1981	282
Usurbil, 1981	284
Oiartzun, 1981	286
Urepele, 1981	287
Donostia, 1982	290
Ahetze, 1982	291
Sara, 1983	295
Donostia, 1984	296
Sara, 1985	297
Urepele, 1986	303
Parise, 1987	304
Banka, 1987	305
Muxika, 1987	305
Baiona, 1988	310
Ondarroa, 1988	312
Donostia, 1989	315
Bilbo, 1989	315
Sara, 1990	316
Aiherra, 1990	317
Sara, 1991	321
Andoain, 1991	321
Hernani, 1991	322

Urepele, 1991	323
Baigorri, 1992	325
Sara, 1992	328
Lesaka, 1992	328
Urepele, 1993	329
Donostia, 1995	330
Urepele, 1996	332
Donostia, 1997	333
Arrangoitze, 1998	336
Donostia, 2000	338
7) Omenaldiak	
Urruñan, 1982an	345
Donostian, 1983an	348
Donibane Lohizunen, 1995ean	371
Mattin eta Xanpuni	375
8) 2002.01.17: Xanpun hil da!	
Hileta elizkizuna	381
Jean Louis Davanten sonetoa	382
Pierre Troundayk Bordeletik	383
Fermin Mihurak <i>Azkaine</i> aldizkarian	384
Gogoan zaitugu, Xanpun	385

Auspoaren azken liburuak:

- 294 Manuel lasarte
Plaza-gizonak
- 295 Nikolas Zendoia
Egan dijoa
- 296 Basarri
Bat-bateko bertsoak
- 297 Pepe Artola
Ustez laguna detan
- 298 Mattin eta Mari Treku
Mattin bertsularia
- 299 Antonio Zavala
Oiñez eta jakin miñez III
- 300 Antonio Zavala
Auspoaren auspoa IV
- 301 Antonio Zavala eta
Joxemari Iriondo
Mattin eta Xalbador
- 302 Joxemari Iriondo
Xanpun bertsularia



Xalbador nire jainko ttipia zen; eta Mattin ere arras istimatua nuen. Xalbador eta Mattinek bazituzten bi dohain eder. Mattini gai serioa emanda ere behar zion hark beti atera zerbait irrigarri. Xalbadorrek, berriz, edozer emanda ere mamia ateratzen zion, baita gai arina izanda ere. Baina bertsulari bezala, den bezala erran behar da gauza, Xalbador. Lagun bezala, denak istimatu duguna, xoragarria, irria frango eginarazten gintuena, Mattin izan da; bainan bertsulari bezala, Xalbador haundia izan da. Eta gero, egiazki Xalbador osatzen zuena, Xalbadorren barnatasunari azala ematen ziona, Mattin. Mattinek zirikatzen zuen, atarazkitzen ziozkan batzutan Xalbadorri erran nahiak baino gehio ere. Eta hola, biak elgar osatuz, hoiek bikotx haundia izan zirela uste dut. Bikotxa oso-oso!

Hemengo bertsularitza osatu dutenak, zinez. Xalbador bera osoa zen bakarka; bainan Mattin bat aldamenean zuelarik, gai serioa izanda ere, seriotasun puska ttipi bat kentzen zion hark ordainez berotasuna emanez. Mattin eta Xalbador, enetzat, azala eta mamia izan zirela nago.

Xiberoan izana naiz lauzpabost aldiz, Baztanen ere askotan –Elizondon, Erratzun eta abar–. Hemen, iparraidean, berriz, Donibane Garazin, Donapaleun, Hazparnen, Kanbon eta hola. Hegoaldean Donostian kantatu nuen lehenengo aldiz, Txapelketan, Xalbador zenak eskatuta. Hala ere, nik txalorik gehien jaso dudana lekua Bermeo izan da, nahiz eta gero bermeotar batzuekin hitz egiten hasi eta ez nuen tutik ulertzen haien euskara. Eta neure buruari galdatzen nion: zergatik txalotu ote naute, ulertu nautelako ala niri kurraia ematearren?



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-537-6

